NAFARROAKO
ESKOLA
KONTSEILUA
CONSEJO
ESCOLAR
DE NAVARRA

# Txostena
# Informe

# 2017
# 2018

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Nafarroako Eskola Kontseilua
Hezkuntzako Batzorde Nagusia
Consejo Escolar de Navarra
Junta Superior de Educación

# *Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Txostena*

# *2017-2018 ikasturtea*

**Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurak onetsia**
**2018ko abenduaren 19an**

**NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMARI BURUZKO TXOSTENA, 2017-2018 ikasturtea**

**Egilea**
Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia
Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernua

**Idazkaritza**
Mª Cruz Planchuelo Aranguren
Ana Reclusa Burgui
Mikel Merlo Arana

**Lege-gordailua**
LG NA 1662-2000

## 2017-2018ko NHSTko edukien aurkibidea


1. SARRERA ... 9

2.- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA ... 15
2.1. Alderdi demografikoak ... 18
2.1.1. Biztanleria eta haren osaera ... 18
2.1.2. Hiri eta landa-eremuetako biztanleria… ... 24
2.1.3. Altzerritarrak ... 27
2.1.4. Familia-egitura… ... 32
2.1.5. Eskola-adineko biztanleria… ... 36
2.2. Alderdi socioekonomikoak ... 39
2.2.1. Barne-produktu gordina ... 39
2.2.2. Sektore ekonomikoak ... 40
2.2.3. Lan-merkatua ... 42
2.2.4. Familien ekonomia… ... 54
Per capita BPGd-a ... 54
Diru-sarrerak eta banaketa ... 55
Pobrezia eta gizarte-bazterketa… ... 58
Hezkuntzan egindako gastua... ... 67
2.2.5. Berrikuntza eta ikerketa … ... 69
2.3. Alderdi soziokulturalak… ... 70
2.3.1. Ezaugarri orokorrak… ... 70
2.3.2. Nafarroako hizkuntzak… ... 72
2.4. Hezkuntza-alderdiak ... 81
2.4.1. Biztanleria helduaren ikasketa-maila… ... 81
2.4.2. Hezkuntzaren interesa alor instituzionalean… ... 88
Nafarroako Parlamentua ... 88
Nafarroako Arartekoa ... 88
2.4.3. Hezkuntzaren interesa alor sozialean. ... 88
Komunikabideak ... 88
Baliabide profesionalak ... 88

3.- HEZKUNTZAKO BALIABIDE MATERIALAK ETA LANGILEAK ... 89
3.1. Sailkapen funtzionala ... 89
3.2. Gastuaren analisia ... 92
3.3. Gastua exekutatzea ... 92
3.4. Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera ... 99
3.5. Sare pribatuko gastua ... 116
3.6. Konparatzeko datu orokorrak ... 120
3.7. Baliabide materialak ... 124
3.7.1. Baliabideak 0-3 urteetan ... 124

3.7.2. Ikastetxe publikoak. Araubide orokorreko irakaskuntzak .............................. 125
Ikastetxe eta unitate-kopuruaren oinarrizko datuak ...................................... 125
Azpiegiturak hobetzeko programak ............................................................... 128
Ekipamenduak ............................................................................................... 131
3.7.3. Itunpeko ikastetxe pribatuak. Araubide orokorreko irakaskuntzak ................ 132
Ikastetxe eta unitate-kopuruaren oinarrizko datuak ...................................... 132
3.7.4. Itundu gabeko ikastetxe pribatuak. Araubide orokorreko irakaskuntzak ........ 134
3.7.5. Araubide bereziko irakaskuntzako ikastetxeak ............................................. 135
Arte ikasketak ............................................................................................... 135
Hizkuntza-irakaskuntzako zentroak ............................................................... 136
3.7.6. Zerbitzu osagarriak ....................................................................................... 136
Eskola-garraioa ............................................................................................... 136
Eskola-jantokiak ............................................................................................. 137
3.8. Hezkuntza-arloko langileak ................................................................................ 137
3.8.1. 0-3 urtekoekin diharduten langileak… ........................................................... 137
3.8.2. Ikastetxe publikoetako irakasleak ................................................................. 138
Plantillaren bilakaera. Datu orokorrak ........................................................... 138
Irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea, mugikortasuna eta espezialitate berriak eskuratzea……… ....................................................... 142
Irakasleen administrazio araubidepeko kontratazioak. .................................. 143
Irakasleen ordainsarien bilakaera .................................................................. 146
Administrazioko eta zerbitzuetako langileak .................................................. 147
Enpresa erakundeak eta sindikatuak ............................................................. 147
Lan-osasuna ................................................................................................... 148
3.8.3. Itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasleak .................................................... 150
Irakasle-plantillen bilakaera. ........................................................................... 150
Soldata-taulak ................................................................................................ 151
Empresa erakundeak eta sindikatuak ............................................................ 152
3.8.4. Itunpekoak ez diren ikastetxe pribatuetako irakasleak .................................. 153
Irakasle-plantillen bilakaera ........................................................................... 153
3.8.5. Irakasleei buruzko ezaugarri interesgarriak ................................................... 154
Ikastetxeetako irakasleak ............................................................................... 154
Araubide orokorreko irakaskuntzak ............................................................... 155
Araubide bereziko irakaskuntzak .................................................................. 157
Helduentzako heziketa ................................................................................... 159
Irakasleen sexuaren aldagaia… .................................................................... 161
Irakasleen adinaren aldagaia ......................................................................... 163
3.8.6. Ratioen bilakaera .......................................................................................... 167

4.- HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA POLITIKAK ...................................................... 175
4.1. Hezkuntza Administrazioaren antolamendua .................................................... 175
4.2. Eskolako egutegia eta ordutegia ....................................................................... 176
4.3. Hezkuntza-sistemetako aurreko ikasketen baliokidetasunak ............................ 183

4.4. Irakaskuntzen antolamendua ..... 183
Haur Hezkuntzako lehen zikloa…… ..... 188
Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza………. ..... 188
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ..... 189
Batxilergoa……………. ..... 189
Lanbide Heziketa. ..... 189
Arte eta Musika ikasketak… ..... 189
Helduen irakaskuntza ..... 190
Kirol ikasketak. ..... 190
4.5. Hizkuntzak ikastea. ..... 191
Euskara……………. ..... 191
Atzerriko hizkuntzak… ..... 193
4.6. Inklusioa eta aniztasuna………. ..... 197
4.6.1. Aniztasunari Erantzuteko Plana ..... 197
4.6.2. Hezkuntzako ekitatea……………… ..... 199
Egoera soziokultural ahuleko ikasleak eta/edo berandu txertatutakoak ..... 199
Absentismoa eta ikasketak garaiz aurretik uztea ..... 200
Errefortzua, orientazioa eta hezkuntza-laguntza… ..... 201
Adimen-gaitasun handiko ikasleak… ..... 202
Ospitaleratutako ikasleak eta etxeko arreta……. ..... 202
Ikastetxe publiko eta itunduentzako languntza ekonomikoak ..... 203
Bekak eta ikasketa-laguntzak ..... 203
4.6.3. Irakaskuntza lanaren garapena ..... 205
4.6.4. Berrikuntza sareak ..... 206
4.7. Bizikidetza eta Baterako Hezkuntza … ..... 206
4.7.1. Antolaketa ..... 206
4.7.2. Araudia ..... 207
4.7.3. Helburuak ..... 208
4.7.4. Bizikidetzarako ekintzak ..... 210
4.7.5. Berdintasunerako ekintzak ..... 214
4.8. Kalitatea eta hobekuntza……. ..... 218
4.8.1. Eskola-zuzendaritza………………………… ..... 218
4.8.2. Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan…………………….. ..... 223
Ikastetxe publikoak……………… ..... 223
Ikastetxe itunduak……….. ..... 232
4.8.3. Irakasleen etengabeko prestakuntza ..... 232
4.8.4. Prestakuntza kontseiluak ..... 238
4.8.5. Hezkuntza-berrikuntzako proiektuak ..... 238
4.9. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak ..... 241
4.9.1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKTen) hedapena eta erabilera ..... 241
4.9.2. Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua ..... 242
4.9.3. IKTak curriculumean txertatzea eta hezkuntzaren eraldaketa digitala ..... 243

4.9.4. Konektagarritasuna ... 244
4.10. Lanbide Heziketaren Plan estrategikoa ... 246
4.11. Landa-eskola ... 249
Ezaugarriak ... 250
Etorkizunerako proposamenak ... 252
4.12. Beste administrazioak eta hezkuntza ... 254
Toki administrazioak ... 254
Ingurumena ... 257
Osasuna ... 258
4.13. Parte-hartzea ... 263
4.13.1. Nafarroako Eskola Kontseilua ... 263
4.13.2 Ikastetxeetako Eskola Kontseiluak. ... 265
4.13.3. Unibertsitatez kanpoko irakasleen Mahai Sektoriala ... 267
4.13.4. Gurasoen Mahaia ... 268
4.13.5. Ikasleen gurasoen elkarteak eta konfederazioak ... 269
4.13.6. Eskolatze Batzorde Nagusia ... 272
4.14. Europar Batasuneko hezkuntza-programak. ... 273

5.- ESKOLA-SISTEMAREN EMAITZAK ... 277
5.1. Hezkuntza-sistemara heltzea ... 277
5.1.1. Eskolateze-prozesuaren emaitzak ... 277
Bilakaera orokorra ... 277
Prozesuaren arauketa ... 277
5.1.2. Araubide orokorreko ikasketetan eskolaturiko ikasleak ... 278
Zifra orokorrak ... 278
Hizkuntza-ereduak ... 281
Haur Hezkuntzako lehen zikloa ... 284
Batxilergoa ... 285
Lanbide Heziketa. ... 286
Hezkuntza arloko berariazko premiak dituzten ikasleak. ... 290
Atzerritar jatorriko ikasleak ... 296
Helduen Hezkuntza ... 297
5.1.3. Araubide bereziko ikasketetan eskolatutako ikasleak ... 301
Hizkuntza-irakaskuntzako ikasleak. ... 301
Euskararen Gaitasun Agiria (EGA). ... 303
5.1.4. Arte-irakaskuntzako ikasleak ... 303
Musika ... 304
Dantza ... 304
Arte Plastikoak eta Diseinua ... 305
Diseinuko goi Mailako Arte Irakaskuntzak ... 305
5.2. Progresioa sistema arautuan ... 305
5.2.1. Lehen Hezkuntza ... 305
5.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. ... 310

Ikastalde arruntak ... 310
Curriculum egokituko programa (IEHP) ... 315
5.2.3. Batxilergoa ... 316
5.2.4. Unibertsitatean sartzeko probak ... 318
5.3. Errendimendu-emaitzak ... 320
5.3.1. Lehen Hezkuntzako 3.maila ... 320
5.3.2. Lehen Hezkuntzako 4.maila ... 321
5.3.3. Lehen Hezkuntzako 6.mailako etapa-amaierako ebaluazioa ... 336
5.3.4. IIP programaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 6.mailan ... 338
5.3.5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila ... 343
5.3.6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. Mailako etapa-amaierako ebaluazioa ... 361
5.3.7. PISA 201 Nazioarteko Azterlana ... 363
5.4. Hezkuntza-sistemaren emaitza konparatiboak ... 366
Egokitasun-tasa ... 366
Errepikapen-tasa ... 367
Eskola-uzte goiztiarraren tasa ... 369
DBHko graduatze-tasa ... 371
Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako graduatze-tasa ... 374
Goi-mailako heziketa duen 30-34 urte arteko biztanleria ... 375
5.5. Sariak eta sari bereziak ... 376

# I. SARRERA

Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2018ko abenduaren 19an izandako osoko bilkuran, aho batez onartu zuen 2017-2018 ikasturteko Nafarroako unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemari buruzko txosten hau. Horrela, bete egin du Nafarroako Eskola Kontseilua arautzen duen 12/1997 Foru Legean jasotako agindua, eta bere helburu nagusietako bat lortzen laguntzen du, gizarteari gure foru komunitateko hezkuntzaren errealitatearen deskribapen oso, egiaztatu eta fidagarri bat eskainiz.

Aurreko ikasturteetan bezala, txostenaren edizio honetan, ikuspegi sistemikoa hartu da azalpenerako. Ikuspegi honek gure hezkuntza sistemaren funtzionamendu konplexua eta dinamikoa hobeki ulertzen lagunduko du, sistemari egiten zaizkion ekarpenen konbinazio gisa deskribatuz hura. Horiek, barneko prozesu jakin batzuen bidez, erdietsitako emaitza edo lorpen bihurtzen dira, eta errealitate sozial eta ekonomikoan eragiten dute. Hori guztia testuinguru jakin batean gertatzen da: ekarpenetan eragiten duen, prozesuei eragiten dien eta emaitzak baldintzatzen dituen testuinguruan, hain zuzen. Emaitzek, gainera, aldatu egiten dute testuingurua bera. Hezkuntza sistema faktore anitzeko erlazio baten gisan aztertu behar da. Bertan, ekarpenak eraginkortasunez kudeatzen badira hezkuntza prozesu eta politika egoki eta iraunkorren bidez, eginahal horren emaitzak hobetu eginen dira, eta horrek, era berean, eragina izanen du, testuinguruaren baldintzak hobetuko dituelako.

Ikuspuntu honen abantaila da bat egiten duela hezkuntzako adierazle sistema gehienek hartutako oinarrizko eskemarekin. Beraz, errazago erkatzen ahal dira Nafarroako Foru Komunitateko datuak beste erkidego eta herrialde batzuetako hezkuntza errealitateekin.

Hona, hurrengo taulan, txosten honen egitura, modu eskematikoan azalduta.

**1. taula: 2017-2018 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Txostenaren egitura**

**HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA**
**II. kapitulua**

- Alderdi demografikoak
- Alderdi sozioekonomikoak
- Alderdi soziokulturalak
- Hezkuntza alderdiak

**EKARPENAK**
**III. kapitulua**

Hezkuntzako baliabide materialak eta langileak

- Gastuaren azterketa
- Gastua egikaritzea
- Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera
- Gastua sare pribatuan
- Konparatzeko datu orokorrak
- Baliabide materialak
- Hezkuntza arloko langileak

**PROZESUAK**
**IV. kapitulua**

Hezkuntza prozesuak eta politikak

- Hezkuntza administrazioa
- Eskolako egutegia eta ordutegia
- Ikasketen baliokidetasunak
- Irakaskuntzen antolamendua
- Hizkuntzak ikastea
- Inklusibitatea eta dibertsitatea
- Bizikidetza eta hezkidetza
- Kalitatea eta hobekuntza
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
- LHko plan estrategikoa
- Landa eskola
- Beste administrazio batzuk eta hezkuntza
- Parte hartzea
- EBko hezkuntza programak

**EMAITZAK**
**V. kapitulua**

Eskola sistemaren emaitzak

- Hezkuntza sistemarako sarbidea
- Progresioa sistema arautuan
- Errendimendu emaitzak
- Hezkuntza sistemaren emaitza konparatiboak
- Sariak eta sari bereziak

*Iturria: Nafarroako Eskola Kontseilua*

- ***Ebaluazioa eta hobekuntza proposamenak***

2017-2018 ikasturtean, aurreko bi ikasturteetan bezala, Nafarroako Eskola Kontseiluak gogoeta sakona egin du txosten honen egiturari buruz. Batzorde Iraunkorrak 2018ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, erabaki zen Txostena Berraztertzeko eta Hobetzeko Batzordea abiaraziko zela. Eta, hain zuzen ere, batzorde horrek bilkurak egin zituen urtarrilean, otsailean eta martxoan. Maiatzaren 16an, Batzorde Iraunkorrean jakinarazi zen lanak bukatu zirela, eta txostena igorri zela, zuzenketen prozesurako. Ekainaren 13an, jasotako zuzenketa guztiak kudeatu ziren, eta Kontseiluko kide guztiei igorri zitzaizkien. Ekainaren 27an, Kontseiluaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen sortutako testua.

Landu den eta 18/2018 Irizpen bihurtu den txostenaren testuak honako egitura hau du:

1. Informazioa kudeatzea.
2. Idazketa arauak.
3. Edukiak.
4. Egitura.
5. Prozesua kontrolatzea.
6. 2017-18 NHSTren lanketarako kronograma.
7. Zuzenketa eredua.

Nafarroako Eskola Kontseiluko kide hauek osatu zuten Batzordea:

- Miren Aranoa Astigarraga
- Pedro Mª Baile Torrea
- Fernando Mª Barainca Lagos
- Camino Bueno Zamarbide
- Aitor Etxarte Berezibar
- Jesús Mª Ezponda Iradier
- Juan Luis García Martín
- Mª Soledad Garjón López
- Jorge Lanchas Rivero
- Nekane Oroz Bretón
- Roberto Pérez Elorza
- Ignacio Toni Echeverría
- Amaia Zubieta Garciandía

Ekarpenak egiteko gonbidatutako pertsona adituen taldea honako hauek osatu zuten:

- Nerea Álvarez Arruti (Nafarroako Berdintasunerako Institutua)
- Juan Ardaiz Astrain (Hezkuntza Departamentua - Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua)

- Sagrario Arroqui Arandia (Hezkuntza Departamentua - Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala)
- Pablo Cebrián Jiménez (Nastat)
- Pilar Mayo Falque (Hezkuntza Departamentua - Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala)
- José Mª Pérez-Agote (NUP - Soziologia eta Gizarte Lana Saila)
- Marina Sagaseta López (Nastat)
- Juan Mª Sánchez Prieto (NUP - Soziologia eta Gizarte Lana Saila)
- Alfonso Carlos Vilches (NUP - Soziologia eta Gizarte Lana Saila)

## • *Egitura*

Txosten honen ezaugarriek 18/2018 Irizpenean finkatutako jarraibideak betetzea dute xede. Hori horrela, haren erronka zailenetako baten aurrean, artikulu zatiari dagokionez, hain zuzen ere, honako hau dio aipatutako Irizpenak: “zenbait irtenbide proposatzen dira NHSTren arazo nagusietako baterako; haren egiturarako, alegia. Gaur egungoaren moduko testu jarraitu bat eraikitzen segitu behar da, eta haren nabigagarritasuna areagotzen, funtsean dokumentu digitala baita”. Eta gogoan hartzeko moduko zenbait ekarpen egiten dira, besteak beste:

- Azken urteotan, azterketa faktore eta datu gehiago sartzeko joera etengabea izan da, Kontseiluko kideek argi eta garbi adierazi baitzuten hala egin behar zela. Hortaz, oro har, taulatan eta grafikotan aurkeztutako informazio kantitate handi batean oinarritzen da txostena.

- Aurreko txostenetan emandako informazioa nabarmen ugaritu denez, gorputz zentral bat eta atxikitako eranskinak bereizi behar izan dira. Gorputz zentral horretan, irakurgarritasuna hobetu nahi da, edukiak eta datuak modu orokorrago batean aurkeztuz. Handik bertatik sar gaitezke xehetasun datuak jasotzen dituzten eranskinetara, bi zatiak lotzen dituzten botoien bidez. Beraz, irakurleak berak erabakitzen ahal du zer sakontasunez irakurri nahi duen testua.

- Aurreko txostenetan, informazio bera aurkeztu da, ia sistematikoki, tauletan eta grafikoetan. Gure esperientzian oinarrituta, esaten ahal dugu, oro har, grafikoa nahikoa dela zenbakizko balioak jasoz gero, eta, horrela, taulak eranskinetan biltzen ahal direla, dokumentuaren gorputz zentrala arintze aldera.

- Txostenaren xedeetako bat da aztertzea zer egoeratan dauden landutako alderdiak Nafarroan, beste lurralde esparru batzuekin alderatuta. Alderdi bakoitzari buruzko datu guztiak zuzenean aurkeztuz gero, zaildu egiten ahal da txostenaren atal horretako analisia. Errazkiago irakurtzeko modukoa izan dadin, testu orokorraren gorputzean datu koadroak murriztea gomendatzen da, eta erreferentziazko komunitateen edo herrialdeen batez besteko balio orokorrak bakarrik jartzea; datu osoak, berriz, dagokion eranskinean jasoko lirateke.

- Jakin badakigu epe ertainean aurrerapausoak ematen joan behar dugula, beste era bateko dokumentu/aplikazio baterantz. Zalantzarik gabe, ikuspegi teknikotik, gero eta aukera handiagoak izanen ditugu txosten garbiago, dinamikoago eta eguneratuago bat eraikitzeko. Horrek NHST kudeatzeko moduari buruzko eztabaida ekarriko du; Nafarroako Eskola Kontseiluaren (NEK) dagokion Osoko Bilkurak landu eta onetsi behar izateari buruz, eta gerora egiten ahal diren datu baseen eguneraketa posibleei buruz.

Beste alde batetik, Irizpenean bertan, eta azken urteotako joerari jarraikiz, txostena egitean bete beharreko jarraibideak gogorarazten dira. Beste gai batzuen artean, honako proposamen hauek egiten dira:

- Txostena deskriptiboa izateko ahaleginak eginen dira, idazketa bera ulertzeko eduki jakin batzuk argitu behar direnean izan ezik.
- Sexu arrazoiengatiko bereizkeriarik gabe idatzi behar dira testuak.
- Termino oso espezifikoak ez erabiltzeko ahalegina eginen da, horiek zuzenak badira ere, dokumentua irakurtzea zailtzen ahal dutelako.
- Egoki irizten denean, aldagaien deskribapen labur bat jasoko da, hobeki uler dadin.

## • *Kontuan hartzekoak*

Txostenaren denborazkotasunak bat egiten du 2017-2018 ikasturtearen hasiera eta bukaera datekin. Nolanahi ere, zenbait datutan eta informaziotan, haien ezaugarri bereziek hala eskatzen dutelako, ikasturtea edo aipaturiko denbora mugak gainditzen dira erreferentzietan.

Horrela, adibidez, Nafarroako edo Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako xedapen arauemaileetan, aurreko ikasturteari buruzko arauak egoten ahal dira, halabeharrez, haien eraginpeko ikasturtea hasi baino lehen argitaratzen direlako.

Ohikoa den bezala, txostena aurreko urteetako erreferentziekin eta alderaketekin osatuta dago. Hala, eskainitako datu segiden bidez, konparatiboki aztertzen ahal da sistemaren zenbait adierazleren bilakaera. Txosten honetan, ahalegin nabaria egin da aurkeztutako urteko joerak bateratzeko, dagokion momentuan arrazoitzen den eran.

Bestetik, komeni da gogoraraztea gertatzen ahal dela testuko zati jakin batzuetan ematen diren irakasleen, ikasleen edo unitateen gaineko datuak bat ez etortzea, iturri desberdinetatik datozelako eta data desberdinetan erregistratu direlako; hori adierazita dago erreferentzia iturrietan.

Beste kasu batzuetan, informazioa eman duen iturriak berak erabiltzen dituen erreferentzia tenporalekin lotuta dago informazio hori. Hori gertatzen da, hain zuzen ere, Hezkuntza Departamentuak gauzatutako gastuei buruzko atalarekin, datu horiek Nafarroako kontu orokorretatik hartuak baitira eta kontu horien izaera urtekoa baita. Hala da Parlamentuaren eta Arartekoaren jarduerei dagokien atalean ere, bi erakunde horietako memorietatik jaso baitira datuak.

Inguruabar berezi batzuk direla eta, mugatuta dago Hezkuntza Ministerioko estatistika eta adierazleetatik datorren informazioa; txosten hau egiteko unean eskuragarri zeuden azken datuak, oro har, 2015-2016 ikasturteari buruzkoak ziren, eta, batzuetan, baita lehenagoko ikasturteei buruzkoak ere. Horrek zaildu egiten du Nafarroako erakundeek bertako lurraldeari dagokionez eskainitako datuak beste iturri interesgarri batzuekin erkatzea.

Duela zenbait urtetik hona, zabaldu egiten da diagnostikorako ebaluazioetan lortutako emaitzak (bai Nafarroako hezkuntza sistemak egindako ebaluazioetakoak, bai estatuko eta nazioarteko prozesuetakoak) era deskriptiboan azaltzen dituen atala. 2017-2018 ikasturteari dagokionez, honako maila hauetako ebaluazioak sartu dira: Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 6. mailak, PAI programako 6. maila, DBHko 2. eta 4. mailak eta 2018ko PISA.

## • *Iturriak*

Txostena egiteko, datuak biltzeko eta tratatzeko ahalegin handia egin behar izaten da, eta eginkizun horretan behar-beharrezkoa izan da Hezkuntza Departamentuaren lankidetza, haren Zuzendaritza Nagusi, Zerbitzu, Atal eta Bulegoena, hain zuzen ere. Eskerrak eman behar dizkiegu, baita ere, Nafarroako Parlamentuari, Arartekoari, NASTAT institutuari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Euskarabidea erakundeari, Ingurumen Departamentuari, Osasun Departamentuari, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, Nafarroako Berdintasunerako Institutuari, NUPi, guraso elkarteei, sindikatuei eta Corellako Arte Eskolari.

Aurkeztutako informazio guztia biltzeko, lehen aipatutako erakundeei zuzenean kontsulta egiteaz gainera, honako iturri hauek erabili dira bereziki:

- Ekonomia eta Gizarte Kontseilua
  http://www.ces.es/memorias

- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentua
  http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Actua/Educacion+Ambiental.htm

- Hezkuntza Departamentua
  https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/inicio

- Eurostat
  https://ec.europa.eu/eurostat

- Eurydice
  https://eacea.ec.europa.eu/national-policies/eurydice/home_es

- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua
  http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Salud/Organigrama/Estructura+Organica/Instituto+Navarro+de+Salud+Publica/Publicaciones/Planes+estrategicos/Promocion+de+la+Salud/?NRMODE=Published

- Estatistika Institutu Nazionala
  https://www.ine.es/

- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa
  http://www.educacionyfp.gob.es/educacion-mecd/eu/

  - Datuak eta zifrak
    http://www.mecd.gob.es/educacion/mc/redie-eurydice/datos-cifras-europeos.html

  - Redie
    https://www.mecd.gob.es/educacion/mc/redie-eurydice/sistemas-educativos/contexto.html

  - Estatistikak
    https://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/educacion.html

  - Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2017ko txostena
    http://ntic.educacion.es/cee/i2017cee/

- Nastat
  https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Instituto+Estadistica/

- Nafarroako Parlamentua
  http://www.parlamentodenavarra.es/eu

Bukatzeko, eskerrak eman behar dizkiegu, halaber, lan honen garrantziaz jabetzen diren eta hura egiten laguntzen duten pertsona eta erakunde guztiei, eta, bereziki, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide diren pertsonei.

Espero dugu txosten hau erabilgarria izatea gure hezkuntzaren errealitatea hobeki ezagutu nahi duten pertsona eta erakunde guztientzat, eta, berebat, ezagutza hori baliagarria izatea, hezkuntza hobetzeko ideiak eta ekimenak sustatzeko, partaidetza eta konpromisoa oinarri dituen testuinguru batean.



Aitor Etxarte Berezibar

# 2.- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA

Kapitulu honetan, hezkuntzaren testuinguruaren ikuspegi orokorra izateko parametroak aurkeztuko ditugu, hainbat mailatakoak. Testuinguruaren aldagaiek baldintzatu egin ahal dute hezkuntzak pertsonengan duen inpaktua, hezkuntzaren azpiegiturei eta politikei eragin, eta zerikusia izan hezkuntzaren emaitzetan. Gogoeta hori egiteko, gainera, gero eta garrantzi handiagoa daukaten beste hainbat faktore ere hartu behar dira kontuan, hala nola migrazioak, populazioen joan-etorriak eta ezagutza berriak etengabe garatu eta aplikatzea, edota faktore ekonomikoak (esaterako, merkatuen globalizazioa edo lan baldintzen prekarietatea). Begien bistakoa da, bestalde, esparru europarrean garrantzi handia dutela Europar Batasuneko kide diren herrialdeek hartzen dituzten erabakiek. Kapitulu honetan, lehenik eta behin, Europa 2020 Estrategia aurkeztuko dugu, eta, segidan, Nafarroako hezkuntza sistema eta bere bilakaera interpretatzeko testuinguruaren faktoreen multzo bat aztertuko dugu. Multzo horretan, faktore esanguratsu asko hartuko ditugu kontuan, baina ez guztiak.

**Europa 2020 Estrategia**

Europa 2020 Estrategiak (ET2020), dagoeneko jakina da, erantzun politiko bat eman nahi die Europar Batasuneko (EB) herrialdeetako arazo komunei, eta erantzun horrek hezkuntza politikari buruzko erabakiei ere eragiten die, noski. Hezkuntza eta Prestakuntza 2020 (ET2020) hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko europar lankidetzarako esparru estrategikoa da, eta bere aurrekarian (ET2010) oinarritzen da. Hori dela eta, Nafarroako Hezkuntza Sistemak azken urteotan plazaratu dituen txostenetan, Europako testuinguruari buruzko erreferentziak ere badira aztertutako parametroei dagokienez, Espainiakoekin eta Nafarroakoekin alderatuta.

Europako Kontseiluak ET2020ren helburuak zehaztu zituen. Helburu horiek EBko herrialde guztietarako erreferentzia esparrua ezartzen dute, eta, ondorioz, baldintzatu egiten dituzte estatuetan eta autonomia erkidego eta eskualdeetako hezkuntza administrazioetan garatzen diren hezkuntza politikak.

Hauek dira Europako Kontseiluak zehaztu zituen ET2020ren hezkuntzako helburu estrategiko nagusiak:

1. Etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna egi bihurtzea.
2. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea.
3. Ekitatea, kohesio soziala eta herritartasun aktiboa sustatzea.
4. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan sormena eta berrikuntza sustatzea, enpresa-espiritua barne..

Esparru estrategiko horrek hainbat printzipio ditu irizpide. Horietako bat hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorreko europar lankidetza da, etengabeko ikaskuntzaren ikuspegi integratu batekin, horretarako koordinazio metodo irekia erabiliz eta ukitutako sektoreen arteko sinergiak garatuz.

Estatu kideek eta Batzordeak lankidetzan aritu nahi dute prozesua zuzendu, bultzatu eta ebaluatzeko orduan, bai eta emaitzak aztertzean ere. Hezkuntza eta prestakuntzaren alorreko europar lankidetzak sektoreartekoa eta gardena nahi du izan, eta horrekin harremana duten esparru politiko eta alderdi interesdun guztiak bildu nahi ditu.

Hezkuntzaren alorreko europar lankidetzaren lan metodoak eraginkorrak eta malguak izan daitezen, esparruak hainbat lan ziklo ezartzen ditu, 2020ra arte. Ziklo bakoitzean, alor jakin batzuk lantzen dira, helburu estrategikoetan oinarrituta.

Aldi berean, herrialdeek neurriak hartu behar dituzte, helburu estrategikoak betetzeko eta Europako erreferentziazko balioak lortzen laguntzeko. Ziklo bakoitza amaitzean, Kontseiluak eta Batzordeak txosten bateratu bat idazten dute, helburu estrategikoak betetzeko bidean egindako aurrerapen orokorrak ebaluatzeko xedez. Txosten horiek egiteko oinarria estatu kideek prestatutako txosten nazionalak izaten dira, bai eta eskura dauden informazio eta datu estatistikoak ere. Gainera, hurrengo ziklorako lehentasunak ezartzeko ere balio dute.

**ET2020 estrategiaren eguneratzea**

ET2020 Esparruak Europa 2020 Estrategiaren helburuak lortzen lagundu nahi du 2012az geroztik; horregatik, eguneratu egin ditu haren laneko lehentasunak, tresnak eta egitura. ET2020 esparru estrategikoa 2015. urtean heldu zen bere erdibidera. Hori horrela izanik, Kontseiluak eta Batzordeak ebaluatu egin zituzten helburu orokorrak eta adostutako lehentasunak lortzeko aurrerapenak. Orduz geroztik, estatuek beharrezkotzat jo zituzten neurriak Hezkuntza Batzordearen bidez bideratu dira.

Honela laburbiltzen dira:

1. ET2020 esparru estrategikoaren lan zikloa bost urtera luzatu behar da, Europa 2020 Estrategia guztiarekin hobeto koordinatzeko.
2. Lehentasun gutxiagotan jarri behar da arreta, horrek balio erantsi handia emanen bailioke Europari.
3. EBn eskuragarri dauden finantza tresnak (esaterako, Erasmus+ eta Gazte Bermea) eraginkortasun handiagoz erabili behar dira.
4. Indartu egin behar da hezkuntzaren eta prestakuntzaren sektorearen eta enplegu politiken sektorearen arteko lankidetza.
5. Hezkuntza ez da lan munduan sartzeko gaitasuna hobetzera mugatu behar; era berean, garapen pertsonala eta herritartasun aktiboa ere sustatu behar ditu.

Kontseiluak eta Batzordeak 2015eko azaroan argitaratu zuten beren txostena, eta hiru ondorio estrategiko nagusi aurkeztu zituzten:

1. Baliozkoa da maila guztietako hezkuntza eta prestakuntza biltzen dituen esparru bateratua, eta oraindik ere badago ikaskuntzaren esperientzien egungo malgutasun eta iragazkortasuna mantentzeko beharra.
2. 2009an formulatutako lau helburu estrategikoek baliozko izaten jarraitzen dute, baina jarduteko ikuspuntua birdefinitu beharra dago, premiazko erronka ekonomikoak eta enpleguarekin lotutakoak jasotzeko. Gainera, zehaztu egin behar da hezkuntzari zer egitea dagokion ekitatea eta integrazioa sustatzeko, eta, halaber, Europako balio komunak, kultura arteko gaitasunak eta herritartasun aktiboa transmititzeko.
3. ET2020 estrategiak ekarpen garrantzitsua egiten dio EBren estrategia orokorrari enpleguaren, hazkundearen eta inbertsioaren alorretan. Horren harira, proben oinarria eta erreformaren erronken inguruko elkarrekiko ikaskuntza indartu behar dira, bai eta esparruak herrialde bakoitzean duen garrantzi espezifikoa ere.

Hori guztia aintzat hartuta, 2020ra arteko lankidetza bideratzea erabaki zuten, lan zikloa 3 urtetik 5 urtera luzatuta. Taula honetan gaiari buruzko ikuspegi historikoa azaltzen da.

**2. taula: ET2020ren lehentasunezko alor eta esparruak**

| ET2020ren Helburu estrategikoetan oinarritutako lehentasunezko alor eta esparruak lan zikloetan zehar | | | |
|---|---|---|---|
| Helburu estrategikoak | Lehentasunezko alorrak<br>2009/2011 zikloa | Lehentasunezko alorrak<br>2012/2014 zikloa | Lehentasunezko alorrak*<br>2015/2020 zikloa |
| Etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna egia bihurtzea | Etengabeko ikaskuntzari buruzko estrategiak | Etengabeko ikaskuntzari buruzko estrategiak | 1.- Kalitate altuko ezagutza, gaitasun eta eskumen egokiak, etengabeko ikaskuntzaren bidez eskuratutakoak eta ikaskuntzaren emaitzetan ardaztutakoak, enplegarritasunaren, berrikuntzaren herritartasun aktiboaren eta ongizatearen alde<br><br>2.- Hezkuntza inklusiboa, berdintasuna, ekitatea, diskriminaziorik eza eta gaitasun zibikoen sustapena<br><br>3.- Hezkuntza eta prestakuntza irekiak eta berritzaileak, aro digitalean guztiz txertatutakoak<br><br>4.- Laguntza sendoa irakasleentzat, prestazaileentzat, ikastetxeko zuzendarientzat eta hezkuntzako gainerako langileentzat<br><br>5.- Gaitasun eta titulazioen gardentasuna eta onarpena, ikaskuntza eta laneko mugikortasuna errazteko<br><br>6.- Hezkuntza-eta prestakuntza-sistemen inbertsio jasangarria, kalitatea eta eraginkortasuna |
| | Kualifikazioen Europako esparrua | Europako erreferentzi-tresnak | |
| | Ikaskuntzaren mugikortasunaren handitzea | Mugikortasuna ikaskuntzan zehar | |
| Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea | Hizkuntzak ikastea | Oinarrizko gaitasunak (irakurtzea eta idaztea, matematikak, zientzia eta teknologia) eta hizkuntzak | |
| | Irakasle eta hezitzaileen garapen profesionala | Irakasleen, hezitzaleen eta irakasleetako arduradunen garapen profesionala | |
| | Gobernamendua eta finantzaketa | Goi-mailako hezkuntza modernizatzea eta hirugarren mailako hezkuntzako titulazioen kopurua handitzea | |
| | Irakurketako, matematiketako eta zientzietako oinarrizko gaitasunak | Lanbide Heziketaren egokitasuna eta erakargarritasuna | |
| | Enplegu berrientzako kualifikazio berriak | Finantzaketa eraginkorra eta hezkuntza | |
| Ekitatea, kohesio soziala eta herritartasun aktiboa sustatzea | Hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uztea | Eskola uztea | |
| | Eskolaurreko hezkuntza | Lehen haurtzaroko hezkuntza eta zainketa | |
| | Migratzaileak | | |
| | Hezkuntza-premia bereziko ikasleak | Ekitatea eta aniztasuna | |
| Sormena eta berrikuntza sustatzea hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparru guztietan, enpresa-espiritua barne | Zeharkako gaitasun giltzarriak | Akordioak enpresekin, ikerketa-erakundeekin eta gizarte zibilarekin | |
| | Berrikuntza sustatzen duten erakundeak | Zeharkako gaitasun giltzarriak, ekintzaileetzari buruzko irakaskuntza, alfabetatze elektronikoa, alfabetatze mediatikoa eta ikaskuntza-eremu berritzaileak | |
| | Enpresa-munduaren eta hezkuntza, prestakuntza eta ikerketaren maila eta sektoreen arteko akordioa | | |

** Helburu estrategikoak oraindik ere egokiak diren arren, lehentasunezko eremuak seira mugatu dira ziklo honetan. Horietako bakoitzak helburu estrategiko bat edo gehiago betetzen laguntzen ahal du 2020ra bitarte. Batasuneko kideek hautatzen dute zehazki zein lan arlotan eta zein lankidetza eremutan hartu nahi duten parte, beren lehentasunen arabera.*
*Iturria: Eurydice España-REDIE*

Planteamendu estrategiko horren inplikazioek lehentasunezko jarduketen multzo berri baterantz bideratzen ahal dituzte hezkuntza jarduerak. Argi dago etengabeko hobekuntza, prestakuntza, ebaluazioa eta kontu-ematea, bai eta kudeaketaren eta emaitzen gardentasuna ere, besteak beste, lagungarri izan beharko liratekeela hezkuntzako eragile guztientzat, sistemaren kudeaketa orokorra hobeki koordinatzeko eta hobetzeko, eta horrek eragina izanen duela dagokion administrazioek (tartean, Nafarroako Foru Komunitateak) hezkuntza politikaren arloan hartzen dituzten erabakietan.

## *2.1. Alderdi demografikoak*

Biztanleriarekin harremana duten adierazleek oso garrantzi handia daukate irakaskuntza antolatzeko orduan; horregatik, beharrezkoa da haien azterketa egitea.

### *2.1.1. Biztanleria eta haren osaera*

Hezkuntza politiketan garrantzi erabakigarria duten aldagaiak honako hauek dira: herrialde edo eskualde bateko biztanleria, horren guztizko kopurua, lurraldean duen banaketa geografikoa, adin-piramidea, epe jakin bateko migrazio-fluxuak eta datu horien ondorengo urteetako proiekzioak. Aldagai horiek zuzeneko eragina dute plangintzan, erabili beharreko baliabideetan eta horiek banatzeko moduan.

**Biztanleriaren tamaina**

2018ko urtarrilaren 1ean, 512.596.403 pertsona bizi ziren EB-28n. Iazko datuekin alderatuz, 1.074.718 pertsonako hazkundea egon da. Dinamika hori, baina, ez da berdina estatu eta eskualde guztietan; izan ere, badira hazkunde handia duten herrialde batzuk, egonkor mantentzen diren beste zenbait eta atzera egiten ari direnak ere. Hazten ari diren herrialdeen artean hauek dira aipagarriak: Erresuma Batua, Alemania, Frantzia, Espainia eta Suedia. Biztanleriak behera egin du herrialde hauetan: Errumania, Italia, Bulgaria, Kroazia, Lituania, Grezia, Hungaria, Portugal eta Letonia.

**1. grafikoa: EBko biztanleriaren bilakaera**




*Iturria: Eurostat*

Aldaketa demografikoak EBn oso garrantzitsuak izaten ahal dira hurrengo hamarkadetan. Etorkizunerako joerei buruzko eredu gehienen arabera, emankortasun-maila baxuen eta bizitza-luzera handiagoaren eraginez, EBko biztanleriak zahartzen jarraituko du. Nahiz eta barne-migrazioak eragin handia duen EBko biztanleriaren dinamikan, herrialde askotako herritarrak zahartzeko joera migrazioak soilik aldatzea oso zaila izanen da.

Zahartzearekin loturiko ondorio ekonomiko eta sozialek ondorio larriak sortzen ahal dituzte Europan. Adibidez, emankortasun-tasa baxuak ikasle kopurua murriztea eraginen du; era berean, lanerako adinean dauden pertsona gutxiago izanen dira, bai eta adin aurreratuko pertsonen proportzio handiagoa ere. Aldaketa demografiko horiek gobernuen hainbat ahalmenetan eraginen dute, besteak beste, sarrera fiskalak areagotzeko ahalmenetan, baita beren finantzak orekatzeko eta zerbitzu egokiak eskaintzeko ahalmenetan ere.

Erronka demografiko handienei aurre egin beharko dieten eremuak, oro har, eskualde periferikoak, landa-eskualdeak eta eskualde postindustrialak izanen dira, bertako biztanleriak behera egin baitezake. Aldaketa demografikoaren lurralde-hedadura ondorengo fenomenoen bidez egiaztatzen ahal da:

- EBren ekialdean dauden estatu kide askotan -2004az geroztik EBn daudenetan- biztanleria behera egiten ari da;
- alde handiak daude Mediterraneoaren arroan dauden eskualdeen eta biztanleria hain zaharkitua ez duten EBko iparraldean eta mendebaldean dauden eskualdeen artean;
- hiri-eskualde gehienetako biztanleriak gora egiten jarraitzen du; landa-eremu askotako biztanle kopurua, ordea, beherantz doa;
- estatu eta eskualdeetako hiriburuak eta inguratzen dituzten eskualdeak hazten ari dira, lanerako aukera gehiago eskaintzen dituztelako;
- eskualde mailako desberdintasunak daude eta gizarte kohesioan eragina izaten ahal dute; esaterako, Alemania eta Turkian (ekialdeko eta mendebaldeko eskualdeen artean), edo Frantzia, Italia eta Erresuma Batuan (iparraldeko eta hegoaldeko eskualdeen artean).

Espainian, 2018ko urtarrilaren 1ean, 46.659.302 biztanle zeuden; hau da, urtebete lehenago baino 132.263 biztanle gehiago. Termino erlatiboetan, biztanleriak %0,28 egin zuen gora eta joera horretan jarraitzen du 2016an hazten hasi zenetik, 2012 eta 2015 artean behera egin ondoren.

Espainiar nazionalitateko pertsona kopuruak behera egin zuen 20.337 pertsonetan, saldo begetatibo negatiboaren ondorioz nagusiki. Biztanleria atzerritarrak, aldiz, gora egin zuen 152.600 lagunetan, kanpoaldearekin izandako migrazio saldoa dela eta.

2017an, Espainiak 164.604 laguneko migrazio saldo positiboa izan zuen. Immigrazioak %28,4 egin zuen gora eta emigrazioak %12,4, aurreko urtearekin alderatuta. Espainiar nazionalitateko pertsonen kasuan, migrazio saldoa -9.627 pertsonakoa izan zen. Zifra hori ez da 2016koa (-27.252) bezain negatiboa. Pertsona atzerritarren migrazio saldoak %51,9 egin zuen gora 2017an, 174.231 pertsona arte. 454.424 pertsonek immigratu zuten eta 280.193k emigratu.

2017an autonomia erkidego hauetan egin zuen behera biztanleriak: Gaztela eta Leon, Extremadura, Asturias, Gaztela-Mantxa, Galizia, Aragoi eta Kantabria. Beherakada handienak Gaztela eta Leonen (–%0,70), Extremaduran (–%0,64) eta Asturiasen (–%0,64) erregistratu ziren. Gainerako autonomia erkidegoetan, ordea, gora egin zuen. 2018ko ekaineko EINen datuen arabera, Balear Uharteetan (%1,36), Madrilen (%1,13) eta Kanarietan (%1,03) erregistratu ziren igoera handienak.

**2. grafikoa: Biztanleriaren bilakaera Espainian eta Nafarroan**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Nafarroako Foru Komunitateak, 643.864 biztanlerekin, hazkunde txiki bat izan zuen 2017. urtean (3.527 pertsona).

**3. taula: 2017-2018ko bilakaera demografikoa. Espainia, Nafarroa**

| | Biztanleria 2018-1-1ean | Biztanleria 2017-1-1ean | 2017ko saldoak | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | Begetatiboa | Kanpoko migrazioa | Barneko migrazioa |
| Espainia | 46.659.302 | 46.572.039 | -31.245 | 164.604 | 0 |
| Nafarroa | 643.864 | 640.337 | -97 | 3.026 | 612 |

** Urtarrilaren 1eko behin-behineko datuak*
*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

1.erans kina

**Biztanleria, sexuaren eta adinaren arabera**

Erroldan inskribatu diren pertsona guztietatik %51,0 emakumezkoak dira eta %49,0, gizonezkoak. Espainiar nazionalitatekoen artean emakumeak dira nagusi (%51,1), atzerritarren artean, aldiz, gizonezkoen ehunekoa handiagoa da (%50,2).

Nafarroan, erroldan inskribatu diren pertsona guztietatik %50,5 emakumezkoak dira eta %49,5, gizonezkoak.

**3. grafikoa: Biztanleria, adin-taldearen eta sexuaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2018ko urtarrilaren 1a**




**Behin-behineko datuak*
*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*




**Behin-behineko datuak*
*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

**2.eranskina**

Adin-taldeen eta sexuaren arabera multzokatutako biztanleriak irudi egonkorra erakusten du azten urteotan eta zahartzen ari den gizarteari erantzuten dio; tarteko adinak dira nagusi (35-54), gazteenak gutxitu dira (0-9) eta zaharrenak areagotu.

2017an 391.930 pertsona jaio ziren Espainian, hau da, aurreko urtean baino 16.454 gutxiago, jaiotza-tasa 8,4koa izanik. Jaiotza kopuruak behera egin zuen autonomia erkidego guztietan. Nafarroan, urtean 5.895 jaiotza izatetik 5.745 izatera (-150 pertsona) igaro zen, 9,0ko jaiotza-tasarekin.

**4. taula: Jaiotza-tasa Europar Batasunean, Espainian eta Nafarroan**

| | 2000 | 2005 | 2010 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EB-28 | 10,6 | 10,4 | 10,7 | 10 | 10,1 | 9,9 |
| Espainia | 9,8 | 10,6 | 10,4 | 9 | 9,8 | 8,4 |
| Nafarroa | 9,6 | 10,5 | 10,7 | 9,4 | 9,6 | 9,0 |

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

**4. grafikoa: Jaiotza-tasa Europar Batasunean, Espainian eta Nafarroan**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala eta Eurostat*

3.erans
kina

2017an Espainiako biztanleriak gora egin zuen adin-talde hauetan: 10-24 urte, 40-79 urte eta 85 urtetik gora. Aitzitik, behera egin zuten 25 eta 39 urte bitarteko biztanleriak (-253.939 pertsona), 10 urte baino gutxiagokoak (-80.560 pertsona) eta 80 eta 84 urte bitartekoak (-26.372 pertsona).

Nafarroan joera antzekoa izan zen: biztanleria totalaren gorakada txikia (4.422), 5 urtetik beherakoen beherakada (-483) eta 85 urtetik gorakoen hazkundea (584).

EB, Espainia eta Nafarroako batez besteko balioak antzekoak direla egiaztatzen ahal da biztanleria adin-talde hauen arabera aztertuta: 0/14, 15/24, 25/49, 50/64, 65/79 eta 80 edo gehiago.

**5. grafikoa: EBko, Espainiako eta Nafarroako biztanleria, adin-taldearen arabera. 2017ko abenduaren 31**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala eta Eurostat*

4.erans
kina

**Bilakaeraren aurreikuspenak**

2017-2030 aldian, Europako herrialde eta eskualdeetan, bi izanen dira joera demografiko nagusiak: egonkortasuna zenbait kasutan (Alemania, Espainia eta Italia) eta biztanleriaren galera bestetan (Bulgaria, Polonia, Errumania...). Hazkunde demografikoa herrialde bakan batzuetan baino ez da aurreikusten (Frantzia, Irlanda, Suedia eta Erresuma Batua).

Nafarroan aurreikusitako bilakaera demografikoak erakusten du azken hamarkadan izandako %15eko hazkundetik biztanleriaren %0,1eko jaitsierara igaroko garela 2016-2031 epealdian, hau da, 637.002 biztanle izatetik 636.486 biztanle izatera.

Aurreikusitako jaiotzek behera egiteko joera izanen lukete. 2018an, 5.505 jaiotza izan dira eta, EINen datuen arabera, 2030ean, 5.120 jaiotza egonen lirateke.

**6. grafikoa: Jaiotzak Nafarroan. 2018-2030erako proiekzioak**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Jaiotza kopuruak behera egiten jarraituko du autonomia erkidego guztietan datozen urteetan, 2009an hasitako joerari jarraikiz. Hortaz, 2016 eta 2030 artean 5,3 milioi jaiotza inguru izanen dira, aurreko 15 urteetan baino %22 gutxiago. Antzemandako bilakaera demografikoak jarraituko balu, biztanleriaren galera autonomia erkidego gehienetara zabalduko litzateke datozen urteetan.

Urte horietan aurreikusten da Nafarroako biztanleria ez dela kopuruz handituko, eta erkidego gehienetan biztanleriak behera eginen duela. Beherakada erlatibo handienak Asturiasen (–%11,1), Gaztela eta Leonen (–%10,7) eta Galizian (–%8,5) erregistratuko lirateke. Aitzitik, biztanleriak gora eginen luke soilik Murtzian, Madrilen, Kanarietan, Balear Uharteetan, Katalunian, Ceutan eta Melillan.

**7. grafikoa: Proiektatutako hazkunde erlatiboa, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2016-2031**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

**5. taula: Biztanleriaren proiekzioak Europar Batasunean, Espainian eta Nafarroan. 2017-2030**

| | 2017 | 2020 | 2025 | 2030 |
|---|---|---|---|---|
| EB-28 | 511.698.062 | 515.591.288 | 520.260.661 | 523.827.302 |
| Espainia | 46.447.260 | 46.562.044 | 46.776.457 | 47.110.106 |
| Nafarroa | 637.456 | 638.091 | 637.517 | 636.620 |

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala eta Eurostat*

**5.eranskina**

### *2.1.2. Hiri eta landa eremuetako biztanleria*

Biztanleria hirietan edo landa eremuetan kokatua dagoen, oso ezberdinak izaten dira fenomenoak, beharrak, zerbitzuen egiturak eta kostuak.

Espainian, 50.000 biztanle baino gehiagoko 143 udalerri daude; 20.001 eta 50.000 biztanle arteko 259; 10.001 eta 20.000 biztanle arteko 347; 5.001 eta 10.000 biztanle arteko 551, eta 1.001 eta 5.000 biztanle arteko 1.870. Gainontzeko 4.955 udalerrietan, mila biztanle baino gutxiago daude erroldatuta.

Espainian erroldatutako pertsonen %40,0 100.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi da. Autonomia erkidegoaren arabera, Madrilen (%71,9) eta Aragoin (%51,0) daude ehunekorik altuenak. Txikienak, ordea, Gaztela-Mantxakoak (%8,5) eta Extremadurakoak (%14,0) dira. Bestalde, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi da biztanleriaren %20,3. Ehunekorik altuenak Extremadura (%50,6), Gaztela-Mantxa (%43,9) eta Gaztela eta Leoni (%43,7) dagozkio, eta txikienak, berriz, Murtzian (%3,8) eta Madrilen (%5,5) jaso ditugu.

Biztanle gehien galdu dituzten eremuak landa eremuak dira, bereziki, duela urte batzuetatik despopulazio prozesuen eraginez kaltetutako udalerriak.

Lan-merkatuaren eta despopulazioaren artean erlazio zuzena dago: izan ere, lanerako aukera faltak biztanleen galera progresiboa eragiten du. Biztanleak galtzearen ondorioz, gero eta udalerri gehiagok dituzte mila biztanle baino gutxiago. Hala eta guztiz ere, udalerri horietako biztanleriaren pisua, gero eta txikiagoa da.

Aldea handiagoa da erroldatuta ehun pertsona baino gutxiago dituzten udalerrietan. Espainian, gaur egun, 1.286 udalerri daude egoera horretan. Beraz, guztizkoaren %16 dira; hala ere, guztira, 74.943 pertsona besterik ez dira. Alegia, biztanleria osoaren %0,16 baino ez.

## Landatasun-indizea

Landatasun-indizea 2.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren biztanleen ehunekoa da. Autonomia erkidego guztiak kontuan hartuz gero, biztanleria osoaren %5,9 bizi da landa-eremuan. Nabarmentzekoak dira, beren indize altua dela eta, Gaztela eta Leon (%25,5), Extremadura (%20,4) eta Aragoi (%16,1). Nafarroa, %13,2rekin, bosgarren postuan dago. Beste muturrean, Murtzia, Madril eta Kanariak daude, %1etik beherako datuekin.

**8. grafikoa: Landa eremuko biztanleen ehunekoa, autonomia erkidegoetan eta hiri autonomoetan. 2017**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

2.000 biztanle arteko udalerrietan bizi den Nafarroako biztanleriaren proportzioa egonkorra da, baita udalerri horietako 17 urtetik beherako biztanleria ere (13.000 gazte inguru). Errealitate horrek garrantzi handia du landa eremuko hezkuntza zerbitzuen etorkizuna erabakitzeko orduan.

**6. taula: Udalerriaren tamainaren arabera sailkatutako biztanleria (2.000 biztanle arteko udalerriak eta hortik gorakoak). Nafarroa**

| | Biztanleria guztira | | | 17 urtetik beherakoak | | | 17 urtetik beherakoak (%) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | 2.000 biztanle arteko udalerriak | 2.000 biztanletik gorako udalerriak | Guztira | 2.000 biztanle arteko udalerriak | 2.000 biztanletik gorako udalerriak | Guztira | 2.000 biztanle arteko udalerriak | 2.000 biztanletik gorako udalerriak |
| 2013 | 644.477 | 90.186 | 554.291 | 113.013 | 13.299 | 99.714 | 17,5 | 14,7 | 18,0 |
| 2014 | 640.790 | 86.995 | 553.795 | 112.894 | 12.809 | 100.085 | 17,6 | 14,7 | 18,1 |
| 2015 | 640.476 | 86.250 | 554.226 | 113.163 | 12.720 | 100.443 | 17,7 | 14,7 | 18,1 |
| 2016 | 640.647 | 87.871 | 552.776 | 113.272 | 13.109 | 100.163 | 17,7 | 14,9 | 18,1 |
| 2017 | 643.234 | 85.197 | 558.037 | 113.785 | 12.647 | 101.138 | 17,7 | 14,8 | 18,1 |

*Iturria: Nastat*

**9. grafikoa: Hiri eta landa eremuetako biztanleen ehunekoa. Nafarroa**




*Iturria: Nastat*

**10. grafikoa: Hiri eta landa eremuetako 17 urtetik beherako biztanleen ehunekoa. Nafarroa**




*Iturria: Nastat*

### *2.1.3. Atzerritarrak*

Hezkuntza sisteman, azken urteotan, faktore zehatz batzuek eragin handia izan dute; faktore horietako bat jatorriz atzerritarrak diren biztanleak dira. 2018ko urtarrilaren 1ean, Espainian inskribatutako biztanleriaren %9,82 atzerritarrak ziren. Nafarroan, ordea, %8,50 ziren garai berean.

2018ko urtarrilaren 1ean, Espainiako Etengabeko Erroldan inskribatutako pertsona guztien artean 41.999.325ek dute espainiar nazionalitatea (%90,18) eta 4.572.807 atzerritarrak dira (%9,82).

2017an, inskribatutako espainiarrak 20.174 gutxiago izan ziren (-%0,05); atzerritarrak, berriz, 146.611 gehiago (%3,2). Azken horien artean, EB-28ko estatuetakoak 2.709 gehiago izan ziren (%0,2); eta Europako Erkidegotik kanpokoak 143.902 gehiago (%5,1).

2000. urtean kopurua 923.879 izatetik 2011ko urtarrilaren 1ean 5.751.487 izatera igaro zen. Handik aurrera zifrak behera eginen du eta 2013an gertatuko da beherakadarik handiena (-522.751 pertsona). Joera horrek jarraitu eginen du ondorengo urteetan eta 2016koa izanen da zifrarik txikiena (-45.774).

2017an, ordea, atzerritarren kopuruak berriro ere gora eginen du, 146.611 pertsonetan. Kanpoaldearekin migrazio saldo positiboa izatearen (174.231) eta saldo begetatibo positiboaren (45.120) ondorioz gertatu zen gorakada hori; nazionalitate espainiarra eskuratzeko prozesuen ondorioz, berriz, murriztu egin zen (6.565).

**7. taula: Biztanleria, nazionalitatearen eta sexuaren arabera. Behin-behineko erroldako datuak. 2018ko urtarrilaren 1a**

| | | Espainia | | | Nafarroa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Guztira | Gizonak | Emakumeak | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| Guztira | | 46.572.132 | 22.832.861 | 23.739.271 | 643.234 | 318.671 | 324.563 |
| Espainiar nazionalitatea | Guztira | 41.999.325 | 20.527.756 | 21.471.569 | 588.581 | 290.601 | 297.980 |
| | % | 90,18 | 89,90 | 90,45 | 91,50 | 91,19 | 91,81 |
| Atzerriko nazionalitatea | Guztira | 4.572.807 | 2.305.105 | 2.267.702 | 54.653 | 28.070 | 26.583 |
| | % | 9,82 | 10,10 | 9,55 | 8,50 | 8,81 | 8,19 |

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Azpimarratzekoak dira datu hauek:

- Atzerritar gehien dituzten autonomia erkidegoak Balear Uharteak (%17,1), Katalunia (%14,2) eta Murtzia (%13,7) dira. Ostera, Extremadurak (%2,9), Galiziak (%3,4) eta Asturiasek (%3,9) dute atzerritarren proportziorik txikiena.

- 2017an atzerritarren kopuruak gora egin zuen autonomia erkidego guztietan Extremaduran (-217) izan ezik. Gorakada handienak Katalunian (38.350), Madrilen (29.730) eta Valentzian (18.683) izan dira. Termino erlatiboetan, gorakada handienak Nafarroan (%7,2), Euskadin (%5,7) eta Galizian (%5,6) izan dira.

- Etengabeko Erroldan inskribatutako atzerritarren artean, EB-28ko 1.780.698 biztanle daude. Horien artean ugarienak errumaniarrak (673.017), britainiarrak (240.934) eta italiarrak (206.066) dira. Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarren artean, marokoarrak (769.050), txinatarrak (215.748) eta kolonbiarrak (165.608) nabarmentzen dira.

- Nabarmentzekoa da herrialde hauetako biztanle kopuruaren hazkundea: Venezuela (+26.608), Kolonbia (+20.250) eta Maroko (+19.380). Jaitsiera absoluturik handienak,

berriz, jatorriz Errumaniakoak (-14.716), Ekuadorkoak (-6.765) eta Bulgariakoak (-3.939) direnek izan dituzte.

- Termino erlatiboetan, eta atzerritar kopuru handieneko nazionalitateen artean, 2017ko biztanle hazkunde handienak Venezuelako (%38,6), Hondurasko (%27,7) eta Kolonbiako (%13,9) biztanleenak izan ziren. Jaitsiera handienak, aldiz, Ekuadorko (-%4,8), Boliviako (-%3,2) eta Bulgariako (-%3,1) biztanleenak izan ziren.

- Herrialde-taldeei erreparatuz, gehiengoak EB-28ko biztanleak dira: atzerritar guztien %37,7. Ondoren, Afrikakoak daude: guztizkoaren %22,5.

**8. taula: Biztanleriaren jatorria Espainian eta Nafarroan. 2018**

| | Espainiatik kanpo jaiotako atzerritarrak | Espainian jaiotako atzerritarrak | Atzerrian jaiotako espainiarrak | Espainian jaiotako espainiarrak |
|---|---|---|---|---|
| Espainia | 4.051.373 | 520.681 | 2.149.559 | 39.937.688 |
| Nafarroa | 47.569 | 7.125 | 40.588 | 548.582 |

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

6.eranskina

**11. grafikoa: Biztanleriaren jatorria autonomia erkidegoetan* eta hiri autonomoetan. 2018**




** Ehunekoetan adierazita, guztizko datuak eranskinean daude*
*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Biztanleen %86,4 Espainian jaioa da, eta %13,6, atzerrian. Nazionalitateari dagokionez, Espainiako nazionalitatea daukatenen %94,9 Espainian jaio dira. Atzerritar nazionalitatea dutenen kasuan, %10,2koa da zifra hori.

**12. grafikoa: Biztanleriaren ehunekoa Espainian nazionalitatearen eta jaiolekuaren arabera. 2018**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Espainiarren eta Espainian bizi diren atzerritarren biztanleriaren piramideak adin-taldeen arabera alderatuta, ikusiko dugu txikiagoa dela atzerritarren adinaren batezbestekoa. 20tik 44 urte bitarteko biztanleak, zehazki, atzerritar guztien %50 baino gehiago dira, eta biztanleria autoktonoaren artean, berriz, %32.

Nazionalitatearen arabera, nabarmentzekoa da 16 eta 44 urte artekoen adin-taldea, hortxe ageri baitira espainiar nazionalitateko biztanleen eta atzerriko nazionalitateak dituztenen arteko alderik handienak; gainera, handiagoa da atzerritarren ehunekoa, espainiarrena baino.

**13. grafikoa: Espainiako biztanleriaren piramidea. Espainiar nazionalitatea eta beste nazionalitate batzuk. 2018ko urtarrilaren 1a**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Nafarroan atzerritarren ehunekoa (%9,05) batez bestekoaren (%10,11) azpitik dago. Atzerritar gehien dituzten autonomia erkidegoak Balear Uharteak (%17,06), Katalunia (%14,21) eta Murtzia (%13,67) dira. Ostera, Extremadurak (%2,93), Galiziak (%3,41) eta Asturiasek (%3,89) dute atzerritarren proportziorik txikiena.

**14. grafikoa: Atzerritarren ehunekoa etengabeko erroldan, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoen arabera. 2018**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Biztanleria atzerritarraren ehunekoaren bilakaerak gehieneko balioa jo zuen 2010ean Espainian (%12,2) eta Nafarroan (%11,2) eta hortik aurrera behera egin du azken urteetan, balio egonkorretara, %10 inguru Espainian eta %9 inguru Nafarroan.

**15. grafikoa: Atzerritarren ehunekoaren bilakaera. Espainia eta Nafarroa. 2000-2018**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

## Atzerriko biztanleria Nafarroan

Nafarroako atzerritarren kopuruak behera egin du azken urteotan; gehienbat bi arrazoirengatik: batzuek Espainiako nazionalitatea eskuratu dutelako eta beste batzuk beren sorlekura itzuli direlako.

Lehenengo arrazoia dela eta (espainiar nazionalitatea eskuratzea, alegia), biztanleriaren osaerak aniztasun handiagoa dauka, eta zailagoa egiten da nazionalitateari buruzko

estatistiken bidez aniztasun hori identifikatzea. Biztanleriaren aniztasunaren inguruan gehiago jakiteko, beste informazio batzuez baliatu behar dugu, esaterako, jaiolekuaz.

**9. taula: Nafarroan bizi diren biztanleak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean, nazionalitatearen eta jaiolekuaren arabera**

| | Nazionalitatea - Datu absolutuak | | | | Nazionalitatea - Ehunekoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Espainiarrak | | Atzerritarrak | | Espainiarrak | | Atzerritarrak | |
| | Espainian jaioak | Atzerrian jaioak | Espainian jaioak | Atzerrian jaioak | Espainian jaioak | Atzerrian jaioak | Espainian jaioak | Atzerrian jaioak |
| 2013 | 548.189 | 28.396 | 6.215 | 61.677 | 95,1 | 4,9 | 9,2 | 90,8 |
| 2014 | 548.392 | 32.848 | 5.994 | 53.556 | 94,3 | 5,7 | 10,1 | 89,9 |
| 2015 | 549.064 | 35.519 | 5.792 | 50.101 | 93,9 | 6,1 | 10,4 | 89,6 |
| 2016 | 549.173 | 36.648 | 5.867 | 48.959 | 93,7 | 6,3 | 10,7 | 89,3 |
| 2017 | 588.581 | 39.129 | 5.830 | 48.823 | 93,8 | 6,2 | 10,7 | 89,3 |
| 2018 | 548.582 | 40.588 | 7.125 | 47.569 | 93,1 | 6,9 | 13,0 | 87,0 |

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Migratzaile talderik handiena jatorria EBn dutenek osatzen dute. Bestalde, behera egin du Iberoamerikatik etorritakoen kopuruak; batik bat, Ekuadortik etorritakoenak. Aitzitik, nabarmentzekoa da Europa ekialdeko herrialde batzuetatik (Errumania eta Bulgaria) etorritako pertsonen kopuruak izandako gorakada, bai eta jatorriz Marokokoak direnenak izandakoa ere.

Datu horiek garrantzia dute hezkuntzaren plangintzan; etorkinen kolektibo bakoitzaren ezaugarri sozial, kultural eta linguistikoengatik, bereziki.

**16. grafikoa: Nafarroan bizi diren atzerritarren nazionalitate nagusiak. 2000-2017, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

7.eranskina

Aipatutakoez gain, badira beste atzerritar talde batzuk nahiko komunitate handiak osatzen dituztenak. Esate baterako, Peru, Dominikar Errepublika, Frantzia eta Argentina dituztenak

sorterri. Bestalde, atzerritarrak jatorri geografikoaren arabera taldekatuz gero, talderik ugarienak EBtik, Afrikatik eta Hego Amerikatik etorritakoak dira. Talderik txikienak, berriz, Ipar Amerikatik eta Ozeaniatik etorritakoak dira.

**10. taula: Nafarroan bizi diren atzerritarrak, jatorriaren arabera multzokatuta. 2018ko urtarrilaren 1a**

| Jatorria | Pertsona-kopurua |
|---|---|
| Europar Batasuna (Espainia kanpo) | 19.979 |
| Europako gainerako herrialdeak | 3.132 |
| Afrika | 17.679 |
| Ipar Amerika | 816 |
| Erdialdeko Amerika eta Karibea | 3.399 |
| Hego Amerika | 10.768 |
| Asia | 2.731 |
| Ozeania | 31 |
| Aberrigabeak | 46 |

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

### *2.1.4. Familia-egitura*

Azken urteotan, familia-egiturek funtsezko aldaketak jasan dituzte, Europar Batasunaren testuinguruan ikusten ahal diren mundu mailako gertakariekin bat etorriz.

Europarren bizimoduan elementu aipagarririk baldin bada bakarrik bizi diren pertsona kopuruaren gorakada da hori. Hein batean, hala hautatu dutelako bizi dira pertsona asko bakarrik. Alabaina, badaude beste arrazoi batzuk ere: batetik, gero eta dibortzio eta banaketa gehiago gertatzen dira; bestetik, biztanleria gero eta denbora gehiago bizi da –batik bat emakumeak–, eta, horren ondorioz, askok bakardadean ematen dute beren zahartzaroa.

**Europako etxebizitzak**

EBko etxebizitzen ia heren batean (%31,4) pertsona bakarra bizi da. Proportzio hori handiagoa da hirietan eta hiriburuetan, herrialdeetako batezbestekoaren gainetik daude.

Familien tipologian, bakarrik bizi direnen talde garrantzitsu bat alargunek eta dibortziatuek osatzen dute, berriz ezkondu ez direnak edo izatezko bikote bezala berriz erregistratu ez direnak. EBko biztanleriaren %13 inguru bizi da egoera horretan. Zehatzago aztertuta, ikusiko dugu EBko biztanleriaren %7 alargunduta dagoela, berriz ezkondu gabe edo izatezko bikote bezala berriz erregistratu gabe, eta biztanleriaren %5,9 dibortziatuta dagoela, berriz ezkondu gabe edo izatezko bikote bezala berriz erregistratu gabe.

Ezkondutako bikoteek osatzen dute familia-egitura ohikoena. Horrez gain, ikusten ahal da dibortzio kopurua hazi egin dela, ezkontzeko batez besteko adina atzeratu egin dela eta gero eta gazte gehiagok aukeratzen dutela bakarrik edo bikotean bizitzea. 2011n, EB-28ko familia guztien %71,2 ezkondutako bikoteek osatzen zuten. Izatezko bikoteek, ezkondu gabe batera bizi diren bikoteek eta guraso bakarreko familiek familien %28,8 osatzen zuten.

Gutxienez ondorengo bat zeukaten ezkondutako bikoteak familia guztien %33,2 ziren, eta haien ehunekoa askoz handiagoa zen ezkondu gabe elkarrekin bizi eta gutxienez haur bat zuten bikoteen ehunekoa baino (familia guztien %5,6, hain zuzen). Familia-egiturarik ohikoena ezkondutako bikotearena izanik ere, gero eta pertsona gutxiago bizi dira senar-emazteek eta haien seme-alabek osatutako familia nuklear tradizionaletan, gero eta gehiago direlako

erregistratutako izatezko bikoteak, ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteak eta guraso bakarreko familiak.

Horrela, aitarekin edo amarekin bizi zen 25 urtetik beherako haur bat edo gehiago zuten guraso bakarreko 15,5 milioi familia zeuden 2016an (familia guztien %11). EBko hiriburu askotan eta hiri garrantzitsu batzuetan, nahiko altua da guraso bakarreko familien proportzioa; familia horien ehunekoa baxuagoa izan ohi da landa-eremuan eta biztanleriaren dentsitate txikiagoa duten eskualdeetan. Laburbilduz, banaketa geografikoa ez da homogeneoa Europako eremu guztietan.

**17. grafikoa: Seme-alabak beren kargura dituzten etxebizitzen tipologia Europar Batasunean. 2016**




*Iturria: Eurostat*

**8.eranskina**

## Espainiako eta Nafarroako etxebizitza motak

2017an etxebizitzen batezbesteko kopuruak gora egin zuen (66.700 gehiago) Espainian, 18.472.800 arte. Etxebizitzaren batez besteko tamaina 2,49 pertsonakoa izan zen (aurreko urtean 2,50ekoa izan zen).

Etxebizitzarik ohikoenak bi pertsonak osatutakoak izan ziren 2017an; aurreko urteetan bezalaxe (guztizko kopuruaren %30,4). Pertsona bakarreko etxebizitzak zetozen ondoren (%25,4). Hala eta guztiz ere, kasu horietan bizi diren pertsonak biztanleriaren %10,2 baino ez dira.

Etxebizitzarik txikienak, pertsona bakarrekoak edo bikoak, ugaritu egin ziren berriro ere. Pertsona bakarrekoak izan ziren gehien ugaritu zirenak, %1,1 hain zuzen, 4.687.400 izateraino, hau da, etxebizitza guztien %25,4.

Bi eta hiru laguneko etxebizitzak %0,1 hazi ziren bakoitza. Halaber, bost pertsona edo gehiagoko etxebizitzak etxebizitza guztien %5,7 ziren. Batez besteko tamaina 5,28 pertsonakoa zen, eta biztanleriaren %12,1 horrelako etxebizitzetan bizi zen.

**Bikoteek osatutako etxebizitzak**

Ikusi dugun moduan, zuzenbideko edo izatezko bikoteen inguruan osatutako etxebizitzen kopurua izan zen ugariena 2017an: 10,3 milioi etxebizitza, seme-alabak dituzten edo ez dituzten bikoteez osatuak. Bikoteekin bizi diren seme-alaben kopuruari erreparatuz gero, Espainian seme-alabarik gabeko bikoteek osatutako 3,93 milioi etxebizitza zeuden, seme edo alaba bat zuten bikoteek osatutako 2,96 milioi etxebizitza, eta bi seme-alaba zituzten bikoteek osatutako 2,78 milioi etxebizitza. Hiru seme-alaba edo gehiagorekin bizi zen bikoteen kopurua 608.200ekoa zen.

Bikoteaz gain beste kide batzuk ere badituzten etxebizitzei erreparatuz gero, 2017an 10,9 milioi etxebizitzatan bikote bat bizi zen. Bikote bat baino gehiagoko etxebizitzak 11,3 milioi ziren.

Ezkondutako bikoteak guztizkoaren %85,4 ziren eta izatezko bikoteak %14,6 (horietako %70,9an bi bikotekideak ezkongabeak ziren). Ezkondutako bikote kopuruak %0,9 egin zuen gora eta izatezko bikoteenak %4,4.

Bizikidetzarako lege egoerari erreparatuz gero, izatezko bikote gehienak seme-alabarik ez dutenen artean sortzen dira (799.200), guztizkoaren %18,2. Bi seme-alaba, hiru edo gehiago dituzten bikoteen kasuan, ehuneko hori %10 ingurukoa da.

**Pertsona bakarreko etxebizitzak**

2017an 4.687.400 lagun bakarrik bizi ziren Espainian. Horien artean %41,8k (1.960.900) 65 urte edo gehiago zituen. Horietatik %71,9 emakumeak ziren (1.410.000). 65 urtetik beherakoek osatutako pertsona bakarreko etxebizitzei dagokienez, %59,9 gizonezkoek osatutakoak ziren eta %40,1 emakumezkoek osatutakoak (1.633.800 eta 1.092.700, hurrenez hurren).

2016ko batez besteko balioekin alderatuta, bakarrik bizi diren pertsonen kopuruak %1,1 egin zuen gora 2017an (+49.100). Adin-taldearen arabera, 65 urte edo gehiago dituzten pertsona bakarreko etxebizitzak %1,4 areagotu ziren eta 65 urtetik beherakoek osatutakoak %0,8.

Sexuaren arabera, emakumezkoek osatutako pertsona bakarreko etxebizitzek %1,0 egin zuten gora eta gizonezkoek osatutakoek %1,1. Egoera zibilari dagokionez, pertsona bakarreko etxebizitza gehienak ezkongabeez osatutakoak ziren gizonezkoen kasuan (guztizkoaren %58,3). Emakumezkoen kasuan, berriz, alargunak ziren gehienak (guztizkoaren %47,5).

Adinaren arabera, 85 urtetik gorako emakumeen %41,3 bakarrik bizi zen; gizonezkoen kasuan %21,9. Bakarrik bizitzeko joera desberdina da sexuaren eta adinaren arabera. Hori horrela, 64 urte artekoen artean joera hori handiagoa da gizonezkoen artean, baina 65 urtetik gorakoen artean gehiago dira emakumezkoak.

**Guraso bakarreko etxebizitzak**

Guraso bakarreko etxebizitzak, hau da, seme-alabak dituzten gurasoetako bakar batek osatutakoak, seme-alabak dituzten amek osatutakoak izan ohi dira kasu gehienetan. Hain zuzen ere, halakoa da guztizkoaren %83,0 (1.529.900; aitek osatutakoak, berriz, 312.600). Guraso bakarreko hiru etxebizitzatik bitan (%68,8), seme edo alaba bakarrarekin bizi zen gurasoa.

Guraso bakarreko etxebizitzen kopuruak %6,2 egin zuen behera 2016. urtearekin alderatuta. Seme-alabak eta amak osatutakoek %3,9 egin zuten behera eta aitak eta seme-alabek osatutakoek %16,4. Amak eta seme-alabek osatutako etxebizitzen %40,0tan, alarguna zen ama; %39,3tan, banandua edo dibortziatua zegoen; %14,2tan, ezkongabea zen, eta %6,5etan, ezkondua zegoen.

Adinari erreparatuz, ezkondu gabeko amak eta seme-alabek osatutako etxebizitzen %76,8tan emakumeak 35 urte edo gehiago zituen. Guraso bakarreko etxebizitzen heren batean (%34,0) gurasoak 65 urte edo gehiago zituen. %4,7tan gurasoak 35 urtetik behera zituen. Aitak eta seme-alabek osatutako etxebizitzen %13,2tan, gurasoak 45 urte baino gutxiago zituen. Amak eta seme-alabek osatutako etxebizitzen kasuan, berriz, ehuneko hori %24,4koa zen.

Aurrez adierazitako joerak Nafarroan ezagutzen direnen antzekoak dira, hemen ikusten ahal den moduan.

**18. grafikoa: Espainiako etxebizitza motak. 2017**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

**19. grafikoa: Nafarroako etxebizitza motak. 2017**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

9.eranskina

25 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiak aztertuz gero, ikusten da bikoteak (%77,5) askoz gehiago direla guraso bakarreko familiak (%22,5) baino, eta autonomia erkidegoen arteko banaketa oso heterogeneoa dela. Nafarroan ehuneko hori honela banatzen da: %81,9 eta %18,1, hurrenez hurren.

**20. grafikoa: 25 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien ehunekoa, familia motaren eta autonomia erkidego eta hiri autonomoaren arabera. 2017**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

10.eranskina

### *2.1.5. Eskola-adineko biztanleria*

Eskola-adineko biztanleria 0 eta 24 urte arteko pertsonek osatzen dute. Garrantzi gehien duen adierazle demografikoetako bat da, adin-tarte horretan sartzen baitira hezkuntza eskubide gehien dituzten pertsonak.

EBn, aniztasun handia dago guztizko biztanleriaren bilakaeraren eta adin-tarte horretako biztanleen arteko proportzioari dagokionez. EBko batez besteko balioa %26,5ekoa da, baina badira askoz ere gazteagoak diren herrialdeak, %30 inguruko ehunekoa dutenak; hala nola Zipre, Danimarka, Frantzia, Irlanda, Suedia eta Erresuma Batua. Espainia maila txikia duten herrialdeen artean dago (%24,7).

**21. grafikoa: 25 urtetik beherako biztanleen ehunekoa Europar Batasunean. 2017**




*Iturria: Eurostat*

11.eranskina

2017an, Espainiako biztanleriaren %24,7 zegoen 0-24 urte arteko adin-tartean. Adierazle horren baliorik txikienak Asturiasen (%18,4) eta Galizian (%20) jaso ditugu; handienak, berriz, Murtzian (%28,5) eta Andaluzian (%26,5). Nafarroan, eskola-adinean dagoen biztanleriaren ehunekoa, zentzu zabalean ulertuta, %25,7koa da.

**22. grafikoa: 0 eta 24 urte arteko biztanleriaren ehunekoa, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2018ko urtarrilaren 1a**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

12.eranskina

Dagoeneko esan den gisan, hezkuntza sistemen plangintzan ezinbestekoa da datozen urteetan eskolatze-adineko biztanleriak izanen duen bilakaeraren datuen proiekzioa aztertzea. EB-28n,

oro har, agertoki posibleak oso egonkorrak dira, grafiko honetan ikusten ahal denez. Oro har, biztanleria gazteenaren hazkunde aurreikuspenak (2017-2027), aurreko epealdikoekin (2006-2016) alderatuta, txikiagoak dira. Hauek dira salbuespenak: Eslovenia, Estonia, Letonia, Txekiar Errepublika eta Suedia.

**23. grafikoa: 14 urtetik beherako biztanleriaren hazkundearen bilakaera EBn. 2007-2031**




*Iturria: Eurostat*

Biztanleria gazteenaren bilakaerak ez du dinamika berdina jarraitzen autonomia erkidego guztietan 2017-2027 epealdirako. Biztanleriak gora eginen luke soilik Murtzian, Madrilen, Kanarietan, Balear Uharteetan, Katalunian eta Ceuta eta Melillan. Beherakada erlatibo handienak Asturiasen (–%11,1), Gaztela eta Leonen (–%10,7) eta Galizian (–%8,5) erregistratuko lirateke. Nafarroan, 25 urtetik beherakoen biztanleriak behera eginen du; 2001-2016 epealdian %25,22 izatetik, 2031n %24,03 bilakatuko litzateke.

**24. grafikoa: 14 urtetik beherako biztanleriaren hazkunde erlatiboaren bilakaera autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2007-2031**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Bestalde, aipatu behar dugu hezkuntza bizitza guztian zehar jasotzen den prestakuntza gisa ulertzen duen ikuspuntua ari dela gailentzen gaur egun. Ikuspegi hori eredu tradizionala baino malguagoa da, eta beste hezkuntza-premia batzuk azpimarratzen ditu; besteak beste, honako hauek: etengabeko prestakuntza, batik bat lanean ari direnena; eguneratze zientifiko eta teknikoa; hezkuntza sistema behar baino lehenago utzi zutenentzako bigarren aukerak; eta modu informalean edo laneko esperientziaren bidez lortutako kualifikazio profesionalak egiaztatzea. Horren harira, prestakuntza adinean dagoen biztanleria pertsonen bizitza aktibo guztira hedatzen da.

Ildo horretan, txosten honetan, helduen prestakuntzari buruzko atalean, Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuetan eta beste zentro edo programetan emandako lanerako eta etengabeko prestakuntzaren inguruko datuak ere jaso ditugu, esate baterako.

## *2.2. Alderdi sozioekonomikoak*

Alderdi sozioekonomikoak funtsezkoak dira hezkuntzaren testuingurua definitzeko orduan, haiek konfiguratzen eta lehenesten dituztelako jarduerak etengabe aldatzen ari diren gizartearen eta lan-munduaren beharren arabera, eta hezkuntzaren arloko inbertsioa modu egokiago batean egiteko aukera ematen dutelako. Txosten honek aldagai sozioekonomikoak definitzen dituzten hainbat faktore eskaintzen ditu, modu zehatzean, aipatutako hezkuntzaren testuingurua zentzu zabalean ulertu ahal izateko. Zenbait adierazle makroekonomikok eta horien denboran zeharreko bilakaerak Europako garai ekonomikoaren ezaugarri nabarmenak modu orokor batean testuinguruan kokatzen laguntzen dute.

**13.eranskina**

### *2.2.1. Barne-produktu gordina*

Barne-produktu gordina (BPGd) adierazle makroekonomiko bat da. Herrialde edo eskualde batek epe zehatz batean (normalean, urtebeteko epean) ekoizten dituen ondasun eta zerbitzuen diru-balioa neurtzen du. Gizarte baten ongizatea eta garapen materiala neurtzeko erabiltzen da barne-produktu gordina, beste adierazle batzuekin batera.

EBko BPGd-ren batez besteko balioa 2,4 hazi zen 2017an. Nafarroan %3 hazi zen. Balio hori Espainian epe horretan bertan erregistratutakoaren (%3,1) antzekoa da.

Aragoin (%3,6) erregistratu zen BPGd-aren hazkunderik handiena, Asturiasekin (%3,5) eta Madrilekin (%3,4) batera. Hazkunde txikiena erregistratu zuten eskualdeak Ceuta (%1,6), Melilla (%1,7) eta Errioxa (%1,8) izan ziren.

Biztanle bakoitzeko BPGd-ari erreparatuta, Madrilen erregistratu zen baliorik altuena (33.809 euro). Kopuru hori Espainiako batezbestekoa baino %35,2 altuagoa izan zen (24.999 euro). Aitzitik, Extremaduran erregistratu zen per capita BPGd-rik baxuena (17.262 euro), Espainiako batezbestekoa baino %30,9 baxuagoa.

2005-2018 epealdiko BPGd-aren bilakaeran eragin handia izan zuen 2007az geroztik bizitutako krisi larriak, baita gorabehera handiek eta atzetik etorritako ondorioek ere, hurrengo grafikoan ikusten ahal den moduan.

**25. grafikoa: Barne-produktu gordinaren bilakaera Europar Batasunean, Espainian eta Nafarroan**




*Iturria: Nastat*

**14.eranskina**

### *2.2.2. Sektore ekonomikoak*

Jardueraren indize orokorraren bilakaera adierazle nagusietan ere erregistratzen da; esate baterako, etxebizitzen gastuan, barne-eskarian eta esportazioetan.

**11. taula: Espainiako jarduera ekonomikoaren adierazleak. Urte arteko aldaketaren tasak. Bolumen metatua, erreferentzia: 2015-2018ko 1. hiruhilekoa**

| | 2015 | 2016 | 2017 | 1T 2018 |
|---|---|---|---|---|
| Azken kontsumoko gastua | 2,6 | 2,6 | 2,2 | 0,7 |
| Kapital finkoaren eraketa gordina | 6 | 3,1 | 3,1 | 0,8 |
| Ondasun eta zerbitzuen esportazioak | 4,9 | 4,4 | 4,4 | 1,3 |
| Ondasun eta zerbitzuen inportazioak | 5,6 | 3,3 | 3,3 | 1,3 |
| | | | | |
| Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | -2,9 | 3,4 | 3,4 | 3,7 |
| Industria | 5,5 | 2,4 | 2,4 | -0,9 |
| Eraikuntza | 0,2 | 2,5 | 2,5 | 2,1 |
| Zerbitzuak | 2,6 | 3,4 | 3,4 | 0,8 |
| | | | | |
| Barne-Produktu Gordina, merkatuko prezioetan | 3,2 | 3,2 | 3,1 | 0,7 |

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Ondoko taulan ikusten ahal da Foru Komunitateko adierazleen bilakaera.

**12. taula: Nafarroako hiruhileko kontabilitatea. Eskaintza eta eskaria. Barne-produktu gordinaren bilakaera. Bolumen metatuaren adierazleak. Erreferentzia 2008**

| Osagaiak | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|
| Azkeneko kontsumoko gastua | 3,1 | 3,2 | 3,3 |
| Etxeen eta ISFLSHen* azkeneko kontsumoko gastua | 3,2 | 3,3 | 3,4 |
| AAPPen** azkeneko kontsumoko gastua | 2,6 | 3,1 | 3,1 |
| Kapital-eraketa Gordina | 1,3 | 0,6 | 0,3 |
| Ekipamendu-ondasunak eta beste produktu batzuk | 1,5 | 0,7 | -0,1 |
| Eraikuntza | 1,0 | 0,4 | 0,9 |
| Existentzia-aldaketa | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| BARNEKO ESKARIA | 2,7 | 2,7 | 2,6 |
| Ondareen eta zerbitzuen esportazioak | 2,3 | 1,5 | 0,3 |
| Ondareen eta zerbitzuen inportazioak | 2,0 | 1,0 | -0,6 |
| KANPOKO ESKARIA | 0,2 | 0,3 | 0,6 |
| BEM op Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza*** | 2,5 | 2,2 | 2,1 |
| BEM op Insustria adarrak | 2,9 | 2,3 | 2,1 |
| BEM op Eraikintza | 1,2 | 0,6 | 1,1 |
| BEM op Zerbitzuak | 3,2 | 3,6 | 4,1 |
| BEM op Merkatu-zerbitzuak | 3,5 | 3,9 | 4,3 |
| BEM op Ez merkatu-zerbitzuak | 1,9 | 2,3 | 3,2 |
| Produktuen gaineko zerga garbiak | 2,4 | 3,4 | 3,3 |
| BPG op pm GUZTIRA | 2,9 | 2,9 | 3,2 |

**EZIAGE: Etxebizitzen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak*
***AP: Administrazio Publikoak*
****BEM op: Balio erantsi metatua oinarrizko prezioetan; BPGd mp: Barne-produktu gordina, merkatuko prezioetan*
*Iturria: Nastat*

Nafarroan BPGd-ren urte arteko hazkundea, eskaintzatik, eraikuntzako eta lehen mailako adarretako jarduerekin lotzen da, hazkundearen erritmoa azeleratzen baitute %1,8 eta %2,2, hurrenez hurren. Adar industrialek %1,6ko lehengoratzea azaltzen dute eta zerbitzuek erritmoa moteltzen dute %4,1era.

Aitzitik, barne-eskariak oso dinamikoa izaten jarraitzen du eta %2,7ko ekarpenari eusten dio. Azken kontsumoa moteldu egin da %3,2ko hazkundearekin, etxebizitzetako azken kontsumoa txikiagoa delako. Kanpo-eskariak, era berean, %0,6ko ekarpena egiten du, esportazioen eta inportazioen beherakadaren ondorioz.

Nafarroako egitura ekonomikoak ezaugarri espezifikoak ditu, beste autonomia erkidegoekin alderatzen dugunean. Nabarmentzekoa da industriaren pisu erlatiboa, barne-produktu gordinaren %30,1 sortu baitzuen 2017an. Hori horrela, Nafarroak du, arlo horretan, ehunekorik handiena, atzetik Errioxa eta Euskadi dituela, eta Espainiako tasa ia bikoiztu egiten duela. Garrantziari dagokionez, sektore horren ondoren ageri zaizkigu gainerako zerbitzuak (%19,5), merkataritza eta ostalaritza (%16,6), sektore publikoa (%16,6), eraikuntza (%4,8) eta lehen sektorea (%2,9). Nabarmentzekoa da, bestalde, sektoreen garrantzi erlatiboaren egonkortasuna.

**26. grafikoa: Sektore produktiboen guztizko BPGd-ren gaineko ehunekoaren bilakaera. Nafarroa**




** Nafarroako guztizko BPGd-ren gaineko pisua, ehunekotan.*
*Iturria: Ekonomia eta Gizarte Kontseilua*

15.eranskina

### *2.2.3. Lan-merkatua*

Agerikoa da egitura ekonomikoa garrantzitsua dela hezkuntza eskaintzaren plangintzarako, testuinguruko elementu gisa, besteak beste, gizarte sistemari eta ekoizpen sistemari loturik dagoenez, hezkuntza eskaintza baldintzatzen duelako.

**Lana eta jarduerak**

Jarduerek eta horiek ekonomian duten pisu erlatiboak enplegu mapa eta lan baldintza desberdinak sortzen dituzte. EBko enpleguak jardueraz jarduera duen banaketak garbi erakusten digu zer-nolako aniztasuna dagoen Europar Batasuna bera osatzen duten estatuen egitura ekonomikoan. Herrialde batzuetan, pisu benetan handia du nekazaritzak (Bulgaria, Grezia); beste batzuetan, berriz, oso txikia (Belgika, Alemania). Badira oso industrializatuta dauden herrialdeak (Eslovakia, Estonia, Eslovenia, Alemania, Austria), eta industria txikiagoa dutenak (Grezia, Irlanda, Espainia); zerbitzuen sektorea dimentsionatuta dutenak (Belgika, Zipre, Danimarka) eta txikiagoa dutenak (Bulgaria, Eslovenia, Eslovakia).

Aniztasun hori enplegu industrialari buruzko balio erlatiboak aztertuz ikusten ahal da, esaterako. Batez besteko balioa %17,22 da EBn, %14,06 Espainian eta Nafarroan, aldiz, %26,9.

**13. taula: Europar Batasuneko enpleguaren datuak, jardueraren arabera. 2017**

| | Nekazaritza | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|
| EB | 4,16 | 17,22 | 6,74 | 71,20 |
| Espainia | 4,35 | 14,06 | 5,99 | 75,59 |
| Nafarroa | 4,0 | 26,9 | 5,3 | 63,8 |

*Iturria: Eurostat eta Estatistika Institutu Nazionala*

16.eranskina

Hori horrela, okupazioak ezaugarri bereizgarriak ditu Nafarroan arrazoi hauengatik: egitura ekonomikoaren ezaugarriak; aurrez adierazi bezala, enplegu industrialaren garrantzia eta zerbitzuetako zenbait jardueren pisu txikia.

**27. grafikoa: Okupazioaren banaketa Nafarroan eta Espainian. 2018ko 1. hiruhilekoa**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Nafarroan Gizarte Segurantzan jardueraren arabera afiliatutakoen ehunekoa bat dator bertako egitura ekonomikoaren ezaugarriekin.

**28. grafikoa: Gizarte Segurantzan sektoreen arabera afiliatutakoen bilakaera. Nafarroa**




*Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia eta Nastat*

17.eranskina

## Okupazioa eta langabezia

Lehen esan dugun bezala, biztanleriaren lan-jarduerak oso eragin handia dauka hezkuntzan, eta hezkuntzak, era berean, eragina du lan-jardueran. Ziklo ekonomiko honetan, bestalde, bada arreta berezia merezi duen faktore bat: langabezia. Langabeziari buruzko datuetan alde handiak daude EBn eta Europako beste herrialde batzuetan, herrialde batetik bestera. Batezbestekoa %7,1ekoa bada ere, herrialde batzuetan %5etik beherakoa da (Alemania, Danimarka, Hungaria, Malta, Polonia eta Erresuma Batua), eta beste batzuetan, %15etik gorakoa (Grezia eta Espainia).

**29. grafikoa: Langabeziaren ehunekoa Europar Batasunean. 2018ko 1. hiruhilekoa**




*Iturria: Eurostat*

Jarduerari, okupazioari, langabeziari eta enpleguaren kalitateari buruzko datuak, Nafarroan, krisi ekonomikoa gertatu baino lehenagoko mailetatik urrun daude oraindik. Horren harira, 2018ko 1. hiruhilekoko langabeziaren tasa %10,5ekoa izan da, esaterako, autonomia erkidego guztietan baxuena; Espainian batez bestekoa %16,7 izan da eta Extremadura (%25,9) eta Andaluziako (%24,7) zifretatik ere urrun dago.

**14. taula: Okupazioari eta langabeziari buruzko datuak Europar Batasunean, Espainian eta Nafarroan. 2018ko 1. hiruhilekoa**

| | Lana duten pertsonak | Langabeak | Langabezia-tasa |
|---|---|---|---|
| UE-28 | 240.903.200 | 17.481.000 | 7,1% |
| Espainia | 18.874.200 | 3.796.100 | 16,7% |
| Nafarroa | 276.100 | 32.500 | 10,5 |

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

18.eranskina

**30. grafikoa: Langabezia tasa, autonomia erkidegoaren arabera. 2018ko 1. hiruhilekoa**




*Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala*

Espainian okupatutako pertsona kopurua 124.100 lagunetan jaitsi da 2018ko 1. hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-%0,65), eta 18.874.200ean geratu da.

Enpleguari buruzko zenbait alderdi aipagarri:

- Hiruhileko honetan okupazioak gora egin du 31.000 pertsonetan sektore publikoan eta 155.200 pertsonetan behera sektore pribatuan. Azken 12 hilabeteotan, 304.000 pertsona gehiago hasi dira lanean sektore pribatuan eta 131.900 sektore publikoan.
- Soldatapeko langileen kopuruak 130.300 pertsonetan behera egin du hiruhileko honetan. Beherakada hori aldi baterako kontratua dutenen artean nagusitu da (128.900 gutxiago). Urteko gorabeherei erreparatuta, soldatapeko pertsona kopuruak gora egin du 451.500 pertsonetan (mugagabeko enplegua 278.500 pertsona hazi da eta aldi baterakoa 173.000). Norberaren konturako langileak 5.900 gehiago dira hiruhileko honetan eta azken 12 hilabeteetan, berriz, 15.600 gutxiago.
- Madrilen (21.900) eta Kanarietan (7.600) enplegua areagotu egin da. Beherakada handienak Valentzian (-38.200), Balear Uharteetan (-31.600) eta Gaztela-Mantxan (-21.900) izan dira. Okupatutako pertsona kopuruak Katalunian (105.300), Madrilen (92.300) eta Kanarietan (69.800) egin du gora gehien. Beherakadarik handiena Asturiasen (-6.300) erregistratu da.
- 29.400 pertsona gehiago (%0,78) daude langabezian hiruhileko honetan, 3.796.100 guztira. Azken 12 hilabeteak kontuan hartuta, 458.900 pertsona gutxiago (-%10,79) daude langabezian. Horregatik, langabezia tasa %16,74koa da. 2,01 puntu jaitsi da tasa hori azken urtean.
- Hiruhileko honetan Katalunian (-20.600), Kanarietan (-18.000) eta Madrilen (-10.300) jaitsi da gehien langabezia. Gorakadarik handienak, aldiz, Balear Uharteetan (+28.000), Andaluzian (+15.100) eta Murtzian (+9.100) erregistratu dira. Urte osoko datuen arabera, beherakada handienak Katalunian (-118.000), Andaluzian (-96.700) eta Valentzian (-66.200) erregistratu dira.

Hauek dira Nafarroako datuak:

- Nafarroan 4.100 pertsona gutxiago daude okupatuta 2018ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-%1,45), eta guztizko kopurua 276.100 pertsonakoa da.

- Aurreko hiruhilekoan baino 2.700 pertsona gehiago (%8,92) daude langabezian, guztira 32.500 lagun. Azken urtean 1.000 lagun gehiago (%3,23) daude langabezian.
- Langabezia tasa %10,54koa da, autonomia erkidego guztien artean baxuena. %9 egin du gora aurreko hiruhilekotik hona eta %3 2017ko 1. hiruhilekotik.
- Nafarroan guztira 257.300 etxebizitza daude eta horietatik 10.100etan aktibo dauden kide guztiak langabezian daude; aurreko hiruhilekoan baino 500 etxebizitza gutxiago dira eta duela urtebete baino 1.100 gutxiago.

- Aurreko hiruhilekoan baino 1.400 pertsona gutxiago (-%0,45) daude aktibo, 308.700 guztira. pertsonakoa da. Urte arteko datuen arabera, 1.100 pertsona gehiagok (%0,36) osatzen dute biztanleria aktiboa.

Urteko azken datuen arabera, langabeziaren ehunekoak, adinaren eta sexuaren arabera, Espainian eta Nafarroan honela banatuta daude:

**31. grafikoa: Espainian eta Nafarroan erregistratutako langabeziaren ehunekoa, adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2017**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

19.eranskina

2018ko lehen hiruhilekoari dagokionez, adin-taldeak banakatuta, langabeziaren errealitatea xehetasun gehiagorekin erakusten dute ondorengo grafikoek. Aipagarria da langabeziaren bolumenak gora egin duela 35-44 urteko tartean eta ia adin-talde guztietan emakume gehiago daudela langabezian.

**32. grafikoa: Espainian erregistratutako langabezia, adinaren eta sexuaren arabera. 2018ko 1. hiruhilekoa**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

**33. grafikoa: Nafarroan erregistratutako langabezia, adinaren eta sexuaren arabera. 2018ko 1. hiruhilekoa**




*Iturria: Nastat*

### Okupazioa eta ikasketa-maila

Biztanleria gazteenak pairatzen duen langabezia tasak, bai Espainian bai Nafarroan, hezkuntza maila handieneko sektorea eragiten du, adinez zaharragoak diren beste taldeekin alderatuta. EBn, goi-mailako hezkuntza gainditu dutenen %4,5 eta Bigarren Hezkuntza dutenen %6,9 daude langabezian. Espainian, berriz, %10 eta %17koak dira datu horiek.

Ia EBko herrialde guztietan, zenbat eta altuagoa izan biztanleriaren ikasketa-maila, orduan eta hobea da okupazio maila.

**15. taula: Europar Batasunean eta Espainian erregistratutako langabeziaren ehunekoak, ikasketa-mailaren arabera. 2017**

| | Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa baino gutxiago (0-2. maila) | Bigarren Hezkuntza (3-4. maila) | Goi-mailako hezkuntza (5-8. maila) |
|---|---|---|---|
| EB-28 | 14,8 | 6,9 | 4,5 |
| Espainia | 25,0 | 17,0 | 10,0 |

*Iturria: Eurostat*

**34. grafikoa: Europar Batasunean erregistratutako langabeziaren ehunekoak, ikasketa-mailaren arabera. 2017**




*Iturria: Eurostat*

20.erans kina

## Soldatak

2017ko urtarrilean, EBko hogeita zortzi estatu kideetatik hogeita bik ez ezik (Danimarka, Italia, Zipre, Austria, Finlandia eta Suedia izan ziren salbuespenak), EBko estatu kide izateko hautagaiek ere (Montenegro, Mazedoniako Errepublika, Albania, Serbia eta Turkia) gutxieneko soldata nazionala zuten. Garai hartan, hileko gutxieneko soldatak oso bestelakoak ziren estatu kideen artean; esaterako, Bulgarian, 235 eurokoa zen, eta Luxenburgon, 1.999 eurokoa.

Hileko gutxieneko soldata gordinetan oinarrituta (eurotan adierazita), hiru taldetan sailkatzen ahal dira EBko estatu kideak, 2017ko urtarrileko datuen arabera:

- gutxieneko soldata nazionalak hileko 500 euro baino gutxiagokoak zituzten estatuak. Hauek dira talde honetan sartzen diren EBko estatu kideak: Bulgaria, Errumania, Letonia, Lituania, Txekiar Errepublika, Hungaria, Kroazia, Eslovakia, Polonia eta Estonia. Gutxieneko soldatak 235 euro (Bulgaria) eta 470 euro (Estonia) artekoak ziren.

- gutxieneko soldatak hileko 500 euro baino gehiagokoak eta 1.000 euro baino gutxiagokoak zituzten estatuak. Talde honetan sartzen dira: Portugal, Grezia, Malta, Eslovenia eta Espainia. Gutxieneko soldatak 650 euro (Portugal) eta 826 euro (Espainia) artekoak ziren.
- gutxieneko soldatak hileko 1.000 euro baino gehiagokoak zituzten estatuak. Hauek dira talde honetan sartzen diren estatuak: Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, Belgika, Herbehereak, Irlanda eta Luxenburgo. Gutxieneko soldata nazionalak 1.397 euro (Erresuma Batua) eta 1.999 euro (Luxenburgo) artekoak ziren.

Batez besteko soldatari dagokionez, alde handia dago EB barruan, soldatarik altuenak dituzten herrialdeen eta soldatarik txikienak dituztenen artean. Soldatarik altuenak dituztenak Luxenburgo, Belgika, Herbehereak, Alemania, Frantzia, Irlanda eta Erresuma Batua dira; beste muturrean, berriz, soldata txikienekoak, Bulgaria, Hungaria, Lituania, Txekiar Errepublika eta Errumania. Espainia EBren batezbestekoaren azpitik dago.

**35. grafikoa: Europar Batasuneko hilabeteko gutxieneko soldata. 2018**




** Zenbait herrialderen datuak falta dira. Ez zegoen gutxieneko soldata nazionalik Austrian, Zipren, Danimarkan, Finlandian, Italian eta Suedian. Zipren, Gobernuak ezartzen du lanbide zehatz batzuetarako gutxieneko soldata. Austrian, Danimarkan, Finlandian, Italian eta Suedian, sektore zehatzei eragiten dieten hitzarmen kolektiboen bidez ezartzen da gutxieneko soldata. Europar Batasuneko batez besteko soldata informazio hori eskuragarri duten herrialdeen datuak erabilita kalkulatu dugu.*

*Iturria: Eurostat*

**21.eranskina**

Espainian urteko batez besteko soldata (2016) langile bakoitzeko 23.156,34 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %0,2 gehiago. Soldata banaketaren ezaugarrietako bat da langile gehiago biltzen direla balio baxuetan soldatarik altuenetan baino. Horren ondorioz, batez besteko soldata altuagoa da soldata ertaina eta soldatarik ohikoena baino. Hori horrela, soldata ertaina (langile kopurua bi zati berdinetan banatzen duena, soldata altua dutenak eta soldata baxua dutenak) 19.432,62 eurokoa izan zen 2016an. Soldatarik ohikoena 16.497,40 eurokoa izan zen.

Hona hemen nabarmentzeko moduko beste ezaugarri batzuk:

- Urteko batez besteko soldata 20.131,41 eurokoa izan zen emakumezkoentzat eta 25.924,43 eurokoa gizonezkoentzat. Emakumezkoen urteko batez besteko soldata gizonezkoenaren %77,7koa izan zen.
- Gizonen eta emakumeen arteko batez besteko irabazien alde nabarmen hori EBn ere erregistratzen da. 2014an, emakumeen soldata gizonena baino %16,1 txikiagoa izan zen, batez beste. Gizonen eta emakumeen batez besteko ordainsarien artean diferentziarik txikienak izan zituzten herrialdeak Eslovenia, Malta, Italia, Polonia, Luxenburgo eta Belgika izan ziren (%10,0 baino gutxiago). Gizonen eta emakumeen arteko soldata arraildura handieneko herrialdeak, berriz, Estonia (%28,3), Austria (%22,9), Txekiar Errepublika (%22,1), Alemania (%21,6) eta Eslovakia (%21,1) izan ziren.
- Gizonen eta emakumeen ordainsariaren arteko diferentzia hori txikitu egiten da zenbait kasutan, kontuan hartutako lanpostuak antzekoak direnean (okupazio bera, kontratu mota, lanaldi mota eta abar).
- Espainian hobekien ordaindutako jarduera ekonomikoa *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura* delakoa (50.992,09 eurorekin) izan zen, batez bestekoaren gainetik %120,2. Horren atzetik, bigarren soldatarik altueneko jarduera *Finantza eta aseguru jarduerak* izan zen, 42.684,65 eurorekin. Urteko batez besteko soldata txikienak *Ostalaritzak eta Bestelako zerbitzuek* izan zituzten, 14.125,34 eta 15.782,15 euro, hurrenez hurren. Zifra horiek batez bestekoa baino %39,0 eta %31,8 txikiagoak izan ziren.
- *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura* izan zen soldatarik altueneko jarduera, bai gizonezkoen bai emakumezkoen kasuan. *Ostalaritza* izan zen, ordea, bi sexuetan soldatarik baxuenak izan zituena. Emakumeek gizonezkoek baino soldata txikiagoa izan zuten ia jarduera ekonomiko guztietan.
- Sexuaren araberako soldaten diferentzia, oro har, handiagoa zen langileek adinean gora egiten zuten heinean. Emakume gazteek adinekoek baino kualifikazio hobea (okupazioa, ikasketak...) dutelako gertatzen da hori.
- *Zuzendarien* okupazio taldeak izan zuen urteko batez besteko soldatarik altuena (50.530,80 euro). Okerren ordaindutakoa, berriz, *Zerbitzuetan kualifikatu gabeko langileen* taldea (garraioan izan ezik) izan zen (12.826,40 euro).
- Lanaldi motaren arabera, orduko batez besteko irabazia lanaldi osoko lanean 15,55 eurokoa izan zen eta lanaldi partzialeko lanean 10,67 eurokoa.
- Nabarmena den beste gauza bat honako hau da: kontratu finkoa dutenek batez beste diru gehiago irabazten dute urtean, aldi baterako kontratua dutenek baino. Horren harira, kontratu mugagabea dutenek urtean batez beste 24.516,42 euroko soldata izan zuten eta iraunaldi jakineko kontratua dutenek 16.567,85 eurokoa.
- Nazionalitateari erreparatuta, espainiar nazionalitateko langileen urteko batez besteko soldata altuagoa izan zen, 23.605,82 eurokoa. Munduko gainerako lekuetako langileena (Europa eta Latinoamerika salbu) baxuena izan zen, 13.970,91 eurokoa.
- Urteko batez besteko soldatarik altuenak Euskadin (27.480,71 euro urtean langileko), Madrilen (26.330,14) eta Nafarroan (25.468,38) erregistratu ziren. Kontrako aldean daude, ordainsaririk baxuenekin, Extremadura (19.475,20), Kanariak (19.749,03) eta Gaztela-Mantxa (20.825,87).
- Erlazio positiboa dago adinaren eta soldata mailaren artean; logikoa baita adin gehieneko langileek, oro har, antzinatasun eta esperientzia handiagoa izatea lanpostuan. 40 urtetik beherako adin-talde guztiek batezbestekoa baino soldata baxuagoak izan zituzten, baita 65 urtetik gorakoek ere. 40 eta 65 urte artekoek batezbestekoa baino batez besteko soldata handiagoak erregistratu zituzten.

**36. grafikoa: Espainiako batez besteko urteko soldata, sektore ekonomikoaren arabera. 2016**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

22.eranskina

Adinaren arabera, azpimarragarriak dira 55-59 urteko pertsonen diru-sarrerak, haiek baitute urteko batez besteko soldatarik altuena (27.284 euro). Bestalde, askoz ere soldata txikiagoak dituzte 35 urtetik beherakoek (19.339 euro) eta, bereziki, 25 urtetik beherakoek (15.876 euro).

**37. grafikoa: Espainiako urteko batez besteko soldata gordina, adinaren arabera. 2016**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

## Errenten arteko desberdintasuna

Desberdintasun ekonomikoa soldatek eragiten dute hein batean, eta horren inguruko datuak oso garrantzitsuak dira pobrezia erlatiboa kalkulatzeko. Izan ere, baliabide ekonomikoen banaketak zuzeneko eragina izaten ahal du pobreziaren norainokoan eta garrantzian.

EBn errenten arteko desberdintasun handiak daude. Horrela, 2016ko datuei erreparatuz, errenta erabilgarri baliokide handiena zuen biztanleriaren %20k errenta erabilgarri baliokide txikiena zuen %20k baino 5,2 aldiz errenta handiagoa jaso zuen, grafikoan ikusten ahal den moduan. Proportzio horretan ere aldeak izan ziren herrialdeen artean. Txekiar Errepublikan 3,5ekoa izan zen; Lituanian, Portugalen, Letonian, Grezian, Estonian, Espainian eta Bulgarian 6,0koa, eta baliorik handiena Errumanian erregistratu zen: 7,2.

**38. grafikoa: Errentaren banaketako desberdintasunak EBn. 2016 (diru-sarreren banaketa kintiletan*)**




** Kintila: herrialde edo eskualde bateko biztanleria txiroenetik aberatsenera ordenatzen da, eta gero pertsona kopuru bera duten bost taldetan zatitzen*

*Iturria: Eurostat*

Enpleguaren kalitateak eta langabeziak Nafarroan ere mantendu egin dituzte soldata-errenten arteko desberdintasunak azken urteetan. Hori horrela, 2012 eta 2016 artean, soldatarik altuenen eta baxuenen arteko batez bestekoaren diferentzia mantendu egin da balio hauetan: gehien irabazten dutenek gutxien irabazten dutenek baino ia 10 aldiz gehiago irabazten dute.

**39. grafikoa: Nafarroako soldata altuenen eta baxuenen bilakaera**




*Iturria: Nastat*

Errenten arteko desberdintasunak laburbilduta adierazten ahal dira bereziki esanguratsuak diren zenbait kontzepturen arabera; hala nola sexua, adina, hezkuntza maila, jatorrizko nazionalitatea eta bizilekua.

**40. grafikoa: Errentaren banaketako desberdintasunak Espainian, kontzeptuaren arabera. 2016**















*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

### *2.2.4. Familien ekonomia*

- **Per capita BPGd-a**

Biztanleko eskuragarri dagoen familia errenta honela osatzen da: herritar batek, batez beste, zergak ordaindu ondoren, jasotzen dituen urteko diru-sarrerak. Familien testuinguru ekonomikoa irudikatzeko adierazleetako bat da. Enplegutik eta bestelako iturrietatik etorritako diru-sarrerak hartzen ditu kontuan. Ez dator bat biztanleko BPGd-rekin; izan ere, azken horrek ez ditu aintzat hartzen subsidioak edo laguntzak, eta, aldiz, kontabilizatu egiten ditu enpresetan gelditzen diren irabaziak, ez direnak familientzako errenta eskuragarria. Alabaina, eta alderaketak egiteko aukera emateko, azken zortzi urteetako EBko, Espainiako eta Nafarroako biztanle bakoitzeko barne-produktu gordinaren bilakaera jaso dugu.

**41. grafikoa: Per capita BPGd-ren bilakaera**




*Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala eta Eurostat*

23.eranskina

Per capita BPGd altuagoa da Nafarroan (30.914 euro) EBn (29.900) eta Espainian (25.000) baino.

- **Diru-sarrerak eta banaketa**

Pertsona bakoitzeko batez besteko diru-sarrera 11.074 eurora iritsi zen Espainian, hots, %3,4 igo zen. Baliorik altuenak Euskadi (14.397 euro), Nafarroa (13.593) eta Madrilekoak (13.099) dira. Extremaduran (8.250), Murtzian (8.702) eta Kanarietan (8.863) dituzte batez besteko diru-sarrera txikienak.

**42. grafikoa: Pertsona bakoitzeko urteko diru-sarrera garbiak, autonomia erkidego eta hiri autonomoaren arabera. 2017**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Diru-sarrerek banaketa desberdina izan zuten. Giniren koefizientea edo indizea erabiliz aztertzen ahal da hori. Giniren koefizientea 0 eta 1 arteko zenbaki bat da, non 0k berdintasun perfektua adierazten duen (pertsona guztiek diru-sarrera berdinak dituzte) eta 1ek desberdintasun perfektua adierazten duen (pertsona batek diru-sarrera guztiak ditu eta besteek ez dute ezer ez). Datu hori bera Giniren indizearen bidez adierazten ahal da. Kasu horretan, gehieneko balioa 100 izanen da, 1 beharrean, eta, datua lortzeko, 100ekin biderkatu behar da Giniren koefizientea.

EBren esparruan, Giniren indizeak ez du 2009-2016 aldian aldaketa handirik izan, eta 30,5 eta 31 arteko balioak izan ditu. Desberdintasun handienak dituzten herrialdeak Bulgaria (38,3), Lituania (37), Errumania (34,7), Espainia eta Letonia (34,5) dira. Kontrako egoeran, berriz, indize baxuenak Eslovakian (24,3), Eslovenian (24,4), Txekiar Errepublikan (25,1) eta Finlandian (25,4) erregistratu dira. Denbora-tarte horretan, Espainiako balioa 32,9tik 34,5era pasatu da; hau da, krisialdi ekonomikoaren urteetan, areagotu egin da desberdintasuna.

**16. taula: Giniren indizea Europar Batasunean. 2009 eta 2016 arteko bilakaera**

| | 2009 | 2014 | 2015 | 2016 |
|---|---|---|---|---|
| EB | 30,5 | 30,9 | 31 | 30,8 |
| Espainia | 32,9 | 34,7 | 34,7 | 34,5 |

*Iturria: Eurostat*

**24.eranskina**

**43. grafikoa: Giniren indizea Europar Batasunean. 2009 eta 2016 arteko bilakaera**




*Iturria: Eurostat*

Espainian 33,4 (2010ean) eta 34tik gorako (2012tik) balioen artean aldatu da desberdintasuna Giniren indizearen bitartez neurtuta. Horrek esan nahi du desberdintasuna EBko batez bestekotik gorako balioetan finkatu dela.

**44. grafikoa: Giniren indizea Espainian. 2010 eta 2016 arteko bilakaera**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Desberdintasunari buruzko Giniren indizeak alde handiak erakusten ditu autonomia erkidegoen artean. Adierazle horren baliorik handienak dituzte Andaluziak (34,7), Murtziak (33,4), Balear Uharteek eta Madrilek (33,1). Baliorik baxuenak, berriz, Nafarroak (28), Kantabriak (28,4) eta Euskadik (28,5).

Aipagarria da 2009 eta 2014 artean gertatutako bilakaera. Aragoin hazi da gehien indizea (%18,5eko igoera, 27,03 puntutik 32,03 puntura), eta bigarren postuan Gaztela-Mantxa dago (%10,9ko igoera, 29,26 puntutik 32,46 puntura). Beste autonomia erkidego batzuetan, berriz, errenten arteko desberdintasuna txikitu egin da; esate baterako, Kantabrian, Euskadin, Kanarietan, Extremaduran edo Errioxan. Nafarroan, epe horretan, %0,6ko igoera erregistratu da (%27,8tik %27,98ra).

**45. grafikoa: Giniren indizea, autonomia erkidegoei aplikatuta. 2009 eta 2014 arteko bilakaera**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

- **Pobrezia eta gizarte-bazterketa**

Desberdintasuna neurtzen duen adierazle erlatiboa da pobrezia-arriskuan dagoen biztanleria. Ez du erabateko pobrezia neurtzen, biztanleria osoarekin alderatuta diru-sarrera baxuak dituzten pertsona kopurua baizik. Eurostaten irizpideei jarraituz, pobrezia-arriskuaren atalasea pertsonen kontsumo-unitateko diru-sarreren medianaren %60n kokatzen da. Hortaz, diru-sarreren mediana hazi edo murrizten den heinean, pobrezia-arriskua ere hazi edo murriztu egiten da. Pertsonako diru-sarrerak hazten diren heinean, pobrezia-arriskuaren atalasea hazi egiten da baita ere.

2017an, pertsona bakar batez osatutako familiak pobrezian erortzeko arriskuaren muga (2016ko diru-sarreren datuen arabera kalkulatuta) 8.522 eurotan kokatu zen, aurreko urtean baino %3,8 gutxiago. Bi pertsona helduz eta 14 urtetik beherako bi adingabez osatutako familietan muga hori 17.896 eurotan kokatu zen. Adin-taldeen arabera, pobrezia-arriskuaren tasa 1,4 puntu jaitsi zen 16 eta 64 urte bitartekoen artean eta 0,8 puntu 16 urtez beherakoen artean. 65 urtetik gorakoen artean, aldiz, 1,8 puntu egin zuen gora.

Pobrezia-arriskuaren tasak ia ez zuen aldaketarik izan EBn 2016an; oro har, biztanleriaren %24,8ri eragin zion arrisku horrek. Zortzi estatu kidetan biztanleria totalaren %30ak gainditzen zuen pobrezia-arriskuko egoera (Bulgaria, Kroazia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Letonia, Lituania eta Errumania). Aitzitik, pobrezia-arriskuaren maila baxuena zuten herrialdeak hauek izan ziren: Txekiar Errepublika (%13,3), Herbehereak (%15) eta Danimarka (%16,7). Espainia lehen taldetik gertuago dago bigarrenetik baino, pobrezia-maila altuarekin (%27,2).

**46. grafikoa: Pobrezia-arriskuaren tasa eta atalasea, EB-28n. 2016**




*Iturria: Eurostat*

Pobrezia-arriskuaren edo gizarte-bazterketa arriskuaren adierazle bat AROPE (At Risk of Poverty and Exclusion) da; pobrezia-arriskuan dauden, material-gabezia duten edo intentsitate baxuko enplegua duten biztanleriarekin osatzen da. Adierazle horren bidez, hiru egoera hauetatik gutxienez batean dagoen biztanleria egonen da pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketarako arriskuan:

- Pobrezia-arriskuan (medianaren %60ren azpiko kontsumo-unitateko diru-sarrerak). Aurreko urteko diru-sarrerekin osatzen da.

- Enplegurik gabeko edo intentsitate baxuko enpleguetako etxeetan (lan egiteko adinean dauden eta lan egiteko ahalmen osoaren %20 baino gutxiago aritu diren kideek osatutako etxeak).
- Material-gabezia larrian (ondorengo zerrendako bederatzi kontzeptuetatik, gutxienez, lau falta badituzte). Hauek dira kontuan hartutako bederatzi kontzeptuak:

  1. Ezin da oporretara joan, urtean astebete gutxienez.
  2. Ezin du gutxienez bi egunean behin haragia, oilaskoa edo arraina jan.
  3. Ezin du etxebizitza tenperatura egokian mantendu.
  4. Ezin die aurre egin ezusteko gastuei (700 eurokoak).
  5. Atzerapenak izan ditu azken 12 hilabeteotan etxebizitza nagusiarekin loturiko gastuak (mailegua edo alokairua, gasaren, komunitatearen... ordainagiriak) edo epekako erosketak ordaintzean.
  6. Ezin du autorik izan.
  7. Ezin du telefonorik izan.
  8. Ezin du telebistarik izan.
  9. Ezin du arropa-garbigailurik izan.

Bederatzi kontzeptu horien emaitzen bidez, bizitza-baldintza materialen egoeraren arabera banatzen da biztanleria. Komeni da azterketa horretatik ondorioztatutako zenbait ezaugarri nabarmentzea:

- 2017an, biztanleriaren %53k ez zuen kontzeptu horietako bat bera ere falta; biztanleriaren %5,1, aldiz, material-gabezia latzeko egoeran zegoen (bederatzi kontzeptu horietatik, ez zituen, gutxienez, lau betetzen).
- 2017an, pobrezia-arriskua eta gizarte-bazterkeria arriskuaren AROPE adierazle erantsia Espainiako biztanleriaren %26,6koa zen; urtebete lehenago, ordea, %27,9koa.
- Adin-taldeen arabera, AROPE adierazleak 2,3 puntu egin zituen behera 16 eta 64 urte bitartekoen artean eta 0,7 puntu 16 urtez azpikoetan. 65 urtetik gorakoen artean, ordea, 2,0 puntu egin zuen gora.
- Biztanleria talde horretan sartu edo ez erabakitzen duten bederatzi kontzeptu horietatik hauek izan ziren ohikoenak: ezin da oporretara joan, urtean astebete gutxienez (material-gabezia latzeko egoeran zeuden pertsonen %98,8ri eragin zien), ezin die aurre egin ezusteko gastuei (%98,5), ezin du etxebizitza tenperatura egokian mantendu (%77,8) eta atzerapenak izan ditu azken 12 hilabeteotan etxebizitza nagusiarekin loturiko gastuak edo epekako erosketak ordaintzean (%66,2).

Biztanleria kintiletan ere banatzen ahal da, diru-sarreren eta analisiaren arabera. Diru-sarreren kintilak kalkulatzeko pertsona guztiak ordenatzen dira kontsumo-unitateko diru-sarreren zenbatekoaren arabera eta ondoren bost talde berdinetan zatitzen, hau da, talde bakoitzean pertsonen %20. Lehen kintila diru-sarrera gutxien dutenen %20ari dagokio; bigarrena, hurrengo %20ari eta, horrela, hurrenez hurren bosgarren kintileraino, kontsumo-unitateko diru-sarrera handiena duen %20raino. Datu aipagarriak dira honako hauek:

- Prestakuntza mailari dagokionez, goi mailako heziketa duen biztanleriaren %41,6 bosgarren kintilean zegoen (diru-sarrera handieneko pertsonak).
- Jarduerarekin lotuta, langabezian zeudenen %42,2 lehen kintilean zegoen (diru-sarrera txikienekoan) eta kolektibo horren %6,2 bosgarrenean.
- Nazionalitateari dagokionez, espainiarren %16,6 lehen kintilean zegoen. Portzentaje hori %36,1ekoa zen EBko biztanle atzerritarrentzat eta %48,6koa EBkoa ez den herrialde bateko nazionalitatea dutenentzat.
- Etxebizitzaren tamainaren arabera, lehen kintilean zeuden bost kide edo gehiago dituzten etxebizitzen %36,0; bosgarren kintilean, aldiz, %11,7koa zen datu hori.

Hauek dira pobrezia-arriskuan dagoen biztanleriaren beste ezaugarri batzuk:

- Bigarren Hezkuntzako lehen etaparen hezkuntza maila baliokidea duen biztanleriaren %27,1 pobrezia-arriskuan zegoen 2017ko BBIn (Bizi Baldintzei buruzko Inkestan)

(2016ko diru-sarrerekin). Goi mailako hezkuntzara heltzean, aldiz, %9,7ra jaisten zen tasa hori.

- Etxebizitza motari erreparatuz, 2017an bere kargura menpeko ondorengoak zituen heldu batez osatutako etxebizitzetan bizi zen pertsonen %40,6 pobrezia-arriskuan zegoen.
- Pobrezia-arriskuaren tasarik txikienak beren kargura menpeko ondorengorik ez zuten etxebizitzetan jaso ziren.
- Jarduerarekin lotuta, langabezian zeudenen %44,6 zegoen pobrezia-arriskuan eta erretiratuen %13,1.
- Nazionalitatearen arabera, pobrezia-arriskuaren atalasearen azpian kokatutako pertsonen portzentajea %18,0koa zen espainiarren kasuan, %39,2koa EBko biztanle atzerritarren kasuan eta %52,1ekoa EBkoa ez den herrialde bateko nazionalitatea dutenen kasuan.

Pobrezia-arriskuaren tasarik altuenak Extremaduran (%44,3), Kanarietan (%40,2) eta Andaluzian (%37,3) erregistratu ziren. Beste muturrean, AROPE adierazlearen tasarik baxuenak erregistratu ziren Nafarroan (%13,5), Errioxan (%14,4) eta Euskadin (%14,5).

**47. grafikoa: Pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen ehunekoa (AROPE adierazlea), autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2017**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Etxebizitzetako egoera ekonomikoari erreparatuta, hilaren bukaerara "zailtasun handiarekin" heltzen zen etxebizitzen portzentajerik handienak zituzten autonomia erkidegoak Kanariak (%20,9), Murtzia (%15,5) eta Andaluzia (%13,9) izan ziren. Ehunekorik txikienak Errioxan (%1,1) eta Nafarroan (%1,7) erregistratu ziren.

Kanarietan etxebizitzen %52,4, Valentzian %49,8 eta Andaluzian %49,1 ez zen ezusteko gastuei aurre egiteko gai. Beste muturrean zeuden Kantabria (%14,5), Euskadi (%17,9) eta Nafarroa (%18,8).

Andaluzian (%47,9), Kanarietan (%44,2) eta Extremaduran (%42,5) erregistratu ziren oporretara urtean astebete gutxienez joan ezin ziren etxebizitzen ehunekorik handienak. Ehunekorik txikienak Madrilen (%21,0), Euskadin (%22,3) eta Aragoin (%23,6) jaso ziren.

Etxebizitza nagusiarekin loturiko ordainketetan atzerapenak izan zituzten etxebizitzen kasuan, Kanarietan (%18,7), Murtzian (%13,2) eta Valentzian (%11,0) jaso ziren portzentajerik altuenak. Portzentajerik txikienak, aldiz, Nafarroan (%2,0), Kantabrian eta Gaztela eta Leonen (%2,3) jaso ziren.

Diru-sarrera txikieneko taldean (lehen kintila) biztanleriaren zati handiena zuten autonomia erkidegoak Extremadura (%35,2), Kanariak (%29,7) eta Andaluzia (%28,9) izan ziren. Errenta altuko biztanleriaren (bosgarren kintila) ehunekorik handieneko autonomia erkidegoak izan ziren Euskadi (%35,7), Madril (%30,0) eta Nafarroa (%29,4).

**Pobreziaren aldagaiak**

Pobrezia-arriskua ez da talde sozial guztietan berdina. 2016an EB-28ko gizon-emakumeen artean pobrezia-arriskuaren tasa adin-tarte guztietan altuagoa zela emakumeen artean egiaztatu zen eta bereziki 65 urtetik gorakoen artean. Dena dela, batez besteko balio horiek ez dituzte herrialdeen errealitate desberdinak islatzen.

Adinari dagokionez, pobrezia edo gizarte-bazterketa arrisku handiena dutenak 16 eta 24 urte arteko eta 16 urtetik beherako pertsonak dira. Espainian, 2016ko datuen arabera, 16 eta 24 urte arteko pertsona bat pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuan egoteko probabilitatea %40,8koa zen gizonezkoen kasuan eta %40koa emakumezkoen kasuan eta, 16 urtetik beherakoen artean %35,5ekoa emakumezkoentzat eta %35ekoa gizonezkoentzat. Balio horiek EBri dagozkion zifren gainetik daude.

2016ko Bizi Baldintzei buruzko Inkestaren arabera, pobreziaren atalasea urteko errenta mediana baliokidearen (kontsumo-unitateko urteko diru-sarrerak) %50ean finkatuko balitz, biztanleriaren %15,5 pobrezia-arriskuko egoeran egonen litzateke. Atalasea urteko errenta mediana baliokidearen %70ean finkatuko balitz, biztanleriaren %28,2 egonen litzateke pobrezia egoeran. Urteko diru-sarrerak urteko errenta mediana baliokidearen (kontsumo-unitateko urteko diru-sarrerak) %60tik behera zituen pertsonen ehunekoa %22,3ra iritsi zen.

Pobrezia-arrisku tasaren baliorik altuenak autonomia erkidego hauei dagozkie: Ceuta (%36,0), Andaluzia (%35,4) eta Kanariak (%35,0). Baliorik txikienak, berriz, hauei: Euskadi (%9,0), Nafarroa (%9,0) eta Errioxa (%11,9).

Aldagai desberdinen arabera datu hauek jaso dira:

- 2008., 2009., 2010. eta 2011. urteetan, pobrezia-arriskuaren tasa altuagoa zen emakumeen artean gizonezkoen artean baino. Alde hori gutxitu egin zen 2012ko inkestan (%20,9 emakumezkoetan eta %20,7 gizonezkoetan). 2013ko inkestan, aldiz, pobrezia-arriskuaren tasa altuagoa izan zen gizonezkoen artean (%20,9) emakumezkoen artean baino (%19,9). 2014ko inkestan oso parekoak izan ziren tasa horiek (%22,4 gizonezkoetan eta %22,1 emakumezkoetan). 2015ekoan gizonezkoen tasa (%22,5) altuagoa izan zen emakumezkoena baino (%21,8). 2016an, emakumezkoen arrisku-tasak %22,1era egin zuen gora, gizonezkoena, aldiz, aurreko urteko ia balio berean mantendu zen (%22,6).
- Adinari erreparatuta, 2008-2011 aldian, pobrezia-arriskuaren tasaren baliorik altuenak 16 urtetik beherakoetan erregistratu ziren. 2012ko inkestaz geroztik, portzentajerik altuenak 16 eta 24 urte artekoen taldean erregistratu dira: 2012an %30,1; 2013an %29,5; 2014an %30,9; 2015ean %33,4 eta 2016an %32,5.
- Etxebizitza motaren arabera, pobrezia-arriskuaren tasan baliorik altuenak bere kargura mendeko seme-alabak dituen heldu bakarraz osatutako etxebizitzari dagozkio: %36,8 (2008), %44,2 (2009), %49,2 (2010), %42,1 (2011), %37,5 (2012), %38,0 (2013), %42,0 (2014), %37,5 (2015) eta %42,2 (2016).
- Hezkuntza maila aintzat hartuta, hezkuntza mailarik txikienari (0-2) dagozkio pobrezia-arriskuaren tasan ehunekorik altuenak: Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 2016ko inkestan, tasa balio hauetara iritsi zen hezkuntza mailaren arabera: 0-2. mailan %27,3; 3-4. mailan %19,9 eta 5-8. mailan %10,3.

- Nazionalitateari dagokionez, EBkoa ez den atzerriko nazionalitateari (munduko gainerako tokietakoa) dagozkio baliorik altuenak, %52,1; EBko atzerritar nazionalitateari %40,3 dagokio eta nazionalitate espainiarrari %18,8.
- Urbanizazio mailari erreparatuta, pobrezia erlatiboko arriskuaren tasan portzentajerik altuenak biztanlerik gutxieneko eremuei dagozkie. Tasa horren balioa %28,1ekoa zen biztanle gutxiko eremuetan, %20,8koa maila ertainean jendeztatutako eremuetan eta %20,1ekoa oso jendeztatutako eremuetan.

Nafarroan, pobreziaren arrisku-faktore bat da adina, eta gazteen artean du eragin handiena. Alegia, eskola-adinean dagoen biztanleriak du, oro har, pobrezia pairatzeko arrisku handiena.

Egoera horretan egoteko arriskuan dauden 16 urtetik beherakoen proportzioa %29,3koa da; 45-64 (%18,8) urte artekoen eta 65 urte edo gehiagokoen (%18) proportziotik urrun. Hori guztia, biztanleriaren batez besteko pobrezia-arriskuaren tasa %22,6koa izanik.

**48. grafikoa: Pobrezia-arriskuaren tasa Nafarroan, adinaren eta sexuaren arabera. 2016**




** Pobreziaren atalasea kontsumo-unitateko urteko diru-sarreren medianaren %60 da (ELGAren eskala aldatua), pertsonen banaketa kontuan hartuta. Kontsumo unitate bakoitzeko diru-sarrerak, etxeko diru-sarrera guztiak zati bertako kontsumo unitateen kopurua eginez lortzen dira.*

*Iturria: Nastat*

Pobrezia-arriskuaren tasa, sexuaren eta adin-taldearen aldagaiei dagokienez, honela banatzen da EB, Espainia eta Nafarroan.

**17. taula: Pobrezia-arriskuaren tasa EBn, Espainian eta Nafarroan, adinaren eta sexuaren arabera. 2016**

| | 16 urtetik beherakoak | | 16 urteetatik 24ra | | 25 urteetatik 54ra | | 55 urteetatik 64ra | | 65 urteetatik gora | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | G | E | G | E | G | E | G | E |
| EB | 27,5 | 28,8 | 29,7 | 32,6 | 21,1 | 22,3 | 20,7 | 21,5 | 19,3 | 25,6 |
| Espainia | 35,0 | 35,5 | 40,8 | 40,0 | 29,2 | 29,4 | 25,0 | 24,5 | 20,5 | 25,5 |
| Nafarroa | 29,22 | 29,31 | 29,39 | 31,53 | 21,2 | 23,74 | 15,92 | 15,35 | 13,76 | 21,31 |

*Iturria: Eurostat eta Nastat*

25.eranskina

18 urtetik beherakoen pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketa arriskuan eragina duen beste faktore bat gurasoen ikasketa maila da. EBko herrialde guztietan, 18 urtetik beherakoen artean pobrezia-arriskuan daudenen proportzioak korrelazio negatiboa du beren gurasoen ikasketa maila altuenarekin; hau da, gurasoek zenbat eta ikasketa maila altuagoa izan, orduan eta txikiagoa izaten da pobrezian egoteko arriskua.

EBn, 18 urtetik beherakoen pobrezia-arriskuaren batez besteko ehunekoa, haien gurasoek, gehienez, oinarrizko ikasketak badituzte, %63,7koa da. Bigarren Hezkuntzako ikasketak dituzten horientzat, batez besteko balioa %30,7koa da. Goi Mailako ikasketak dituzten gurasoen kasuan, balioa %10,3ra jaisten da.

Espainiaren kasuan, gurasoek Bigarren Hezkuntza baino gutxiagoko ikasketak badituzte, balioa %63,6koa da; Bigarren Hezkuntzako ikasketak badituzte, %38,7koa, eta Goi Mailako ikasketak badituzte, %13,8koa.

**18. taula: Europar Batasunean 18 urtetik beherakoek duten pobrezia-arriskuaren ehunekoa, gurasoen ikasketa mailaren arabera. 2016**

| | Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa baino gutxiago (0-2. maila) | Bigarren Hezkuntza (3-4. maila) | Goi-mailako Hezkuntza (5-8. maila) |
|---|---|---|---|
| EB | 63,7 | 30,7 | 10,3 |
| Espainia | 63,6 | 38,7 | 13,8 |

*Iturria: Eurostat*

26.eranskina

**49. grafikoa: Europar Batasunean 18 urtetik beherakoek duten pobrezia-arriskuaren ehunekoa, gurasoen ikasketa mailaren arabera. 2016**




*Iturria: Eurostat*

Horrek adierazten du harreman zuzena dagoela haurren pobrezia-tasaren eta gurasoen prestakuntza mailaren artean; hau da, ikasketek babes handia ematen dutela pobrezia eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuen aurrean.

## Pobrezia eta eskola uztea

Lehen esan dugun bezala, Europa 2020 Estrategiaren lehentasunetako bat da hezkuntza. Estrategiaren aurrerapena neurtzeko helburuetatik biren arabera, ikasketak behar baino lehenago uzten duten pertsonen kopuruak %10etik beherakoa izan behar du 2020an, eta, horrez gain, 30 eta 34 urte arteko pertsonen %40k gutxienez hirugarren mailako hezkuntza edo horren baliokidea egina behar du izan urte horretarako.

Bi helburu horiek EB guztirako ezarri diren arren, ez dira herrialde edo eskualde mailan espezifikoki aplikatzen. Izatez, ET2020ren erreferentzia puntu bakoitza herrialde eta, kasu batzuetan, eskualde bakoitzean lortu beharreko helburuekin osatu da. Horiek egiterakoan, egoera eta ezaugarriak izaten dira kontuan. Espainian, esaterako, altua denez eskola uzten dutenen tasa, kopuru hori %15etik jaistea litzateke asmoa.

EBn, hezkuntza edo prestakuntza behar baino lehenago uzteko probabilitatea handiagoa izaten da gizonen artean emakumeen artean baino, Bulgarian, Txekiar Errepublikan eta Errumanian izan ezik. Probabilitate hori handiagoa da, halaber, atzerrian jaiotakoen taldean edo desgaitasun fisikoren bat dutenen artean.

Hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uzten dutenen proportziorik txikiena EBko ekialdean erregistratu zen, batik bat: Kroazia (%3,1), Eslovenia (%4,3) eta Polonia (%5). Aldiz, ehuneko altuenak estatu hauetan erregistratu ziren: Malta (%18,6), Espainia (%18,3), Errumania (%18,1) eta Italia (%14).

**50. grafikoa: Hezkuntza behar baino lehenago uztearen eta pobrezia-arriskuaren edo gizarte-bazterketaren tasaren arteko harremana 18 urtetik beherakoen artean Europar Batasunean. 2017**




*Iturria: Eurostat*

**27.eranskina**

Pobrezia-arriskuaren eta hezkuntza behar baino lehenago uztearen arteko harremanean alde handiak daude autonomia erkidego batzuetatik besteetara. Bi faktore horien kasuan, Nafarroa egoera hobean ageri zaigu.

**51. grafikoa: Hezkuntza behar baino lehenago uztearen eta pobrezia-arriskuaren edo gizarte-bazterketaren tasaren arteko harremana, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2017**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Bestalde, 2008-2015 epealdian, gazteen langabeziak oso azkar egin zuen gora, eta, horren eraginez, gazte batzuek ikasten jarraitzea erabaki zuten, lan aukerarik ez zutelako. Urte horietan EB-28n hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago utzi zutenen kopuruak behera egin zuen. Beheranzko joera nahiko orokorra da, datu zehatzak bildu zituzten 256 eskualdeen lau bostenetan baino gehiagotan (%82,8) erregistratu baitzen. Izatez, hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uzten duen 18 eta 24 urte arteko pertsonen kopuruaren jaitsiera aipagarrienak alderdi horretan ehuneko altuenak zituzten eskualdeetan eman ziren, 2008 eta 2014 artean. Hain zuzen ere, Espainian eta Portugalen gertatu zen hori.

## Gizarte-babesa eta pobrezia

Gizarte-babeseko neurriak funtsezko tresna dira pobrezia eta gizarte-bazterketa murrizteko eta horiekin lotutako fenomenoak gutxitzeko. Gizarte-babeseko neurrien arrakasta ebaluatzeko moduetako bat hauxe da: gizarte-transferentzien aurreko eta ondorengo pobrezia-arriskuaren adierazleak alderatzea. 2016an, gizarte-transferentziek %26tik (transferentzien aurretik) %17ra jaitsi zuten (transferentzien ondoren) EBn pobrezia-arriskuaren tasa.

Gizarte-babeserako programak egoteak eragina du pobreziak sortzen duen arrakalaren tamainan eta sakontasunean. Gizarte-transferentzien aurreko eta ondoko pobrezia-arriskuaren tasak aztertuta, ikus genezake gizarte-prestazioen eragina txikia izan zela Errumanian, Grezian, Italian, Bulgarian, Letonian, Polonian eta Estonian. Irlandan, Danimarkan, Finlandian, Islandian eta Norvegian, ordea, pobrezia-arriskuan zeuden pertsonen erdiak baino gehiago gizarte-laguntzei esker geratu ziren arrisku horretatik salbu.

**52. grafikoa: Pobrezia-arriskuaren tasak, gizarte-transferentzien aurretik eta ondoren, Europar Batasunean. 2016**




*Iturria: Eurostat*

28.eranskina

- **Hezkuntzan egindako gastua**

Hezkuntzan gehien erabiltzen den adierazleetako bat, eta esanguratsua dena oso, barne-produktu gordinarekin alderaturik hezkuntzara bideraturiko gastu publikoaren bolumena neurtzen duena da. Hori guztia, gastu publikoko partida guztiak zehazteko zailtasuna kontuan izanik. Edozein modutan, 2016an Europar Batasuneko estatuen batez besteko gastua %4,9 zen. Estatu bakoitzaren ehunekoaren bilakaerari erreparatuz gero, denetarik ikusiko dugu: herrialde batzuetan, handitzen ari da (Eslovenian eta Portugalen); beste batzuetan, berriz, behera egiten ari da (Eslovakian, Espainian, Grezian eta Polonian).

**19. taula: Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera barne-produktu gordinarekiko, Europar Batasunean**

| | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 |
|---|---|---|---|---|---|
| EB | 5,1 | 5,3 | 4,9 | 5 | 4,9 |
| Espainia | 4,4 | 4,3 | 5,6 | 4,1 | 4,1 |
| Nafarroa | 3,0 | 3,1 | 3,1 | 3,1 | 3,1 |

*Iturria: Eurostat*

29.eranskina

Herrialde batzuk nabarmentzekoak dira, hezkuntzan batez beste BPGd-ren %6 baino gehiago inbertitzen baitute: Danimarka (%7), Suedia (%6,6), Belgika (%6,4), Finlandia (%6,2), Estonia (%6,1) eta Portugal (%6). Espainia gastu proportzionalik baxuena (%4,1) egiten dutenen taldean sartzen da.

**53. grafikoa: Hezkuntzako gastu publikoa barne-produktu gordinarekiko Europar Batasunean. 2016**




*Iturria: Eurostat*

## Etxebizitza bakoitzak hezkuntzan egiten duen gastua

Etxebizitza bakoitzak hezkuntzan batez beste gastatzen duena –zehazten zaila den adierazlea da– guztizko gastuaren %1,1 eta %1,2 artekoa da EB-28n. Aldagai horrek denboran zehar izan duen bilakaera ondoko taulan jaso dugu, estatu bakoitzari dagozkion datuekin. Espainian, balio horiek %1,5 eta %1,8 artekoak izan ziren 2012-2016 aldian.

**20. taula: Etxebizitzek hezkuntzan egindako batez besteko gastua Europar Batasunean. Guztizkoaren %**

| | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 |
|---|---|---|---|---|---|
| EB | 1,1 | 1,1 | 1,2 | 1,2 | 1,2 |
| Espainia | 1,7 | 1,8 | 1,9 | 1,9 | 1,9 |
| Nafarroa | 1,6 | 1,7 | 1,8 | 1,5 | 1,7 |

*Iturria: Eurostat eta Nastat*

**54. grafikoa: Etxebizitzek hezkuntzan egindako batez besteko gastua Europar Batasunean. Guztizkoaren %. 2016**




** Daturik ez zeukaten herrialdeak ezabatu egin ditugu*
*Iturria: Eurostat*

30.erans kina

2016an irakaskuntzan gehien gastatu zuten etxebizitzak Madril, Katalunia, Euskadi eta Nafarroakoak izan ziren: batez beste, %1,5etik gorako gastua egin zuten.

**55. grafikoa: Etxebizitzek hezkuntzan egindako batez besteko gastua, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2017**




** 2006 eta 2010 artean, Ceuta eta Melillako datuak bateratuta argitaratu dira. 2011tik aurrera, bananduta argitaratu dira; hortaz, laginketa akatsak handiagoak dira bi kategoria horietan.*

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

### *2.2.5. Berrikuntza eta ikerketa*

Ezagutzan oinarritutako ekonomia mundu guztian ari da indarra hartzen. Adostasun handiz onartzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) daudela ekonomian eta gizartean gaur egun gertatzen ari diren aldaketaren muinean.

Ekonomia mota horren garapena IKTen aurrerapen soiletik harago doa. Izan ere, aldaketak sartzen ditu eskariaren eta eskaintzaren nolakotasunean, eta ezagutzari eta berrikuntzari balio berria ematen die, baliabide nagusi gisa. Ikusmolde horren erdigunean hezkuntza, berrikuntza eta ikerketa daude. Elementu horiek elkarri eragiten badiote ere, hezkuntza da, bizitza osoko ikaskuntzaren ikuspuntutik ulertuta, beste bien euskarri-lanak egiten dituen elementua.

Berrikuntzak eta ikerketak garrantzi handia dute ET2020ren barruan, hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaile baten alde formulatutako estrategiaren oinarria bera osatzen dutelako. Estrategia horren helburuen artean dago I+G gastua barne-produktu gordinaren %3raino igotzea 2020rako (inbertsio publikoko BPGd-ren %1 eta inbertsio pribatuko %2).

ET2020k zera proposatzen du: barne-produktu gordinaren %3 inbertitzea I+G gastuan. 2016an, Suediak (%3,3) eta Austriak (%3,1) bete zuten helburu hori. Suediak eta Finlandiak, hortaz, barne-produktu gordinaren %4ko inbertsioa gainditzea ezarri dute 2020rako helburu gisa. Espainian, %1,2koa zen I+Gn egindako gastua.

Nafarroan, berriz, %1,75ekoa zen barne-gastu hori. Inbertsio altuenak egiten dituzten herrialdeen (Finlandia, Suedia, Danimarka, Austria eta Alemania) ehunekoen azpitik dago, beraz, Nafarroa, bai eta EBko batezbestekoaren azpitik ere, baina Espainiako balioaren gainetik.

**56. grafikoa: Barne-gastu gordina I+Gn barne-produktu gordinarekiko Europan, 2016an**




*Iturria: Eurostat*

## *2.3. Alderdi soziokulturalak*

### *2.3.1. Ezaugarri orokorrak*

Alderdi soziokulturalek eragin handia dute hezkuntzaren arloan. Horien artean dauzkagu, esate baterako, etxean irakurtzeko ohitura, musika edo antzerkigintzarekin lotutako kultura gertukoa izatea edo eduki kulturala duten esperientzietan parte hartzea. Halakoen garrantzia gutxietsi gabe, esanguratsuak dira, gaur egun, konektibitatea eta Interneten erabilera, eta nazioartean oso zabalduta dauden adierazle bilakatu dira.

Europar Batasunean, Interneterako sarbideari buruzko datuak asko aldatzen dira herrialdetik herrialdera, baina, betiere, goranzko bilakaera antzematen da haietan guztietan. Herrialde batzuetan, Interneterako sarbidea duten etxeen ehunekoa oso handia da; zehazki, %90etik gorakoa (Alemania, Danimarka, Finlandia, Luxenburgo, Herbehereak, Erresuma Batua, Suedia). Besteren batean, aldiz, konexio horrek ez du %70eko langa gainditzen (Bulgaria).

**21. taula: Interneterako sarbidea duten etxebizitzen ehunekoa Europar Batasunean. 2017ko urtarrilaren 1a**

| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|
| EB-28 | 79 | 81 | 83 | 85 | 87 |
| Espainia | 70 | 74 | 79 | 82 | 83 |
| Nafarroa | 71,5 | 76 | 80,8 | 82,5 | 88,3 |

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala eta Eurostat*

31.eranskina

Espainiako etxebizitza guztien %83,4k izan du sarerako sarbidea 2017an, aurreko urteko %81,9ren aldean. Konexio motari dagokionez, banda zabaleko Interneterako sarbide mota (ADSL, kable bidezko sarea...) duten 13,5 milioitik gora familia etxebizitza daude, hau da, Interneterako sarbide mota adierazi duten etxebizitzen %99,8.

Banda zabaleko Interneterako sarbide mota nagusia eskuko gailu baten bidezkoa da (azken belaunaldiko telefono mugikorra –3G, gutxienez–, etab.). Etxebizitzen %76,1ek dute hori. Horren atzetik daude beste konexio mota hauek: kable edo zuntz optiko bidezko sarea (etxebizitzen %49,3), ADSL linea (%41,7), banda zabaleko konexio mugikorrak –USB edo txartel modem bidez– (%7,6) eta banda zabaleko beste konexio finko batzuk –satelite, WiFi publiko edo WiMax bidez– (%7,4).

2016an gertatu zen moduan, aipagarria da kable edo zuntz optiko bidezko sareak izandako gorakada (aurreko urtean baino 11,8 puntu gehiago) eta ADSL bidezko konexioaren beherakada (6 puntu); azken konexio mota honek nagusitasuna galdu du banda zabaleko konexio finkoetan.

**57. grafikoa: IKT ekipamenduen bilakaera Espainiako etxebizitzetan**




*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

Sarbiderik ez duten etxebizitzetan arrazoi hauek aipatzen dituzte: ez dutela Interneten beharrik, apenas dakitela Internet erabiltzen eta arrazoi ekonomikoak (ekipoen eta konexioaren kostuak handiegiak direla).

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen dituzten haurren (10-15 urte) ehunekoa oso altua da, oro har. Ildo horretatik, adingabekoen artean oso zabalduta dago ordenagailuaren erabilera (%92,4) eta zer esanik ez Interneten erabilera (%95,1). Internet erabiltzen duten adingabeen kopuruak ordenagailua erabiltzen dutenena gainditzen du. Sexu desberdinen artean ia ez dago alderik. Adinaren arabera, emaitzek erakusten dutenez, 10 urtetik beherakoen artean ordenagailuaren eta Interneten erabilera nagusi da. 10 urtetik aurrera, gero eta haur gehiagok dute telefono mugikorra; eta 15 urteko biztanleriaren %94,0k du mugikorra.

**22. taula: IKT erabiltzen duten adingabeen ehunekoa Espainian, sexuaren eta adinaren arabera. 2017**

| | Ordenagailuaren erabilera | Interneten erabilera | Mugikor erabiltzea |
|---|---|---|---|
| Sexuaren arabera | | | |
| Guztira | 92,4 | 95,1 | 69,1 |
| Gizonak | 91,1 | 94,9 | 68,2 |
| Emakumeak | 93,9 | 95,2 | 70 |
| Adinaren arabera | | | |
| 10 | 88,4 | 88,8 | 25 |
| 11 | 89,3 | 91,0 | 45,2 |
| 12 | 95,8 | 95,8 | 75 |
| 13 | 93,6 | 96,8 | 83,2 |
| 14 | 95,1 | 98,9 | 92,8 |
| 15 | 92,5 | 99,2 | 94 |

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

### *2.3.2. Nafarroako hizkuntzak*

Nafarroako hizkuntzen errealitatea aberatsa eta konplexua da. Garai historikoetan hiztun komunitateak sortu zituzten hizkuntzen garapenak ez du etenik izan, eta oraindik ere irauten dute berezko hizkuntza gisa gaztelania edota euskara duten bi komunitateak. Sakontasunez aztertu diren arrazoi soziolinguistiko eta historikoak direla medio, komunitateko biztanle ia guztiek dakite gaztelaniaz gaur egun. Euskal hiztunak elebidunak dira gutxienez, gaztelania ere menderatzen baitute. Badira, gainera, beste hizkuntzen hiztunek osaturiko komunitate batzuk, nazioarteko migrazioen, gizarte-fluxuen edo ikaskuntzaren ondorioz sortuak. Horiek beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzte, baina fenomeno hori ez da nahikoa ikertu orain arte.

Nafarroako datu orokor eguneratuenak 2016an egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoari dagozkio. Inkesta horren arabera, Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %12,9 euskalduna da; %10,3, euskaldun pasiboa, eta %76,7, ez da euskalduna. Hortaz, Nafarroan, 16 urte edo gehiago dituzten biztanleen artean, 69.000 euskaldunak dira; 55.000, euskaldun pasiboak, eta 410.000, ez dira euskaldunak.

**58. grafikoa: 16 urteko edo gehiagoko biztanleria eta hizkuntza-profila. 2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Eremu euskalduna da euskaldun portzentaje handiena duen eremua (%61,1). Eremu mistoan, euskaldunen portzentajea %11,3koa da. Euskaldun portzentaje baxuena eremu ez-euskaldunekoa da (%2,7). Hori guztia, aipatutako inkesta egitean zegoen zonifikazioa kontuan izanik.

**59. grafikoa: Hizkuntza gaitasuna eremuen arabera. 2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Iruñeari dagokionez, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %10,5 da euskalduna; %11,4, euskaldun pasiboa, eta %78,1, ez da euskalduna.

**60. grafikoa: Hizkuntza gaitasuna Iruñean 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren artean. 2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Azken 25 urteotan, euskaldunen ehunekoa 3,4 puntu hazi da. Nafarroan, 1991n, euskaldunak %9,5 ziren, eta egun, %12,9 dira. Halaber, euskaldun pasiboen kopurua ere hazi egin da: biztanleriaren %4,6tik %10,3ra.

**61. grafikoa: Euskaldunen bilakaera Nafarroan. 1991-2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Eremu mistoan hazi da gehien euskaldun kopurua (%5,2tik %11,3ra). Eremu ez-euskaldunean, 2016an, %2,7koa da ehunekoa; duela 25 urte %0,6koa zen. Azkenik, eremu euskaldunean, euskaldun kopuruak ez du aldaketa handirik jasan: %60-61 inguruan mantentzen da.

## Hizkuntza gaitasuna, adin-taldeen arabera

Euskaldun gehien dituen adin-taldea 35 urtetik beherakoena da; bereziki, 16-24 urte bitarteko taldea. Gaur egun, Nafarroako 16-24 urte bitarteko biztanleriaren %25,8 euskalduna da; eta 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren %18,8.

Adinak aurrera egin ahala, euskaldun kopuruak behera egiten du. 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren artean dago euskaldun kopururik txikiena (%8,3). 35 urte edo gehiagoko adin-talde guztietan, elebidunen ehunekoa Nafarroako batezbestekoa baino baxuagoa da, (%9 eta %10en artekoa).

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, elebidun kopurua hazten ari da gazteenen artean. 1991n, 16 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren %10 euskalduna zen; gaur egun, ia 16 puntu hazi da (%25,8). Era berean, 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren artean ere hazi egin da:1991n, %7koa zen, eta 2016an, %18,8koa.

**62. grafikoa: Euskaldunen bilakaera adin-taldeen arabera**




*Iturria: Euskarabidea*

Adin-taldeei dagokien bilakaera egun finkatuta dauden hiru hizkuntza eremuetan gertatu da; nahiz eta errealitateak oso bestelakoak diren.

Eremu euskaldunean, euskaldunen ehuneko altuena 16 eta 24 urte bitarteko biztanleria gazteak osatzen du (%89,6). Adinak aurrera egin ahala, euskaldun kopuruak behera egiten du. Hala, euskaldun gutxien dituen adin-taldea 50 eta 64 urte bitartekoa da (%51,1). 65 urteko edo gehiagokoen adin-taldean, euskaldunen ehunekoa hazi egin da berriro ere: %58,4.

Eremu mistoan, euskaldunen ehuneko handiena gazteen artean dago (%27,3); txikiena, ordea, nagusienen artean (%4,1). Iruñeko datuak ere antzekoak dira: 16 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren %25,1 eta 65 urte baino gehiagokoen %4,1 da euskalduna.

Eremu ez-euskaldunean, elebidunen ehuneko handiena gazteen artean erregistratu da: 16-24 urte bitartekoen %8,6 eta 25-34 urte bitartekoen %4,1. Gainontzeko adin-taldeen ehunekoak oso txikiak dira.

## Euskararen transmisioa

Lehen hizkuntzaz ari garenean, haur batek 3 urte bete arte familian ikasi duen hizkuntzari egiten diogu erreferentzia. Euskara da Nafarroako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %9,3ren lehen hizkuntza. Etxean euskara bakarrik eskuratu dutenak %6,2 dira, eta euskara eta gaztelania eskuratu dutenak %3,1. Nafarroan bizi diren hamar pertsonatik bederatzik gaztelania soilik edo euskara ez den beste hizkuntza bat eskuratu dute etxean (%90,8). Aipatu beharra dago gero eta biztanle gehiago bizi direla Nafarroan lehen hizkuntza errumaniera, portugesa, errusiera edo beste hizkuntza bat dutenak.

**63. grafikoa: Lehen hizkuntza Nafarroan. 2016**




*Iturria: Euskarabidea*

**64. grafikoa: Lehen hizkuntza 1986ko zonifikazioaren arabera. 2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Hizkuntza eremuen araberako aldeak nabarmenak dira. Eremu euskaldunean, euskara da biztanleriaren erdia baino gehiagoren lehen hizkuntza (%55,3): %45,4k euskara bakarrik eskuratu du etxean, eta %9,9k, euskara zein gaztelania.

Gaztelania lehen hizkuntzatzat dutenak gehiengoa dira, bai eremu mistoan (%93,8) bai eremu ez-euskaldunean (%98,1). Iruñeko datuak eremu mistoko datuen oso antzekoak dira. Hala, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %3,1ek euskara besterik ez du eskuratu etxean, eta %2,7k, euskara zein gaztelania. Hortaz, gaztelania da Iruñeko hamar biztanletik bederatziren lehen hizkuntza (%94,2).

Euskara lehen hizkuntzatzat duten pertsonen gehiengoa 65 urte edo gehiagokoen taldekoa da (%8,5). Adinak behera egin ahala, ehunekoa ere jaitsi egiten da, 16-24 urte bitarteko taldera heldu arte. Talde horretan aldaketa bat gertatu da: etxean euskara bakarrik eskuratu duten pertsonen ehunekoa handiagoa da 16-24 urte arteko taldean, 25-34 urte artekoan baino (%5,9 versus %5). Gazteen taldekoak dira euskara nahiz gaztelania eskuratzen duten gehienak (%4,9).

**65. grafikoa: Lehen hizkuntzaren bilakaera adin-taldeen arabera. 1991-2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Eremu euskaldunean, adin-talde guztietan, pertsonen erdiak baino gehiagok du lehen hizkuntzatzat euskara edo euskara eta gaztelania. Hala eta guztiz ere, lehen hizkuntzatzat euskara baino ez duten hiztunen ehunekoa aztertuz gero, ikusiko dugu, adinak behera egin ahala, ehunekoak ere behera egiten duela (%52,7, 65 urte edo gehiagokoen taldean, eta %40-%45, 50 urte baino gazteagoen artean).

Lehen hizkuntzatzat euskara nahiz gaztelania dutenen ehunekoak, berriz, gora egiten du adinak behera egin ahala. Hala, nagusienen artean, %7,7 dira, eta gazteen artean, %17,7. Gaztelania lehen hizkuntzatzat duten biztanleriaren ehuneko handienak 35-49 eta 50-64 urte artekoen taldeenak dira (%49,7 eta %45,3, hurrenez hurren), eta baxuenak, 65 urte edo gehiagokoen eta 16 eta 24 urte bitartekoen taldearenak (%39,5 eta %40,7, hurrenez hurren).

Eremu mistoan, lehen hizkuntzatzat gaztelania duten pertsonak gehiengoa dira adin-talde guztietan: hamarretik, bederatzi baino gehiago dira. Euskara lehen hizkuntzatzat izan dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagoko taldean erregistratu da (%6,7), eta adinak behera egin ahala, ehunekoak ere behera egiten du. Azken adin-taldean, lehen hizkuntzatzat euskara izan duten pertsonak aurreko adin-taldekoak baino gehiago dira (%2,3).

Hala ere, kontrakoa gertatzen da euskara eta gaztelania aldi berean eskuratzen dutenekin, adinak behera egin ahala, ehunekoak gora egiten baitu ia adin-talde guztietan. Gazteen adin-taldean, gehiago dira euskara eta gaztelania aldi berean eskuratzen dutenak (%6,2), euskara bakarrik eskuratzen dutenak baino (%2,3). Eta gauza bera gertatzen da Iruñean.

Eremu ez-euskaldunean, datuak ez dira esanguratsuak, beraz, lehen hizkuntza ez dugu adin-taldeka sailkatuko. Hala eta guztiz ere, aipatu behar dugu, adin-talde guztiak kontua izanik, gaztelania (edo euskara ez den beste hizkuntza bat) dela biztanleriaren %98,5en lehen hizkuntza.

Lehen hizkuntzak adin-taldeka izan duen bilakaerari dagokionez, duela 25 urte, lehen hizkuntzatzat euskara eta gaztelania zituzten pertsona gehienak 65 urte edo gehiagokoen taldekoak ziren (%13,8), eta adinak behera egin ahala, ehunekoak ere behera egiten zuen; 25 eta 34 urte bitarteko gazteen artean erregistratu zen ehuneko baxuena (%5,4). Gaur egun, ehuneko esanguratsuenak 16 eta 24 urte bitarteko eta 65 urte edo gehiagokoen taldeetan aurkitzen ditugu (%10,9 eta %10,5, hurrenez hurren). Ehunekorik baxuena 35 eta 49 urte bitarteko biztanleen artean erregistratu da (%7,4).

**Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera sailkatuta**

Bestalde, 16 urte edo gehiagoko euskaldunen %40,7k euskara baino ez du eskuratu etxean; alegia, jatorriz dira euskaldunak. Euskaldunen %13,4k euskara nahiz gaztelania eskuratu du etxean, beraz, jatorriz da elebiduna. Azkenik, ia erdiak dira euskaldun berriak, alegia, ez dute euskara etxean eskuratu (%45,9). Pertsona horiek eskolan, euskaltegian edo euskara-eskola espezifikoetan ikasi dute euskara.

**66. grafikoa: Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. 1991-2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Duela 25 urte, lau euskaldunetik hiru ziren jatorriz euskaldunak (%76,6). Egun ez bezala, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien ehunekoa baxua zen (%7,4 eta %16, hurrenez hurren).

Datuak hizkuntza eremuka aztertuz gero, aldeak nabarmenak dira. Eremu euskaldunean, hamar euskaldunetik zazpi dira jatorrizkoak (%71,3); hamarretik bat, jatorrizko elebiduna (%11), eta ia hamarretik bi, euskaldun berriak (%17,6).

Eremu mistoan, hamar elebidunetik sei baino gehiago dira euskaldun berriak (%65,8), eta jatorrizko euskaldun eta elebidunen ehunekoak antzekoak dira (%18,1 eta %16,1, hurrenez hurren).

Azkenik, eremu ez-euskaldunean, hamar elebidunetik zortzi dira euskaldun berriak (%80); hamar euskaldunetik bat, jatorrizko euskalduna (%11,7), eta ia hamarretik bat, jatorrizko elebiduna (%8,3).

**67. grafikoa: Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren eta adin-taldeen arabera. 2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Adinaren araberako bilakaerari dagokionez, aldaketa asko izan dira elebidunen taldean. Egun ez bezala, 1991n, jatorrizko euskaldunak gehiengoa ziren adin-talde guztietan. Gaur egun, ordea, 16 eta 24 urte bitarteko eta 25 eta 34 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago da

euskaldun berria (%58 eta %57,9, hurrenez hurren). 1991n, adin-talde horietan, euskaldun berriak %25,5 eta %30,2 ziren, hurrenez hurren.

### Euskararen erabilera

Nafarroan, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %12,2k euskara erabiltzen du, neurri handiagoan edo txikiagoan: %6,6k era intentsiboan erabiltzen du; hau da, egunerokotasunean, gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen du. Aldi berean, %5,6k euskara erabiltzen du, baina gaztelania baino gutxiago.

Gainontzeko biztanleek (%87,8) beti edo ia beti erabiltzen dute gaztelania. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da, noizean behin izan arren, euskara ere erabiltzen duen talde bat badagoela (%2,5).

**68. grafikoa: Euskararen erabilera mota. 2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Hizkuntza eremua zein den, erabilerari dagozkion datuak nabarmen aldatzen dira. Hori horrela, euskara lehentasunezko hizkuntzatzat erabiltzen dutenak %50,7 dira eremu euskaldunean, %3,2 eremu mistoan eta %0,2 eremu ez-euskaldunean. Aldi berean, euskara gaztelania baino gutxiago erabiltzen dutenak daude: %11,9, eremu euskaldunean, %10,8, eremu mistoan, eta %2,5, eremu ez-euskaldunean.

Euskararen erabileraren hazkundea eremu euskaldunean eta mistoan izan da bereziki. Aipatu dugun bezala, azken 25 urteotan, euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleriaren ehunekoa 3,9 puntu hazi da eremu euskaldunean. Hala ere, nabarmentzekoa da hazkunde handiena azken bost urteetan izan dela (2,1 puntu). Eremu mistoan, 1,5 puntuko hazkunde osoa azken bost urteotan izan da.

Azken 25 urteetako bilakaera aztertuz gero, nabarmentzekoa da inguru hurbilean nahiz eremu formalean hazi egin dela euskararen erabilera. Dena den, Nafarroan, erabilera eremu guztietan areagotu da euskararen erabilera azken bost urteotan, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Familiaren barruko euskararen erabilera 1991. eta 2011. urte bitartean murriztu zen arren, azken bost urteotan 0,8 puntu hazi da. Bikotearekin, gurasoekin eta neba-arrebekin elkarrizketak euskaraz egiteagatik egon da hazkunde hori. Hala eta guztiz ere, seme-alabekin euskara erabiltzearen ehunekoa duela bost urteko ehunekoaren berdina da (%8).

**69. grafikoa: Etxean euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleriaren bilakaera. 1991-2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Inguru hurbilean eta eremu formalean, areagotu egin da euskararen erabilera, azken 25 nahiz bost urteotan. 2011. eta 2016. urte bitartean, euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen zutenen ehunekoa eremu hauetan guztietan hazi zen: 0,6 puntu, lagunekin; 0,8 puntu, bankuen sektoreko eta osasun zerbitzuetako langileekin; 1,3 puntu, dendariekin; 1,4 puntu, lankideekin; eta 2,5 puntu, udal zerbitzuetako langileekin.

**70. grafikoa: Inguru hurbilean eta eremu formalean euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleriaren bilakaera. 1991-2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duten pertsonen ehunekoa gero eta txikiagoa da 65 urte baino gehiagokoen artean; 35 urte baino gutxiagokoen artean, ordea, gero eta handiagoa da. 35 eta 50 urte arteko pertsonen artean, euskararen erabilerak behera egin zuen 1991. eta 2011. urteen artean. Hala ere, azken bost urteotan ikusitako joera aldaketa talde horren barruan ere gertatu da. Hala,

erabileraren ehunekoa 0,9 puntu hazi da 50 eta 64 urte bitarteko hiztunen artean, eta 1,3 puntu 35 eta 49 urte bitartekoen artean.

**71. grafikoa: Euskara gaztelania bezainbeste edo gehiago erabiltzen duen biztanleriaren bilakaera, adin-taldeen arabera. 1991-2016**




*Iturria: Euskarabidea*

Hortaz, orain arte aztertutako datuak kontuan izanik, esaten ahal da, Nafarroan, gero eta pertsona gehiagok erabiltzen duela euskara. Hau da, euskararen ahozko erabilera gero eta handiagoa da familia barruan, inguru hurbilean eta eremu formalean.

Inkestatu guztien %77k sare sozialak erabiltzen ditu; gehiengoak, egunero (%68,7). Erabiltzaileen adinari dagokionez, 65 urte baino gutxiagoko adin-talde guztietan, gehiengoak erabiltzen ditu sare sozialak egunero (%74,3, 50 eta 64 urte artekoen artean, eta %98,2, 16 eta 24 urte artekoen artean). Erabiltzaileen adinak behera egin ahala, erabilera hazi egiten da.

Gaztelania da sare sozialetan gehien erabiltzen den hizkuntza; baita gazteen artean ere. Hori bai, erabiltzaileen %6,5ek oso maiz erabiltzen du euskara (hots, euskararen erabileraren ehunekoa %50ekoa edo handiagoa da). Gazteenen artean (16 eta 24 urte bitartekoak), euskara oso maiz erabiltzen dutenak %13 dira. Gaztelania eta euskaraz gain, erabiltzaileek beste hizkuntza batzuk ere erabiltzen dituzte Interneten; bereziki, ingelesa (%3,3).

## *2.4. Hezkuntza alderdiak*

Gizartearen hezkuntza maila eta hezkuntzarekiko eta prestakuntzarekiko itxaropenak, bistan denez, hezkuntza sistemaren prozesuetan, politiketan eta emaitzetan erabat eragiten duten testuinguruaren gizarte eta hezkuntza aldagaiak dira. Aurreko hezkuntza politiken emaitza pilatua ere badira, gainera.

### *2.4.1. Biztanleria helduaren ikasketa-maila*

Biztanleria helduak erdietsitako ikasketa-mailak hezkuntza sistemak errealitate sozialean duen eragin geroratua erakusten digu. Adierazle horretarako, bi kategoria berezi ohi dira: ohikoa (25-64 urte), lan egiteko adinean dauden biztanle helduak jasotzen dituena, eta partziala (25-34 urte), lan mundura sartu berriak diren edo sartzeko moduan dauden biztanle helduak biltzen dituena.

Datuak 1997ko Irakaskuntzaren Sailkapen Normalizatu Internazionalaren arabera eman ditugu (ISNI 97). Sailkapen hori UNESCOk egin zuen, eta 7 ISNI hezkuntza mailak ezartzen ditu.

32.eranskina

Europan, biztanleria orokorrak (25-64 urte) eta biztanleria heldu gazteak (25-34 urte) ikasketa-mailaren arabera duten banaketak errealitate desberdinak erakusten ditu.

EBko batezbestekoak maila ertaina (ISNI 3 eta 4) eskuratu duten pertsonek osatutako talde nagusi bat erakusten du alderantzikatutako V baten forman. Espainian, banaketa V forman egiten da; izan ere, ehunekorik txikiena duen taldea tartekoa da hain zuzen. %46,1 da EBn, %22,7 Espainian eta %22,4 Nafarroan.

**23. taula: 25 eta 64 urte arteko biztanleen banaketaren ehunekoa, prestakuntza mailaren arabera. 2017**

| | Bigarren Hezkuntzako lehenengo etapa edo gutxiago | Bigarren Hezkuntzako 2. maila | Goi-mailako ikasketak |
|---|---|---|---|
| EB-28 | 22,5 | 46,1 | 31,4 |
| Espainia | 40,9 | 22,7 | 36,4 |
| Nafarroa | 32,1 | 22,4 | 45,5 |

*Iturria: Eurostat*

**72. grafikoa**: **25 eta 64 urte arteko biztanleen banaketaren ehunekoa, prestakuntza mailaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeetan. 2017**




*Iturria: Eurostat*

33.eranskina

Aipatzekoa da ISNI 3-4 prestakuntza maila duen biztanleriaren ehunekoa; banaketa oso desberdina da EBn, bereziki nabarmena Espainian eta Portugalen. Datu horiek faktore garrantzitsua dira prestakuntza mailak inguru sozioekonomikoaren beharretara egokitzeko. Izan ere, erdi-mailako titulatu gutxi egoteak baldintzatu egiten du prestakuntza enplegu mailetara egokitzea, eta ehuneko handiak aritzen dira beren prestakuntza baino maila apalagoetako lanetan.

**73. grafikoa: Europar Batasunean ISNI 3-4 mailan dagoen 25-64 urte arteko biztanleria. 201**




*Iturria: Eurostat*

Espainiako 2017ko datuei erreparatuta, ikusiko dugu autonomia erkidego batzuk batezbestekoaren gainetik daudela, biztanleria helduaren artean hirugarren mailako titulazio bat dutenen pertsonen kopuruari dagokionez. Honako hauek, zehazki: Aragoi, Asturias, Kantabria, Katalunia, Errioxa, Madril, Nafarroa eta Euskadi. Bereziki balio altuak dituzte Euskadik (%49,7), Madrilek (%47) eta Nafarroak (%45,5).

Autonomia erkidego batzuetan 25-64 urte arteko biztanleen ia erdiak Bigarren Hezkuntzako lehen mailatik beherako ikasketa-maila du; erkidego hauetan, hain zuzen: Ceuta, Melilla, Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Valentzia eta Extremadura.

**74. grafikoa: Biztanleria helduaren (25 eta 64 urte artean) prestakuntza maila, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2017**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**34.erans kina**

Gizonen eta emakumeen prestakuntza mailari erreparatzean, hezkuntza-diferentziaz ohartuko gara. Hala, estatuan, emakumeen prestakuntza maila gizonena baino dezente altuagoa izan da 2017an. Diferentzia hori autonomia erkidego guztietan ikusten da, indar handiagoarekin edo txikiagoarekin, bai goi-mailako hezkuntzaren kategorian, bai Bigarren Hezkuntzako 2. etaparen azpiko prestakuntza dutenen artean.

**24. taula: Biztanleria helduaren prestakuntza maila, autonomia erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2017**

| | Gizonak | | | Emakumeak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherakoak | Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa | Goi-mailako ikasketak | Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherakoak | Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa | Goi-mailako ikasketak |
| Espainia | 43,5 | 22,7 | 33,8 | 38,3 | 22,7 | 38,9 |
| Nafarroa | 34,4 | 23,3 | 42,3 | 29,8 | 21,5 | 48,7 |

*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**35.erans kina**

Nafarroan gizonen eta emakumeen prestakuntza maila bakoitzeko ehunekoak alderatzean, autonomia erkidegoetako batezbestekoa gainditzen duten aldeak ikusten ahal dira. Goi-mailako hezkuntza duten emakumeen ehunekoa %48,7koa da eta gizonezkoena, berriz, %42,3koa. Bestalde, Bigarren Hezkuntzako 2. etapatik behearako ikasketak dituzten emakumeak %29,8 dira. Gizonen artean, handiagoa da kopuru hori: %34,4.

**75. grafikoa: Biztanleria helduaren prestakuntza maila Espainian eta Nafarroan, sexuaren arabera. 2017**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

25 eta 34 urte arteko gazteen artean prestakuntza maila biztanleria aktiboari dagokionez handiagoa dela argi dago, bai EBn, bai Espainian eta bai Nafarroan.

**25. taula: 25 eta 34 urte arteko biztanleen banaketaren ehunekoa, prestakuntza mailaren arabera. 2017**

| | Bigarren Hezkuntzako lehenengo etapa edo gutxiago | Bigarren Hezkuntzako 2. maila | Goi-mailako ikasketak |
|---|---|---|---|
| EB-28 | 16,2 | 44,8 | 39 |
| Espainia | 33,8 | 23,6 | 42,6 |
| Nafarroa | 26,1 | 21,8 | 52,1 |

*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**76. grafikoa: 25 eta 34 urte arteko biztanleen banaketaren ehunekoa, prestakuntza mailaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeetan. 2017**




*Iturria: Eurostat*

36.erans kina

**77. grafikoa: Biztanleria helduaren (25 eta 34 urte artean) prestakuntza maila, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2017**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**37.eranskina**

Denboran izandako bilakaerak erakusten duenez, prestakuntza mailek gora egin dute etengabe. Belaunaldi batetik bestera heziketa maila handiagoetara jo den baloratzeko, Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako maila (ISNI 3-4) gutxienez osatu duten helduen proportzioa konparatzen da bi adin-tarte hauetan: 25-34 urtekoak eta 25-64 urtekoak.

**78. grafikoa: ISNI 3-4 duen biztanleriaren ehunekoa, adin-taldearen arabera (25-34 urte eta 25-64 urte) eta autonomia erkidegoaren eta hiri autonomoaren arabera. 2017**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**38.eranskina**

Alderaketa orokorra egiteak egiaztatutako prestakuntzak EBn, Espainian eta Nafarroan adin-taldeen arabera izandako bilakaerari buruzko ikuspegia ematen ahal du.

**79. grafikoa: 25-64 eta 25-34 urteko biztanleria, hezkuntza mailaren arabera. 2017**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, Eurostat*

### *2.4.2. Hezkuntzaren interesa alor instituzionalean*

Hezkuntzarekin lotutako jarduera oso aipagarria da alor instituzionalean. Atal honetan Nafarroako bizitza politiko eta sozialean esanguratsuak diren bi erakundetako albisteak emanen ditugu: Nafarroako Parlamentua eta arartekoa. Horrez gain, idatzizko bi egunkaritako orrialdeetan jasotako hezkuntzari buruzko gaien berri emanen dugu. Egunkari hauetan jasotakoak, hain zuzen: Diario de Noticias eta Diario de Navarra. Hezkuntzaren testuinguru diren beste adierazle sozial batzuk ere islatzea da asmoa.

- **Nafarroako Parlamentua**

Eranskin honetan, erakunde horrek unibertsitatekoa ez den hezkuntzari buruz egin dituen jarduera guztiak bildu ditugu. Ematen diren datuak Nafarroako Parlamentuko X. Legegintzaldiko jardueren memorian, 2017ko uztailaren 1etik 2018ko abuztuaren 30era bitarteko aldian, jasotakoen arteko laburpen bat dira.

**39.eranskina**

- **Nafarroako Arartekoa**

Eranskin honetan, erakunde horrek unibertsitatekoa ez den hezkuntzari buruz egin dituen jarduerak jaso ditugu. Eskaintzen ditugun datuak Nafarroako Arartekoaren Jardueren Memoriatik atera ditugu, X. Legegintzaldiari dagokion 2017ko uztailaren 1etik 2018ko abuztuaren 30era bitarteko epean.

**40.eranskina**

### *2.4.3. Hezkuntzaren interesa alor sozialean*

- **Komunikabideak**

**41.eranskina**

- **Baliabide profesionalak**

**42.eranskina**

# 3.- HEZKUNTZAKO BALIABIDE MATERIALAK ETA LANGILEAK

Pertsonak eta baliabide materialak funtsezko osagaiak dira hezkuntza sistemak dituen ekarpenei dagokienez; izan ere, haren funtzionamenduaren euskarria dira, eta eragin erabakigarria dute emaitzetan.

Kapitulu honetan Nafarroako unibertsitatetik kanpoko hezkuntza sistemak dituen baliabide nabarmenenak deskribatzen dira. Horien artean daude hezkuntza administrazioaren egiturarekin, egindako inbertsioarekin, azpiegiturekin eta zerbitzuekin loturikoak, bai eta sistemaren funtzionamendurako lanean ari diren pertsonekin loturikoak ere.

Hezkuntzako gastu publikoaren gaineko estatistikaren atalak unibertsitatetik kanpoko Nafarroako hezkuntza sistema publikoa du aztergai eta Hezkuntza Departamenduaren aurrekontuaren betearazpenak ematen dituen datuetan oinarritzen da. Horren guztiaren helburua Nafarroako Foru Administrazioaren unibertsitatetik kanpoko hezkuntzaren gastu publikoa kuantifikatzeko beharrezko informazioa ematea da; horregatik, atal honetatik at geratzen dira unibertsitateko ikasketetara bideratutako gastua eta Euskarabideari (erakunde autonomoa da, baina Hezkuntza Departamentuari atxikita egon zen 2015. urtera arte) dagokion gastua.

2001etik joan den urtera bitartean gastua aztertu da eta zifrak aurrekontuko partida gisa xehatuta eman dira. Dena dela, Administrazioaren antolaketako egituran eta, beraz, aurrekontuaren egituran, gertatzen diren aldaketek departamentu guztiak eragiten dituzte eta horrek aurrekontuko partidetan aldaketak ekartzen ahal ditu, baita horiek kentzea ere.

Hori dela eta, aurtengo gastu publikoaren estatistika analisian gastuaren sailkapen funtzionalari lehentasuna emanda egituratu da, hau da, egin beharreko jardueren izaeraren eta xedearen arabera. Gainera, gastua eragiketen izaera ekonomikoaren arabera banatzen da kapitulu ekonomikoen bitartez.

Ikuspegi honek egitura egonkorragoa duen analisia bermatzen du, gastuaren kodifikazio funtzionalak ez baitu aldaketa esanguratsurik pairatzen, salbu eta aurrekontuaren urteko berrikusketetan kodetze egokiagoak doitzearen ondorioz gertatzen ahal direnak.

## *3.1. Sailkapen funtzionala*

### Gastuaren sailkapen funtzionala

Hezkuntza Departamentuak ematen dituen zerbitzu ezberdinen artean gastua nola aplikatu, horren xedea, nola bideratu eta nola banatu zehazten du gastuaren sailkapen funtzionalak. *Zertan gastatzen da?* galderari erantzuten dio. Kontzeptu hauek biltzen ditu analisiak:

- Hezkuntza-zuzendaritza eta -zerbitzu orokorrak. Irakaskuntza eta modalitate guztietako jarduera hauek biltzen dituzte: zuzendaritza, koordinazioa, laguntza, kudeaketa, ikuskaritza, ebaluazioa, programen lanketa eta abar. Zerbitzu zentraletatik gauzatzen dira eta, oro har, zeharka eragiten dituzte sare publikoa eta sare itundua eta pribatua.

- Irakasleen etengabeko prestakuntza. Irakasleen prestakuntza, hobekuntza eta espezializaziora bideratutako ikastaro, mintegi, jardunaldi eta abarretarako gastua biltzen du; baita ekintza horietarako erakunde publiko eta pribatuei zuzenduriko diru-laguntzak eta xede horretarako laguntzak ere.

- Beste hezkuntza jarduera batzuetarako laguntza. Guraso-elkarteak eta Nafarroako Eskola Kontseiluko funtzionamendu gastuak diruz laguntzeko hornidura biltzen du.

- Helduen Hezkuntza eta Osabidezkoa. Hauetara guztietara bideratutako gastua biltzen du: helduen Oinarrizko Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako irakaskuntza, hezkuntza sistemako titulazioak eskuratzeko eskolatu gabeko irakaskuntzetarako ebaluazio proben prestaketa, baldintza akademikorik ez duten helduentzako irakaskuntzara sartzeko probak prestatzeko ikastaroak eta abar.

- Hezkuntzan aplikaturiko teknologia berriak. Informazioaren eta komunikazioaren teknologietara bideratutako gastuak biltzen ditu; bai aplikazioen mantentze-lanetarako, bai programa eta ekipamendu informatiko berrietan inbertitzeko.

- Ekipamenduen eraikuntza eta material didaktikoa. Ikastetxeak eraikitzeko eta ikastetxeetako ekipamenduetarako gastua jasotzen du.

- Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak. Ikastetxeetako -publikoak zein pribatuak eta itunduak- irakaskuntza zikloekin zuzenean erlazionatutako jarduera orokorrak jasotzen ditu.

- Haur eta Lehen Hezkuntza: Haur Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetako eta Lehen Hezkuntzako gastua biltzen du.

- Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoa. Elkarrekin biltzen ditu: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako zikloak.

- Hezkuntza Berezia: jarduera honetan biltzen dira behar bereziak eta/edo gizartean eta hezkuntzan integratzeko beharrak dituzten ikasleei zuzendutako baliabideak eta material espezializatua. Horrez gain, kodetze funtzional espezifikorik ez dutenez, ezaugarri sozialak eta/edo kulturalak direla-eta hala behar duten kolektiboentzako jarduerak finantzatzen dituzten aurrekontuko partidak jaso dira: gutxiengo kulturalak, populazio ibiltariak eta sasoikakoak, emigrazioa.

- Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak. Ikasleen jantoki eta garraio zerbitzuetako gastuak biltzen ditu; baita liburuak doan eskuratzeko planera bideratutako hornidura ere.

- Bestelako irakaspenak (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta beste). Hauetara guztietara bideratutako gastua jasotzen du: irakaskuntza artistikoak (arte plastikoak eta diseinua, musika, dantza eta arte dramatikoa), hizkuntza eskola ofizialetako irakaskuntzak, kiroletako irakaskuntzak, bai eta ikasleek zein irakasleek hizkuntzak ikasteko gastuak.

- Ikasleentzako bekak eta laguntzak. Ikasteko beka edo laguntzaren definizioari dagokion aurrekontuko partidetan sartutako hornidura jasotzen du. Ildo horretatik, ikasteko bekatzak edo laguntzatzat hartzen dira ikasleei/etxeei bideratutako transferentziak, zuzenekoak zein hezkuntza erakundeen bitartez bideratutakoak. Horiek emateko baldintza hauek bete behar dira: baldintza sozioekonomikoak eta/edo akademikoak eta aldez aurreko eskaera. Dena dela, analisiaren ondorioetarako, hauentzako guztientzako laguntza espezifikoak beren sailkapen funtzional espezifikoan sartu dira: behar bereziak eta/edo gizartean eta hezkuntzan integratzeko beharrak dituzten ikasleak, irakaskuntza artistikoetako ikasleak eta Lanbide Heziketako ikasleak mugitzeko programetako ikasleak.

- Eskola adineko kirola: eskola sisteman kirola praktikatzea bultzatzen duten hornidurak dira.

### Gastuaren sailkapen ekonomikoa

Sailkapen ekonomikoak gastuen izaera ekonomikoari eta *Zertan gastatzen da?* galderari erantzuten dio. Sailkapen honek hiru eragiketa mota biltzen ditu: eragiketa arruntak, kapital eragiketak eta finantza eragiketak.

- Eragiketa arruntak

1. kapitulua. Langileen gastuak: langile guztien (funtzionarioak, lanekoak eta bestelako langileak) ordainsariak eta kalte-ordainak (dirutan eta gauzatan), kuota sozialak, gizarte prestazioak (pentsioak eta erretiro aurreratuagatiko kalte-ordainak) eta gastu sozialak (jantokiak, garraioa, bizi eta istripu aseguruak eta abar).

2. kapitulua. Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan. Ondoren zerrendatutako ezaugarriren bat biltzen duten ondasunak erostean sortutako gastuak: ondasun suntsikorrak izatea, aurrekontu ekitaldia baino iraupen txikiagoa izatea, inbentariaezinak eta gastu errepikakorrak izatea; errentamenduak eta konponketak; ondasun higigarrien eta higiezinen mantentze-lanak eta kontserbazioa (lurrak eta ondasun naturalak, eraikinak, makinak, garraiorako materiala, altzariak eta tresnak, ekipo informatikoak eta beste); bulegoko materialaren gastua, hornidurak, komunikazioak, garraioak, aseguru primak (bizi edo istripu aseguruak izan ezik), zergak, beste enpresek egindako lanak, zerbitzuagatiko kalte-ordainak (dietak, lokomozioa, joan-etorria eta beste) eta bestelako gastuak.

3. kapitulua. Finantza-gastuak: interes eta jaulkipenagatiko finantza-karga, barruan zein kanpoan egindako zorrak aldatzea eta kitatzea; gordailuen eta jasotako fidantzen interesak.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak: ordainketak, baldintzatuak edo ez, agente hartzaileen zuzeneko kontrapartidarik gabe eginak; haiek eragiketa arruntak finantzatzera bideratzen dituzte funts hauek. Lankidetza teknikoaren edo kanpoko laguntzaren eta nazioarteko erakundeentzako kuoten eta ekarpenen gastu arruntak ere sartzen dira hemen.

- Kapital eragiketak

6. kapitulua. Inbertsio errealak: kapital ondasunak edo zerbitzuak sortzeko edo erosteko gastuak, zerbitzuek funtzionatzeko beharrezkoak diren ondasun inbentariagarriak erosteko gastuak eta amortizagarriak diren bestelako gastu immaterialak, hau da, etorkizuneko ekitaldietan jarduerari eusten laguntzen dutenak.

7. kapitulua. Kapital-transferentziak: ordainketak, baldintzatuak edo ez, agente hartzaileen zuzeneko kontraprestaziorik gabe eginak; haiek kapital eragiketak finantzatzera bideratzen dituzte funts hauek.

- Finantza eragiketak

8. kapitulua. Aktibo finantzarioak: horiek erostera bideratutako kredituak dira. Hauen bitartez ordezkatzen dira: tituluak eta baloreak, kontuko idatzoharrak, mailegu kontratuak, gordailuak eta fidantzak.

9. kapitulua. Pasibo finantzarioak: barruan zein kanpoan eta epe laburrera zein luzera igorritako, hartutako edo egindako zorrak amortizatzeko kredituak. Gordailuak eta fidantzak itzultzea ere jasotzen du.

Datu guztietan, txostenean erabilitako neurri unitatea milaka eurotan adierazi da.

## 3.2. Gastuaren analisia

Hezkuntzako gastu publikoaren azterketak 2017. urteari dagokion azken ekitaldi ekonomikoaren analisia jasotzen du. Horrez gain, hezkuntzako gastuaren bilakaera aztertzeko erreferentziazko oinarrizko urtetzat hartu da 2009ko ekitaldi ekonomikoa, krisi finantzarioaren ondorioz egindako murrizketen aurretik gastu publiko nabarmena izan zuen urtea izateagatik; era berean, analisian 2012ko ekitaldi ekonomikoa sartu da, aurrekontuan murrizketa nabarmenenak egin ziren ekitaldia izateagatik; eta estatistika osatzeko azken 3 urteetako aurrekontuaren betearazpena (2015-2016-2017) jaso da.

Horren harira, aintzat hartu behar da gastuaren bilakaeraren analisia kontuz egin beharrekoa dela; izan ere, 2012an Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko langileen aparteko paga kendu egin zen eta azken hiru urteetan (2015-2016-2017) ordaindu egin da berreskuratuz eta gastu hori jasota dago 1. kapituluko (Langileen gastuak) aurrekontuaren betearazpenean. Kalkulu estatistikoak egiteko datu hori bereizteak zailtasun handiak ekarri ditu, dagoeneko Departamentuko plantillan ez dauden langileei ere ordaindu baitzaie.

Hiru multzotan banatu da gastua:

- Gastu komunak. Gastu komunak irakaskuntza sare publikorako zein itunpeko irakaskuntza pribaturako diren zerbitzuei dagozkienak dira. Bi sare horietara bideratutako ehunekoa kalkulatzea ia ezinezkoa da eta datu bilketa konplexua eskatzen du.
- Irakaskuntza sare publikoko gastuak. Irakaskuntza publikoko zerbitzuak zuzenean eragiten dituzten gastuak dira. Itunpeko irakaskuntza sare pribatuko gastuen kasuan, zuzenean horren zerbitzura dauden gastuak sartu dira.
- Ikasle bakoitzeko gastuaren kalkulua. Sare publikoan zein itunpeko sare pribatuan gastu hori kalkulatzeko hauek baztertu dira: beste irakaskuntzetara (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta beste) bideratutako gastuak, beste hezkuntza jarduera batzuetarako laguntzak, 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntza (1. zikloa), Helduen Hezkuntza eta Osabidezkoa, eta eskola adineko kirola. Gastu komunei eta irakaskuntza sare publikoko gastuari eragiten diete gastu horiek.

  Behin aurreko gastuak baztertuta, irakaskuntza sare bakoitzeko gastu espezifikoari bi sareetako irakaskuntza maila hauetan matrikulatutako ikasleen arabera banatutako gastu komunak gehitu zaizkio: Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

## 3.3. Gastua exekutatzea

### Gastuaren aurrekontua

2017ko ekitaldiko gastuaren aurrekontua honela exekutatu da sailkapen funtzionalaren eta ekonomikoaren arabera banatuta:

**26. taula: Gastuaren aurrekontua. Hezkuntza Departamentua. 2017**

| Izen funtzionalak | Kapitulu ekonomikoak | | | | | Gastuen guztizkoa | %Funtzionala /Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 4 | 6 | 7 | | |
| Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 14.662,8 | 830,1 | 950,6 | 147,7 | | 16.591,2 | 2,90 |
| Hezkuntza-alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza | 1.241,2 | 767,9 | 37,6 | 2,0 | | 2.048,8 | 0,36 |
| Beste eskola-jarduera batzuetarako laguntza | | 25,0 | 57,0 | | | 82,0 | 0,01 |
| Osabidezko hezkuntza eta helduen hezkuntza | 8.108,6 | 91,6 | | | | 8.200,2 | 1,44 |
| Hezkuntzari aplikatutako teknologia berriak | | 662,3 | | 3.666,7 | | 4.329,1 | 0,76 |
| Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoak | | | | 9.487,9 | 6.887,7 | 16.375,5 | 2,87 |
| Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | | 11.550,6 | | | | 11.550,6 | 2,02 |
| Haur eta Lehen Hezkuntza | 150.602,1 | 28,8 | 73.169,2 | | 427,0 | 224.227,1 | 39,24 |
| B. Hezkuntza, L. Heziketa, Batxilergoa | 169.034,6 | 319,4 | 54.830,3 | | | 224.184,3 | 39,24 |
| Hezkuntza Berezia | 14.866,3 | 166,5 | 9.752,9 | 46,6 | | 24.832,3 | 4,35 |
| Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak | 221,3 | 16.452,3 | 292,2 | 1.376,6 | 636,1 | 18.978,4 | 3,32 |
| Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak) | 15.568,5 | 1.189,8 | 2.352,1 | 10,0 | | 19.120,4 | 3,35 |
| Ikasleentzako bekak eta laguntzak | | 2,3 | 679,7 | | | 681,9 | 0,12 |
| Kirola eskola-adinean | | | 173,7 | | | 173,7 | 0,03 |
| Gastuen guztizkoa | 374.305,5 | 32.086,7 | 142.295,2 | 14.737,5 | 7.950,8 | 571.375,8 | 100,00 |
| Ekonomikoa/Guztira | 65,51 | 5,62 | 24,90 | 2,58 | 1,39 | 100,00 | |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

Gastuaren ia %80 bideratzen da Haur eta Lehen Hezkuntzara (%39,24) eta Bigarren Hezkuntzara, Lanbide Heziketara eta Batxilergora (%39,24). Gastu hori nagusiki langileen gastuei buruzko 1. kapituluan bilduta dago, ikastetxeetara atxikitako langileen (irakasle eta ez irakasle) ordainsariak ordaintzera bideratuta, baita transferentzia arrunten gastuei buruzko 4. kapituluan ere, itunpeko irakaskuntza pribatuko hezkuntza itunak ordaintzera bideratuta.

Hezkuntza Bereziak gastuaren %4,35 bereganatzen du eta kasu honetan ere 1. eta 4. kapitulu ekonomikoetan bilduta dago (langileen gastuak eta hezkuntza itunak).

Beste irakaskuntzetara (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta beste) bideratutako gastua %3 eta %4 artean jasota dago %3,35eko pisu espezifikoarekin, irakaskuntzako zerbitzu osagarrietarako gastua guztizkoaren %3,32koa da eta horren gastu nagusia 2. kapituluan, garraio eta jantoki zerbitzuetara bideratutako kredituekin, eta 6. eta 7. kapituluetan (liburuak doan eskuratzeko plana) jasota dago.

Gastuaren %3 ingururekin exekutatu da ikastetxeen eraikuntza eta ekipamenduetara eta material didaktikora bideratutako gastua (%2,87) eta hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako gastua (%2,90).

Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrei dagokienez %2,02ko pisu espezifikoa du eta gainerako gastuak %1,5 azpiko ordezkapena du, eta zenbait jardueren kasuan ordezkapena oso txikia da.

Gastuaren sailkapen ekonomikoari erreparatzen badiogu, agerian jartzen da 1. kapituluak duen garrantzia (%65,51), nagusiki irakaskuntza publikoko maila desberdinetara bideratutako langileen gastuak biltzen dituena. 4. kapituluak, %24,90eko pisu espezifikoarekin, itunpeko irakaskuntza pribatuko hezkuntza itunen ordainketa biltzen du nagusiki. Gainerako kapituluek %6 azpiko pisu espezifikoa dute: 2. kapitulua (%5,62), ondoren 6. kapitulua (%2,58) eta jarraian 7. kapitulua (%1,39).

## Langileen gastua

Aurreko atalean azpimarratu legez, langileen gastuari buruzko 1. kapituluak exekutatutako gastu guztiaren %65,51 adierazten du. Hemen zehaztuta dator gastu horren banaketa.

**27. taula: Irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak. 2017**

| Gastu arruntak (publikoa eta pribatu-itundua) | Irakasleak | Ez-irakasleak | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|
| Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 1.548,20 | 13.114,60 | 14.662,80 | 3,92 |
| Hezkuntza-alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza | 1.240,70 | 0,50 | 1.241,20 | 0,33 |
| Guztizko partzial | 2.788,90 | 13.115,10 | 15.904,00 | 4,25 |
| JARDUERAK HEZKUNTZA PUBLIKOAN | | | | |
| Haur eta Lehen Hezkuntza | 148.621,25 | 1.980,90 | 150.602,15 | 40,24 |
| B. Hezkuntza, L. Heziketa, Batxilergoa | 157.486,85 | 11.547,80 | 169.034,65 | 45,16 |
| Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak) | 14.375,60 | 1.192,90 | 15.568,50 | 4,16 |
| Hezkuntza Berezia | 8.266,90 | 6.599,40 | 14.866,30 | 3,97 |
| Osabidezko hezkuntza eta helduen hezkuntza | 7.793,00 | 315,60 | 8.108,60 | 1,28 |
| Osagarrizko zerbitzuak (garraioa eta jantokia) | 188,90 | 32,40 | 221,30 | 0,06 |
| Guztizko partzial | 336.732,50 | 21.669,00 | 358.401,50 | 95,75 |
| Guztira | 339.521,40 | 34.784,10 | 374.305,50 | 100,00 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ekonomikoa / Guztira | 90,71 | 9,29 | 100,00 | |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

Irakaskuntza publikoarekin eta itunpeko irakaskuntza pribatuarekin zerikusia duten jarduerei dagokien gastu komunak guztizko gastuaren %4,25 adierazten du, %3,92 hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako langileei bideratuta eta %0,33 irakasleen etengabeko prestakuntzara bideratuta.

Irakaskuntza publikoko jardueretara bideratutako gastuak, berriz, %95,75eko pisu espezifikoa du. Haur eta Lehen Hezkuntzako gastua guztizkoaren %40,24koa da, Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoko gastua %45,16koa da, beste irakaskuntzetakoa (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta beste) %4,16koa, Hezkuntza Berezikoa %3,97koa eta gainerako kontzeptuetakoa oso txikia.

Azkenik, irakasleen gastua %90,71koa da eta irakasle ez diren langileen gastuak, aldiz, %9,29ko pisua du.

## Gastuaren esleipena

Kontuan izanda aurrez adierazitako kalkulatzeko zailtasunak, hau da gastuaren esleipenaren banaketa:

**28. taula: Gastuaren esleipena. 2017**

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gastu arruntak | 20.694,90 | 3,62 |
| Hezkuntza publikoaren gastuak | 422.651,88 | 73,97 |
| Hezkuntza pribatu-itunduaren gastuak | 128.029,02 | 22,41 |
| Guztira | 571.375,80 | 100,00 |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

## Gastu komunak

Sare publikoko eta itunpeko sare pribatuko gastu komunak honela banatu dira kapitulu ekonomikoen arabera:

**29. taula: Gastu komunen banaketa kapituluka. 2017**

| | Kapitulu ekonomikoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Izen funtzionalak | 1 | 2 | 4 | 6 | Gastuen guztizkoa | %Funtzionala /Guztira |
| Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 14.662,8 | 458,2 | 88,7 | 27,4 | 15.237,1 | 73,63 |
| Hezkuntza-alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza | 1.241,2 | 768,0 | 37,6 | 2,0 | 2.048,8 | 9,90 |
| Beste eskola-jarduera batzuetarako laguntza | | 25,0 | 57,0 | | 82,00 | 0,40 |
| Hezkuntzari aplikatutako teknologia berriak | | 14,5 | | 399,9 | 414,5 | 2,00 |
| Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoak | | | | 183,9 | 183,9 | 0,89 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | | 1.082,4 | | | 1.082,4 | 5,23 |
| Haur eta Lehen Hezkuntza | | 28,8 | | | 28,8 | 0,14 |
| B. Hezkuntza, L. Heziketa, Batxilergoa | | 32,7 | | | 32,7 | 0,16 |
| Hezkuntza Berezia | | 16,0 | 245,7 | 21,9 | 283,6 | 1,37 |
| Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak) | | 445,3 | | | 445,3 | 2,15 |
| Ikasleentzako bekak eta laguntzak | | 2,3 | 679,6 | | 681,9 | 3,30 |
| Kirola eskola-adinean | | | 173,7 | | 173,7 | 0,84 |
| Gastuen guztizkoa | 15.904,0 | 2.873,2 | 1.282,5 | 635,2 | 20.694,9 | 100,00 |
| Ekonomikoa/Guztira | 76,8 | 13,9 | 6,2 | 3,1 | 100,0 | |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

Exekutatutako guztizko gastuaren %3,62 adierazten du gastu komunak. Gastu komunen artean, hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrek gastu totalaren %73,63 biltzen dute, hezkuntzako irakasleen etengabeko prestakuntzara gastuaren %9,90 bideratzen da eta irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako gastuak %5,23 hartzen du.

Sailkapen ekonomikoaren arabera, %76,85 langileen gastuari dagokio eta bat dator pisu espezifikorik handienarekin, hezkuntzako zuzendaritza eta gastu orokorrak gastuen sailkapen funtzionalean adierazten duenarekin alegia. Funtzionamendu eta transferentzia arrunten gastuetara bideratutako gastuak %13,88 eta %6,20 hartzen du hurrenez hurren; inbertsioetako gastuak, berriz, %3,07ko pisu espezifikoa du eta nagusiki teknologia berrietara (%2) eta eraikuntza eta ekipamenduetako inbertsioetara (%0,89) bideratutako gastuen artean banatzen da.

### Sare publikoko gastuak

Sare publikoko gastuak kapituluka banatzen dira honela:

**30. taula: Sare publikoko gastuen banaketa kapituluka. 2017**

| | Kapitulu ekonomikoak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Izen funtzionalak | 1 | 2 | 4 | 6 | 7 | Gastuen guztizkoa | %Funtzionala /Guztira |
| Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | | 371,9 | 848,4 | 120,3 | | 1.340,6 | 0,32 |
| Osabidezko hezkuntza eta helduen hezkuntza | 8.108,6 | 91,6 | | | | 8.200,2 | 1,94 |
| Hezkuntzari aplikatutako teknologia berriak | | 647,9 | | 3.266,8 | | 3.914,6 | 0,93 |
| Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoak | | | | 9.304,0 | 6.887,7 | 16.191,6 | 3,83 |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | | 10.468,1 | | | | 10.468,1 | 2,48 |
| Haur eta Lehen Hezkuntza | 150.602,1 | 0,00 | 9.845,6 | | 427,0 | 160.874,7 | 38,06 |
| B. Hezkuntza, L. Heziketa, Batxilergoa | 169.034,6 | 286,7 | 281,6 | | | 169.602,9 | 40,13 |
| Hezkuntza Berezia | 14.866,3 | 150,5 | | 24,7 | | 15.041,5 | 3,56 |
| Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak | 221,30 | 16.452,3 | 292,16 | 1.376,6 | | 18.342,3 | 4,34 |
| Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak) | 15.568,5 | 744,5 | 2.352,1 | 10,0 | | 18.675,1 | 4,42 |
| Gastuen guztizkoa | 358.401,5 | 29.213,5 | 13.619,8 | 14.102,4 | 7.314,7 | 422.651,9 | 100,00 |
| Ekonomikoa / Guztira | 84,80 | 6,9 | 3,2 | 3,34 | 1,7 | 100,0 | |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

Irakaskuntza sare publikoko gastuak exekutatutako gastuaren %73,97ra heltzen dira. Pisu espezifikorik handiena duen gastua Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoan biltzen da, %38,06 eta %40,13ko pisu espezifikoarekin, hurrenez hurren, eta horren atzetik beste irakaskuntzetara (%4,42) eta zerbitzu osagarrietara (%4,34) bideratutako gastua dator.

Ikastetxe publikoetako eraikuntza, ekipamendu eta material didaktikora gastu totalaren %3,83 bideratu da eta behar bereziak dituzten ikasleentzat gastuaren %3,56.

Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak, %2,48ko pisu espezifikoarekin, ikastetxeetako funtzionamendu (6.546,50 milaka euro) eta garbiketa zerbitzuak (3.268,19 milaka euro) finantzatzeko kreditua jasotzen du nagusiki.

Kapitulu ekonomikoen arabera, gastuaren %84,80 langileen gastuetara bideratzen da eta irakaskuntza mailen artean banatzen da; horren atzetik daude gastu arruntak (%6,91) eta ikastetxeetako funtzionamendu gastua biltzen dute nagusiki, irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrei eta garraio eta jantoki zerbitzu osagarriei esleitutakoa.

Inbertsioei buruzko 6. kapituluan eraikuntza, ekipamendu eta material didaktikora (9.303,99 milaka euro) bideratutako gastua da nabarmen %3,34ko pisu espezifikoarekin, atzetik dago teknologia berrietara bideratutako gastua (3.266,69 milaka euro), ikastetxeak teknologia eta konektagarritasun aurreratuekin hornitzeko apustua islatzen duena. Azkenik, zerbitzu osagarriek liburuak doan eskuratzeko programaren gastua jasotzen dute (1.376,58 milaka euro).

### Itunpeko sare pribatuko gastuak

Itunpeko sare pribatuko gastuek datu hauek erakusten dituzte:

**31. taula: Itunpeko sare pribatuko gastuen banaketa kapituluka. 2017**

| | Kapitulu ekonomikoak | | | |
|---|---|---|---|---|
| Izen funtzionalak | 4 | 7 | Gastuen guztizkoa | %Funtzionala / Guztira |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 13,46 | | 13,46 | 0,01 |
| Haur eta Lehen Hezkuntza | 63.323,58 | | 63.323,58 | 49,46 |
| B. Hezkuntza, L. Heziketa, Batxilergoa | 54.548,69 | | 54.548,69 | 42,61 |
| Hezkuntza Berezia | 9.507,18 | | 9.507,18 | 7,43 |
| Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak | | 636,12 | 636,12 | 0,50 |
| Gastuen guztizkoa | 127.392,91 | 636,12 | 128.029,02 | 100,00 |
| Ekonomikoa/Guztira | 99,50 | 0,50 | 100,00 | |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

Itunpeko irakaskuntza sare pribatuko gastuak exekutatutako gastu publikoaren %22,41era heltzen dira. Irakaskuntza sare publikora bideratutako gastuaren kasuan gertatzen den moduan, pisu espezifikorik handieneko baliabideak Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoan biltzen dira, %49,96ko eta %42,61eko pisu espezifikoarekin, hurrenez hurren.

Behar bezeriak dituzten ikasleei eta gutxiengo kulturalei zuzendutako gastua %7,43koa da eta irakaskuntzako zerbitzu orokorrek eta zerbitzu osagarriek jasotako pisua %0,50ekoa.

Sailkapen ekonomikoaren harira, exekutatutako kreditu ia guztia transferentzia arruntetara bideratzen da (%99,50) diru-laguntzen eta hezkuntza itunen gastuari erantzuteko; kapital-transferentziek (%0,50), aldiz, liburuak doan eskuratzeko planaren gastua biltzen dute.

### Ikasle bakoitzeko gastua

Sare publikoan eta itunpeko sare pribatuan ikasle bakoitzeko gastua kalkulatzeko baztertutako gastuek, orotara, pisuaren %6,36 hartzen dute.

**32. taula: Ikasle bakoitzeko gastua. Baztertutako kontzeptuak. 2017**

| | Gastuak | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Arruntak | Sare publikoa | Sare pribatu-itundua | Guztira |
| Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak) | 445,32 | 18.675,09 | | 19.120,41 |
| Beste eskola-jarduera batzuetarako laguntza | 82,00 | | | 82,00 |
| Haur eta Lehen Hezkuntza (0-3 urte) | | 8.753,84 | | 8.753,84 |
| Osabidezko hezkuntza eta helduen hezkuntza | | 8.200,21 | | 8.200,21 |
| Kirola eskola-adinean | 173,74 | | | 173,74 |
| Guztira, gastua kanpo | 701,06 | 35.629,13 | | 36.330,19 |
| Ekitaldian burututako gastu guztia | 20.694,90 | 422.651,88 | 128.029,02 | 571.375,80 |
| Burututako gastu guztiaren ehunekoa | 3,39 | 8,43 | | 6,36 |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

**33. taula: Ikasle bakoitzeko gastua sare publikoan eta itunpeko sare pribatuan. 2017**

| | Guztira | Publikoa | Kontzertatua |
|---|---|---|---|
| Ikasle guztira | 106.875 | 67.979 | 38.896 |
| | | | |
| Gastu arruntak | 19.993,84 | 12.717,30 | 7.276,54 |
| Sare publikoan hezkuntzaren gastua | 387.022,74 | 387.022,74 | |
| Sare pribatu-itunduan hezkuntzaren gastua | 128.029,02 | | 128.029,02 |
| Guztira | 535.045,61 | 399.740,04 | 135.305,57 |
| Guztira ikasleka | | 5,88 | 3,48 |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

Aurreko datuetatik ondorioztatzen ahal dugu 2017. urtean gastu publikoaren %75 irakaskuntza sare publikora eta gastuaren %25 itunpeko irakaskuntza sare pribatura bideratu zela, Haur Hezkuntzan (2. Zikloa), Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleentzat.

## *3.4. Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera*

### Hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera kapitulu ekonomikoen eta funtzionaltasunaren arabera

Aintzat hartuz gero kapitulu ekonomikoen pisu espezifikoa, ikusten ahal da 1. eta 4. kapituluek gastu osoaren pisu espezifikorik handiena izateaz gain goranzko joera dutela langileen eta hezkuntza itunen gastuak, hurrenez hurren, ordaintzearen ondorioz.

Gutxitze nabarmenenak inbertsioei buruzko 6. kapituluan eta kapital-transferentziei buruzko 7. kapituluan gertatu dira eta funtzionamendu gastuetako 2. kapituluak gutxitze nabarmena pairatu ez duen arren, beheranzko joera mantentzen du.

Foru Komunitateko Administrazioan exekutatutako aurrekontu totalari dagokionez hezkuntzara bideratutako pisu espezifikoari egonkor eutsi zaio aldian %13,50 inguruko gastuarekin, 2017an izan ezik, proportzioa %14,41era iritsi baitzen.

**34. taula: Hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera kapitulu ekonomikoen arabera**

| | 2009 | | 2012 | | 2015 | | 2016 | | 2017 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kapituluak | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| 1 | 364.920,7 | 62,21 | 317.205,5 | 64,49 | 340.359,3 | 65,24 | 355.649,2 | 65,92 | 374.305,5 | 65,51 |
| 2 | 38.635,6 | 6,59 | 33.011,6 | 6,71 | 31.180,4 | 5,98 | 30.800,8 | 5,71 | 32.086,7 | 5,62 |
| 4 | 139.625,9 | 23,80 | 131.916,2 | 26,82 | 137.721,8 | 26,40 | 138.953,3 | 25,75 | 142.295,2 | 24,90 |
| 6 | 18.468,6 | 3,15 | 7.673,5 | 1,56 | 6.774,7 | 1,30 | 8.073,5 | 1,50 | 14.737,5 | 2,58 |
| 7 | 24.950,2 | 4,25 | 2.094,9 | 0,43 | 5.638,4 | 1,08 | 6.058,8 | 1,12 | 7.950,8 | 1,39 |
| Guztira Hezkuntzan | 586.601,1 | 100,0 | 491.901,7 | 100,0 | 521.674,6 | 100,0 | 539.535,6 | 100,0 | 571.375,8 | 100,0 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Guztira Gobernuan | 4.349.879,9 | 3.608.901,0 | 3.897.809,9 | 3.950.039,0 | 3.966.507,1 |
| % Hez/Gob | 13,49 | 13,64 | 13,39 | 13,66 | 14,41 |
| | | | | | |
| Eboluzioa Departamen-tuan | 1 | 0,84 | 0,89 | 0,92 | 0,97 |
| NGan eboluzioa | 1 | 0,83 | 0,9 | 0,91 | 0,91 |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

**80. grafikoa: Aurrekontu totalaren eta hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera. Nafarroa. 2009 = 1**




*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

Azkenik, aldian hezkuntzara bideratutako aurrekontuaren bilakaerak Nafarroako aurrekontu orokorraren antzeko bidea jarraitu zuen. 2009an 1 baliorako, gastuak behera egin zuen %84 arte Departamentuan eta %83 arte 2012an Administrazioan exekutatutako gastuaren guztizkoan eta azken hiru urteetan berreskurapena ikusten ahal da; %97ra iritsi da Departamentuan eta %91ra aurrekontuaren guztizkoan.

Aurreko analisia sailkapen funtzionalaren ikuspegitik osatzen ahal da.

**35. taula: Hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera sailkapen funtzionalaren arabera**

| | 2009 | | 2012 | | 2015 | | 2016 | | 2017 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Izen funtzionalak | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 19.574,7 | 3,34 | 15.221,6 | 3,09 | 14.432,8 | 2,77 | 15.148,0 | 2,81 | 16.591,2 | 2,90 |
| Hezkuntza-alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza | 4.226,1 | 0,72 | 2.462,0 | 0,50 | 1.776,0 | 0,34 | 1.782,7 | 0,33 | 2.048,8 | 0,36 |
| Beste eskola-jarduera batzuetarako | 335,1 | 0,06 | 126,6 | 0,03 | 45,00 | 0,01 | 45,00 | 0,01 | 82,00 | 0,01 |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Osabidezko hezkuntza eta helduen hezkuntza | 5.059,9 | 0,86 | 6.198,1 | 1,26 | 7.431,5 | 1,42 | 7.853,5 | 1,46 | 8.200,2 | 1,44 |
| Lanbide Heziketa okupazionala | | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Hezkuntzari aplikatutako teknologia berriak | 1.895,8 | 0,32 | 1.316,60 | 0,27 | 1.039,5 | 0,20 | 781,3 | 0,14 | 4.329,1 | 0,76 |
| Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoak | 37.946,4 | 6,47 | 6.994,5 | 1,42 | 7.422,7 | 1,42 | 8.911,4 | 1,65 | 16.375,5 | 2,87 |
| Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 16.027,9 | 2,73 | 11.664,2 | 2,37 | 11.181,4 | 2,14 | 10.939,7 | 2,03 | 11.550,6 | 2,02 |
| Haur eta Lehen Hezkuntza | 224.056,2 | 38,20 | 202.616,9 | 41,19 | 208.606,4 | 39,99 | 216.631,8 | 40,15 | 224.227,1 | 39,24 |
| B. Hezkuntza, L. Heziketa, Batxilergoa | 223.520,6 | 38,10 | 197.601,9 | 40,17 | 208.961,2 | 40,06 | 214.957,9 | 39,84 | 224.184,3 | 39,24 |
| Hezkuntza Berezia | 16.329,4 | 2,78 | 14.890,1 | 3,03 | 22.393,0 | 4,29 | 23.016,3 | 4,27 | 24.832,3 | 4,35 |
| Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak | 19.848,6 | 3,38 | 19.500,3 | 3,96 | 20.647,7 | 3,96 | 20.854,8 | 3,87 | 18.978,4 | 3,32 |
| Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak) | 17.339,0 | 2,96 | 12.901,1 | 2,62 | 17.237,1 | 3,30 | 18.107,4 | 3,36 | 19.120,4 | 3,35 |
| Ikasleentzako bekak eta laguntzak | 441,1 | 0,08 | 407,7 | 0,08 | 500,4 | 0,10 | 505,7 | 0,09 | 681,9 | 0,12 |
| Kirola eskola-adinean | | 0,00 | | 0,00 | | 0,00 | | 0,00 | 173,7 | 0,03 |
| Gastuen guztizkoa | 586.601,1 | 100,0 | 491.901,7 | 100,0 | 521.674,6 | 100,0 | 539.535,6 | 100,0 | 571.375,8 | 100,0 |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

**81. grafikoa: Hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera sailkapen funtzionalaren arabera. 2009=1**




*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

1.eranskina

Hezkuntzan aplikatutako IKTetara bideratutako gastuan ikusten ahal da 2016an %60ra iritsi zen beherakadaren ostean gora egin duela 2017an eta 2009ko gastu maila %128an gainditu duela ikastetxe publikoak modernizatzeko abian jarritako planaren ondorioz.

Ikasleentzako beka eta laguntzen atalak 2012an %8ko beherakada izan zuen arren, goranzko bilakaera izan zuen 2017. urtean, %55eko gorakadarekin; urte horretan partidak hasieran onartutako kredituaren %25 egin zuen gora.

Helduen Hezkuntza eta Osabidezkoak eta Hezkuntza Bereziak ez dute murrizketarik izan eta gorakadari eusten diote.

Bestalde, urte guztietako gastu osoaren gaineko sailkapen funtzionalean %40 inguruko balioetara heltzen den gastuak, Haur eta Lehen Hezkuntzara, Bigarren Hezkuntzara, Lanbide Heziketara eta Batxilergora bideratutakoak alegia, bilakaera positiboa izan zuen 2015-2016-2017 urteetan, 2009ko gastu mailara heltzeko aukera eman zuena.

Horrez gain, berreskuratu ditu 2009ko gastu maila, beste irakaskuntza batzuetara bideratutako kreditua eta zerbitzu osagarrietarako baliabideak, 2009ko balioen gainean %96ko gastu maila islatuz.

Hezkuntzako eta irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako gastua %85ean eta %72an dago, hurrenez hurren, 2009. urtearekin alderatuta; bien bitartean, 2017an irakasleen etengabeko prestakuntzan eta hezkuntzako beste jarduera batzuen laguntzan gastuaren berreskurapenak %50etik eta %25etik behera jarraitzen du, hurrenez hurren, aurrekontuan pisu espezifiko oso txikia duten arren.

Amaitzeko, aipagarria da eraikuntzara, ekipamenduetara eta material didaktikora bideratutako baliabideen bilakaera, nagusiki ikastetxeen eraikuntzako, birmoldaketako eta ekipamenduetako gastuetan oinarritzen dena; izan ere, 2009an aurrekontuan %6,47ko pisu espezifikoa izatetik 2012an %82 gutxitu zen gastua. Jarduera horretara bideratutako gastuak berreskurapen motela erakusten du eta 2017an oraindik ere %43an zegoen oinarrizko urteari dagokionez.

## Gastuaren esleipena

Gastuaren esleipena honela banatu da:

- Gastu komunak (sare publikoa eta itunpeko sare pribatua)
- Irakaskuntza sare publikoko gastuak
- Itunpeko sare pribatuko gastuak

**36. taula: Gastuaren esleipenaren bilakaera**

| | 2009 | | 2012 | | 2015 | | 2016 | | 2017 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Izena | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| Gastu arruntak | 29.075,3 | 4,96 | 20.854,6 | 4,24 | 18.718,5 | 3,59 | 19.211,3 | 3,56 | 20.694,9 | 3,62 |
| Hezkuntza publikoaren gastuak | 433.590,9 | 73,92 | 352.236,8 | 71,61 | 376.042,3 | 72,08 | 393.081,7 | 72,86 | 422.651,9 | 73,97 |
| Hezkuntza pribatu-itunduaren gastuak | 123.935,8 | 21,13 | 118.810,3 | 24,15 | 126.913,9 | 24,33 | 127.242,6 | 23,58 | 128.029,0 | 22,41 |
| Guztira | 586.602,1 | 100,0 | 491.901,7 | 100,0 | 521.674,6 | 100,0 | 539.535,6 | 100,0 | 571.375,8 | 100,0 |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

**7. taula: Gastuaren esleipenaren bilakaera. 2009=1**

| | 2009 | 2012 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastu arruntak | 1 | 0,72 | 0,64 | 0,66 | 0,71 |
| Hezkuntza publikoaren gastuak | 1 | 0,81 | 0,87 | 0,91 | 0,97 |
| Hezkuntza pribatu-itunduaren gastuak | 1 | 0,96 | 1,02 | 1,03 | 1,03 |
| Guztira | 1 | 0,84 | 0,89 | 0,92 | 0,97 |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

**82. grafikoa: Gastuaren esleipenaren bilakaera. 2009=1**




*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

Aurreko blokeetan banatutako gastuak esleipenaren proportzionaltasuna mantentzen du, %5, %74 eta %25 gainditzen ez duten balioekin gastu komunetan, hezkuntza publikoan eta itunpeko hezkuntza pribatuan, hurrenez hurren.

Baterako bilakaerari dagokionez, gastuaren murrizketak gehiago eragin zituen gastu komunak eta hezkuntza publikoa; gastu komunek oraindik ere %29ko murrizketa eta hezkuntza publikoak %3koa izan duten bitartean, itunpeko hezkuntza pribatura bideratutako gastuak 2009ko gastu maila gainditu du. Itunpeko hezkuntza pribaturako den gastua irakasleen nomina jasotzen duten hezkuntza itunen ordainketan oinarritzen denez, gastu hori murrizteko aukera ia nulua delako gertatzen da hori.

**38. taula: Gastu komunak. Hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera sailkapen funtzionalaren arabera**

| | 2009 | | 2012 | | 2015 | | 2016 | | 2017 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Izena | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 18.882,5 | 64,94 | 14.757,2 | 70,76 | 14.062,1 | 75,12 | 14.583,3 | 75,91 | 15.237,1 | 73,6 |
| Hezkuntza-alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza | 4.226,0 | 14,53 | 2.462,0 | 11,81 | 1.776,0 | 9,49 | 1.782,7 | 9,28 | 2.048,8 | 9,9 |
| Beste eskola-jarduera batzuetarako | 335,1 | 1,15 | 126,6 | 0,61 | 45,0 | 0,24 | 45,0 | 0,23 | 82,0 | 0,4 |
| Hezkuntzari aplikatutako teknologia berriak | 618,0 | 2,13 | 590,6 | 2,83 | 370,2 | 1,98 | 488,0 | 2,54 | 414,5 | 2,0 |
| Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoak | 316,8 | 1,09 | | | 55,4 | 0,30 | 135,8 | 0,71 | 183,9 | 0,9 |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 1.865,8 | 6,42 | 974,3 | 4,67 | 800,9 | 4,28 | 839,8 | 4,37 | 1.082,4 | 5,2 |
| Haur eta Lehen Hezkuntza | 162,0 | 0,56 | 60,0 | 0,29 | 6,0 | 0,03 | 6,0 | 0,03 | 28,8 | 0,1 |
| B. Hezkuntza, L. Heziketa, Batxilergoa | 57,6 | 0,20 | 55,9 | 0,27 | 169,6 | 0,91 | 56,0 | 0,3 | 32,7 | 0,16 |
| Hezkuntza Berezia | 91,4 | 0,31 | 267,1 | 1,28 | 227,2 | 1,21 | 270,2 | 1,4 | 283,6 | 1,37 |
| Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak) | 2.078,9 | 7,15 | 1.153,1 | 5,53 | 705,7 | 3,77 | 499,0 | 2,6 | 445,3 | 2,15 |
| Ikasleentzako bekak eta laguntzak | 441,1 | 1,52 | 407,7 | 1,95 | 500,4 | 2,67 | 505,7 | 2,6 | 681,9 | 3,30 |
| Kirola eskola-adinean | | | | | | | | | 173,7 | 0,84 |
| Gastuen guztizkoa | 29.075,3 | 100,0 | 20.854,6 | 100,0 | 18.718,5 | 100,0 | 19.211,3 | 100,0 | 20.694,9 | 100,0 |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

**83. grafikoa: Gastu komunak. Hezkuntzako aurrekontuaren bilakaera sailkapen funtzionalaren arabera. 2009=1**




*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

2.eranskina

Gastu komunen artean, argi geratzen da Heziketa Bereziari dagokionak izan duen bilakaera positiboa, behar bereziak eta/edo gizartean eta hezkuntzan integratzeko beharrak dituzten

ikasleentzako laguntzetara bideratutako kreditua handitu izanaren ondorioz; gaiari buruzko atal espezifikoan ikusiko dugu hori.

Ikasleentzako beka eta laguntzek bilakaera positiboa erakusten dute eta sailkapen funtzionalaren pisu espezifikoan zein aldiko bilakaeran ikusten ahal da; gastua berreskuratu da eta 2009an atal honetara bideratutako gastua %55ean gainditzen du.

Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorren jarduera, %73,63ko pisu espezifikoa duena, gastu murrizketarik txikiena izan duen jarduera da eta joera positiboa duena, 2017an %81eko gastu mailarekin oinarrizko urteari dagokionez.

Irakasleen prestakuntza jardueretara bideratutako gastuak, hezkuntzaren berriztapenerako funtsezkoa denak, %50 egin du behera aldi honetan.

Gainerako jardueretan beherakada gertatu da, berreskuratze maila geldoa da eta gastuaren beherakada ere sumatzen da oraindik ere. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da pisu espezifiko oso txikiko jarduerak direla eta, oro har, aurrekontu guztian pisu erlatiborik txikiena duen atala dela.

### Irakaskuntza sare publikoko gastuaren bilakaera

Bilakaeraren datu hauek azpimarragarriak dira:

**39. taula: Irakaskuntza sare publikoko gastuaren bilakaera**

| | 2009 | | 2012 | | 2015 | | 2016 | | 2017 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Izena | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 692,2 | 0,16 | 464,4 | 0,13 | 365,9 | 0,10 | 553,9 | 0,14 | 1.340,6 | 0,32 |
| Osabidezko hezkuntza eta helduen hezkuntza | 5.059,90 | 1,17 | 6.198,13 | 1,76 | 7.431,52 | 1,98 | 7.853,55 | 2,00 | 8.200,21 | 1,94 |
| Hezkuntzari aplikatutako teknologia berriak | 1.277,8 | 0,29 | 726,0 | 0,21 | 669,3 | 0,18 | 293,4 | 0,07 | 3.914,6 | 0,93 |
| Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoak | 37.482,3 | 8,64 | 6.994,5 | 1,99 | 7.367,3 | 1,96 | 8.775,6 | 2,23 | 16.191,7 | 3,83 |
| Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 13.722,4 | 3,16 | 10.303,6 | 2,93 | 10.380,4 | 2,76 | 10.099,9 | 2,57 | 10.468,1 | 2,48 |
| Haur eta Lehen Hezkuntza | 163.127,1 | 37,62 | 144.644,1 | 41,06 | 146.604,5 | 38,99 | 154.259,3 | 39,24 | 160.874,8 | 38,06 |
| B. Hezkuntza, L. Heziketa, Batxilergoa | 171.278,4 | 39,50 | 146.680,1 | 41,64 | 155.029,6 | 41,23 | 160.966,3 | 40,95 | 169.602,9 | 40,13 |
| Hezkuntza Berezia | 7.042,2 | 1,62 | 5.745,1 | 1,63 | 12.495,5 | 3,32 | 13.157,7 | 3,35 | 15.041,5 | 3,56 |
| Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak | 18.648,5 | 4,30 | 18.733,0 | 5,32 | 19.166,7 | 5,10 | 19.513,6 | 4,96 | 18.342,3 | 4,34 |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Beste irakaskuntza batzuk (artistikoak, hizkuntzak, bereziak eta bestelakoak) | 15.260,0 | 3,52 | 11.748,0 | 3,34 | 16.531,4 | 4,40 | 17.608,4 | 4,48 | 18.675,1 | 4,42 |
| Gastuen guztizkoa | 433.590,9 | 100,0 | 352.236,8 | 100,0 | 376.042,3 | 100,0 | 393.081,7 | 100,0 | 422.651,9 | 100,0 |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

**84. grafikoa: Gastuaren bilakaera sare publikoan. 2009=1**




*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

**3.erans kina**

Aldi horretan irakaskuntza sare publikora bideratutako gastua Hezkuntza Departamentuaren gastu totalaren %72 eta %74 artekoa da. Haur eta Lehen Hezkuntzara, eta Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergora bideratutakoak dira pisu espezifikorik handiena dutenak, %80 ingurukoa urte guztietan. Gastuaren bilakaerak goranzko joerarekin jarraitzen du eta ia 2009ko gastu mailara iritsi da.

Irakaskuntza artistikoak, hizkuntza bereziek eta beste, eta Hezkuntza Bereziak ere, gastuaren murrizketa (%4,42 eta %3,56ko pisu espezifikoarekin, hurrenez hurren) jasan zuten 2012an; aitzitik, 2015-2016-2017 urteetan gastuaren mailak 2009koa gainditu zuen. Helduen Hezkuntzak eta Osabidezkoak antzeko bilakaera izan du.

Irakaskuntzako zerbitzu osagarriek %4,34ko pisu espezifikoa dute eta joera egonkorra; ia ez dute aldaketarik izan bilakaeran. Liburuak doan eskuratzeko planak, ordea, gorabeherak izan ditu joeran. Aparteko atal batean sakonduta dago.

Murrizketarik handiena jasan duen jarduera eraikuntza, ekipamendu eta material didaktikora bideratutakoa izan da, 2012an gastuaren %81eko murrizketa izan zuen eta bilakaera positiboa izan duen arren, aztertutako aldian 4 puntuko pisu espezifikoa galdu du gastuaren osotasunean (2009an 37,5 milioi euroko gastutik 16 milioi exekutatu dira 2017an).

Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrek %25eko murrizketa izan zuten eta mantendu egin da urteen joanean.

Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorren kasuan (pisu espezifiko oso txikia dute) gastuak %94 egin du gora 2017an udalei ordaindutako kalte-ordainak direla eta. Kalte-ordain horiek 0-3 urte bitarteko ikastetxeak mantentzeko gastuak ordaintzeko izan dira, Departamentuak bere gain hartu behar izan baititu toki erakundeen aldeko epaiak betearaztearen ondorioz. Hori dela eta, joera hori ez da eredugarria.

Azkenik, teknologia berrien harira, ikusten ahal da jarduera horren pisu espezifikoak nabarmen gora egin duela eta gastuak %200 egin duela gora 2017an oinarrizko urteari dagokionez, Departamentuak ikastetxe publikoak tresna eta ekipamendu berriekin hornitzeko erabakia hartu ostean.

### Itunpeko irakaskuntza pribatuaren sareko gastuaren bilakaera

Datu hauek azpimarragarriak dira:

**40. taula: Itunpeko sare pribatuko gastuaren bilakaera**

| | 2009 | | 2012 | | 2015 | | 2016 | | 2017 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Izena | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| Hezkuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | | | | | 4,8 | 0,00 | 10,8 | 0,01 | 13,4 | 0,01 |
| Eraikuntza, ekipamendua eta material didaktikoak | 147,3 | 0,12 | | | | | | | | |
| Irakaskuntzako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak | 439,8 | 0,35 | 386,3 | 0,33 | | | | | | |
| Haur eta Lehen Hezkuntza | 60.767,1 | 49,03 | 57.912,9 | 48,74 | 61.995,9 | 48,85 | 62.366,5 | 49,01 | 63.323,6 | 49,46 |
| B. Hezkuntza, L. Heziketa, Batxilergoa | 52.184,6 | 42,11 | 50.865,9 | 42,81 | 53.762,0 | 42,36 | 53.935,7 | 42,39 | 54.548,7 | 42,61 |
| Hezkuntza Berezia | 9.195,8 | 7,42 | 8.877,9 | 7,47 | 9.670,23 | 7,62 | 9.588,4 | 7,54 | 9.507,2 | 7,43 |

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak | 1.200,2 | 0,97 | 767,3 | 0,65 | 1.481,0 | 1,17 | 1.341,2 | 1,05 | 636,12 | 0,50 |
| Gastuen guztizkoa | 123.935,8 | 100,0 | 118.810,3 | 100,0 | 126.913,9 | 100,0 | 127.242,6 | 100,0 | 128.029,0 | 100,0 |

*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

**85. grafikoa: Itunpeko sare pribatuko gastuaren bilakaera. 2009=1**




*Iturria: Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

4.eranskina

Aldi horretan itunpeko irakaskuntza sare pribatura bideratutako gastua Hezkuntza Departamentuaren gastu totalaren %21 eta %24 artekoa da. Gastuaren portzentajerik handiena Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Batxilergoan biltzen da, gastu totalaren %90etik gora. Hori horrela, 2012an gastuak oinarrizko urteari dagokionez %3 behera egin bazuen ere, hurrengo urteetan bilakaera egonkorra izan da, joera positiboarekin.

Hezkuntza bereziak (%7,5 inguruko pisu espezifiko egonkorrarekin) behera egin zuen 2012an; hala eta guztiz ere, 2015-2016-2017 urteetako gastuaren mailak 2009koa gainditu zuen.

Irakaskuntzako zerbitzu osagarriek bere gain hartzen dute liburuak doan eskuratzeko planaren gastua eta horrek gorabeherak izan ditu joeran. Aparteko atal batean sakonduta dago.

Gainerako jardueretara bideratutako gastua oso txikia da edo alde batera utzi da, ikastetxeen eraikuntzarako diru-laguntzekin gertatu den moduan.

### Haur Hezkuntzako (0-3) gastuaren bilakaera

0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako gastua "Haur eta Lehen Hezkuntza" sailkapen funtzionalean sartuta dagoenez, irakaskuntza maila horren bilakaerarekin atal berezi bat gehitu da.

**41. taula: Haur Hezkuntzako (0-3) gastuaren bilakaera**

| | 2009 | 2012 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastu arrunta | 4,53 | | | | |
| Transferentzia arruntak | 8.968,51 | 7.910,68 | 7.465,86 | 7.887,01 | 8.326,81 |
| Kapital-transferentziak | 985,84 | | | 400,00 | 427,03 |
** Ikastetxe osatugabea: Haur Hezkuntzako 2. zikloan 3 unitate baino gutxiago dituena eta/edo Lehen Hezkuntzan 6 unitate baino gutxiago dituena*
*Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa*

# 4.- HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK

## *4.1. Hezkuntza Administrazioaren antolamendua*

Honako hau da Hezkuntza Departamentuaren antolamenduaren egituraren eskema.

**102. taula: Hezkuntza Departamentuaren egitura**




*Iturria: Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusia*

**103. taula: Hezkuntza Departamentuko Atalak eta Bulegoak**

| | Atal kopurua | Bulego kopurua |
|---|---|---|
| Idazkaritza Nagusi Teknikoa | 3 | 4 |
| Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia | | |
| Unibertsitateen Zerbitzua | 1 | 1 |
| Giza Baliabideen Zerbitzua | 5 | 2 |
| Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua | 3 | 4 |
| Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua | 3 | 5 |
| Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua | 3 | 7 |
| Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia | | |
| Antolamenduaren, Orientazioaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua | 3 | 7 |
| Eleaniztasunen eta Arte Ikasketen Zerbitzua | 3 | 5 |
| Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren, Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua | 3 | 6 |
| Lanbide Heziketako Zerbitzua | 3 | 5 |
| Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzua | 0 | 2 |

*Iturria: Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusia*

### Hezkuntzako Ikuskapena

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren jarduerak 479/2017 Ebazpenean ezarrita daude (479/2017 Ebazpena, urriaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Urteko Jarduketa Plana onesten duena, 2017-2018 ikasturterako, 2017ko azaroaren 17an argitaratua).

Ikuskapen-plantillaren bilakaera ondoko taulan laburbiltzen da.

**104. taula: Ikuskapen-plantillaren bilakaera**

| Ikasturtea | 2010/11 | 2011/12 | 2012/13 | 2013/14 | 2014/15 | 2015/16 | 2016/17 | 2017/18 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lanpostuak | 28 | 25 | 24 | 25 | 25 | 26 | 26 | 26 |
| Okupatutakoak | 28 | 25 | 24 | 25 | 25 | 26 | 26 | 26 |

*Iturria: Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzua*

## *4.2. Eskolako egutegia eta ordutegia*

### Araudia

Eskolako egutegiak eta ordutegiak onartzeko prozesua arau hauen arabera egiten da:

- 633/2017 Ebazpena, abenduaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxeek egutegia eta ordutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena, 2018-2019 ikasturterako.
- 180/2018 Ebazpena, apirilaren 24koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, jarraibideak ematen dituena 2018-2019 ikasturteko eskola egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko

Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ikasketa arautuak ematen dituzten ikastetxeetarako.

- 179/2018 Ebazpena apirilaren 24koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturteko eskola egutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena, hain zuzen, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta ikasgeletan emanen diren irakaskuntzetarako eta ikastetxe publiko baimenduetan emanen diren Helduentzako Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzetarako.

- 181/2018 Ebazpena, apirilaren 24koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2018-2019 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako ikasketak eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketak ematen dituzten ikastetxeei dagozkien eskola-egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko jarraibideak onesten dituena.

- 201/2018 Ebazpena, maiatzaren 2koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko musikako lanbide-ikasketek eta dantzako ikasketa ez-arautuek 2018-2019 ikasturtean izanen duten eskola-egutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena.

- 200/2018 Ebazpena, maiatzaren 2koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko musikako goi mailako arte-ikasketek 2018-2019 ikasturtean izanen duten eskola-egutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena.

- 182/2018 Ebazpena apirilaren 24koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, jarraibideak onesten dituena 2018-2019 ikasturtean Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialetan eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean emanen diren hizkuntza ikasketei dagokien eskola egutegia prestatzeko.

- 206/2018 Ebazpena, maiatzaren 2koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez arautzen baita Nafarroako Foru Komunitatean diseinuko goi mailako ikasketa artistikoak ematen dituzten ikastetxeen eskola egutegia 2018-2019 ikasturterako, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparrura egokituta.

- 206/2018 Ebazpena, maiatzaren 2koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean diseinuko goi mailako arte ikasketak ematen dituzten ikastetxe publikoen eskola-egutegia arautzen duena 2018-2019 ikasturterako, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparrura egokituta.

- 235/2017 Ebazpena, maiatzaren 16koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturtean eskolaldi etengabea edo malgua baimenduta zuten ikastetxeei baimena luzatzen diena 2018-2019 ikasturterako.

- 138/2017 Foru Agindua, abenduaren 20koa, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen 2018ko lan egutegia.

- 312/2018 Ebazpena, ekainaren 19ekoa, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez zehazten baitira ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2019ko jaiegunak, Nafarroako Foru Komunitatearen esparrurako.

- 614/2017 Ebazpena, uztailaren 17ekoa, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2018ko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen duena.

Hasiera batean, Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuak ez zuen aukeratzat hartu zaindariaren eguna irailean ospatzen zuten udalerrietako ikastetxeetan salbuespena egitea eskolen hasiera edo bukaera datei zegokienean, egutegiei buruzko Ebazpenak tarte bat ezartzen baitzuen eskolak hasteko eta bukatzeko. Ekainaren 22an instrukzioa bidali zen, eta horren bidez baimendu egin zen zaindariaren eguna irailean eta urrian ospatzen zuten udalerrietako ikastetxeetan

salbuespena egitea. Instrukzioan ezartzen zen eskolak lehenago hasi edo geroago bukatzeko aukera izanen zutela.

Bestalde, NAOn 2018ko ekainaren 28an argitaratutako ekainaren 19ko 312/2018 Ebazpenak ezartzen du 2019an martxoaren 19a Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan ordaindu bai baina errekuperatu behar ez den jaiegun ofiziala izanen dela, eta eskola egutegiak egoera berri honetara egokitzeko, argibide hauek eman dira:

1.-Ikastetxeek eskola egutegia aldatu beharko dute eta, horretarako, eskolen hasiera egun bat aurreratu edo bukaera egun bat atzeratu beharko dute.

2.- Hezkuntza Ikuskapen Zerbitzukoek atzera botako dituzte, Educa programa informatikoaren bidez, orain arte onartutako egutegiak.

3.- Ikastetxeek ahalik eta azkarren eta horretarako ezarritako prozedurari jarraituz aurkeztu beharko dute egutegi berria, egutegi hori onartu dadin.

Bi instrukzio horien ondorioz, ekainaren 29tik hasita Hezkuntza Ikuskapen Zerbitzukoek berriro ere onartu behar izan dituzte ikastetxeen egutegiak. Horrek ekarri du, abuztuaren 30ean 119 ikastetxeren egutegiak oraindik onartu gabe egotea, haur-eskolak barne hartu gabe.

Gainerako irakaskuntzetan, eskolak hasteko data Taulan adierazitakoa izanen da.

**105. taula: Ikasturtea hasteko eguna. 2018-2019**

| Enseñanzas | Ikasturte-hasiera |
|---|---|
| Helduentzako Oinarrizko Heziketak | Irailaren 17an |
| Urrutiko Batxilergoa | Irailaren 13an |
| Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa | Irailaren 3an |
| “Pablo Sarasate” Musika Kontserbatorio Profesionala | Irailaren 7a eta 10a bitartean |
| Dantza Eskola | Irailaren 7a eta 10a bitartean |
| Hizkuntza Eskola Ofizialak | Ez urriaren 24a baino lehen |
| Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala | Irailaren 23an |

*Iturria: Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzua*

### Lanaldi jarraitua

Hezkuntza Departamentuak lau deialdi egin ditu orain arte, ikastetxeek behin-behinean eskolaldi etengabea probatu dezaten. Hauexek izan dira deialdi horiek:

- 550/2007 EBAZPENA, ekainaren 1ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, eskolaldi malgua Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako lau ikastetxe publikotan modu esperimentalean ezartzeko prozedura arautzen duena, 2007-2008 ikasturterako.

Deialdi hori 9/2007 Ebazpenaren bidez onetsi zen (9/2007 ebazpena, irailaren 17koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2007-2008 ikasturtean zenbait ikastetxetan eskolaldia aldatzeko proiektua onesten duena).

Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

- Virgen de la Cabeza HLHIP, Tuteran
- Urrotz-Hiria HLHIP

- Ricardo Campano HLHIP, Vianan
- Príncipe de Viana HLHIP, Erriberrin

- 280/2008 EBAZPENA, ekainaren 16koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetako eskolaldia 2008-2009 ikasturterako modu esperimentalean ezartzeko prozedura arautzen duena.

  Deialdi hori 337/2008 Ebazpenaren bidez onetsi zen (337/2008 Ebazpena, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2008-2009 ikasturtean, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan, eskolaldia modu esperimentalean aldatzea baimentzen duena).

  Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

  - Gabriel Valentín Casamayor HLHIP, Oibarren
  - San Nicolás HLHIP, Zaren

- 100/2009 EBAZPENA, martxoaren 11koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko 4 ikastetxe publikotako eskolaldia 2009-2010 ikasturterako modu esperimentalean aldatzeko prozedura arautzen duena.

  Deialdi hori 352/2009 Ebazpenaren bidez onetsi zen (352/2009 Ebazpena, ekainaren 29koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2009-2010 ikasturtean, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe batzuetan, eskolaldia modu esperimentalean aldatzea baimentzen duena).

  Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

  - Doña Álvara Álvarez HLHIP, Faltzesen
  - San Benito HLHIP, Miranda Argan
  - San Miguel HLHIP, Larragan

- 210/2013 EBAZPENA, apirilaren 26koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Horren bidez arautzen da Nafarroako Foru Komunitatean zenbait ikastetxetan eskolaldi etengabea eta eskolaldi malgua modu esperimentalean ezartzeko prozedura. Eskolaldi etengabea gehienez sei ikastetxetan ezarriko da, eta eskolaldi malgua gehienez hogei ikastetxetan, Haur eta Lehen Hezkuntzan, bai publikoetan bai pribatu itunduetan, 2013-2014 ikasturtean.

  Deialdi hori 337/2013 Ebazpenaren bidez onetsi zen (337/2013 Ebazpena, ekainaren 20koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2013-2014 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe batzuetan eskolaldi etengabea edo eskolaldi malgua modu esperimentalean ezartzea onesten duena).

  Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

  - Santa Bárbara HLHIP, Elon
  - Pitillasko HLHIP
  - Nuestra Señora del Rosario HLHIP, Sartagudan
  - Sagrado Corazón ikastetxea, Altsasun
  - Virgen del Soto HLHIP, Caparroson
  - Dos de Mayo HLHIP, Castejonen

- 523/2016 EBAZPENA, abenduaren 1ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean, 2017-2018 ikasturtean, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan eskolaldi etengabearen eta eskolaldi malguaren ezarpena arautzen duena.

  Deialdi hori 19/2017 Ebazpenaren bidez onetsi zen (19/2017 Ebazpena, otsailaren 3koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana. Honen bidez eskolaldi etengabea edo eskolaldi

malgua ezartzen da, 2017-2018 ikasturtean, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe jakin batzuetan).

Ikastetxe hauetan onartu da eskolaldi-aldaketa:

- San Babil IP, Ablitasen
- Zelandi IP, Altsasun
- Virgen de la Cerca IP, Andosillan
- Añorbeko IP
- Sancho Ramirez IP, Arguedasen
- Urraca Reina IP, Artaxoan
- Francisco Arbeloa IP, Azagran
- Beireko IP
- Río Arga IP, Berbintzanan
- Beriaingo IP
- Santa Ana IP, Buñuelen
- Ermitaberri IP, Burlatan
- Teresa Bertrán de Lis IP, Cadreitan
- Virgen de la Oliva IP, Zarrakaztelun
- Santa Vicenta María IP, Cascanten
- Francisco Javier Sáenz de Oiza IP, Kasedan
- Otero de Navascués IP, Cintruenigon
- José Luis Arrese IP, Corellan
- Cerro de la Cruz IP, Cortesen
- Juan de Palafox IP, Fiteron
- Elías Terés Sádaba IP, Funesen
- Santos Justo y Pastor IP, Fustiñanan
- Atakondoa IP, Irurtzunen
- Doña Blanca de Navarra IP, Lerinen
- Angel M. Baigorri IP, Lodosan
- San Juan IP, Irunberrin
- San Bartolomé IP, Martzillan
- Santa Ana IP, Melidan
- Nuestra Señora de los Dolores IP, Mendabian
- San Francisco Javier IP, Mendabian
- Julián María Espinal Olcoz IP, Mendigorrian
- Nuestra Señora del Patrocinio IP, Milagron
- Honorio Galilea IP, Monteagudon
- Mardones y Magaña IP, Murchanten
- Raimundo Lanas IP, Murillo el Fruton
- San Miguel IP, Noainen
- Obanosko IP
- San Salvador IP, Oteitzan
- San Jorge IP, Iruñean
- Iturrama IP, Iruñean
- Mendigoiti IP, Iruñean
- García Galdeano IP, Iruñean
- Juan Bautista IP, Azkoienen
- Ximénez de Rada IP, Arradan
- San Bartolomé IP, Ribaforadan
- Alfonso X El Sabio IP, San Adrianen
- Luis Gil IP, Zangozan
- Nuestra Señora de La Asunción IP, Santakaran
- Virgen de las Nieves IP, Sesman
- Marqués de la Real Defensa IP, Tafallan
- Garcés de los Fayos ikastola, Tafallan
- Monte San Julián IP, Tuteran
- Elvira España IP, Tuteran
- Griseras IP, Tuteran
- Torre Monreal IP, Tuteran

- Huertas Mayores IP, Tuteran
- Félix Zapatero IP, Valtierran
- El Castellar IP, Alesbesen
- San Veremundo IP, Villatuertan

- Hezkuntzako Zuzendari nagusiaren maiatzaren 18ko 235/2018 EBAZPENA, eskolaldi etengabea zuten 73 eskolari eskolaldi horrekin jarraitzeko baimena luzatzen diena.

**Eskolaldi malgua**

- 280/2008 EBAZPENA, ekainaren 16koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetako eskolaldia 2008-2009 ikasturterako modu esperimentalean ezartzeko prozedura arautzen duena.

- 337/2008 ebazpenaren bidez, ikastetxe hauetan onartu zen eskolaldi malgua:

  - La Cruz HLHIP, Allon
  - San Fausto HLHIP, Antzinen
  - La Balsa HLHIP, Arroitzen
  - Virgen de las Nieves HLHIP, Deikaztelun
  - Lezaungo HLHIP

- Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emandako ekainaren 8ko 369/2012 EBAZPENAren bidez arautu zen 2012-2013 ikasturtean modu esperimentalean eskolaldi malgua ezartzeko prozedura, Nafarroako Foru Komunitatean Haur eta Lehen Hezkuntzako 20 ikastetxetan, gehienez ere.

- 486/2012 EBAZPENA, uztailaren 30ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, eskolaldi malgua Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe jakin batzuetan modu esperimentalean ezartzea onesten duena, 2012-2013 ikasturtean.

  Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

  - Río Arga HLHIP, Berbintzanan
  - Auritz-Burguete HLHIP, Auritzen
  - Virgen de Gracia HLHIP, Carcarren
  - Francisco Javier Sáenz de Oiza HLHIP, Kasedan
  - Dos de Mayo HLHIP, Castejonen
  - José Luis Arrese HLHIP, Corellan
  - Auzperri HLHIP, Aurizberrin
  - Elías Terés HLHIP, Funesen
  - Blanca de Navarra HLHIP, Lerinen
  - Mardones y Magaña HLHIP, Murchanten
  - Murietako HLHIP
  - Raimundo Lanas HLHIP, Murillo el Fruton
  - Obanosko HLHIP
  - San Salvador HLHIP, Oteitzan
  - Pitillasko HLHIP
  - Ximenez de Rada HLHIP, Arradan
  - Nuestra Señora del Rosario HLHIP, Sartagudan
  - Virgen de Nievas HLHIP, Sesman
  - San Veremundo HLHIP, Villatuertan

- 337/2013 EBAZPENA, ekainaren 20koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2013-2014 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe jakin batzuetan eskolaldi etengabea edo eskolaldi malgua modu esperimentalean ezartzea onesten duena.

Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

- Hilarión Eslava IP, Burlatan
- Otero de Navascués IP, Cintruenigon
- Cerro de la Cruz IP, Cortesen
- Nicasio de Landa HLHIP, Etxabakoitzen
- Juan de Palafox IP, Fiteron
- Santos Justo y Pastor IP, Fustiñanan
- Lago de Mendillorri IP, Iruñean
- Nuestra Señora de la Asunción HLHIP, Santakaran
- Félix Zapatero IP, Valtierran

Eskolaldi etengabea 14 ikastetxetan luzatu zen, eta eskolaldi malgua 29 ikastetxetan luzatu zen.

Hauexek dira ikastetxe horiek:

- La Cruz IP, Allon
- San Fausto IP, Antzinen
- La Balsa IP, Arroitzen
- Río Arga IP, Berbintzanan
- Auritz-Burguete IP, Auritzen
- Hilarion Eslava IP, Burlatan
- Virgen de Gracia IP, Carcarren
- Francisco Javier Sáenz de Oiza IP, Kasedan
- Otero de Navascués IP, Cintruenigon
- José Luis Arrese IP, Corellan
- Cerro de la Cruz IP, Cortesen
- Virgen de las Nieves IP, Deikaztelun
- Nicasio de Landa HLHIP, Etxabakoitzen
- Auzperri IP, Aurizberrin
- Juan de Palafox IP, Fiteron
- Elías Terés IP, Funesen
- Santos Justo y Pastor IP, Fustiñanan
- Blanca de Navarra IP, Lerinen
- Lezaungo IP
- Mardones y Magaña IP, Murchanten
- Raimundo Lanas IP, Murillo el Fruton
- Obanosko IP
- San Salvador IP, Oteitzan
- Lago de Mendillorri IP, Iruñean
- Ximénez de Rada IP, Arradan
- Nuestra Señora de la Asunción HLHIP, Santacaran
- Virgen de las Nieves IP, Sesman
- Félix Zapatero IP, Valtierran
- San Veremundo IP, Villatuertan

- 523/2016 Ebazpena, abenduaren 1ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean, 2017-2018 ikasturtean, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan eskolaldi etengabea eta eskolaldi malgua ezartzea arautzen duena.

Deialdi hori otsailaren 3ko 19/2017 Ebazpenaren bidez onetsi zen (19/2017 Ebazpena, otsailaren 3koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana. Honen bidez eskolaldi etengabea edo eskolaldi malgua ezartzen da, 2017-2018 ikasturtean, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe jakin batzuetan).

Baimena jaso duten ikastetxeak ondoko hauek dira:

- Abartzuzako IP

- Iñigo Aritza ikastola, Altsasun
- Arbizuko IP
- Los Sauces-Sahats IP, Barañainen
- Eulza IP, Barañainen
- Nuestra Sra. de Ujué IP, Figarolen
- Virgen del Rosario IP, Fontellasen
- Arrano Beltza IP, Iturmendin
- Santa María IP, Los Arcosen
- Domingo Bados IP, Olaztin
- Urdiain IP, Urdiainen

Aurreko urteetan eskolaldi malgua izan duten 18 ikastetxek eskolaldi etengabea izanen dute 2017-2018 ikasturtean.

- Hezkuntzako zuzendari nagusiak emandako maiatzaren 16ko 235/2016 EBAZPENAren bidez, 2017-2018 ikasturtean eskolaldi malgua baimenduta zuten 18 ikastetxeri baimena luzatu zitzaien 2018-2019 ikasturterako.

## *4.3. Lehenagoko hezkuntza-sistemetako ikasketekin baliokidetasunak*

Oro har, dagokion baliokidetasuna egiaztatzeko, nahikoa da ikasketen edo proben titulua edo ikasketen ziurtagiria aurkeztu eta taulan adierazitako araudia aipatzea, bestelako administrazio-izapideren beharrik gabe.

Ebazpen pertsonalizatua behar izanez gero, interesdunak Hezkuntza Departamentuko Titulu eta Baliozkotze Bulegoarekin jarri beharko du harremanetan. Ikasketen arteko baliokidetasunak eranskinean ageri dira.

1.eranskina

## *4.4. Irakaskuntzen antolamendua*

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarekin zerikusia duten administrazio-egintza hauek onartu ditu 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31era bitartean:

**106. taula: 2017-2018 ikasturtean onarturiko administrazio-egintzen laburpena**

| Jatorria | Foru Aginduak | Ebazpenak |
|---|---|---|
| Idazkaritza Nagusi Teknikoa | 45 | 5 |
| Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia | 21 | 510 |
| Zuzendari Nagusia | 3 | 1 |
| Unibertsitateen Zerbitzua | 3 | 90 |
| Giza Baliabideen Zerbitzua * | 2 | 5 |
| Servicio de Recursos Humanos por delegación | 0 | 3.973 |
| Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua | 6 | 428 |
| Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua | 2 | 86 |
| Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua | 5 | 527 |
| Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia | 46 | 699 |
| Zuzendari Nagusia | 14 | 2 |
| Lanbide Heziketako Zerbitzua | 14 | 205 |
| Eleaniztasunen eta Arte Ikasketen Zerbitzua | 7 | 200 |
| Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzua | 0 | 74 |
| Antolamenduaren, Orientazioaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua | 8 | 135 |
| Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren, Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua | 3 | 83 |

*Koadroan ageri dira, proposatu dituen unitatearen arabera, foru aginduek eta ebazpenek jorratutako gaiak*
**Ez dira kontuan hartu hurrengo lerroko batzordeak eginiko administrazio-egintzak.*
*Iturria: Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusia*

Jarraian, 2017-2018 ikasturteko araurik esanguratsuenak aipatuko dira:

- Urtarrilaren 10ko 2/2017 EBAZPENA (2/2017 EBAZPENA, Hezkuntzaren zuzendari nagusiak emana, hurbiltasun linealaren irizpidea, horren balorazioa, aplikatu beharreko gehieneko distantzia eta zein udalerritan aplikatu behar den ezartzen dituena eta Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozeduraren jarraibideak, egutegia eta eskabide ereduak onesten dituena, 2017-2018 ikasturterako).

- 561/2016 EBAZPENA, abenduaren 20koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxeek egutegia eta ordutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena, 2017-2018 ikasturterako.

- 204/2017 EBAZPENA, maiatzaren 22koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, ingeleseko, frantseseko eta alemaneko atal elebidunen programaren deialdia egiten duena ikastetxe publiko gehiago sar daitezen, eta programa horiek 2017□2018 ikasturtean emateko oinarriak ezartzen dituena.

- 203/2017 EBAZPENA, maiatzaren 22koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, ingeleseko, frantseseko eta alemaneko atal elebidunen programen deialdia egiten duena, sare itunduko ikastetxe gehiago sar daitezen, eta programa horiek 2017-2018 ikasturtean emateko oinarriak ezartzen dituena.

- 113/2017 EBAZPENA, apirilaren 7koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketen erdi eta goi mailako heziketa zikloetan sartzeko beharrezkoa den gaitasun artistikoaren probaren deialdia egiten duena 2017. urterako.

- 73/2017 EBAZPENA, martxoaren 9koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana. Honen bidez ezartzen dira hurbiltasun linealaren irizpidea, horren balorazioa, aplikatzeko gehieneko distantzia eta zein herritan aplikatuko den; eta, halaber, onesten dira Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozeduraren jarraibideak, egutegia eta eskabide eredua, 2017-2018 ikasturterako

- 143/2017 EBAZPENA, maiatzaren 2koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana. Horren bidez arautzen da jardunean ari diren langileei zuzendutako Lanbide Heziketaren eskaintza 2017-2018 ikasturterako, lanbide heziketako tituluak lortzen laguntzeko.

- 127/2017 EBAZPENA, apirilaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturtean Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan musikako goi mailako arte ikasketak egiteko sarrera proben deialdia egiten duena.

- 147/2017 EBAZPENA, maiatzaren 2koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturtean irakasleen etengabeko prestakuntza planean hezkuntza berritzeko proiektuak egiteko deialdia erregulatzen duena.

- 185/2017 EBAZPENA, maiatzaren 16koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturtean Nafarroako Diseinuko Goi Mailako Arte ikasketak egiteko berariazko sarrera probetarako deialdia egiten duena.

- 174/2017 EBAZPENA, maiatzaren 11koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, jarraibideak ematen dizkiena 2017-2018 ikasturteko eskola-egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ikasketa arautuak ematen dituzten ikastetxeei.

- 173/2017 EBAZPENA, maiatzaren 11koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, jarraibideak onesten dituena, hain zuzen, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta ikasgeletan emanen diren irakaskuntzen eta ikastetxe publiko baimenduetan emanen diren Helduentzako Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen 2017-2018 ikasturteko eskola-egutegiak prestatzeko.

- 212/2017 EBAZPENA, maiatzaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako ikasketak eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketak ematen dituzten ikastetxeei dagozkien eskola-egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko jarraibideak onesten dituena.

- 168/2017 EBAZPENA, maiatzaren 8koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturtean Iruñeko eta Tuterako hizkuntza-eskola ofizialetan eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean emanen diren hizkuntza-ikasketei dagokien eskola-egutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena.

- 189/2017 EBAZPENA, maiatzaren 17koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana. Horren bidez onesten dira Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, pribatu itunduetan eta erakundeetan Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa zikloak eta 1. modalitateko Lanbide Lantegiak egin nahi dituzten ikasleak onartzeko prozeduraren jarraibideak eta egutegia 2017-2018 ikasturterako.

- 240/2017 EBAZPENA, ekainaren 14koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2016-2017 ikasturtean eskolaldi etengabea edo malgua baimenduta zuten ikastetxeei baimena luzatzen diena 2017-2018 ikasturterako.

- 276/2017 EBAZPENA, ekainaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturterako jarraibideak onesten dituena honako hauek arautzeko: batetik, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta ikasgelen antolaketa eta funtzionamendua eta, bestetik, ikastetxe publiko baimenduetan Helduen Bigarren Hezkuntzako ikasketak emateko modua, hala bertaratzeko modalitatekoan nola urrutikoan.

- 443/2017 EBAZPENA, irailaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, eriondoan dauden ikasleei hezkuntza arreta etxean emateko 2017-2018 ikasturteko laguntzetarako deialdiaren oinarriak onesten dituena.

- 297/2017 EBAZPENA, uztailaren 4koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana. Honen bidez arautzen da azterketa bateratuak prestatzeko, baliozkotzeko eta gidatzeko prozedura, baita 2017-2018 ikasturtean zereginak estandarizatu eta banatzeko saioen antolaketa ere.

- 286/2017 EBAZPENA, uztailaren 3koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialen antolaketa eta jarduna 2017-2018 ikasturtean arautzeko jarraibideak onesten dituena.

- 287/2017 EBAZPENA, uztailaren 3koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialaren antolaketa eta jarduna 2017-2018 ikasturtean arautzeko jarraibideak onesten dituena.

- 401/2017 EBAZPENA, abuztuaren 31koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako araubide bereziko kirol ikasketetara futboleko espezialitatean sartzeko proba espezifikoak arautzen dituena eta horietarako deialdia egiten duena, 2017-2018 ikasturterako.

- 139/2017 EBAZPENA, maiatzaren 2koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako araubide bereziko Kirol Ikasketetara (Mendi-kirolak eta Eskalada) sartzeko proba espezifikoak arautzen dituena eta horietarako deialdia egiten duena, 2017-2018 ikasturterako.

- 361/2017 EBAZPENA, abuztuaren 1ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturtean Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren antolaketa eta jarduna arautzeko jarraibideak eta kontserbatorioa Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruari egokitzeko arauak onesten dituena.

- 363/2017 EBAZPENA, abuztuaren 1ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturtean "Pablo Sarasate" Musika Kontserbatorio Profesionalaren eta Nafarroako Dantza Eskolaren antolaketa eta jarduna arautzeko jarraibideak onesten dituena.

- 244/2017 EBAZPENA, ekainaren 15ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren Haur eta Lehen Hezkuntzako zenbait eskola eta ikastetxe publikori baimena ematen diena atzerriko bigarren hizkuntza 2017-2018 ikasturtetik aurrera irakasteko.

  399/2017 EBAZPENA, abuztuaren 30ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana. Horren bidez onesten dira Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketak ematen dituzten arte eskolen antolaketa eta jarduna arautzeko jarraibideak, 2017-2018 ikasturterako.

- 479/2017 EBAZPENA, urriaren 19koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Urteko Jarduketa Plana onesten duena 2017-2018 ikasturterako.

- 507/2017 EBAZPENA, urriaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Arte Ikasketen ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

- 509/2017 EBAZPENA, urriaren 27koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

- 505/2017 EBAZPENA, urriaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

- 506/2017 EBAZPENA, urriaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako institutuetako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

- 508/2017 EBAZPENA, urriaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, ikastetxe itunduetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko eta zuzendaria izendatzeko jarraibideak onesten dituena.

- 22/2018 EBAZPENA, otsailaren 5ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez deialdia egiten baita heziketa zikloa 2016-2017 ikasturtean bukatu duten ikasleei hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako ikasketen sari bereziak emateko, Nafarroako Foru Komunitatean.

- 637/2017 EBAZPENA, abenduaren 27koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, hezkuntza bereziko beken eta Hezkuntza Laguntzako Berariazko Premiak dituzten ikasleendako laguntzen deialdia onesten duena 2017-2018 ikasturterako.

- 522/2017 EBAZPENA, azaroaren 6koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko azterketen 2018ko deialdiak onesten dituena, eta azterketa egiteko eskubideengatik ordaindu beharreko tarifa ezartzen duena.

- 35/2018 EBAZPENA, otsailaren 13koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana. Horren bidez deialdia egiten da 2018. urtean Lanbide Heziketako heziketa zikloetan, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetako zikloetan eta Kirol Ikasketen zikloetan sartzeko probetarako.

- 521/2017 EBAZPENA, azaroaren 3koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, proba libreetarako deialdia egiten duena, Nafarroako Foru Komunitatean, 2018an, 18 urtetik gorako pertsonek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua zuzenean eskura dezaten.

- 110/2018 EBAZPENA, martxoaren 15ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, goi mailako Arte ikasketetan sartzeko heldutasun probarako deia egiten duena 2018. urtean.

- 400/2017 EBAZPENA, abuztuaren 30ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana. Horrez bidez onesten dira, Lanbide Heziketako ikasketez gain, araubide bereziko kirol ikasketak ere ematen dituzten ikastetxeen antolaketa eta jarduna arautzeko jarraibideak, 2017-2018 ikasturterako.

- 398/2017 EBAZPENA, abuztuaren 30ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, hezkuntza-sistemaren Lanbide Heziketako ikasketak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa eta jarduna arautzeko jarraibideak onesten dituena 2017-2018 ikasturterako.

- 261/2017 EBAZPENA, ekainaren 22koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa eta jarduna 2017-2018 ikasturtean arautzeko jarraibideak onesten dituena.

- 276/2017 EBAZPENA, ekainaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturterako jarraibideak onesten dituena honako hauek arautzeko: batetik, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta ikasgelen antolaketa eta jarduna eta, bestetik, ikastetxe publiko baimenduetan Helduen Bigarren Hezkuntzako ikasketak emateko modua, hala bertaratzeko modalitatekoan nola urrutikoan.

- 51/2018 FORU AGINDUA, ekainaren 7koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuekin irakasle lanpostuetan aritu nahi duten izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dituena.

- ***Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa***

Haur Hezkuntzako lehen zikloa borondatezkoa da eta haren helburua da 16 astetik 3 urte bitarteko haurren gaitasun afektibo, motore eta kognitiboen eta komunikazioaren eta hizkuntzaren garapen orekatua lortzen laguntzea.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak Haur Hezkuntzaren izaera borondatezkoa dela nabarmentzen du, eta bi ziklotan antolatutako etapa bezala deskribatzen du. Hezkuntza-asmoa dute horiek, ez nahitaez eskola-asmoa, eta lehen ziklotik proposamen pedagogiko zehatz bat izatera behartzen ditu ikastetxeak.

Nafarroan, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak arautzen du Haur Hezkuntzako lehen zikloa, eta hori eskaintzen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak zehazten ditu, bai eta ziklo horren hezkuntzako edukiak ere.

Foru Dekretu horrekin eta horren ondorengo aldaketekin, zera lortu nahi da: Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak kalitateko hezkuntza-zentroak izatea, hiru urtetik beherakoei, familiekin lankidetzan arituz, beren izaera eta gaitasun guztiak garatzeko prozesu ezin hobe bat eskain diezaieten, ongizatea eta segurtasuna bermatzen dituen inguru batean.

Horrekin batera, Nafarroako Gobernuaren nahia da ikastetxeak Foru Komunitateko aniztasun geografiko, kultural eta linguistikoari egokitutako zerbitzua izatea, antolaketa malgua izanen duena, familiei erantzuteko gai izanen dena, familiako eta laneko eginbeharrak bateratzeko erraztasunak emanen dituena.

Aipatutako Foru Dekretuak, hezkuntza edukiez gain, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa ematen duten zentroek bete behar dituzten betekizunak ezartzen ditu, ikasle/irakasle ratioari, instalazioei eta ikaspostuen kopuruari dagokienez. Gainera, haur-eskola publikoak sortzeko prozedura ezartzen da, eta Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura.

- ***Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza***

Haur Hezkuntzako bigarren zikloaren xedea da haurren garapen fisikoan, afektiboan, sozialean eta intelektualean laguntzea. Ziklo horretan, hauek landuko dira era mailakatuan: garapen afektiboa, mugimendua eta gorputza kontrolatzeko ohiturak, komunikatzeko adierazpenak eta mintzamena, bizikidetzako eta gizarte-harremanetako oinarrizko jarraibideak eta ingurunearen ezaugarri fisikoak eta sozialak aurkitzea. Gainera, haurrei beren buruaren irudi positibo eta orekatua sortzen eta beren adinarentzako egokia den norberaren autonomia-maila lortzen lagunduko zaie.

Lehen Hezkuntzaren helburua, bestalde, ikasleei honako hauek irakastea da: ahozko adierazpena eta ulermena, irakurmena, idazmena, kalkulua, kulturaren oinarrizko ideiak, elkarrekin bizitzeko ohitura, ikasten eta lan egiten ohitzea, zentzu artistikoa, eta sormena eta afektibitatea. Horren guztiaren helburua ikasleen nortasuna garatzen lagunduko duen prestakuntza integrala bermatzea eta haiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari etekina ateratzeko moduan prestatzea da. Etapa honetan, hezkuntza-jardueraren bidez ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak bateratzeko ahalegina eginen da, eta hezkuntza-jarduera hori ikasleen lan-erritmoetara egokituko da.

- ***Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)***

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren xedea da ikasleek kulturaren oinarrizko elementuak eskuratzea ahalbidetzea, batez ere haien alderdi humanistiko, artistiko, zientifiko eta teknologikoak; ikasteko eta lan egiteko ohiturak garatzea eta sendotzea; ondoko ikasketak egiteko eta lan-munduan sartzeko prestatzea; eta herritar bezala dituen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko prestatzea.

- ***Batxilergoa***

Batxilergoaren helburua ikasleei prestakuntza, heldutasun intelektuala eta gizatiarra, ezagutzak eta gaitasunak ematea da, gizarte-funtzioak betetzeko gauza izan daitezen eta bizitza aktiboari arduraz eta gaitasun egokiekin ekiteko gai izan daitezen. Horrez gain, ikasleak goi mailako ikasketetan sartzeko gaituko ditu.

- ***Lanbide Heziketa***

Lanbide Heziketak berariazko lehentasuntzat ditu laneko ikaskuntza sustatzea (dituen forma guztietan), gaitasun giltzarriak indartzea ikasketa-planetan, kualifikazioak eskuratzeko aukerak hobetzea pertsona guztientzat bai eta irakasleen hasierako eta etengabeko garapen profesionalerako aukerak txertatzea ere.

Lanbide Heziketaren Zerbitzuak landu eta garatu duen Nafarroako Lanbide Heziketako Plan estrategikoaren xedea da irakaskuntza hauen egoera orokorra hobetzea eta berariaz azaltzen da ondorengo epigrafe batean.

- ***Arte eta Musika Ikasketak***

Arte-ikasketen helburua da ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea eta musikaren, dantzaren, arte plastikoen eta diseinuaren alorreko etorkizuneko profesionalen kualifikazioa bermatzea.

Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, Arte Ikasketetarako Atala arduratzen da musika-hezkuntzaren garapena sustatzeaz araubide orokorreko irakaskuntzako etapetan eta, horrekin batera, arte ikasketei dagozkien berrikuntza programak eta hezkuntza-esperimentazioko proiektuak planifikatzeaz, sustatzeaz, koordinatzeaz eta horien jarraipena egiteaz.

Musika-ikasketak hiru etapatan antolatzen dira:

- Hezkuntza ez-arautuak. Nafarroan, hastapeneko prestakuntza berariazko musika-eskoletan ematen da. Horiek Foru Komunitate guztian zehar barreiatuta daude, eta gehienen titulartasuna udalena da.

- Musikako lanbide-ikasketak. Kontserbatorio profesionaletan egiten dira. Sei ikasturteko iraupena dute, eta irakasgaiak espezialitateko instrumentuaren araberakoak dira.

- Goi mailako musika-ikasketak. Lau ikasturtetan antolatzen dira, eta bakoitzak 60 ECTS kreditu ditu. Bukatzerakoan musikako goi mailako titulua lortzen dute ikasleek, dagokien espezialitatean. Graduaren baliokidea da titulu hori.

Dantzaren sustapena dantza-eskoletan emandako ikasketen bidez egiten da. Horien iraupena ez dago finkatua, eta eskola bakoitzak berea ezartzen du bere plan pedagogikoan. Ez dago adin mugarik ikasketa hauek egiteko eta ez daude bideratuak balio akademiko eta profesionaleko tituluak erdiestera.

Arte plastikoei eta diseinuari buruzko arte-ikasketak hainbat mailatan antolatuta daude:

- Erdi mailako gradua. Lanbide jakin baterako prestakuntza eskaintzen duten ikasketak dira. Ikasketa hauek bukatutakoan, teknikari titulua lortzen da.

- Goi mailako gradua. 3. mailako kualifikazioa duten profesionalak prestatzen dituzte ikasketa horiek. Bukatzean, goi mailako teknikari titulua lortzen da.

- Diseinuko goi mailako ikasketak. Lau ikasturtetan antolatzen dira, eta bakoitzak 60 ECTS kreditu ditu. Bukatzean, Diseinuko goi mailako titulua lortzen da, dagokion espezialitatean.

- ***Helduen irakaskuntza***

Helduen irakaskuntzaren xedea da hemezortzi urte baino gehiago dituztenei beren garapen pertsonal eta profesionalerako ezagutzak eta gaitasunak lortu, eguneratu, osatu eta zabaltzeko aukera ematea.

Hezkuntza horrek honako helburu hauek ditu:

- Oinarrizko prestakuntza bat lortzea; ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak modu jarraituan zabaldu eta berritzea; eta hezkuntza-sistemako gainerako irakaskuntzetarako sarbidea erraztea.

- Kualifikazio profesionala hobetzea edo beste lanbide batzuetan aritzeko prestakuntza lortzea.

- Gaitasun pertsonalak garatzea, espresioaren, komunikazioaren, pertsonen arteko harremanen eta ezagutzaren eraikuntzaren arloetan.

- Bizitza sozial, kultural, politiko eta ekonomikoan parte hartzeko gaitasuna garatzea eta herritartasun demokratikoaren eskubidea gauzatzea.

- Gizarte-bazterkeriaren arriskuak (sektorerik ahulenenak bereziki) zuzentzea.

- Nagusienei beren gaitasunak gehitzeko eta eguneratzeko aukera ziurtatzea.

- Gatazka pertsonalak, familiakoak eta sozialak aurreikustea eta modu baketsuan konpontzea. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzea eta horien arteko desberdintasunak kritikoki aztertzea eta balioestea.

Atentzio berezia ematen zaie gizarteratzeko eta laneratzeko bestelako aukerak behar dituzten eta kualifikaziorik ez duten edo oso kualifikazio txikia duten kolektiboei, batik bat honako hauei:

- derrigorrezko hezkuntzaren baliokideak diren oinarrizko gaitasunak ez dituzten helduei;
- laneratzea eta gizarteratzea lortzeko beren gaitasunak hobetu behar dituzten gizarte-egoera ahuleko taldeei, etorkinei eta desgaitasuna duten pertsonei;
- beren kualifikazio profesionalaren ziurtagiririk ez duten herritar aktiboei, edo hori hobetu nahi dutenei;
- derrigorrezko eskolatzea DBHko titulua lortu gabe bukatzen duten gazteei edo ikasketak behar baino lehen utzi dituzten gazteei.

- ***Kirol-ikasketak***

Araubide bereziko kirol-ikasketek kirol-sisteman lanbide-jarduera batean aritzeko prestakuntza ematen diete ikasleei, kirol-modalitate edo -espezialitate bati loturik, eta enplegurako sarbidea izateko gaitzen dituzte.

Bi mailako kirol-zikloetan antolatzen dira: Erdi maila eta goi maila. Nafarroan ikasketa horien antolakuntza eta garapena arautzen dituen abenduaren 28ko 248/2011 Foru Dekretuan ezarritakoa betez, ikasketa horien plangintza eta eskaintza hezkuntza eta kirolaren eskumena duten Nafarroako Gobernuko Departamentuen eta Nafarroako kirol-federazioen arteko lankidetzan oinarritzen da. Bi aldagai nagusiren arabera antolatzen da eredua, malgutasunaren eta eskaintzaren behin-behinekotasunaren arabera, hain zuzen, kirol-sektorearen beharrei erantzuna emateko xedearekin. Zentzu horretan, 2017-2018 ikasturtean honako kirol-modalitate eta -espezialitate hauei dagozkien ikasketak eskaini dira:

Ikastetxe publikoak:

- Mendi-kirolak eta eskalada:
  - Mendi ertainetako kirol-teknikaria
  - Eskaladako kirol-teknikaria

Ikastetxe pribatuak:

- Futbola:
  - Futboleko kirol-teknikaria
  - Futboleko goi mailako kirol-teknikaria

## *4.5. Hizkuntzak ikastea*

Hizkuntzak eta hizkuntzetan ikastea Nafarroako hezkuntza-sisteman garrantzi berezia duen ezaugarria da. Atal honetan horren garrantziaren eta dinamismoaren adierazle batzuk bildu dira.

- ***Euskara***

Nafarroako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan euskara sartzea eta bere erabilera arautzen dituen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak, Euskarari buruzko Foru Legea garatu eta A, B eta D hizkuntza-ereduak definitzen ditu.

A hizkuntza-ereduan gaztelaniaz ematen da irakaskuntza eta euskara irakasgai bezala izaten da, maila, etapa eta modalitate guztietan. B hizkuntza-ereduan euskaraz ematen da irakaskuntza, eta gaztelania irakasgai bezala eta irakaskuntza-hizkuntza bezala erabiltzen da irakasgai batean edo batzuetan, irakaskuntzaren, zikloaren edo etaparen arabera. D hizkuntza-ereduan euskaraz ematen da irakaskuntza, gaztelaniako irakasgaia izan ezik. Aurrekoez gain, hizkuntza eremuaren arabera, bada G izeneko beste eredu bat, non ez dagoen ez euskarazko ez euskararen irakaskuntzarik.

Aipatutako Foru Dekretuan A, B eta D ereduak onartzen dira eremu euskaldunean (euskara irakastea nahitaezkoa da, beraz); A, B, D eta G ereduak onartzen dira eremu mistoan eta A, G eta, 2015-2016 ikasturtetik aurrera, D eredua onartzen dira eremu ez-euskaldunean.

**107. taula: Euskara duten A, B eta D ereduen eta euskararik gabeko G ereduaren eskolatze-datuak eskola publiko eta pribatu itunduetan. 2017-2018**

| | G eredua | | A eredua | | B eredua | | D eredua | | Ikasleak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasl. | % | Ikasl. | % | Ikasl. | % | Ikasl. | % | |
| Haur Hezkuntza | 9.754 | 50,46 | 4.039 | 20,89 | 54 | 0,28 | 5.483 | 28,37 | 19.330 |
| Lehen Hezkuntza | 22.532 | 53,51 | 8.344 | 19,82 | 103 | 0,24 | 11.128 | 26,43 | 42.107 |
| DBH | 17.581 | 65,44 | 2.386 | 8,88 | 28 | 0,10 | 6.870 | 25,57 | 26.865 |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Batxilergoa | 6.493 | 72,14 | 325 | 3,61 | | | 2.183 | 24,25 | 9.001 |
| Heziketa-zikloak | 7.096 | 94,75 | | | | | 393 | 5,25 | 7.489 |
| Oinarrizko LH | 1.040 | 98,11 | | | | | 20 | | 1.060 |
| Guztira | 64.496 | 60,93 | 15.094 | 14,26 | 185 | 0,17 | 26.077 | 24,64 | 105.852 |

*Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa*

**134. grafikoa: Euskara duten A, B eta D ereduen eskolatze-datuak. 2017-2018**




*Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa*

Ikastetxe publikoei dagokienez, Haur Hezkuntzako 2. ziklo eta Lehen Hezkuntzako 75 ikastetxetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 27tan eman da D eredua 2017-2018 ikasturtean.

2.eranskina

3.eranskina

D ereduan eskolatzea eskaintzen duten ikastetxe pribatu itunduei dagokienez, 18 dira Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta/edo Bigarren Hezkuntzan.

4.eranskina

- ***Atzerriko hizkuntzak***

Programa eleaniztunetan indarreko curriculuma bi hizkuntzatan edo gehiagotan koordinaturik ematen da.

- Haur eta Lehen Hezkuntzan  Lehen Hezkuntza: Atzerriko Hizkuntzak Ikasteko Programak (Ingelesa-Alemana-Frantsesa), MECD-British Council ikastetxeak barne.
- Bigarren Hezkuntzan: Ingeleseko eta frantseseko atal elebidunak, Bigarren Hezkuntza Elebiduna / MECD-BC Bigarren Hezkuntza, bai eta Batxilergoko titulazio bikoitzeko Bachibac programa.

Puntu hauek nabarmendu behar dira:

- Haur eta Lehen Hezkuntzan Atzerriko Hizkuntzak Ikasteko Programetan (IIP/FIP/AIP) igo egiten dira ingelesez, frantsesez edo alemanez emandako eskolak (astean 12 saiora arte A/G ereduan eta astean 8 saiora arte D ereduan).
- IIPko A ereduko ikasleek, gainera, euskara ere ematen dute.

Ondoko hauek dira Bigarren Hezkuntzako programa eleaniztunak:

- Bigarren Hezkuntza Eleaniztuna, jarraipena da IIP/FIP/AIP ikastetxeetako ikasleentzat.
- MECD-BC Bigarren Hezkuntza, jarraipena da MECD-BC ikastetxeetako ikasleentzat.
- Ingeleseko eta frantseseko atal elebidunak.

Bigarren Hezkuntza Eleaniztunean, MECD-BC Bigarren Hezkuntzan eta ingeleseko eta frantseseko atal elebidunetan, hizkuntzakoak ez diren hainbat irakasgai ingelesez edo frantsesez ematen dira.

Frantseseko ataletan, atzerriko bigarren hizkuntza denez, programan Frantsesa irakasgaia sendotzen da DBHko 1. eta 2. mailetan, ordu gehiagorekin. DBHko 3. eta 4. mailetan irakasgai bat edo batzuk ematen dira frantsesez.

Programa elebidunak edo eleaniztunak (atzerriko hizkuntzei buruz ari gara hemen) ematen dituzten Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek pisu handia dute Nafarroako Hezkuntza sisteman eta horren adibide dira jarraian ageri diren tauletako datuak.

**108. taula: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan programa eleanitzak ematen dituzten ikastetxeak**

| | Ikastetxea Lehen Hezkuntza | Ikasle kopurua | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Haur H. | LH | Guztira |
| Guztira | 116 | 13.121 | 12.404 | 25.525 |

*Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua*

5.eranskina

**109. taula: Bigarren Hezkuntzan programa eleaniztunak eskaintzen dituzten ikastetxeak. 2017-2018**

| | Ikastetxea Bigarren Hezkuntza | Ikasle kopurua |
|---|---|---|
| Guztira | 35 | 5.721 |

*Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua*

6.eranskina

**110. taula: Programa eleanitzak ematen dituzten Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxeak. Frantsesa. 2017-2018**

| | Ikastetxea Bigarren Hezkuntza | Ikasle kopurua |
|---|---|---|
| Guztira | 8 | 496 |

*Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua*

7.eranskina

## Frantziako ikasleekin eskola-trukea egiteko programa

Programa hau martxoaren 9ko 72/2017 ebazpenak arautzen du. Trukearen iraupena 4 hilabetekoa da eta ikasturteko lehen hiruhilekoan egiten da, ikasleak DBHko 3. mailan daudenean. Ikasle nafarrek 2 hilabete ematen dituzte Frantzian (iraila eta urria), eta ikasle frantsesek beste 2 hilabete ematen dituzte Nafarroan (azaroa eta abendua).

Nahiz eta deialdia egin zen D ereduko ikasleek trukean parte har zezaten, ez zen eskaerarik jaso Frantziatik eta, ondorioz, eskaera egin zuten 11 ikasleek ezin izan zuten trukean parte hartu.

**111. taula: Frantziako ikasleekin eskola-trukea egiteko programan parte hartzen duten ikasleen bilakaera. 2014-2018**

| | 2014/2015 (DBHko 3. Mailako ikasleak) | 2015/2016 (DBHko 3. Mailako ikasleak) | 2016/2017 (DBHko 3. Mailako ikasleak) | 2017/2018 (DBHko 3. Mailako ikasleak) |
|---|---|---|---|---|
| Ikasleak | 47 | 51 | 54 (A eta G ereduak)<br>3 (D eredua) | 66<br>(A, G, A/G, A/D y A/G/D ereduak) |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eskaerak guztira | 85 | 82 | 74 (A eta G ereduak)<br>8 (D eredua) | 82:<br>-71 A, G, A/G, A/D y A/G/D ereduak<br>-11 D eredua |
| Esleitutako gastua | Programa honek ez dio inolako gasturik eragiten Hezkuntza Departamentuari | | | |

*Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua*

### Frantzian ikasturte osoa egiteko programa akademikoa

Programa hau otsailaren 10eko 23/2017 ebazpenak arautzen du. Parte-hartzearen bilakaera azpiko taulan laburbildu dugu.

**112. taula: Frantzian ikasturte osoa egiteko programan parte hartzen duten ikasleen bilakaera. 2014-2018**

| | 2014/2015 (DBHko 1. eta 4. mailen arteko ikasleak) | 2015/2016 (DBHko 1. eta 4. mailen arteko ikasleak) | 2016/2017 (DBHko 1. eta 4. mailen arteko ikasleak) | 2017/2018 (DBHko 1. eta 4. mailen arteko ikasleak) |
|---|---|---|---|---|
| Ikasleak | 82 | 124 | 138 | 154 |
| Eskaerak guztira | 152 | 138 | 222 | 223 |
| Esleitutako gastua | Programa honek ez dio inolako gasturik eragiten Hezkuntza Departamentuari | | | |

*Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua*

### Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasle-taldeentzako ingelesezko English Week murgiltze-programa, ikasturtean zehar

Programa hau abenduaren 14ko 610/2016 ebazpenak eta otsailaren 15eko 42/2016 enkarguak arautzen dute. Izandako bilakaera erantsitako ondoko taulan jaso da.

**113. taula: Ikasle parte-hartzaileen guztizkoaren eta aurrekontu orokorraren bilakaera. WEEK. 2008-2018**

| | 2011/ 2012 | 2012/ 2013 | 2013/14 (LH 5.a eta 6.a) | 2014/15 (LH 5.a) | 2015/16 ((LH 5.a) | 2016/17 ((LH 5.a) | 2017/18 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eskaerak guztira | 2.425 | 2.772 | 2.557 | 2.350 | 3.645 | 3.645 | 3.815 |
| Parte hartu duten ikasleak | 1.950 | 2.025 | 2.557 | 2.350 | 2.500 | 2.500 | 2.400 |
| Esleitutako gastua | 272.991 | 272.991 | 272.000 | 244.770 | 297.400 | 297.400 | 306.000 |

*Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua*

**135. grafikoa: Ikasle parte-hartzaileen eta aurrekontu orokorraren bilakaera. WEEK. 2010-2018**




*Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua*

## Atzerriko hizkuntzetako hizkuntza-laguntzaileak ikastetxe publikoetan

2017-2018 urtean ez da hizkuntza-laguntzaileentzako deialdirik egin.

## Atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako udako laguntzak

**114. taula: Irakasleak atzerrian prestatzeko laguntzak. 2014-2018**

| Irakasleak | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | 15 | 11 | 11 | 8 | 7 |
| Lehen Hezkuntza | 18 | 18 | 15 | 10 | 19 |
| Bigarren Hezkuntza | 22 | 10 | 11 | 14 | 13 |
| Hizkuntza Eskola Ofizialak | | 1 | 3 | 2 | 1 |
| Guztira | 55 | 40 | 40 | 34 | 40 |

*Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua*

### Irakasleek udan ingelesa ikasteko ikastaroak barnetegietan

**115. taula: Irakasleek udan ingelesa ikasteko ikastaroak barnetegietan. 2014-2018**

| Irakasleak | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | 9 | - | 9 | 18 | 8 |
| Lehen Hezkuntza | 10 | 12 | 15 | 33 | 16 |
| Bigarren Hezkuntza | 13 | 6 | - | 22 | 12 |
| Guztira | 22 | 18 | 24 | 73 | 36 |

*Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua*

# 4.6. Inklusioa eta aniztasuna

## 4.6.1. Aniztasunari Erantzuteko Plana

Aniztasunari erantzuteari buruzko Nafarroako araudi esparrua Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen da. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen du.

Aniztasunari Erantzuteko Planak ikasleen aniztasunari erantzuteko neurriak hartzen ditu barnean. Bereziki, berariazko hezkuntza-beharrak dituzten ikasleei eman behar zaie arreta. Ikasle horiek hezkuntza-erantzun irekiak eta malguak beharko dituzte eta, horretarako, ezinbestekoa izanen da behar adina baliabide baliatzea.

Aniztasunari erantzuteko planak xede hauek ditu:

- Ikasle guztien beharrei erantzuna emateko plangintza eta antolakuntza erraztea ikastetxeei, eta erabilgarri dauden baliabide pertsonalak lehenestea, ikasleen taldeko eta/edo banako beharren arabera.

- Hezkuntzak aniztasunari ikasgelan erantzun diezaion, lehentasunak ezartzeko irizpideen zehaztapena gidatzea; hezkuntza erantzun hori hainbat ekintza koordinatuz emanen da (orientazioa, tutoretza, irakasleen, tutoreen eta arloetako irakasleen jarduna, eta irakasle arrunten eta espezializatuen laguntza).

- Atzerritar jatorriko ikasleen eta egoera soziokultural ahulean dauden ikasleen harrerarako eta inklusiorako neurriak eta jarraibideak ezartzea, irakasle taldeak adostutako Harrera Planaren barruan.

- Ikasturtean zehar agertzen ahal diren premia berriei erantzuteko aldaketak sartzea ahalbidetzen duen planifikazioa ezartzea, antolaketa neurri malguak sartuta, irakasle arrunten eta espezialisten esku-hartzeak unean uneko beharren arabera moldatu daitezen.

- Aniztasunari emandako erantzuna eraginkorra izan den aztertzeko barne-ebaluazioak gidatzea, eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea.

Ikasle horien artean daude hezkuntza-premia bereziak (iraunkorrak zein iragankorrak) dituztenak.

**136. grafikoa: Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eta ikasle kopuru osoaren arteko erlazioa ehunekotan. 2000-2017**




*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

8.eranskina

## Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea

Ikasle horiek nola eskolatu zehazteko eta, azken finean, ikastean eta parte hartzean oztoporik ez izatea bermatzeko, erabakiak hartzeko prozesu jakin bati jarraitu behar zaio, ziurtatzeko ikaslearen ezaugarrientzat egokiena den hezkuntza erantzuna emanen dela, betiere, testuinguru ahalik eta normalizatuenean.

Oro har, ikaslea ikastetxe arruntean eskolatzea proposatuko da ikaslearen hezkuntza-premia bereziei (HPB) ikastetxeetako ohiko baliabideekin erantzuten ahal bazaie (eskolako orientatzailea, pedagogia terapeutikoko irakasleak, entzumeneko eta hizkuntzako irakasleak eta, hala dagokionean, zaintzailea, fisioterapeuta eta NHBBZko kanpoko laguntzak).

Aldiz, ikaslearen HPBei erantzuteko etengabeko banakako laguntza-baldintzak eta ikastetxe arrunt batek ezin eskaini dituen ekintza bereziak behar direnean, ikaslea Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean eskolatzea proposatuko da. Hori gertatzen da ikasleak egokitzapen oso esanguratsuak behar dituenean bere adinaren arabera dagokion curriculum ofizialeko arloetan eta, ondorioz, uste denean ikastetxe arrunt batean bere gizarte-inklusioa eta ikasketetako lorpenak minimoak izanen direla.

## Eskolatze-modalitateak. Antolakuntzako aukerak

Bi modalitate daude. Modalitate horiek curriculumaren egokitze-maila desberdinei dagozkie, ikasle bakoitzak behar dituen laguntza mota eta mailaren arabera:

- Ohiko ikastetxeko eskolatzearen modalitatea/antolakuntzako aukerak:
    - Lehentasunezko ikastetxeak.

- Garapenaren nahasmendu orokorrak dituzten ikasleentzako berariazko ikasgelak.
- Haur eta gazteen eguneko ospitaleko terapia- eta hezkuntza-programa.
- Curriculum bereziko unitateak (CBU).
- Lanbide Heziketa Bereziko programak (LHB).

- Hezkuntza bereziko ikastetxeko eskolatzearen modalitatea/antolakuntzako aukerak:
  - Hezkuntza Bereziko ikasgela, landa-eskualdeetan.
  - Lanbide Heziketa Bereziko programak (LHB).
  - Helduarora Igarotzeko Hezkuntza Programak (HIHP).

### *4.6.2. Hezkuntzako ekitatea*

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak atarikoan ezartzen du aniztasunari arreta ematearen printzipioak oinarrizko hezkuntza guztia gidatu behar duela. Horrela, ikasle guztiei beren ezaugarriei eta beharrei egokitutako hezkuntza emanen zaie.

Ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen duen Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak ezartzen duenez, hezkuntza jasotzeko eskubidea gauzatzerakoan berdintasuna bermatze aldera, hezkuntza-administrazioek konpentsazio-izaera duten jarduerak garatuko dituzte egoera ahulean dauden pertsona, talde eta lurralde-eremuei dagokienez, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta laguntzak emanen dituzte.

- ***Lehen Hezkuntzako ikastetxeak laguntzeko berariazko programa, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleei eta/edo sisteman berandu sartutako ikasleei hezkuntza erantzuna emateko***

Egoera soziokultural ahulean dauden ikasleentzako eta sisteman berandu sartutakoentzako laguntza neurriak aniztasunari erantzuteko neurri arrunten osagarriak dira, eta haien berariazko premien araberakoak.

**116. taula: Matrikula aparteko epean edo epez kanpo**

| | | Aparteko epean (09/14 arte) | Epez kanpo (09/14 tik aurrera) | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | Publikoa | 100 | 191 | 291 |
| | Itundua | 10 | 28 | 38 |
| | Guztira HH | 110 | 219 | 329 |
| Lehen Hezkuntza | Publikoa | 174 | 359 | 533 |
| | Itundua | 6 | 23 | 29 |
| | Guztira LH | 180 | 382 | 562 |
| DBH | Publikoa | 80 | 160 | 240 |
| | Itundua | 7 | 49 | 56 |
| | Guztira DBH | 87 | 209 | 296 |
| Guztira | Publikoa | 354 | 710 | 1064 |
| | Itundua | 23 | 100 | 123 |
| | | 337 | 810 | 1187 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Ikastetxe jakin batzuek sisteman berandu sartutako eta/edo egoera ahulean dauden ikasleen kopuru esanguratsua dutenez, ikastetxe horiek irakasle-orduz hornitzen ditu Hezkuntza Departamentuak, eta irakasle arruntei laguntzen diete curriculumeko atzerapen handia duten ikasleei eta komunikazio-hizkuntza ez dakiten ikasleei arreta egokia ematen. Nolanahi ere,

premia horiek dituzten ikasleak hartzen dituen ikaskuntza-taldeko kide guztiek dute komunikazio-hizkuntza erakusteko ardura.

- ***Absentismoa eta ikasketak garaiz aurretik uztea***

Aukera-berdintasuna bermatzea xede duen ikuspegi batek hezkuntza-sistemako arazo nabarmenen artean ikusi behar ditu absentismoa eta eskola-uzte goiztiarra.

Foru Komunitateko Goi Fiskaltzak, Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako Departamentuak, Ijitoen Elkarteak eta beste elkarte batzuek osatzen dute absentismoaren eta eskola-uztearen kontrako departamentu arteko batzordea, eta aldian behin biltzen da helburu hauekin:

- Absentismoaren aurkako protokoloaren jarraipena eta hedapena egitea.
- Horretan batera dihardute zerbitzuen koordinazio sistemikoa errazteko departamentu arteko ekintzak egitea, baliabideak optimizatzeko eta eraginkortasuna irabazteko.
- Toki-mailako jardunbide egokiak hedatzea eta sustatzea. Horiek hainbat erakunderen artean egindakoak dira: ikastetxeak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, Osasun Departamentua, udalak, etab.
- Absentismoaren gaia lantzeko esku-hartzeak ugaritzea, arazo hori hobeki hautemateko.
- Nafarroako absentismoari buruzko datu-bilketa hobetzea Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn.

Protokoloaren bidez lortutako datuak EDUCAri eginiko kontsulta batekin osatzen dira, Haur eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeetako ikasleen lehen hiruhilekoko asistentzia-falten berri izateko (ikastetxe publiko zein itunduetan). Eskola-ordutegian orduen % 20 baino gehiagotan huts egin duten ikasleen datuak lortu dira (80 falta baino gehiago).

**117. taula: Absentismo-batzordean jasotako protokoloak**

| Ikasturtea | 1. hiruhilekoa | Ikasturte osoa |
|---|---|---|
| 2015/2016 | 44 | 191 |
| 2016/2017 | 122 | 126 |
| 2017/2018 | 56 | 128 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

Lehen hiruhileko absentismo-datuak jaso dira ondoko taulan, hezkuntza-etaparen arabera.

**118. taula: EDUCA. Absentismoaren banaketa, etapen eta mailen arabera. 2017-2018**

| | Ikastetxe publikoa | Ikastetxe itundua |
|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | 339 | 5 |
| Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila | 187 | 8 |
| Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila | 116 | 4 |
| Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila | 96 | 0 |
| 1. DBH | 116 | 4 |
| 2. DBH | 103 | 7 |
| 3. eta 4. DBH | 197 | 23 |
| CEP | 15 | 0 |
| Oinarrizko LH | 116 | 23 |
| Guztira | 1.285 | 74 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

Bestalde, hauekin dira EDUCAn huts egite bat ere erregistratuta ez daukaten ikastetxeak:

**119. taula: 0 falta-indizea. 2017-2018**

| EDUCA –0 falta-indizea: | | |
|---|---|---|
| | Ikastetxe publikoa | Ikastetxe itundua |
| Haur eta Lehen H. | 24 de 171 | 50 de 72 |
| DBH + Oinarrizko LH | 0 de 58 | |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

Horrela, bada, EDUCAn asistentzia-faltarik gabeko ikastetxeen ehuneko handi bat jasotzen da. Badirudi beharrezkoa dela gertakari honen erregistroa hobetzea haren intzidentziaren datu zehatzagoak izateko.

- ***Errefortzua, orientazioa eta hezkuntzako laguntza***

Honako hau ezartzen du ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak 8. artikuluan: “Ikastetxeak ikasle guztien hezkuntza premia orokorrei eta ikasle bakoitzaren premiei ahalik eta ongien erantzuteko diseinatzen, aukeratzen eta gauzatzen dituen neurriak (curriculum egokitzapenak, antolaketa neurriak, laguntzak eta errefortzu neurriak) Aniztasunari Erantzuteko Plana izeneko agirian biltzen dira”.

Foru Agindu horren 7.artikuluan, bestalde, honako hauek sailkatzen dira hezkuntza-arretako neurrien artean: “Hezkuntza-laguntza eta errefortzu programak: taldekatze desberdinak, taldeen bikoizketak, talde malguak, arlo edo irakasgaien errefortzua, eta ezagutzak handitu edo sakontzeko neurriak”.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren atariko tituluan jasotzen denez, ikasleen hezkuntza- eta lanbide-orientazioa eskubide aitortua da, beharrezkoa baita banakako prestakuntza eta hezkuntza integrala lortzeko, eta ezartzen du kalitate faktorea ere badela, botere publikoen arreta berezia jasoko duena.

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan Hezkuntza eta Lanbide Orientazioa arautzen dituen urriaren 29ko 66/2010 Foru Dekretuak honako hau xedatzen du 1. artikuluan: “Foru Dekretu honen xedea da hezkuntza-orientazioa arautzea Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoak eusten dituen ikastetxeetan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetan eta Helduen Hezkuntzan ikasketak ematen dituztenetan”.

Era berean, zera esaten da 2. artikuluan: “Hezkuntza-orientazioa kalitate- eta hobekuntza-elementua da eskola-erakundean, eta bere helburua da ikasleen hezkuntza integrala eta banakakoa bultzatzea, haien aniztasunari erreparatuz, aholkularitza eta laguntza teknikoa emanez ikasleei, gurasoei edo legezko tutoreei –hezitzaile lehen eta nagusi diren heinean–, ikastetxeei eta irakasleei”.

Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 20ko 4/2017 Foru Aginduak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duena) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: “Matrikulazioaren ikasmailako curriculum arrunta egiten duten, baina ikasketa-prozesuan aurrera egiteko arruntaz kanpokoa den hezkuntza-arreta behar duten ikasleei aplikatuko zaie irakasgai batean hezkuntza-laguntza edo errefortzua emateko neurria. Hezkuntzaren errefortzuan, besteak beste, sartzeko curriculum egokitzapenak egiten ahal dira baliabide material eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculuma aberastekoak ere, adimen-gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko”.
Azkenik, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 19ko 50/2017 Foru Aginduak (horren bidez arautzen da Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: “Hezkuntzako neurri gisa, aintzat hartzen ahal da

Hezkuntza Errefortzua. Horrek sartzeko curriculum-egokitzapenak izaten ahal ditu baliabide materialak eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculuma aberasteko egokitzapenak ere, adimen gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko".

- ***Adimen-gaitasun handiko ikasleak***

Ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak honela definitzen ditu gaitasun handiko ikasleak 16. artikuluan: "Ikasle hauentzat ez dira egokiak adinkideen kurtsoko helburuak eta edukiak eta hezkuntza-premia bereziak dituzte beren adimen-gaitasun handiagatik, edo zenbait ikasgai goiz ikasi dituztelako, edo trebetasun bereziak nahiz sormen handia dutelako zenbait arlotan (artea, musika, matematika, hizkuntza etab.), ikasteko motibazio handiarekin batera, batzuetan".

Lehen aipatutako Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 20ko 4/2017 Foru Aginduak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era arautzen duena) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: "Matrikulazioaren ikasmailako curriculum arrunta egiten duten, baina ikasketa-prozesuan aurrera egiteko, arruntaz kanpokoa den hezkuntza-arreta behar duten ikasleei aplikatuko zaie irakasgai batean hezkuntzaren sostengua edo errefortzua emateko neurria. Hezkuntzaren errefortzuan, besteak beste, sartzeko curriculum egokitzapenak egiten ahal dira baliabide material eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculuma aberastekoak ere, adimen-gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko".

Azkenik, lehen aipatutako Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 19ko 50/2017 Foru Aginduak (horren bidez arautzen da Batxilergoan diharduten ikasleak ebaluatu, mailaz igo eta haiei tituluak emateko era) honako hau xedatzen du 5.5 artikuluan: "Hezkuntzako neurri gisa, aintzat hartzen ahal da Hezkuntza Errefortzua. Horrek sartzeko curriculum-egokitzapenak izaten ahal ditu baliabide materialak eta sartzeko baliabide arruntez kanpokoak behar dituzten ikasleentzat, bai eta curriculuma aberasteko egokitzapenak ere, adimen gaitasun handiko ikasleentzat, haiek ahalik eta gehien garatzeko".

**120. taula: Adimen-gaitasun handiko ikasleak. 2017-2018**

| | Ikastetxe publikoa | Ikastetxe itundua |
|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | - | 3 |
| Lehen Hezkuntza | 134 | 78 |
| Bigarren Hezkuntza | 95 | 56 |
| Batxilergoa | 27 | 12 |
| LH | 2 | 0 |
| Guztira | 258 | 149 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

- ***Ospitaleratutako ikasleak eta etxeko arreta***

**121. taula: Ospitaleratutako ikasleak. 2017-2018**

| | Haur Hezkuntza | Lehen Hezkuntza | DBH | Derrigorrezko Hezkuntzaren ondokoa | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Bideko Birjina ospitaleko arretak | 174 | 190 | 56 | 0 | 420 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Haur eta gazteentzako eguneko ospitaleko eta ospitaleko unitate psikiatrikoko arreta-emateak | 0 | 20 | 44 | 6 | 70 |
| Etxeko arretak | 1 | 13 | 29 | 2 | 45 |
| Guztira | 175 | 223 | 129 | 8 | 535 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

- ***Ikastetxe publiko eta itunduentzako laguntza ekonomikoak***

Egoera sozio-ekonomiko ahulean dauden ikasleei arreta emateko laguntza ekonomikoak zirela-eta ikastetxe publiko eta itunduek 1.221.597,20 euroko zenbatekoa jaso zuten guztira 2017-2018 ikasturtean.

**122. taula: Egoera sozio-ekonomiko ahulean dauden ikasleei arreta emateko laguntza ekonomikoak. 2017-2018**

| Xedapenaren epealdia/ Ebazpena | Ikastetxe onuradunak | | Ikasle onuradunak | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Haur eta Lehen H. | Bigarren Hezkuntza | Haur eta Lehen H. | Bigarren Hezkuntza | |
| 229/2017 ebazpena Ikastetxe publikoak* | 143 | 50 | 8.246 | 3.168 | 150.550,66 |
| 145/2017 ebazpena Ikastetxe itunduak ** | 350 ordu 58 ikastetxe | | | | 645.004,66 |
| 397/2017 ebazpena Ikastetxe itunduak*** | 58 | | 1.697 | | 408.041,88 |
| Sinatu Gabe Secretariado Gitano Fundazioa**** | | | | | 18.000 |
| Guztira | | | | | 1.221.597,20 |

** Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei laguntzeko, ikastetxe publikoei esleituriko diru-laguntzak (jangelarako laguntzak kontuan hartu gabe)*
*** Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei laguntzeko profesionalen orduak kontratatzeko esleipena, dela hezkuntza-premia bereziak dituztelako edo gizarte-egoera ahulean daudelako*
**** Ikastetxe itunduei esleitutako laguntza ekonomikoak, egoera ahulean dauden eskolatutako ikasleen ekipamendurako eta jantokirako.*
****** Sinaduraren zain*
*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

- ***Bekak eta ikasketa-laguntzak***

**Nafarroako Gobernuko laguntza osagarri orokorrak**

Laguntza horiek Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak urriaren 9an emandako 848/2017 Ebazpenak arautzen ditu. Ebazpen horren bidez unibertsitateko ikasketak eta derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten dituzten ikasleendako beken deialdi orokorra onetsi da, 2017-2018 ikasturterako.

Nafarroako Gobernuaren erdi eta goi mailako ikasketetarako laguntza osagarriak jaso dituzte 5.358 ikaslek eta 8,374 milioi euro banatu da guztira. Aurreko ikasturtekoaren antzeko balioak dira.

**123. taula: Erdi eta goi mailako ikasketetarako Nafarroako Gobernuaren deialdi orokorreko bekak**

| | 2012/13 | 2013/14 | 2014/15 | 2015/16 | 2016/17 | 2017/18 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Eskariak, guztira (ikasleak) | 7.589 | 8.287 | 8.513 | 9.321 | 9.165 | 8.950 |
| 2. Emandako bekak, guztira | 3.756 | 4.295 | 4.384 | 4.548 | 5.254 | 5.358 |
| 3. Emandako zenbatekoa, guztira | 6.496.589 | 6.323.331 | 6.761.538 | 6.992.257 | 8.739.430 | 8.374.237 |
| 4. Ordaindutako zenbatekoa, guztira | 3.208.153 | 2.902.253 | 3.060.256 | 3.314.214 | 4.577.932 | 3.834.894 |

*Iturria: Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua*

9.eranskina

**137. grafikoa: Erdi eta goi mailako ikasketetarako Nafarroako Gobernuaren deialdi orokorreko beken bilakaera**




*Iturria: Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua*

## Hezkuntza Berezirako berariazko laguntzak

## Hezkuntza Ministerioaren laguntzak

**124. taula: Hezkuntza premia berezietarako Hezkuntza Ministerioaren laguntzen bilakaera**

| | 2013/14 | 2014/15 | 2015/16 | 2016/17 | 2017/18 |
|---|---|---|---|---|---|
| Eskaera-kopurua | 882 | 977 | 1052 | 1113 | 1170 |
| Emandako diru-laguntzen kopurua | 619 | 654 | 657 | 720 | 807 |
| Laguntzen zenbatekoa | 719.285,40 | 754.554,56 | 632.977,82 | 631.535,76 | 733.729,43 |

*Iturria: Ikastetxeen, Finantzaketaren eta Ikasketetarako Laguntzen Atala*

**125. taula: Hezkuntza Ministerioaren ikasketarako beken eta laguntzen bilakaera**

| Ikasturtea | Ikasleak | Beka eta laguntza kopurua | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| 2009/2010 | 1.517.340 | 2.187.462 | 1.354.424 |
| 2010/2011 | 1.744.121 | 2.453.645 | 1.548.570 |
| 2011/2012 | 1.867.590 | 2.754.018 | 1.702.632 |
| 2012/2013 | 944.290 | 1.808.199 | 1.534.013 |
| 2013/2014 | 642.028 | 1.764.557 | 1.444.536 |
| 2014/2015 | 895.980 | 1.721.235 | 1.457.064 |
| 2015/2016 | 920.355 | 1.777.194 | 1.484.988 |
| 2016/2017 | 1.020.807 | 1.900.088 | 1.490.620 |

*Iturria: Beken eta Ikasketetarako Laguntzen Estatistika. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

### Hezkuntza berezirako laguntza espezifikoak

**Tabla nº 126: Becas y ayudas de Educación Especial del Gobierno de Navarra. 2017-2018**

| | Eskaerak | | Emandako dirulaguntzen kopurua | | Emandako zenbatekoa, guztira (eurotan) |
|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | G | E | |
| Haur Hezkuntza | 147 | 54 | 45 | 17 | 39.105,37 |
| Lehen Hezkuntza | 217 | 112 | 44 | 23 | 40.772,17 |
| Hezkuntza Berezia | 107 | 63 | 54 | 29 | 55.999,26 |
| DBH | 49 | 22 | 8 | 2 | 4.862,02 |
| LHBHZ | 48 | 28 | 26 | 14 | 24.120,51 |
| Batxilergoa | 0 | 2 | 0 | 0 | 0,00 |
| HLKP | 2 | 3 | 0 | 2 | 3.061,20 |
| BCU | 5 | 6 | 3 | 6 | 10.315,20 |
| Garapenaren erabateko nahasmenduak | 23 | 9 | 5 | 5 | 5.089,84 |
| Guztira | 598 | 299 | 185 | 98 | 183.325,57 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

### *4.6.3. Irakasle lanbidearen garapena*

Urteak joan urteak etorri irakasle lanbidearen kontzeptualizazioa aldatuz eta garatuz joan da, gizartea bera ere aldatuz joan den era berean. Aldaketak gero eta azkarragoak dira eta irakaslea, nahitaez, konplexutasun horretan murgilduta dabil. Ikasleek beren gaitasun guztiak garatu behar dituzte erronkei aurre egiteko gauza izateko eta irakasle lanbidea behar horiei estuki lotuta dago.

Hori dela eta, Prestakuntza Atalaren helburu nagusia irakasleen benetako beharrekin bat datozen eta horiei erantzuten dieten ikaskuntza-aukerak eskaintzea da. Ikaskuntza-aukera horiek arlo humanistikoari, zientifikoari, pedagogikoari, didaktikoari zein emozionalari lotutako kontuak lantzeko sortu dira, inoiz ahaztu gabe, sarean –lankidetzan– aritzeak ematen diola koherentzia irakasle lanari.

#### *4.6.4. Berrikuntza sareak*

Sarean aritzearen helburua ikastetxeak elkarren artean harremanetan jartzea da, haien ikastetxeetako proiektuak elkarri azaldu eta jardunbide egokiak parteka ditzaten. Sareak helmuga berera begira elkarlanean aritzea eskatzen du eta, bide horretan, pertsona bakoitzak, bere errealitatetik, bere ezagutza ekartzen du, gainerakoena osatzeko. Kontua ezagutza eraikitzea da, hurbileko zein urruneko pertsonekin; egoera desberdinetan bestelako pertsonengandik ikastea; hurbilenekoa gainditzen duena ezagutzea eta aintzat hartzea.

Gaiak askotarikoak izaten ahal dira, ikastetxe bakoitzaren interesak diren bezalaxe. Hori lortzeko, sareek erreferentzia esparru bat sortzea dute helburu eta, gainera, euskarri teknikoa, prestakuntzakoa eta, hala behar izanez gero, ekonomikoa eskaintzen dute, tokiko zein estatu mailako erakundeen laguntza baitute horretarako.

## *4.7. Bizikidetza eta Baterako Hezkuntza*

Hezkuntza Departamentuko Baterako Hezkuntzaren eta Bizikidetzaren Taldeak (Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atalaren mendekoa da) unibertsitatez kanpoko ikastetxeetarako eta irakasleentzako prestakuntza diseinatzen eta garatzen du, etapa eta maila guztietako ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuetan zein ikastetxeen antolakuntzan eta ikastetxeen eta hezkuntza-komunitatearen arteko harremanetan berdintasuna eta bizikidetza positiboa txertatzeko. Gainera, baterako hezkuntzako eta bizikidetzako proiektu eta jarduerak ezagutzera eman eta dinamizatzen ditu eta, azkenik, behar duten ikastetxe eta pertsonei aholkularitza ematen die.

#### *4.7.1. Antolaketa*

Hezkuntza Departamentuak Berdintasun Unitatearen bidez hartzen du parte Nafarroako Gobernuak ezarritako eta NABI Nafarroako Berdintasunerako Institutuak koordinatutako transbertsalitate-estrategian.

Unitate horretako kide dira bi Zuzendaritza Nagusiek osatutako Transbertsalitate Batzordea, Berdintasuneko Mahai Teknikoa (bi Zerbitzu Zuzendaritzak osatua) eta Berdintasun Batzorde Teknikoa (bi burutzetan hartzen du parte). Departamendu bakoitzeko kide guztiek osatzen dute NABIk koordinatutako Nafarroako Gobernuaren Berdintasun Talde Teknikoa.

Batzorde horiek parte hartzen dute, hainbat momentutan, gobernuak genero-berdintasunaren alorrean sustatutako plan eta programa transbertsalen informazioa ematen, prestatzen, proposamenak eta jarraipena egiten, eta bitartekaritza-lanak egiten dituzte berdintasun-organismoaren eta gobernuko departamentuen artean.

Departamentuen arteko lankidetza eta lan-esparru horretan proposatzen da urtero Berdintasun eta Transbertsalitate Plana, gero, Nafarroako Gobernuak onartzen duena. Bertan, sektorekako ekintzak proposatzen dira, bai eta departamentu guztientzako ekintza komunak ere.

- Proiektu eta programetan genero-ikuspegia sartzea.

Proiektu hau Nafarroako Gobernuko departamentu guztietan egiten da modu paralelo eta bateratuan, Lantalde Teknikoaren bidez. Prestakuntza eta lan praktikoko ekintzak egin dira; horietan, departamentu bakoitzak programa bat hautatu eta aztertu du. Hezkuntza Departamentuak eskola-jazarpena prebenitu eta lantzeko helburua duen «Laguntza» programa hautatu du, hobetzeko ekintzak proposatzeko eta horrela bermatzeko programak proposatutako esku-hartzeetan genero-ikuspuntua txertatzen dela.

- Aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzea.

Unibertsitateen programa aztertzeari ekin zaio, 2018ko aurrekontuetan hobekuntzak txertatze aldera. Honako hauek aztertu dira: programa, helburuak eta irismena, bai eta emakumezko irakasle, ikertzaile, zerbitzuetako langile eta ikasleen egoerari buruzko datuak ere.

Analisi hori oinarri hartuta, programa honen 2018ko aurrekontuetarako hobekuntza egokiak proposatuko dira, administrazioaren jarduna desberdintasunak deuseztatzera bideratu dadin, bai eta identifikatutako desparekotasunak hobetzera ere. Lan hau NABIrekin elkarlanean egiten ari gara, prestakuntza eta laguntza tekniko adituaren bitartez.

- Sektorekako ekintzak

Bi plan hauek daude transbertsalitate-estrategiaren barruan, eta horiek sustatzea Berdintasun Unitateei dagokie:

- Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Hezkuntzako Sektore Plana.
- Indarkeriari aurre egiteko Sektore Planeko neurriak egituratzen dituen Baterako Hezkuntzaren Plana.

Bizikidetza Taldeak hiru batzordetan hartzen du parte, eta horietako bi departamentu artekoak dira:

- Nafarroako Suizidioa Prebenitzeko batzordea, Osasun Departamentuko Osasun Mentaleko Kudeatzailetzak koordinatuta.
- Bizikidetza planaren segimendua egiteko eta eskola-segurtasuna hobetzeko batzordea, Gobernuaren ordezkaritzak koordinatuta.

Hezkuntza Departamentuaren bizikidetza batzordea. Batzorde hori arlo horretara adskribitutako ikuskatzaileak koordinatzen du.

### *4.7.2. Arauemailea*

- ***Bizikidetza***

Eskolako bizikidetza azpimarratzearen garrantzia eta egokitasuna jasota dago hainbat esparru arautzailetan. Hauek dira esanguratsuenak:

- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa
- 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntza kalitatea hobetzeari buruzkoa.
- 204/2010 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetza arautzen duena.
- 47/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa.
- 57/2014 Foru Dekretua, uztailaren 2koa, abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua aldatzen duena. Dekretu hori Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa da.

Lege-arau horietan jasota dauden jarraibideek garrantzi berezia ematen diote bizikidetza prestakuntzaren, prebentzioaren eta esku-hartzearen bidez ikasteari, eta nabarmendu egiten dute oso garrantzitsua dela gatazkak modu baketsuan ebaztea eta eskola-jazarpenaren alorreko ekintzak garatzea. Aipatutako arauen multzoan, intereseko alderdiak jasotzen dira eskolako bizikidetzaren inguruan, hala nola bizikidetza-araudia, arduradunak, bizikidetza-batzordea edo bizikidetza-planak.

Guzti horretan pisu garrantzitsua dute ikastetxeen barneko egiturek eta kanpokoek. Zehazkiago, Hezkuntza Departamentuaren esparruan, nabarmentzekoa da Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Bizikidetza Atalak eginiko lana, bai eta Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoarena ere. Ikastetxeen esparruan, berebiziko garrantzia dute Bizikidetza Batzordeak eta Bizikidetza Planak, eskolako bizikidetza garatu eta hobetzeko jardueren plangintza egin eta horiek sustatzeko elementuak baitira.

- ***Baterako hezkuntza***

Arau, plan eta bestelako dokumentu ugaritan jasota dauden obligazio eta gomendioek eskatu egiten diete Hezkuntza Departamentuari, ikastetxeei eta hezkuntza-komunitateari modu aktiboan lan egiteko baterako hezkuntzaren eskola-eredua lortu ahal izateko. Honako hauek aipatzen ahal ditugu Baterako Hezkuntzaren Planaren lege-esparrua osatzeagatik duten garrantzia dela eta:

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren kontrako babes integralerako neurriei buruzkoa.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkorra izatekoa.
- 204/2010 Foru Agindua, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetza arautzen duena.
- 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoa.
- 103/2016 Foru Dekretua, azaroaren 16koa, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioak ezartzen dituena.
- 8/2017 Foru Legea, ekainaren 19koa, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa.

Hala berdintasunaren alorreko araudia nola hezkuntzako berariazko araudia bat datoz esaterakoan beharrezkoak eta garrantzitsuak direla hezkuntza-sistemako esku-hartzeak emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunean aurrera egiteko.

Arau horietan aupatutako alderdien artean daude honako hauek: curriculumaren edukia, material didaktikoak, egiturekin eta pertsonekin lotutako neurriak, hezkuntza-sistemako langileen gaikuntza, ikuskaritza-lana, berdintasuneko arduradunaren figura ordezkaritza goreneko organoetan, genero-indarkeriari aurre egiteko neurriak eta politikak eta eskola-komunitateari, zerbitzuetako langileei eta gurasoen elkarteei zuzendutako neurriak.

### *4.7.3. Helburuak*

2016-2017 ikasturtean Bizikidetza Atala berregituratu zen, eta orain Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala izena hartu du, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 11ko 5/2017 Foru Dekretuan jasotzen den moduan.

Baterako Hezkuntzaren Bulegoaren eta Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoaren jardunaren xedea da helburu komun batzuk lortzea, hala nola eskolan indarkeria-mota oro prebenitzea, arreta berezia emanez prebentzio espezifikoari eta eskola-jazarpenaren arazoari aurre egiteari; ikasle eta irakasleen arteko tratu onen esperientziari eta balioari; hezkuntza emozionalari, banako eta taldeko garapenaren oinarri bezala; eta berdintasunerako hezkuntzari, horren bidez bermatuko baita neska-mutilek beharrezko banako eta taldeko gaitasunak ikastea beren bizi-proiektuak berdintasunean eta indarkeriarik gabe garatzeko, beren ingurunean dauden desparekotasunak identifikatzeko eta eraldatzeko gaitasunarekin, edozein delarik ere beren jatorria, kultura, erlijioa, identitatea, sexu-orientazioa, egoera funtzionala, etab.

- ***Bizikidetza. Helburuak***

Bulego hau arduratzen da, funtsean, hezkuntza-komunitateari prestakuntza eta aholkularitza eskaintzeaz hala bizikidetza-plana ezartzeko nola ikastetxeetako ongizate psikosozialean eragin negatiboa duten egoerei aurre egiteko (horien artean bereziki aipatzekoa da eskola-jazarpena).

Bizikidetza Atalaren lanak ikuspegi proaktibo bat du oinarri. Horren bidez, bizikidetzarako hezkuntzari ematen zaio arreta eta, ondorioz, baita parte-hartzea, errespetua eta gatazken konponketa baketsua sustatzeko ekintzen hezkuntza-ahalmenari ere, hezkuntzaren testuinguruan. Horrekin guztiarekin bat etorriz, helburu hauek lortu nahi dira:

- Nabarmentzea zer indar duen eskolako bizikidetzak hezkuntza-komunitatean ongizatea sortzeko, ikasleen hezkuntza-emaitzen eta harremanen kalitatea hobetzeko elementu bezala.

- Ikastetxeetako bizikidetza-planen garapenean laguntzea, eta horien eraginkortasuna sustatzea.

- Bizikidetza ikastearen garrantzia nabarmentzea, ikasleek gaitasunen garapen oso eta zabala lor dezaten.

- Hezkuntza-komunitateari laguntza ematea, gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta eskolako indarkeria prebenitzeko egiturak eta estrategiak martxan jartzeko.

- Ikastetxeetan bultzatzea indarkeria-egoeren prebentzioa xede duten ekintzak eta bizikidetzako zailtasunei aurre egiteko hezkuntzako erantzunen dibertsifikazioa.

- Koordinazioa eta sareko lana sustatzea departamentuen barruan eta horien artean, eskolako bizikidetza benetan sustatu eta hobetuko duten ekintzei ekiteko.

- Prestakuntza-ekintzak diseinatzea eta sustatzea, irakasleei eskolako bizikidetzaren arloko prestakuntza emateko.

- ***Baterako hezkuntza. Helburuak***

2017ko otsailaren 3ko 9/2017 Foru Aginduarekin bat etorriz, hauexek izan dira aurtengo helburuak:

- Baterako Hezkuntzaren Plana egiteko estrategia proposatzea eta kudeatzea.

- Baterako Hezkuntzaren Plana Nafarroako ikastetxeetan modu progresiboan ezartzeko modua diseinatzea eta proposatzea.

- Ikastetxeekin zehaztea zein diren beharrezko prestakuntza-, orientazio- eta langileria-premiak baterako hezkuntzaren helburuak behar bezala betetzeko eta identifikatutako beharrei erantzunen dieten prestakuntza-ekintza egokiak badaudela bermatzeko.

- Orientaziorako irizpide eta material pedagogikoak garatu eta hedatzea, ikastetxeek errazago izan dezaten baterako hezkuntzaren printzipioak aplikatzea hezkuntza-sistemako etapa eta maila guztietan.

- Baterako hezkuntzari buruzko sentsibilizazioa, prestakuntza eta informazioa ematea ikastetxeetako irakasleei eta zuzendaritzako kideei, sareko lana sustatuz eta baterako hezkuntzaren ikaskuntza-prozesuen, esperientzien eta materialen trukaketa erraztuz.

- Baterako hezkuntzaren baliabide pedagogikoen funtsa kudeatu eta eguneratzea eta ikastetxeei eta familiei ezagutaraztea eta erabilaraztea.

### *4.7.4. Bizikidetzaren aldeko ekintzak*

Helburu horiek lortzeko tresna garrantzitsuenetako bat irakasleen prestakuntza da, bere bi alderdietan: alde batetik, bizikidetza hobetzeko eta eskola-jazarpena prebenitzeko, identifikatzeko eta aurre egiteko gaikuntza eta, bestetik, baterako hezkuntzako ekintzak gauzatzeko gaikuntza, eskolako etapa guztietan.

- ***Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoa: prestakuntza-ekintzak***

Gizartearen zati handi batek gizarte-kohesio eta -integrazioko tresna bezala ikusten du hezkuntzako testuingurua, bere baitan alderdi ugari lantzen dituena, besteak beste, gizarteratze-prozesua, errespetuzko balioen sustapena eta mota guztietako indarkeriazko jarrerak murrizteko edo deuseztatzeko gaitasuna.

Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak ikastetxeei laguntzeko ekintzak garatu ditu, ikasleei hainbat arlotako prestakuntza emateko (hezkuntza sozioemozionala, gatazkak konpontzea eta eskola-jazarpenaren prebentzioa) bai eta egiturak sortzen laguntzeko ere, adibidez, berdinen arteko laguntzarako egiturak.

Horrekin guztiarekin bat etorriz, irakasleentzako prestakuntza-programa zabal bat antolatzen du, eskolako bizikidetzaren arloko lan hezitzailea bultzatzeko asmoz, hainbat prestakuntza-modalitateren bitartez: jardunaldiak, mintegiak, ikastaroak, tailerrak eta baita ikastetxeen arteko ikastaroak ere. Azken horien bidez prestakuntza eta elkarlana sustatu nahi dira elkarrengandik hurbil dauden eta prestakuntzaren arloan interes bateratua duten ikastetxeen artean.

Zehazkiago, 2017-2018 ikasturtean gai hauei heldu zaie:

- Eskolako bizikidetza-plana ikastetxeko bizikidetzaren pizgarri bezala.
- Gatazkak modu baketsuan konpontzeko komunikazio-trebetasunak.
- Eskola-bitartekaritza.
- Klaseko etenaldiak eta ikasgelaren kudeaketa.
- Hezkuntza emozionala eta psikologia positiboa, irakasleentzat eta ikasleentzat.
- Zuzendari- eta irakasle-taldeen gainbegiratzea eta coaching-prozesuak.
- Eskola-jazarpenaren prebentzioa eta horren aurreko esku-hartzea.

Pikor Teatro antzerki taldeak "QTmeto" lanaren bi emankizun egin ditu euskaraz LHko 4. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleentzat, eta beste bi gazteleraz. Horrez gain zinea eta jazarpena ardatz zituen astea ere antolatu zen eta eztabaidak egin ziren ikustaldien ondoren.

LAGUNTZA irakasleentzako prestakuntza-programa espezifiko bat da, eta haren xedea da irakasleei prestakuntza-ibilbide bat eskaintzea, bizikidetza sustatzeko eta berdinen arteko tratu txarrak prebenitzeko jarduketak martxan jar ditzaten. Programaren helburua da, beraz, ikastetxeak jazarpen-egoerei tratamendu espezifikoa ematetik haratago joatea eta berdinen arteko partaidetza, lankidetza, errespetua eta laguntza ekarriko duten ekintzak abiaraztea.

Gainera, LAGUNTZA programaren barruan ikasgelako egunerokotasunean garatzeko jarduerak ere egin dira. Jarduera horiek, batez ere, LHko 4. mailakoei eta DBHko 1. mailakoei zuzenduta zeuden eta haien helburua jazarpen egoera larrienei aurre hartzea izan da.

**127. taula: LAGUNTZA programaren 2017-2018 ikasturteko laburpena**

| Ikastetxe mota | Ikastetxe publikoak | Ikastetxe itunduak |
|---|---|---|
| Lehen Hezkuntza | 7 | - |
| Lehen eta Bigarren Hezkuntza | - | 6 |
| Bigarren Hezkuntza | 4 | - |
| Guztira | 11 | 6 |

*Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala*

**128. taula: 2017-2018 ikasturtean LAGUNTZA programara batu diren ikastetxeak**

| Laguntza ikastetxeak | Herria |
|---|---|
| IES Altsasu BHI | Altsasu/Alsasua |
| Santa Luisa de Marillac Ikastetxea | Barañain |
| Regina Pacis Ikastetxea | Burlata |
| Amor de Dios Ikastetxea | Burlata |
| Virgen Blanca HLHIP | Uharte-Iruña |
| Atakondoa HLHIP | Irurtzun |
| Príncipe de Viana HLHIP | Erriberri |
| San Miguel HLHIP | Orkoien |
| Padre Moret-Irubide BHI | Iruña |
| Miravalles-El Redín Ikastetxea | Iruña |
| Mendillorri BHI | Iruña |
| Iñaki Ochoa de Olza DBHI | Iruña |
| Esclavas del Sagrado Corazón Ikastetxea | Iruña |
| Buztintxuri HLHIP | Iruña |
| San Cernin Ikastetxea | Iruña |
| Cardenal Ilundáin HLHIP | Iruña |
| Félix Zapatero HLHIP | Valtierra |

*Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala*

## Prestakuntza ekintzen balorazioa

Prestakuntza-programak garrantzi handia du eta begi onez ikusten dute irakasleek. Horren adierazle dira egindako jardueren balorazio positiboak eta jarduera horietako irakasleen bertaratze- eta partaidetza-tasa handiak.

Ikasturte honetan 45 prestakuntza-ekintza baino gehiago antolatu dira etapa guztietan. Horrek esan nahi du irakasle ugarik jaso dutela bizikidetzaren inguruko prestakuntza jardunaldien, mintegi orokorren, ikastaroen, informazio-saio orokorren, ikastetxeko informazio-saioen, ikastetxeko mintegien eta tailerren bidez.

Aurten prestakuntza hori LAGUNTZA programako prestakuntza espezifikoarekin osatu da eta, ezarri den ikastetxeetan, oso balorazio positiboa eman diote esperientziari. Hori dela eta, ikastetxe horietako irakasleen prestakuntza indartzeaz gain, beste ikastetxe batzuetan ezartzeko erabakia hartu da.

Gainera, eta prestakuntza-ekintza horien osagarri bezala, promozio- eta orientazio-lanak egin dira ikastetxeetan bizikidetza-planak aplikatzeko, horien zehaztapenak eta urteko memoriak egiteko eta aurrez aurreko, telefono edo email bidezko aholkularitza eskaintzeko, hala zuzendaritza-taldeei nola bizikidetza-batzordeei eta/edo bizikidetzako arduradunei.

**129. taula: Irakasleek 2017-2018 ikasturtean jasotako prestakuntzaren laburpena**

| Konzeptua | Kopurua |
|---|---|
| Eskola Bizikidetasun ikasgaian irakasleei emandako ordu kopurua | 532 |
| Antolatutako jarduera hezigarrien kopurua | 55 |

| Heziketaren batezbesteko balorazioa (0-10) | 8,40 | |
|---|---|---|
| | | |
| | G | E |
| Prestatutako irakasle kopurua | 330 | 1.090 |
| Hezitzaile kopurua | 24 | 28 |

*Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala*

**130. taula: Irakasleek 2017-2018 ikasturtean jasotako prestakuntzan landutako gaien laburpena**

| Gaia | Ordu kopurua | Izen-emate kopurua | |
|---|---|---|---|
| | | G | E |
| Hezitzaileak eta irakasleen gainbegiratze | 110 | 63 | 229 |
| Irakasle eta tutoretza-jarduera | 212 | 173 | 512 |
| Heziketa-errealitateen aurreko parte-hartze | 50 | 13 | 112 |
| Guztira | 372 | 249 | 853 |

*Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala*

- ***Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoa: aholkularitza eta esku-hartzea***

Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak aholkularitza-lan garrantzitsua egiten du hezkuntza-komunitateari eskola-bizikidetzako aholkularitza emanez, batik bat irakasleak, ikasleak eta familiak kezkatzen dituzten gaietan (adibidez, eskola-indarkeria).

Horretarako, hezkuntzako kudeaketaren esparruko ekintzak egiten ditu eta, bereziki, aholkularitza ematen die ikastetxeei tokian bertan, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuarekin elkarlanean, eta askotan, beste departamentu batzuekin eta kanpoko baliabideekin koordinatuta (Haur eta Gazteen Osasun Mentala, Gizarte Zerbitzuak, tokiko erakundeak...). Batzuetan, aholkularitza-saioak hainbat ikastetxe batuta egiten dira.

### Landutako kasuen kopurua eta tipologia

Egoera askotarikoek eragiten dute Bulegoaren esku-hartzea eta aholkularitza. Esku-hartzea zuzendaritza-taldeko kideek edo hezkuntza-orientazioko profesionalek eskatzen dute hezkuntza-komunitateko beste pertsonek baino sarriago, esaterako, familiek eta ikasleek beraiek baino sarriago.

**131. taula: Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak landutako kasuen kopurua. 2017-2018**

| Kasuen jatorria | Kasu kopurua |
|---|---|
| Ikasleak | 21 |
| Ikastetxea | 161 |
| Familia | 74 |
| Bestelakoak | 21 |
| Osotara | 277 |

*Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala*

**132. taula: Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak landutako kasuen tipologia. 2017-2018**

| | G | E | Guztira |
|---|---|---|---|
| Sexu-abusua | 5 | 3 | 8 |
| Erasoa | 61 | 41 | 102 |
| Adikzioak / Nahasmenduak | 1 | 0 | 1 |
| Irakasleen aurkako erasoak | 2 | 1 | 3 |
| Familien arteko gatazkak | 7 | 0 | 7 |
| Familia-ikastetxea gatazka | 26 | 12 | 38 |
| Irakasle gatazka | 1 | 1 | 2 |
| Cyber-erasoa | 7 | 6 | 13 |
| Babesik gabeko haurrak | 0 | 4 | 4 |
| Disrupzioa | 12 | 1 | 13 |
| Dolua | 2 | 1 | 3 |
| Disziplina espedientea | 3 | 0 | 3 |
| Ihesa | 0 | 1 | 1 |
| Ideiagintza suizida | 3 | 6 | 9 |
| Suizidio saiakera | 4 | 8 | 12 |
| Bestealakoak | 5 | 3 | 8 |
| Borrokak / Indarkeria | 4 | 2 | 6 |
| Suizidioa | 1 | 0 | 1 |
| Transexualitatea | 18 | 7 | 25 |
| Genero indarkeria | 2 | 1 | 3 |
| Guztira | 164 | 98 | 262 |

*Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala*

**138. grafikoa: Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak landutako kasuen tipologia. 2017-2018**




*Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala*

Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoak badu doako telefono-zenbaki bat (900 841 551) hezkuntza-komunitateko edozein kidek laguntza eskatzen ahal izateko. Helbide elektroniko bat ere badu (convive@navarra.es) eta webgune bat, hainbat material eta informaziorekin, bai eta esku hartzea eta laguntza eskatzeko eskabideekin eta harremanetarako sistema batekin ere.

### *4.7.5. Berdintasunaren aldeko ekintzak*

- ***SKOLAE programa***

SKOLAE emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean hezteko hezkuntza-programa bat da. Erreferentziazko esparru teoriko bat eta praktiko bat zehazten ditu ikastetxe eta hezkuntza-komunitateentzat. Esperientzia pilotuaren ondoren, haren diseinua eta aplikazioa egokiak diren ala ez aztertu nahi da, gero, Nafarroako ikastetxe publiko eta itundu guztietara zabaltzeko.

Hezkidetza ardatz duen ibilbide bat jasotzen du, sistema etapa guztietan aplikatuko dena. Horren helburua, ikasleengan berdintasunean bizitzen ikasteko gaitasuna eta irakasleengan berdintasunean heztekoa garatzea da, hala, berdintasunezko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeko. Honela definitu izan da berdintasunean bizitzeko gaitasuna: "*bizitza proiektu propioa hautatzea askatasunetik eta aukera askoren artetik, genero baldintzarik gabe. Desberdintasunak identifikatzeko eta haien kontra borrokatzeko gai izatea, eta haien kultura, erlijio, klase sozial, egoera funtzional, sexu orientazio eta abarrak edozein direla ere, berdintasun eskubidea gauzatzeko gai izatea*".

Ibilbide pedagogikoaren oinarriak lau ikaskuntza-ardatz eta lau gaitasun dira:

**133. taula: SKOLAEko ikaskuntza-ardatzak eta gaitasunak**

| Ikaskuntzak | Gaitasunak |
|---|---|
| Kritika berdintasunik ezaren aurka eta aldaketarako gaitasuna | Identifikatu eta aztertzea generoaren arloan dagoen berdintasunik eza zein hari aurre egiteko eta eraldatzeko ardura gain hartzea. |
| Autonomia, independentzia pertsonala | Zainketaren eta enpleguaren lanak autonomia eta independentziarako oinarri gisa hartzea bizitza-proiektu igualitarioetan. |
| Lidergoa, ahalduntzea eta partaidetza soziala | Erabakiak hartzeko norberak duen gaitasuna aitortzea eta jokabide partekatua sustatzea, helburu komunak lortze aldera. |
| Sexualitatea eta tratu ona | Erlazio afektiboak, sexualak eta bizikidetzakoak aditzera emateko gaitasun pertsonala ezagutu eta onartu, errespetua eta norberaren haziera berdintasunean errazteko. |

*Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala*

Hiru eremuren inguruan garatu dira ibilbideko edukiak:

- Pertsonala: ikasle bakoitzaren nortasunaren eraikuntzari, beren bizi-proiektuaren inguruko erabakiei eta norbere burua ezagutzeko prozesuari buruzko edukiak.
- Harremanei dagokiena: gainerakoekin harremanak ezartzeko moduei eta edozein interakziotan guztiok ditugun betebehar eta eskubideei buruzko edukiak.
- Testuinguruari dagokiona: gure inguruan zein gizartean oro har dagoen egoerari eta eskaintzen zaizkigun eredu eta erreferenteei buruzko edukiak.

Horietako eremu bakoitzarentzat, programak gomendio praktikoak eta ikasgelako lanerako orientazioak ematen ditu. Ibilbideak eremu guztietan jorratzen diren elementu transbertsalak ditu, besteak beste, emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria prebenitzea; identitateak, kulturak, sexualitateak eta haien aniztasuna errespetatzea; emakumeak eta haien ekarpen

ikustaraztea; feminitate ahaldundu eta maskulinitate berdinzale berriak ikastea, eta berdintasuna egi bihur dadin gure inguruan modu konprometituan parte hartzea.

Irakasleengan berdintasunean hezteko gaitasuna progresiboki garatuz joatea errazteko, prestakuntza- eta aholkularitza-plan bat jarri da ikastetxe pilotuen esku, baterako hezkuntzaren bidean hastapenak egiteko edo bide horretan modu sistematikoan aurrera jarraitzeko beharrezkoak diren ezagutzak bermatuko dituena. Programak ikastetxeei materialak eta orientabide didaktikoak ematen dizkie 210 fitxa baino gehiagoren bidez. Fitxa bakoitza dagokion etapan erabiltzeko diseinatu dira.

Honako prestakuntza-ekintza hauek osatu dute esperientzia pilotuko prestakuntza-plana:

**134. taula: Irakasleentzako prestakuntza-ekintzak 2017-2018 ikasturtean SKOLAE programaren esperientzia pilotua**

*Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala*

| Izena | Orduak osotara | Jarduerak | G | E | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| I. SKOLAE Jardunaldiak 16 ikastetxe pilotuentzat | 5 | Hitzaldia | -- | -- | 425 |
| Formakuntza presentziala 16 klaustroetan | 5 eta 12 | Hitzaldia | 197 | 510 | 707 |
| 1 Modulua: On-lineko baterako hezkuntzara sarrera | 20 | Bideoak eta testuak | | | |
| 2 Modulua: Ikastetxe erdi-presentzialaren baterako hezitzaile identitatea zentru bultzatzaile taldeentzat | 15 | Hitzaldia diagnostikoa plangintza | 13 | 77 | 88 |
| 3 Modulua: On-lineko baterako Hezkuntzarako ibilbideak | 35 | Bideoak, testuak Plangintza | 95 | 322 | 417 |
| 4 Modulua: Baterako heziketa on-lineko praktikan | 20 | Bideoak, testuak Plangintza Baterako hezitzaile praktika | 74 | 271 | 345 |
| Guztira | | Tutoretzei ziurtatutako orduak: 92 | | | |
| | | Talde bultzatzaileei ziurtatutako orduak: 107 | | | |

Irakasleentzako prestakuntza-eskaintza SKOLAE programaren inguruan batu da. Horretarako, ILZetan bereiz eskaintzen ziren ikastaroak ezabatzeaz gain, Foru Gobernuko beste departamentu batzuekin koordinatzeko pausoa eman da, hezkuntza sisteman berdintasuna sartzea helburu duten ekintza guztiak SKOLAEren bidez bidera daitezen. Tokiko entitateentzako, gazte-taldeentzako eta sexu hezkuntzaren inguruko prestakuntzarako diru-laguntzak Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren, Gazteria Departamentuaren eta Osasun Publikoaren Institutuaren menpe zeuden lehen, hurrenez hurren. Orain, ordea, berbideratu egin dira SKOLAEren planteamenduekin bat etor daitezen eta berdintasunaren irakaskuntza ikastetxeetatik kanpoko pertsonek egitea ekidin dadin.

Halaber, tokiko entitateei jakinarazi zaie haien lankidetza interesekoa eta beharrezkoa dela familiak, gazteak eta haurrak eskolako testuingurutik kanpo prestatu ahal izateko eta, hala, tokian-tokian ikastetxeetan hasitako hezkuntza-ekintzekiko koherente eta koordinatuak diren testuinguruak eraikitzeko. Koordinazio hori NUPera eta Industriako Departamentura ere hedatu da, neskatoek unibertsitateko ikasketa zientifiko eta teknologikoetan parte hartzea sustatzearekin zerikusia duten proiektuak ere barne hartzeko..

Fase honetarako ikastetxeak hautatzeko garaian kontuan izan da zer ibilbide izan duten baterako hezkuntzarekin lotutako proiektu eta jardueretan, proiektuen araberako lanean eta sareko lanean, eta zuzendaritza-taldeak zer konpromiso duen baterako hezkuntzarekiko.

Esperientzia pilotuan parte hartu duten ikastetxeak hauek izan dira:

**135. taula: SKOLAE programako fase pilotuko ikastetxe parte-hartzaileak**

| Ikastetxea | Herria | Maila |
|---|---|---|
| Sta. Teresa 0-3 Txantrea | Iruña | Haur Hezkuntza 0-3 |
| Ostadar 0-3 | Orkoien | Haur Hezkuntza 0-3 |
| Amalur 0-3 | Atarrabia | Haur Hezkuntza 0-3 |
| Hegoalde | Iruña | Haur eta Lehen Hezkuntza |
| Ermitaberri | Burlata | Haur eta Lehen Hezkuntza |
| Mendialdea II | Berriozar | Haur eta Lehen Hezkuntza |
| Gloria Larrainzar | Zubiri | Haur eta Lehen Hezkuntza |
| San Benito | Miranda de Arga | Haur eta Lehen Hezkuntza |
| Iturrama BHI | Iruña | DBH- Batxilergoa |
| Zizur BHI | Zizur | DBH- Batxilergoa |
| Marqués de Villena BHI | Marcilla | DBH- Batxilergoa |
| Benjamín de Tudela BHI | Tutera | DBH- Batxilergoa |
| FP Burlada | Burlata | Lanbide Heziketa |
| CIP Sakana | Altsasu | Lanbide Heziketa |
| Hezitzaile Eskola | Iruña | Lanbide Heziketa |
| Huarte BHI | Uharte | Lanbide Heziketa |

*Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala*

Fase pilotuan parte hartzeko honakoak eskatu zaizkie ikastetxeei:

- Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak programarekiko konpromiso aktiboa espresuki adieraztea.
- "Ikastetxearen identitate hezkidea" izeneko proiektuan parte hartzea eta pertsona bat hautatzea baterako hezkuntzaren koordinatzaile izan dadin. Pertsona horrekin batera sustapen-talde txiki bat aukeratu behar zuten, hiruzpalau lau pertsonak osatua, eta horrek izanen zuten ikastetxearen diagnostikoa eta ikastetxearen identitate hezkidearen plana egiteko ardura. Diagnostiko horretan hainbat alderdi aztertzen dira, besteak beste, barne- eta kanpo-espazioak nola erabiltzen diren, ikastetxeko apaingaietan eta web orriko irudietan zenbat gizon eta emakume agertzen diren, ikasgeletan eta familiekiko harremanetan hizkera inklusiboa erabiltzen den, liburutegian espazioak, edukiak eta antolakuntza nola ezarrita dauden, ikastetxeko dokumentuak eta programazioak, etab.
- SKOLAEk proposatutako edukiak ikastetxe osoan aplikatzea eta guztiek horretan parte hartzea.
- Baterako hezkuntzarekiko konpromisoa ikastetxearen dokumentuetan sartzea, besteak beste, Urteko Plan Orokorrean, Ikastetxearen hezkuntza-proiektuan, tutoretza-planetan, tutoreen eta proiektuen memorietan.
- Programaren jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea.
- Eskola Kontseiluari informazioa helaraztea.
- Tokiko ingurunearekin koordinatzea.

Klaustroan emandako prestakuntzaren batez besteko balorazioa 9 puntukoa izan da (10etik), eta gainerako prestakuntza-moduluen balorazioak 7tik 8,70era bitartekoak izan dira.

Parte hartzaileek bereziki nabarmendu dute SKOLAE programa asmo handikoa eta konpletoa dela eta ongi antolatuta dagoela. Horrez gain, azpimarratu dute ikasgelan lan egiteko ekimenak bikainak direla baliabide ugari daudelako (bideoak, testuak, estekak...), metodologiari dagokionez koherenteak direla etapa bakoitzarekiko eta errazak direla tutoretzetan, ikasgaietan eta proiektuetan txertatzeko.

Balio handikotzat jo dituzte orientabide didaktikoen progresibotasuna eta sareko tutoretzen bidezko orientabide pertsonalizatua. Bederatzi pertsonako talde batek koordinatu du esperientzia pilotuari eman beharreko arreta, segimendua eta babesa ikasturte osoan zehar.

Datorren ikasturteko orokortze-proposamenean sartuko dira balorazioetan hobetu beharrekotzat jo diren honako alderdi hauek:

- Lidergoari, ahaldunteari eta parte-hartze sozialari loturiko ikaskuntza-edukiak argitzea eta ulermena eta aplikagarritasuna hobetzea.
- Dedikazio-ordutegia moldatzea, prestakuntza instituzionala SKOLAE programaren esparruan egin ahal izateko.
- Tutoretza gehiago eskaintzea bi hizkuntzetan, eta estekek eta kontsultatzeko, irakurtzeko eta ikuskatzeko materialek osatzen duten funtsa elebiduna ere zabaltzea.
- Sexualitatea ardatzean sartuta dauden indarkeriak prebenitzeko edukiak beste ataletan birbanatzea eta, sexualitatea ardatzean, horrekin lotura zuzena dutenak soilik uztea.
- Egun diagnostikoa egiteko eskuragarri dauden materialak garatzea, diagnostikorako tresnek zuzenean plangintza egitea erraz dezaten.
- Diseinua doitzea bermatzeko, gutxieneko prestakuntza presentziala eginda, erraz eta motibatuta sartu ahal izatea sareko prestakuntzara.
- Ziurtagirietan, SKOLAEren garapena programatzen eta ebaluatzen emandako orduak berrikuntzarako ordutzat hartzea.

Aipatutako ikastetxeetan egindako esku-hartzeez gain, lanketa parte-hartzaile bat jarri da abian beharrak antzemateko. Lanketa horretan ikastetxe pilotuak dauden udalerrietako familiak, gazte-taldeak eta aisialdiko taldeak ari dira parte hartzen.

Bi ekintza egin dira 0-3, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ematen duten eskoletan familiei SKOLAE programari buruzko prestakuntza eta informazioa emateko. Pertsona hauek bertaratu ziren ekintza horietara:

**136. taula: Familientzako ekintza informatiboak SKOLAE**

| Herria | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Burlata | 5 | 40 | 45 |
| Zubiri | 7 | 21 | 28 |
| Miranda de Arga | 1 | 9 | 10 |
| Atarrabia | 3 | 30 | 33 |
| Guztira | 16 | 100 | 116 |

*Iturria: Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Atala*

Saio horien helburua izan da familiek beren testuinguruan (familiakoan, alegia) berdintasunean hezteko dituzten prestakuntza- eta ikaskuntza-beharrak identifikatzeko prozesua hastea.

Ildo horretatik, eta Gazteria Departamentuarekin elkarlanean, beste bi prestakuntza-saio egin dira Iruñean aisialdirako begirale gazteekin (27 pertsona guztira, 6 gizon eta 21 emakume), hezkuntza ez-formaleko testuinguruetan berdintasunerako hezkuntza sartzeko zer prestakuntza-behar dituzten identifikatzeko.

Bi taldeetan sortutako proposamenek ikusarazi zuten beharrezkoa dela prestakuntza eta orientabidea adin taldeetara egokitzea. Gainera, horrek aukera emanen du Hezkuntza Departamentuak, eskola kontseiluek, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, Osasun Departamentuak, Gazteriaren Zuzendaritza Orokorrak eta tokiko erakundeek koordinatuta eskainiko duten programazioa zuzentzeko.

Hezkuntza Departamentuak orokortze-fasea antolatzen jarraitu du eta, horretarako, behar adina tutore formatu daudela bermatu du, programa Nafarroako hezkuntza-sisteman era normalizatuan orokortzeko prozesuan parte hartuko duten ikastetxeetako irakasleei arreta emanen zaiela ziurtatzeko.

# 4.8. Kalitatea eta hobekuntza

### 4.8.1. Eskola-zuzendaritza

Europako Batzordeak kalitate-politikak ET 2020 esparru estrategikoan txertatu ditu: «Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea». Helburuaren garrantzia begien bistakoa da, pedagogiako lidergoak (hau da, hezkuntzaren kalitatea helburu duenak) eta lidergo eraldatzaileak (hau da, pertsonak helburu komunen inguruan mugiarazteko gauza denak) hezkuntza-sistemen hobekuntzan duten eragin nabarmena dela eta.

Uneotan zuzendaritzaren funtzioa hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) arautzen du. Lege horrek hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan (LOE) aldaketa partzialak egiten ditu. Itunpeko ikastetxe pribatuen zuzendaritza gai horren inguruan hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak (LODE) esaten duenari jarraikiz arautzen da, itunpeko ikastetxeen zuzendaritzari buruz LOMCEk egindako aldaketak kontuan izanik.

**Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoak eta lanbide heziketako ikastetxe integratu publikoak**

Foru-esparruan, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu, berritu eta izendatzeko prozesua arau hauen bitartez arautu da:

- 7/2017 Foru Agindua, otsailaren 2koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta haien izendapena berritzeko arauak ematen dituena.

- Hezkuntzako kontseilariak martxoaren 29an emandako 42/2017 Foru Agindua. Horren bidez arauak eman ziren Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko lanbide heziketako ikastetxe integratu publikoetako zuzendariak izendapen librearen bidez hautatzeko, ebaluatzeko eta haien izendapena berritzeko.

2182/2018 EBAZPENA, ekainaren 29koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez izendatzen baitira ikastetxe publikoetan 2018-2019 ikasturtean jardunean hasiko diren zuzendaritza-karguak. Ebazpen horren 1. eranskinean zuzendari postua berritu behar duten ikastetxe publikoen zerrenda ageri da.

10.eranskina

2017-2018 ikasturtean Hezkuntzako Departamenduak ez du bere menpe dauden unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetarako edo lanbide heziketako ikastetxe integratu publikoetarako zuzendariak hautatu eta izendatzeko merezimendu-lehiaketetarako deialdirik egin.

**Emakumeen presentzia eskola-zuzendaritzan**

2015-2016 ikasturtean 37.338 emakumezko irakaslek hartu zuten parte, aurreko ikasturtean baino 434 gehiagok, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza orokorreko ikastetxeetako

zuzendaritza-taldeetan. Datu horiek Espainiako autonomia erkidego guztien multzoari dagozkie. Ikastetxeetako zuzendarien artean emakumezkoek guztizkoaren % 64,9 hartzen dute, ikasketa-buruen artean, % 64,7, eta idazkarien artean, % 65.

**137. taula: Emakumezko zuzendarien, idazkarien eta ikasketa-buruen presentzia araubide orokorreko ikastetxeetan, termino absolutuetan, ematen den irakaskuntza-motaren arabera. Autonomia-erkidegoak. 2015-2016**

| Ikastetxea | Zuzendariak | | Idazkariak | | Ikasketa-buruak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Emakumeak | Guztira | Emakumeak | Guztira | Emakumeak |
| Haur Hezkuntzako ikastetxeak | 6.208 | 5.826 | 664 | 619 | 480 | 455 |
| Lehen Hezkuntzako ikastetxeak | 9.008 | 5.710 | 8.139 | 5.731 | 7.615 | 5.713 |
| Lehen Hezkuntza eta DBHko ikastetxeak | 2.218 | 1.216 | 1.334 | 890 | 1.981 | 1.248 |
| Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko eta/edo Lanbide Heziketako ikastetxeak | 4.082 | 1.523 | 3.830 | 1.791 | 6.206 | 3.204 |
| DBHko eta/edo Batxilergoko eta/edo Lanbide-Heziketako ikastetxeak | 1.909 | 923 | 987 | 666 | 2.052 | 1.200 |
| Hezkuntza Bereziko ikastetxe espezifikoak | 381 | 261 | 211 | 167 | 247 | 195 |
| Guztira | 23.806 | 15.459 | 15.165 | 9.864 | 18.581 | 12.015 |

*Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2015-2016 ikasturtea (2018ko edizioa). Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

Logikoa da Haur Hezkuntzan zuzendaritza-karguetan emakumezkoak gehiengoa izatea, etapa horretako ia irakasle guztiak emakumezkoak baitira. Zuzendaritza-postuetan dauden emakumeen ehunekoak behera egiten du hezkuntza-sistemako mailetan aurrera egin ahala. Emakumezko zuzendariei dagokienez:

- Haur Hezkuntzan, % 93,8
- Lehen Hezkuntzan, % 63,4
- Lehen Hezkuntzan eta DBHn, % 54,8;
- Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan eta/edo Lanbide Heziketan, % 37,7;
- Bigarren Hezkuntzan (DBHn eta/edo Batxilergoan eta/edo Lanbide Heziketan), % 48,3;
- Hezkuntza Bereziko ikastetxe espezifikoetan, % 64,9.

Bestalde, emakumeen, emakumezko ikasketa-buru eta idazkarien ehunekoa handiagoa da emakumezko zuzendariena baino, eta joera hori areagotu egiten da Bigarren Hezkuntzan.

Autonomia erkidego guztietan, araubide orokorreko irakaskuntzan,emakumeen presentzia erlatiboa txikiagoa da ikastetxeetako zuzendaritza-postuetan irakasleen multzoan baino, nahiz eta joera zertxobait gorakorra den.

**139. grafikoa: Emakumezko zuzendari, idazkari eta ikasketa-buruen presentzia Espainian, ikastetxeak ematen duen irakaskuntza-motaren arabera. 2015-2016**




*Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2015-2016 ikasturtea (2018ko edizioa). Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**11.eranskina**

Gaia autonomia erkidego edo hiri autonomo bakoitzean aztertuz gero, egoera honakoa da:

**140. grafikoa: Emakumezko irakasle, zuzendari, idazkari eta ikasketa-buruen presentzia erlatiboa unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko ikastetxeetan, autonomia erkidego eta hiri autonomo bakoitzean. 2015-2016**




*Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2015-2016 ikasturtea (2018ko edizioa). Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**12.eranskina**

Nafarroan 2017-2018 ikasturtean emakumeek zuzendaritza-postuetan duten presentzia honako taula hauetan jaso da.

**138. taula: Nafarroako ikastetxe publikoetako zuzendaritza-postuak, sexuaren arabera. 2017-2018**

| Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|---|---|---|
| 231 | 489 | 724 |

*Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua*

**141. grafikoa: Nafarroako ikastetxeetako zuzendaritza-postuak, karguaren eta sexuaren arabera. 2017-2018**




*Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua*

13.eranskina

**142. grafikoa: Nafarroako ikastetxeetan zuzendaritza-postuetan dauden emakumeak, kargu-motaren eta ikastetxe-motaren arabera. 2017-2018**




*Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua*

14.eranskina

### *4.8.2. Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan*

- ***Ikastetxe publikoak***

**Kalitate-sareak ikastetxe publikoetan**

Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legeak ebaluazio-sistema publikoa sortu eta garatzeko behar diren neurriak ezartzen ditu, bai Nafarroako Administrazio Publikoak diseinatu eta gauzatutako politika publikoak, bai administrazio horiek -zeinek bere eskumenen esparruan- nafar herritarrei emandako zerbitzuen kalitatea ebaluatuko dituena.

Eskumen horren esparruan, Hezkuntza Departamentuak baimendu zuen «Kalitatea kudeatzeko sistemen hedapena» izeneko programa abian jartzea Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emaniko martxoaren 6ko 230/2006 Ebazpenaren bidez.

Halaber, Europako esparruan, EBko kideen gobernuetako ordezkariek, 2007ko egindako bilkuran, erabaki zuten beharrezkoa zela ahalegina egitea bermatzeko zuzentze-funtzioak betetzen dituzten irakasleek, irakasteko gaitasunak eta esperientzia izateaz gain, ikastetxeak kudeatu eta zuzentzeko kalitate handiko prestakuntza eskuratzea.

Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 63/2013 Foru Aginduaren bidez, ikastetxeetan Kalitatea Kudeatzeko Sistema (KKS) bat ezartzea ahalbidetuko duen eredua ezarri eta arautzen da; eredu hori nafar administrazioek sortutako arau baten arabera eginen da, hots, «Ikastetxeen Kalitatea Kudeatzeko Sistema-2013 Araua», zeinak «Kalitatearekiko konpromisoa», «Kalitatezko ikastetxea» eta «Ikastetxe bikaina» aitorpenak emateko bete beharreko gutxieneko baldintzak zehazten dituen.

Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 5eko 10/2015 Foru Aginduaren bidez, aitorpenen indarraldia aldatzen da eta «Kalitatezko ikastetxea» eta «Ikastetxe bikaina» aitorpenak berritzeko KKSaren kanpo ikuskapena ezartzen da. Kanpo ikuskapen hori Hezkuntza Departamentuko Ebaluazioaren eta Kalitatearen Atalak eginen du.

Hezkuntza Departamentuak jarduera-programa bat garatzen du sare-publikoko ikastetxeetan KKSa ezartzea errazteko eta etengabeko hobekuntza sustatzeko. Ezartze-programa garatzeko, Hezkuntza Departamentuak kalitate-sareak antolatzen ditu eta sare horiek ikastetxeetako ordezkariek osatutako lan-taldeek eratzen dituzte.

Ebaluazio eta Kalitate atalak zuzendaritza-taldeetako kideei eta sareetan parte hartzen duten ikastetxeetako kalitate-arduradunei zuzenduta dauden prestakuntza-ekintzak koordinatzen ditu. 2017-2018 ikasturtean, titulartasun publikoko 125 ikastetxek hartu dute parte abian dauden 17 sareetan; hau da, Nafarroako ikastetxeen % 52k.

Sareen kopuruak behera egin du (18tik 17ra); izan ere, N9C1 eta N9C2 sareek bat egin eta sare bakarra osatzen dute orain: N9C.

- 7 sare ez-autonomo: sare ez-autonomoetan edo mintegidun sareetan dauden ikastetxeak koordinatzaile baten koordinaziopean hartzen dute parte sarean. Koordinatzaile horrek prestakuntza eta aholkularitza lanak egiten ditu, Hezkuntza Departamentuaren IKKS arauaren araberako kudeaketa-sistema bat ikastetxe horretan ezartzeko.
- 10 sare autonomo: sare autonomoetako ikastetxeak KKS aitorpena jaso dute eta Zerbitzuen Karta eskuratu dute. Ikastetxe horiek era autonomoan jarraitzen dute beren KKSetan sakontzen, etengabeko hobekuntzaren bidez: jardunbide berritzaile egokiak

garatzen dituzte; eta kudeaketa arintzen duten eta beren sistemak irakaskuntzara bideratzen eta emaitzak hobetzen dituzten tresna informatikoak ezartzen dituzte.

Jarraian ageri diren tauletan kalitate-sareak osatzen dituzten ikastetxeen inguruko informazioa ageri da:

**139. taula: Ikastetxe publikoek sareetan duten banaketa, eskolatze-mailaren arabera. 2017-2018***

| Maila | Sareetan dauden ikastetxeen kopurua | Sareetan dauden ikastetxeen guztizkoaren gaineko maila bakoitzeko ikastetxeen ehunekoa | Ikastetxe publikoen kopurua | Maila bakoitzeko ikastetxe publikoen guztizkoaren gainean sareetan dauden ikastetxeen ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| LH | 71 | 56,8 | 160 | 44,4 |
| LH-BH | 4 | 3,2 | 11 | 36,4 |
| BH | 14 | 11,2 | 17 | 82,4 |
| BH-B | 12 | 9,6 | 21 | 57,1 |
| LaH | 11 | 8,8 | 14 | 78,6 |
| BH-B-LaH | 6 | 4,8 | 7 | 85,7 |
| B-LaH | 3 | 2,4 | 4 | 75,0 |
| HEO | 3 | 2,4 | 3 | 100,0 |
| Guztira | 125 | 100,0 | 240 | 52,0 |

** LH: Lehen Hezkuntza; DBH: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; B: Batxilergoa; LaH Lanbide Heziketa, HEO: Hizkuntza Eskola Ofizialak*
*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**143. grafikoa: Kalitate-sareetan dauden ikastetxe publikoen kopuruaren bilakaera denboran**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**144. grafikoa: Sareetan dauden ikastetxe publikoen kopurua, eskolatze-mailaren arabera**




*B: Batxilergoa*
*LH Lehen Hezkuntza*
*DBH: Bigarren Hezkuntza*
*LaH Lanbide Heziketa*
*HEO: Hizkuntza eskola ofizialak*

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**45. grafikoa: Kalitate-sareetan dauden ikastetxe publikoen kopurua, hizkuntza-ereduaren arabera**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*




## Antolaketa-aldaketak, sareetan

Ikastetxeek aukera dute beste sare batera aldatzeko, beren ezarpen-erritmoa ez denean dauden sareko gainerako ikastetxeen mailakoa. Gainera, sare autonomoetara pasatzen dira

baldintzak betetzen badituzte (Kalitatearen Kudeaketa Sistemaren aitorpena lortu badute eta Zerbitzuen Gutuna onartu badiete).

2017-2018 ikasturtean aldaketa hauek izan dira kalitate-sareetan, ikastetxeak bertara sartu, irten eta antolaketa-aldaketak egitearen ondorioz:

**140. taula: Sareetako antolaketa-aldaketak. 2017-2018**

| Ikastetxea | Herria | Aldaketak |
|---|---|---|
| CPEIP IESO Aoiz HLHIP DBHI | Agoitz | Hasi |
| IESO Castejón DBHI | Castejón | Hasi |
| CPEIP Sarriguren I Hermanas Úriz Pi HLHIP | Sarriguren | Hasi |
| CPEIP Sarriguren II Joakin Lizarraga HLHIP | Sarriguren | Hasi |
| Hezkuntza Depatamentuaren Prestakuntza Atala | Nafarroa | Hasi |
| ILZ Lizarra | Estella-Lizarra | Utzi |
| CPEIP Doña Álvara Álvarez HLHIP | Falces | Utzi |
| IES Huarte BHI | Uharte | Utzi |
| ILZ Lekaroz | Lekaroz | Utzi |
| Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa | Nafarroa | Utzi |
| ILZ Iruña | Iruña | Utzi |
| ILZ Tafalla | Tafalla | Utzi |
| ILZ Tutera | Tutera | Utzi |
| CPEIP El Castellar HLHIP | Villafranca | Utzi |
| CPEIP San Babil HLHIP | Ablitas | Sare autonomorako aldaketa |
| CPEIP Sancho Ramírez HLHIP | Arguedas | Sare autonomorako aldaketa |
| CPEIP Francisco Arbeloa HLHIP | Azagra | Sare autonomorako aldaketa |
| CPEIP San Juan de Jerusalén HLHIP | Cabanillas | Sare autonomorako aldaketa |
| CPEIP IESO Otsagabia HLHIP DBHI | Otsagabia | Sare autonomorako aldaketa |
| CPEIP Huertas Mayores HLHIP | Tutera | Sare autonomorako aldaketa |
| Hizkuntzetako Eskola Ofiziala | Tutera | Sare autonomorako aldaketa |
| CPEIP Félix Zapatero HLHIP | Valtierra | Sare autonomorako aldaketa |
| CPEIP Los Sauces-Sahats HLHIP | Barañain | N8C Sarerako aldaketa |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

### Kalitate-sareen mintegiak eta prestakuntza-ikastaroak

Kalitate bulegoa - KADINETek (Nafarroako ikastetxe publikoen kalitate-sareak) dituen helburu estrategikoen artean honakoak daude:

- Kalitate-sareetan (autonomoetan zein ez-autonomoetan) parte hartzen duten ikastetxeetan antzemandako lehentasunezko beharretatik gutxienez bosti erantzuteko berariazko prestakuntza antolatzea ikasturte bakoitzean.
- Ikasturte bakoitzean antolatzen den kalitateari buruzko berariazko prestakuntzan ikastetxe autonomoen % 80k baino gehiagok parte hartzea lortzea.

KKSen eta ikastetxeetarako hezkuntza-kudeaketarako tresnen inguruko berariazko prestakuntza kalitate-sareen mintegien bidez eta beste prestakuntza-ekintza batzuen bidez egin da:

- Kalitate-sare ez autonomoetako ikastetxeentzako mintegietan 55 ikastetxe publikotako ordezkariek hartu dute parte.
- Ikastetxe autonomoei zuzendutako ikastetxeetan 26k hartu dute parte.
- Sareetako 125 ikastetxe guztiei zuzendutako gainerako prestakuntza-ekintzetan 120 ikastetxek hartu dute parte.

**141. taula: 2017-2018 ikasturtean egindako prestakuntza-jarduerak**

<table>
<tr><th colspan="5">Jarduerak</th></tr>
<tr><td>Izen-emateak</td><td colspan="4">675</td></tr>
<tr><td>Parte-hartzaile kop.</td><td colspan="4">584</td></tr>
<tr><td>Parte hartzaile kop. ziurtagiriarekin (8 ordu baino gehiago)</td><td colspan="4">368</td></tr>
<tr><td>Zirutagiri kop.</td><td colspan="4">270</td></tr>
<tr><td>Parte hartzaileen ehunekoa, izen-emate kopuruarekin alderaturik</td><td>87</td><td colspan="2">Ziurtagirien ehunekoa, parte-hartzaileen kopuruarekin alderaturik</td><td>73</td></tr>
</table>

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Parte hartzen duten pertsonen artean, behera egin du ziurtagiria eskuratu dutenen ehunekoak % 80tik % 73ra, eta beherakada hori kalitate-sareko mintegietan antzeman da batez ere. Uste da horren arrazoi nagusia honakoa dela: prestakuntza ikasturtean zehar egiten da, urritik maiatzera bitartean, eta zenbait saio bat etorri dira Hezkuntza Departamenduko beste unitate tekniko batzuek antolatu dituzten eta pertsona berei (batez ere zuzendaritza-taldeetako kideei) bideratuta zeuden jarduera eta bilera batzuekin.

### KKSren kanpo-ikuskaritza

2017-2018 ikasturtean 10 kanpo-ikuskaritza egin dira "Kalitatezko ikastetxea" aitorpena (2 ikastetxetan) eta "Ikastetxe bikaina" aitorpena (8 ikastetxetan) berritzeko. Horiek Ikastetxeek eskatutako ikuskapenen 100 % hartzen dute.

Ikastetxeen % 70k emaitza positiboa lortu eta aitorpena berritu du.  % 30ek, ordea, ez dute ikuspena gainditu eta berriro egin beharko dute, bi ikasturteko epean gehienez.

**142. taula: "Kalitatezko ikastetxea" edo "Ikastetxe bikain" aitorpena berritzeko ikuskapena igaro duten ikastetxeen emaitzak. 2017-2018**

| Ikastetxea | Herria | Emaitza | Aitorpen mota |
|---|---|---|---|
| IESO Reyno de Navarra DBHI | Azagra | Berritzea | Ikastetxe bikaina |
| CI FP Burlada IB LH | Burlata | Berritzea | Ikastetxe bikaina |
| CPEIP Otero de Navascués HLHIP | Cintruénigo | Berritzea | Ikastetxe bikaina |
| CI Politécnico de Estella IB | Estella-Lizarra | Berritzea | Ikastetxe bikaina |
| CPEIP Santa María HLHIP | Los Arcos | Ez Berritzea | Kalitatezko ikastetxea |
| CIP FP Lumbier IIP | Irunberri | Berritzea | Kalitatezko ikastetxea |
| CPEIP San Miguel HLHIP | Noain | Ez Berritzea | Ikastetxe bikaina |
| CIP María Ana Sanz IIP | Iruña | Berritzea | Ikastetxe bikaina |
| CPEIP Alfonso X El Sabio HLHIP | San Adrián | Berritzea | Ikastetxe bikaina |

| | | | |
|---|---|---|---|
| IES Sierra de Leyre BHI | Zangoza | Ez Berritzea | Ikastetxe bikaina |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

KKSko aholkularia den pertsona bat kanpo ikuskapenak egiteko izendatu da eta ikastetxe baten ikuskapena egin ahal izan du. Egun 26 dira KKSren "Kalitatezko Ikastetxea" eta "Ikastetxe bikaina" onarpenak berritzeko eskaerei arreta emateko gaituta dauden irakasleak.

## KKSren aitorpenak

2017-2018 ikasturtean, kalitate-sareetan dauden hainbat ikastetxek beste erakunde batzuek emandako kanpo-aitorpenak lortu dituzte. Taula honetan jaso dira KSSak ezartzeagatik aitorpenak lortu dituzten ikastetxeak, ikastetxeek dituzten aitorpen motak eta horiek eman dituzten erakundeak.

**143. taula: Ikastetxe publikoek kalitateagatik lortutako kanpo-aitorpenak. 2017-2018**

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

| Aitorpen mota | Luzatzen duen erakundea | Ikastetxe kop. | Ikastetxeak | Herria |
|---|---|---|---|---|
| Bikaintasunerako konpromisoa (Kudeaketa Aurreratuko Eredua) | Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa | 1 | CPEIP Lorenzo Goicoa HLHIP | Atarrabia |
| Ikastetxe bikaina | Hezkuntza Departamentua | 7 | IESO Reyno de Navarra DBHI | Azagra |
| | | | CIP FP Burlada IIP | Burlata |
| | | | CPEIP Otero de Navascués HLHIP | Cintruénigo |
| | | | CIP de Estella IBP | Estella-Lizarra |
| | | | IESO Elortzibar DBHI | Noain |
| | | | CI María Ana Sanz IB | Iruña |
| | | | CPEIP Alfonso X El Sabio HLHIP | San Adrián |
| Kalitatezko ikastetxea | Hezkuntza Departamentua | 1 | CIP FP Lumbier IIP | Irunberri |
| Kalitatearekiko konpromisoa | Hezkuntza Departamentua | 7 | CPEIP Sancho Ramírez HLHIP | Arguedas |
| | | | CPEIP Urraca Reina HLHIP | Artajona |
| | | | CPEIP Virgen del Soto HLHIP | Caparroso |
| | | | IES Tierra Estella BHI | Estella-Lizarra |
| | | | CPEIP Ibarberri HLHIP | Lekunberri |
| | | | CPEIP Elorri HLHIP | Iruña |
| | | | CPEIP Gloria Larrainzar Eugi HLHIP | Zubiri |

**144. taula: Ikastetxe publikoek kalitateagatik lortutako kanpo-aitorpenen kopuruaren bilakaera**

| Kanpo aitorpenak | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bikaintasunerako konpromisoa (Kudeaketa Aurreratuko Eredua) | | | | | | | | 1 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ISO 9001:2008 ziurtagiria. Bureau Veritas | 10 | 4 | 1 | 2 | | 2 | | |
| “Ikastetxe Bikaina” Hezkuntza Departamentua | 4 | 3 | 2 | 5 | 8 | 13 | 6 | 7 |
| “Kalitatezko ikastetxea” Hezkuntza Departamentua | 4 | 4 | 5 | 4 | 2 | 2 | 3 | 1 |
| “Kalitatearekiko konpromisoa” Hezkuntza Departamentua | | | | | 5 | 6 | 7 | 7 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Aipatzekoa da Atarrabiako Lorenzo Goicoa HLHIPa dela, kudeaketa aurreratuaren ereduari jarraiki, "Bikaintasunarekiko konpromisoa" aitorpena lortzeko aukera duen lehen ikastetxea. Gainera, ikusi dugu Hezkuntza Departamentuak emandako aitorpenak lehen aldiz jaso dituzten edo berritu dituzten ikastetxeen kopuruak bere horretan dirauela.

Ondoko grafikoan, KKSren aitorpenen bat indarrean duten ikastetxeen kopuruari buruzko datuak jaso dira.

**146. grafikoa: Aitorpenak indarrean dituzten ikastetxeen kopurua. 2017-2018**




*CoC: Kalitatearekiko konpromisoa; CC Kalitatezko ikastetxea; CE: Ikastetxe Bikaina; Comp. Bikaintasunarekiko konpromisoa; CS: Zerbitzuen Gutuna; GA: Kudeaketa aurreratua; ISO International Organization for Standardization; EFQM: European Foundation for Quality Management; IKKS: Ikastetxeen Kalitatea Kudeatzeko Sistema; NTMP: «Pentacidad» arau teknikoaren eredua*
*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

## Zerbitzuen gutunak

Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legearen IV. kapituluak zerbitzuen gutunak arautzen ditu. Foru lege horren 21. artikuluaren 3. idatz-zatiak dio Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela zerbitzuen gutunen onespena, orok jakin dezan.

Kalitate-sareetan parte hartzen duten ikastetxeek beren zerbitzu-gutunak egin, onetsi eta eguneratzen dituzte. Egun 72 ikastetxek dute indarrean beren Zerbitzuen gutuna. Dokumentu horien bidez ikastetxeek herritarrei jakinarazten diete zer zerbitzu ematen dituzten eta zer kalitate-konpromiso hartzen dituzten zerbitzu horrek emateko garaian. Horien xedea zerbitzu publikoak hobetuz joatea da, betiere herritarren eskaerei erantzunda.

### Kalitate-sareen inguruko gogobetetasun ebaluazioen emaitzak

Kalitate sareetan parte hartzen duten ikastetxeek bukaerako ebaluazio bat egiten dute sareetako mintegien inguruan. Zazpi kalitate-sare ez-autonomoetan parte hartzen duten ikastetxeek egiten dituzten bukaerako ebaluazioetan sei item daude. Beheko grafikoan horietan jasotako emaitzak ageri dira.

Oso balorazio altuak lortu dira ebaluatutako sei alderdietan, 8tik gorakoak (10etik), hain zuzen.

**147. grafikoa: Kalitate-sareetan egindako lanarekiko batez besteko gogobetetzea. 2017-2018**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

### Kalitate Bulegoa-KADINETek emandako zerbitzuen inguruko gogobetetasun ebaluazioen emaitzak

Parte-hartzaileen, zuzendaritza-taldeetako kideen eta kalitate-arduradunen iritzia ezagutzeko, gogobetetasun-inkesta bat egiten da ikasturtearen bukaeran. Inkesta horretan, Kadinetek emandako zerbitzuei buruz galdetzen zaie kalitate-sareetan parte hartzen duten 125 ikastetxeei.

Gogobetetasun-maila oso altua izan da item guztietan eta 8tik gorako balioak lortu dira ondoko eremu hauekin lotura duten alderdi guztietan: zerbitzuak ematea, aholkularitza, baliabideak eta tresnak, eskuragarritasuna, informazioa eta jardunbide egokien elkartrukea.

**148. grafikoa: KADINETek emandako zerbitzuekiko gogobetetze-maila. 2017-2018**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

## Kanpo-azterketaren inguruko gogobetetasun ebaluazioaren emaitzak

Kanpo-azterketaren inguruko gogogabetasun ebaluazioa 10 ikastetxek egin zuten eta, horretan lortutako emaitzek, prozesuaren ebaluazioa osatzen lagundu dute. % 60k erantzun dute eta emaitzak oso altuak izan dira ebaluatutako item guztietan; hain zuzen ere, 9 balioa gainditu da inkestak barne hartzen zituen alderdien % 88tan.

**149. grafikoa: Kanpoko-azterketarekiko gogobetetze-maila. 2017-2018**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**Kalitate Bulegoa-KADINETen 2015-2019 aldirako plan estrategikoaren jarraipena**

Plan Estrategikoan adierazle batzuk ezarri ziren helburu estrategikoen lorpen-maila neurtzeko. Jarraian ageri den grafikoan adierazle horietan egindako neurketen eta segimenduaren emaitzak ageri dira.

**16.eranskina**

Plan Estrategikoko adierazleetan lortu diren emaitzak aztertu eta gero, ondorio hauek lortu dira:

- Ahulgune nagusiak: departamentuko beste unitate eta zerbitzuekiko koordinazioa eta KKS ezartzea erabakitzen duten ikastetxe publikoen kopurua oso gutxi hazi izana. Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko beharrezkoa da koordinazioa bultzatzea eta ikastetxe publikoek KKSn sartzea erabakitzean zer faktorek eragiten duten aztertzea.
- Indargune nagusiak: ikastetxeei ematen zaien aholkularitza eta prestakuntza, eta kudeaketa arintzen lagundu duten tresna digital erabilgarriak eta praktikoak garatu izana. Baliabide dokumentalen eskuragarritasuna ebaluatzean jaso diren emaitza altuek erakusten dute ikastetxeei emandako informazioa eta baliabideak ere Atalaren indarguneetako bat direla.

- ***Ikastetxe itunduak***

Ikastetxe pribatuek kanpo-aitorpen hauek lortu dituzte:

**145. taula: Ikastetxe itunduek kalitateagatik lortutako kanpo-aitorpenak. 2017-2018**

| Onarpen mota | Erakunde ziurtagiri-emailea | Ikastetxeak |
|---|---|---|
| Kalitatearekiko konpromisoa | Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa | Paz de Ziganda Ikastola |
| KEI Kalitate Egitasmo Integrala | Horreum Fundazioa, Deustuko Unibertsitatea eta Ikastolen elkartea | Ikastola Zangoza (Zangoza) |

*Iturria: Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa eta Nafarroako Ikastolen Elkartea*

### *4.8.3. Irakasleen etengabeko prestakuntza*

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak esaten du etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubidea eta betebeharra dela, eta hezkuntza administrazioen eta ikastetxeen ardura. Halaber, EBren gomendioekin bat, helburu gisa ezartzen du hezkuntza-sistemaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea. Irakasleen etengabeko prestakuntza funtsezko tresna da helburu hori lortu ahal izateko, ezagutzaren gizartean sortzen diren hezkuntza-premia berriei erantzutea ahalbidetzen baitu.

Irakasleen Prestakuntza Plana ikastetxeetan eta hezkuntzako hainbat etapetako irakasleengan hautematen diren beharren arabera diseinatzen da. Irakaskuntzako zazpi gaitasunen inguruan dago antolatuta:

- Gaitasun pertsonala eta soziala
- Gaitasun pedagogiko-didaktikoa
- Gaitasun digitala

- Komunikazio eta informazio gaitasuna
- Hezkuntza berrikuntzarako eta ikerketarako gaitasuna
- Eskola antolaketarako eta kudeaketarako gaitasuna
- Curriculum-disziplina gaitasuna

Horren diseinuak prestakuntza taldean egiteko aukera ekarri du, ikastetxe bakoitzean edo ikastetxe-sareetan, betiere hausnarketa baliatuz eta ebaluazioan hautemandako hobekuntza arloekin eta hezkuntza berrikuntzarekin lotuta.

2017-2018 ikasturtean zehar, irakasleen etengabeko prestakuntza Hezkuntza Departamentuaren Irakasleari Laguntzeko Zentroen Sarearen eta entitate laguntzaileekin sinatutako hitzarmenen bidez egin da, bai eta Hezkuntza Departamenduko beste atal batzuek emandako prestakuntzaren bidez ere: Bizikidetza eta Berdintasun Atala, Irakasleen Prestakuntzako Atala, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Atala eta Orientazio Atala.

Irakasleen Prestakuntza Planaren helburu nagusiak dira Nafarroako hezkuntza-sistemaren kalitatea bultzatzea, ikastetxeek eta irakasleek antzemandako beharrei erantzutea, eta irakaskuntzako gaitasunak hobetzea. Hori guztia ikasturte bakoitzerako ezarri diren jarduera-ildoen eta berariazko prestakuntza-programen bidez egituratzen da.

ILZen lehentasunezko jardueretako bat da, beren ardurapeko eskualdean, beren Urteko Prestakuntza Planean jasotako jardueren antolaketaz eta garapenaz arduratzea, betiere, prestakuntza-prozesuen ardatz gisa ikastetxea harturik. Eskualde jakin bateko ikastetxeak ILZ bati atxikirik daude eta bakoitzari erreferentziako aholkularitza bat dagokio.

Jarraipen eta Ebaluazio Batzorde Teknikoaren eginkizun nagusia prestakuntza planen jarraipena eta ebaluazioa bermatzea da. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko kide batek, orientatzaile batek, ILZko zuzendaritzak eta talde pedagogikoaren ordezkariek osatzen dute.

Prestakuntza-sareak 5 zuzendaritza eta aholkularitza izan ditu 2017-2018 ikasturtean, eta azpiko taulan adierazten den moduan banatzen dira horietan ikastetxeak.

**146. taula: Irakasleentzako laguntza zentroak eta haiei atxikitako aholkularien kopurua. 2017-2018**

| ILZ | Aholkularien kopurua |
|---|---|
| Lizarra | 3 |
| Lekaroz | 2 |
| Iruña | 13 |
| Tafalla | 3 |
| Tutera | 4 |
| Guztira | 25 |

*Iturria: Prestakuntza Atala*

Hezkuntza Departamentuarekin lankidetza-hitzarmenak dituzten erakundeek beren prestakuntza-planak aurkeztu zituzten eta Prestakuntzako Atalak onetsi eta gainbegiratu zituen, irakasleen etengabeko prestakuntzarako erabiltzen diren irizpide berak baliatuz.

2017-2018 ikasturtean Hezkuntza Departamentuko irakasleen etengabeko prestakuntzaren sarearen bidez egin den irakasleen etengabeko prestakuntza aurkezten da ondoko taulan. Ziurtagiririk gabeko jarduerak ere jaso dira.

**147. taula: Irakasleentzako Laguntza Zentroetan (ILZ) aurkeztutako prestakuntza-jarduerei buruzko datuak, prestakuntza-orduak, parte-hartzaileak eta ziurtagiriak. 2017-2018**

| ILZ | Jarduerak | Parte-hartzaileak | Ziurtagiriak |
|---|---|---|---|
| Lizarra | 62 | 962 | 838 |
| Lekaroz | 53 | 510 | 410 |
| Iruña | 576 | 10.040 | 8.521 |
| Tafalla | 88 | 1.061 | 932 |
| Tutera | 104 | 1.554 | 1.329 |
| Guztira | 883 | 14.127 | 12.030 |

*Iturria: Prestakuntza Atala*

Modalitatearen arabera banatuta eman dira irakasleentzako laguntza zentroetan antolatutako prestakuntza jardueren datuak. Jarduera horiek ILZetako prestakuntza sareak koordinatu ditu edo/eta Hezkuntza Departamentuko administrazioekin lankidetzan koordinatu dira.

**148. taula: ILZetan antolatutako jardueren datuak, prestakuntza-modalitatearen arabera. 2017-2018**

| ILZ | Lizarra | Lekaroz | Iruña | Tafalla | Tutera | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Mintegia | 31 | 8 | 195 | 41 | 52 | 327 |
| Ikastaroak | 13 | 19 | 252 | 18 | 33 | 368 |
| Informazio saioak | 5 | 5 | 32 | 3 | 7 | 55 |
| Mintzataldea | | | | | | |
| Jardunaldiak | | | 11 | | 2 | 13 |
| Lantaldeak | 15 | 40 | 69 | 9 | 7 | 140 |
| Tailerrak | | | 7 | | | 7 |
| Guztira | 64 | 72 | 566 | 71 | 101 | 910 |

*Iturria: Prestakuntza Atala*

Irakasleari Laguntzeko Zentroen sarearen bidez garatutako etengabeko prestakuntzaren datu orokorrez gain, beste bi taula aurkezten dira jarraian, Hezkuntza Departamentuko beste unitate batzuek antolatu eta diseinatutako irakasleen etengabeko prestakuntzaren datuekin.

**149. taula: Berariazko programetako prestakuntza-jardueren datuak. Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzuari atxikitako unitateek antolatu eta diseinatutako jarduerak. 2017-2018**

| Berariazko programak | Ziurtagiriak |
|---|---|
| Berrikuntza programak | 467 |
| Osasunerako eskolak | 613 |
| Aste berdea, urdina eta zuria | 504 |
| Guztira | 1.584 |

**Behin-behineko datuak*
*Iturria: Prestakuntza Atala*

Azkenik, 2017-2018 ikasturteari dagozkion irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzko datu totalak dituzue ikusgai (ILZenak, administrazioko beste unitateenak eta entitate laguntzaileenak).

Irakasleen etengabeko prestakuntzarako aurrekontuari bideratutako gastuaren bilakaera, osatu gabe, 2014eko ekitalditik 2018kora, ondoko taulan jaso da.

**150. taula: Irakasleentzako prestakuntza-jarduueretarako aurrekontuan ezarritako gastuaren bilakaera**

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|
| Irakasleen Prestakuntza Jarduerak (prestakuntza programa orokorrak) | 223.609,52 | 319.654,9 | 413.425,78 | 410.000 | 600.000 |
| Hezkuntza berrikuntzako programak/Erreforma | 0 | 39.700 | 59.079,22 | 50.000 | |
| Irakasleen prestakuntza hizkuntzetan (irakasleak) hizkuntza Modernoetan birziklatzeko programak | 20.394,29 | 67.798.34 | | | 50.000 |
| Lanbide Heziketako Irakasleen hobekuntza eta eguneratzea (Lanbide Heziketako irakasleak Birziklatzeko programak) | 11.597,84* | | | | |
| Irakasleen Euskara mailaren hobekuntza (irakasleek Euskara hobetzeko programak) | 8538,35 | 60 | | | |
| Irakasleentzako urrutiko Prestakuntza (teknologia berrien programak) | 85.000 | 85.000 | | | |
| Argitalpenak, ikerlanak eta Hezkuntza esperientziak | 0 | 0 | | 0 | |
| Irakasleen prestakuntzarako banakako diru-laguntzak | 0 | 0 | | 0 | |
| Irakurketa eta idazketa plana | 12.088,41 | | | | |
| Kalitatea | 42.864,95 | 35.000 | | | |
| Guztira | 392.495,7 | 479.414,9 | 472.505,0 | 460.000,0 | 650.000,0 |

** Irakasleentzako prestakuntza jardueretarako partida orokorra 212.122,12 euroko zenbatekoan sartuta dago*
*Iturria: Prestakuntza Atala*

Azkenik, atal hau bukatzeko, irakasleen prestakuntza-programen bilakaeraren laburpena ematen da. Bertan 2009-2010 ikasturtetik 2017-2018 ikasturtera bitarteko jardueren, parte-hartzaileen eta luzatutako ziurtagirien kopurua eta gauzatutako aurrekontuaren datuak (milaka eurotan) jasotzen dira.

**151. taula: Irakasleen prestakuntza-programen laburpena**

| Ikastaroak | Jarduera kopurua | Parte-hartzaileak | Ziurtagiriak |
|---|---|---|---|
| 2009/2010 | 797 | 17.388 | 14.092 |
| 2010/2011 | 797 | 15.123 | 12.320 |
| 2011/2012 | 662 | 13.056 | 10.656 |
| 2012/2013 | 1.223 | 20.001 | 13.897 |
| 2013/2014 | 1.365 | 20.100 | 15.120 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2014/2015 | 1.415 | 20.130 | 15.135 |
| 2015/2016 | 1.106 | 17.616 | 15.349 |
| 2016/2017 | 1.282 | 18.482 | 16.335 |
| 2017/2018 | 883 | 14.127 | 12.030 |

*Iturria: Prestakuntza Atala*

**150. grafikoa: Irakasleen prestakuntza-programen laburpena. 2009-2017**




*Iturria: Prestakuntza Atala*

**152. taula: Parte hartzaileak, sexuaren eta jatorriko ikastetxearen arabera**

| Emakumeak Ikastetxe publikoak | Emakumeak Ikastetxe pribatuak | Guztira | Gizonak Ikastetxe publikoak | Gizonak Ikastetxe pribatuak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 18.629 | 2.034 | 20.663 | 5.500 | 685 | 6.185 |

*Iturria: Prestakuntza Atala*

## Irakasleen euskarazko hizkuntza-prestakuntza

Laneko lizentzia gabe egiteko autoikaskuntzako ikastaroak antolatu dira irakasleei hasierako hizkuntza-prestakuntza emateko bai Zubiarte Euskaltegian bai Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuan. Gainerako modalitateetako ikastaroak Zubiarte Euskaltegian eman dira.

Ikastaro horietan hainbat mailatako irakasleek hartu dute parte:

**153. taula: Irakasleen hasierako prestakuntzarako autoikaskuntza-ikastaroak. 2017-2018**

| Maila | | A1 | A2 | B1 | B2 | C1 | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zubiarte Euskaltegia | Ikasleak | 12 | 4 | 4 | 9 | 7 | 36 |
| Euskarabidea, autokudeatua | Ikasleak | 1 | | 3 | 3 | | 7 |
| Euskarabidea, tutorearekin | Ikasleak | 1 | 2 | 1 | 3 | 3 | 10 |
| | Guztira | | | | | | 53 |

*Iturria: Euskara Atala*

**154. taula: Euskara ikasteko irakasleentzako prestakuntza-ikastaroak, gainerako modalitateetan. 2017-2018**

| Maila | | A1 | A2 | B1 | B2 | C1 | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zubiarte Euskaltegia | Ikasleak | 22 | 8 | 2 | 13 | 8 | 53 |
| | Guztira | | | | | | 53 |

*Iturria: Euskara Atala*

Eskolak euskaraz ematen dituzten unibertsitatetik kanpoko irakasleei zuzenduta dago euskarazko etengabeko prestakuntza, eta prestakuntza-jarduera hauek Euskararen Irakaskuntzako Baliabide Zentroak (EIBZ) antolatu ditu, Hezkuntza Departamentuko Euskara Atalarekin batera:

**155. taula: Euskara hobetzeko ikastaro teknikoak. 2017-2018**

| Jarduera | Modalitatea | Orduak, guztira | Kopurua, jardueraren hasieran | Luzatutako ziurtagiriak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Kop. | % |
| Kantak ikasgelan | On line | 35 | 14 | 9 | 64,29 |
| AHI | On line | 35 | 9 | 9 | 100 |
| AHI modulua Goizuetan | Blended | 35 | 10 | 10 | 100 |
| Google baliabideak I | On line | 20 | 25 | 21 | 84 |
| AHI egitasmoa Altsasun | Blended | 35/50 | 18 | 11 | 61,11 |
| AGH | On line | 35 | 9 | 7 | 77,78 |
| AGH Lekarozko ILZn | Blended | 35 | 27 | 26 | 96,3 |
| ESB modulua Donezteben | Blended | 35 | 34 | 33 | 97,06 |
| Ohiko akatsak zuzentzen I | On line | 30 | 30 | 24 | 80 |
| Idazmena lantzen | On line | 35 | 16 | 13 | 81,25 |
| Google baliabideak II | On line | 40 | 28 | 22 | 78,57 |
| Kontsultak on line I | On line | 25 | 6 | 2 | 33,33 |
| Kontsultak on line II | On line | 25 | 5 | 5 | 100 |
| EHOI | On line | 35 | 30 | 23 | 76,67 |
| Eskolako Literatur Kanona | Blended | 35 | 12 | 10 | 83,33 |
| Google baliabideak III | On line | 25 | 12 | 10 | 83,33 |
| Ohiko akatsak zuzentzen II | On line | 30 | 24 | 24 | 100 |
| Aholku laburrak, San Fermin | Blended | 20 | 13 | 9 | 69,23 |
| Trikimailu informatikoak | Blended | 12 | 4 | 4 | 100 |
| Guztira | | | 326 | 272 | 83,44 |

*Iturria: Euskara Atala*

#### *4.8.4. Prestakuntza kontseiluak*

Irakasleentzako laguntza zentroko prestakuntza kontseiluaren egitekoa da irakasleen ordezkariek haren eragin-eremuan parte hartzen dutela bermatzea. Ordezkari horiek pedagogia-taldeari beren ikastetxeetan antzeman dituzten prestakuntza-beharrak helarazten dizkiote eta prestakuntza-planeko prestakuntza-proposamenak ebaluatzen dituzte. Prestakuntza kontseilua ikastetxe publiko zein itunduetako ordezkariek, aholkularitza-taldeak eta kontseiluaren zuzendariak osatzen dute.

Prestakuntza Kontseilua hiru aldiz biltzen da ikasturtean, normalean, hiruhilekoan behin.

#### *4.8.5. Hezkuntza-berrikuntzako proiektuak*

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak adierazten duenez, etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubidea eta betebeharra da, baita hezkuntzako administrazioen eta ikastetxeen beren erantzukizuna ere. Gainera, ezartzen du hezkuntza administrazioei dagokiela berrikuntza programak sustatzea, irakaskuntzaren kalitatea eta zentroen funtzionamendua hobetzeko.

Arau hori betez, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza berriztapena sustatzeko ekintzak bultzatzen ditu, berrikuntza proiektuetarako deialdien bidez.

Horrela osatu zen 147/2017 Ebazpena, maiatzaren 2koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2017-2018 ikasturtean irakasleen etengabeko prestakuntza programan hezkuntza berritzeko proiektuetarako deialdia erregulatzen duena.

Deialdi honek, gehienbat, laguntza ematea du helburu, hezkuntza berritzeko proiektuak ikastetxeen eguneroko jardunean sar daitezen. Proiektu hauek bide egokia dira proposamen pedagogiko berri gehiago aplikatzeko eta haiek baliorik ba ote duten aztertzeko. Proposamen pedagogiko horiek egokiak izan behar dute etengabe aldatzen ari den gizarte honen eskaerei erantzuteko, aurrerapen didaktiko, metodologiko eta teknikoak aldiro sortzen diren garai honetan. Proiektuek hobetu nahi den alderdiaren aldaketa planifikatua egiteko modua proposatu behar dute, eta ikerketarako metodo bati jarraitu, hots, hipotesi bat formulatu eta, proiektua garatu bitartean, hipotesia egiaztatu. Halaber, aldaketak gainerako ikastetxeetara eraman ahal izatea sustatuko da.

Deialdian berritzeko proiektuei laguntza emateko eta haiek aintzatesteko neurriak arautzen dira. Proiektu horiek Nafarroako Foru Komunitatearen funts publikoak eusten dituen unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan garatuko dira, ikastetxekoak araubide orokorrekoak izan nahiz araubide berezikoak izan.

- Haur Hezkuntza bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa)
- Lanbide Heziketako ikastetxeak
- Araubide bereziko ikastetxeak
- Hezkuntza Bereziko ikastetxea
- Helduen Hezkuntzako ikastetxeak

Eskatzaileek berrikuntza proiektu bat aurkeztu beharko dute, eta hori jarduera-ildo hauetako batean garatu beharko da:

- Pedagogia aktiboak bultzatzea, gako-gaitasunak garatzeko: programazioa,

proposamena ikasgelara eramatea eta proposamenaren ebaluazioa.

- Hezkuntza-teknologiak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan txertatzea.
- Konpetentzia soziala eta emozionala indartzea: jasangarritasuna eta ingurumena, erantzukizun soziala, emozioen kudeaketa, elkarbizitza eta tratu ona.
- Komunikazio eta informazio gaitasuna hobetzea.
- Aniztasunari erantzutea: aniztasuna kudeatzeko estrategia metodologikoak.
- Baterako hezkuntza: genero berdintasuna txertatzea proiektuaren programazioan, garapenean eta ebaluazioan.

Behin proiektuak aurkeztu direnean, hautapen-batzorde batek aztertuko ditu eta Hezkuntzaren web orrian eta Nafarroako Gobernuaren Zerbitzuen Katalogoan argitaratuko ditu bai proiektu onartuen zerrenda bai horiek lortutako behin-behineko puntuazioa.

Elaborazio-prozesu hori bukatzean, proiektuaren koordinatzaileak azken memoriaren kopia bat bidali beharko du Prestakuntza Atalera. Une horretatik aurrera, Hezkuntza Departamentuak hautatu diren lanak jendaurrean jartzen ahalko ditu, osorik edo zati bat.

**156. taula: Onartutako berrikuntza-proiektuak. 2017-2018**

| Proiektua | Ikastetxea |
|---|---|
| Drones e impresión 3D: el Castro de Leguin (Etxauri) | Santísimo Sacramento |
| Adinarteko Matematika manipulatiboak Iturmendin | CP Arrano Beltza IP (Iturmendi) |
| Patioa, gurea ta guretzat | CP Urdiain IP |
| Un espacio multisensorial para compartir | CP Remontival IP (Estella-Lizarra) |
| Trasteando con la robótica | CP Honorio Galilea IP(Monteagudo) |
| Los pintores impresionistas | CP Juan Bautista de Irurtzun IP (Azkoien) |
| Transformando nuestro instituto: huerto escolar, espacio de aprendizaje y recreo | IESO Iñaki Ochoa de Olza DBHI (Iruña) |
| El patio de mi cole… es particular | CP San Miguel IP (Noain) |
| Askatasuna, ibai bazterreko tximeleta II | IES Askatasuna BHI (Burlata) |
| Se mira y también se toca | Miravalles - El Redín (Iruña) |
| Inklusiorako bidean...gela alternatiboaren irekiera | CP Domingo Bados IP (Olazti) |
| Hacia un paisaje desde los sentidos: paisaje en movimiento en el centro educativo | CI Agroforestal IB (Iruña)) |
| Ikas-Komunitatea | CP Domingo Bados IP(Olazti) |
| Magnet School - Prosumidores de la información (fase III) | CP José María de Huarte IP (Iruña) |
| Jardín temático en Sarriguren | CP Hermanas Úriz Pi IP (Sarriguren) |
| Proyectando…. | CI Cuatrovientos IB (Iruña) |
| Cuatro prendas | CI Cuatrovientos IB (Iruña) |
| Podcasting en la escuela | CP San Bartolomé IP (Marcilla) |
| ACTIUN | IES Barañain BHI |
| Jolastokia eraberritzen: "Porlanezko patiotik jolastoki natural eta aberasgarrira" | CP Bernart Etxepare IP (Iruña) |
| Comunidad de práctica: guiar y compartir el uso de las TICs | IES Sierra de Leyre BHI (Zangoza) |
| El pasaporte de los sentidos | CIP Tafalla IBP |

| | |
|---|---|
| Gure eskola larru bizian | CP Zubiri IP |
| Educando en la convivencia | IES Benjamín de Tudela BHI (Tutera) |
| MendillorriApp: StartUp de desarrollo de Aplicaciones | IES Mendillorri BHI (Iruña) |
| Continuamos con el plan de educación afectivo - sexual (ESO) | CP Príncipe de Viana IP (Erriberri) |
| Expresión y comunicación audiovisual | IES Julio Caro Baroja BHI (Iruña) |
| Leitza urratsez urrats! | IES Amazabal BHI (Leitza) |
| Implementación en el aula de dispositivos chromebook y G-suite for education como herramienta para el desarrollo de las competencias claves a través de proyectos cooperativos | Colegio Hijas de Jesús (Iruña) |
| Desarrollo del pensamiento computacional | Colegio Hijas de Jesús (Iruña) |
| Enredando el barrio… Desde los Objetivos de Desarrollo Sostenible y la Agenda 2030 | CP Bernart Etxepare IP (Iruña) |
| Sembrar una semilla para que crezca el aprendizaje | CP Atakondoa IP (Irurtzun) |
| Racimos de aprendizaje activo | IESO del Camino DBHI (Viana) |
| Recorriendo el mundo | CP Príncipe de Viana IP (Erriberri) |
| Sentir, crear, disfrutar | CP Atakondoa IP (Irurtzun) |
| Biblioteca digital con dispositivos móviles | CP Mendialdea I IP (Berriozar) |
| Aula inclusiva (fase 2017-2018) | CP San Miguel IP (Noain) |
| Blue - Bot. Iniciación a la robótica | CP Virgen del Rosario IP (Fontellas) |
| Visión educativa de la infancia. Ambientes educativos de juego libre II | CP San Francisco IP (Iruña) |
| Ideando ambientes en Primaria | CP García Galdeano IP (Iruña) |
| Cuadernos de viaje | IES Julio Caro Baroja BHI (Iruña) |
| Kideak gara / Somos cómplices | CP San Pedro IP (Mutiloa) |
| Enarmonía | CP Vázquez de Mella – Bayonne IP (Iruña) |
| Archivo sonoro de la Ribera alta de Navarra | IES Marqués de Villena BHI (Marcilla) |
| El cortometraje como elemento integrador de la edición digital y sonido con el lenguaje audiovisual | IES Tierra Estella BHI (Estella-Lizarra) |

*Iturria: Irakasleentzako Laguntza Zentroen eta Berriztapen Proiektuen Bulegoa*

Proiektuen berariazko hedapena egiten da 2016-2017 ikasturtetik, Nafarroako Eskola Kontseiluaren bidez. Horrek, udazkenean antolatzen dituen berrikuntza jardunaldietan, aukera ematen du:

- Proiektuetako batzuk aurrez aurre aurkezteko, Tuteran eta Iruñean antolatzen diren saio batzuetan.
- IDEA aldizkari digitalaren ale monografiko bat idazteko (bertan, aurkeztu diren proiektu guztiak aurkezten dira).
- Bere bilduman ale monografiko bat argitaratzeko, jasotako komunikazioekin.

**157. taula: Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXII. Jardunaldietan 2017-2018an aurkeztutako berrikuntza-proiektuak**

| Proiektua | Ikastetxea |
|---|---|
| Creación de huerto ecológico | CIP Estella- Lizarra IBP |
| Aprendizaje servicio - Cooperando | CIP Sakana IBP (Altsasu-Alsasua) |
| Solos en el olvido | Sagrado Corazón (Altsasu-Alsasua) |
| Kideak gara / Somos cómplices | CP San Pedro IP (Mutilva) |
| Enarmonía | CP Vázquez de Mella – Bayonne IP (Iruña) |
| Leitza urratsez urrats! | IES Amazabal BHI (Leitza) |
| ACTIUN | IES Barañáin BHI |
| Educando en la convivencia | IES Benjamín de Tudela BHI (Tutera) |

*Iturria: Nafarroako Eskola Kontseilua*

# 4.9. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

## 4.9.1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) hedapena eta erabilera

Ukaezina da haurrak eta gazteak IKTak erabiltzera ohituta daudela bai eremu pribatuan bai hezkuntza-sisteman. Txosten honen helburuei dagokienean, prozesu horren abiadurak erronka eginezin bihurtzen du azterketa; izan ere, IKTen hedapenari eta sakontasunari buruzko ikerketak zahartuta gertatzen dira argitaratu bezain laster. Horren adibide argia da, geroago aipatuko den bezala, hainbat hezkuntza administrazio ikastetxeetako konexioak dibertsifikatzeko eta hobetzeko proiektuak bultzatzen ari direla eta, horrez gain, hezkuntza-aplikazioak banatzen, ikastetxeak ekipoz hornitzen eta irakasleak eta ikasleak zeharka prestatzen dituztela. Hezkuntza Departamentuak, jarraian nabarmenduko diren ekimenak direla eta, berebiziko garrantzia du.

Edonola ere, eta aipatu berri ditugun oztopoak gogoan izanda, hona hemen eskuragarri dauden intereseko datu batzuk, erreferentzia gisa. Hala, besteak beste, haurrak interneten intentsiboki sartzearen inguruko datuak eta telefono mugikorra izatearen ingurukoak ageri dira. Internetera sartzearen inguruko datuei dagokienez, Nafarroako datuak altuxeagoak dira Espainiako talde berekoak baino.

**158. taula: IKTen erabilera 10 urtetik 15era bitarteko haurren artean. 2017**

| | Internetera lotura ikastetxetik | Ordenagailua erabilera azkeneko 3 hilabeteetan | Internet erabilera azkeneko 3 hilabeteetan | Mugikorra erabilera |
|---|---|---|---|---|
| Espainia | 67,5 | 92,4 | 95,1 | 69,1 |
| Nafarroa | 73,7 | 94,7 | 98,1 | 70,2 |

*Iturria: Estatistika Institutu Nazionala*

17.eranskina

Halaber, ikastetxe publikoetan ordenagailu bakoitzeko dagoen batez besteko ikasle kopuruari dagokionez –lehentasunez irakasleek erabiltzen dituztenak eta ikasleekin irakaskuntzan baliatzeko erabiltzen direnak barne hartuta–, azken datu orokor konparagarriei erreparatuta, ikusiko dugu autonomia erkidegoetako balioen artean desberdintasun handiak daudela.

**151. grafikoa: Ordenagailu bakoitzeko batez besteko ikasle kopurua ikastetxe publikoetan, autonomia erkidego eta hiri autonomo bakoitzean. 2015-2016**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

Antzeko zerbait ikusten da, autonomia erkidego bakoitzean, ikasleak beren gailuekin konekta daitezen hari gabeko konexioa duten ikastetxeen ehunekoari erreparatuz gero.

**159. taula: Ikasleak beren gailuekin konekta daitezen hari gabeko Intraneta duten ikastetxeen ehunekoa. 2015-2016**

| | Guztira | Ikastetxe publikoak | Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoak | Ikastetxe publikoak-Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide-Heziketako ikastetxeak | Ikastetxe pribatuak |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 50,5 | 47 | 45,2 | 51,5 | 63,4 |
| Nafarroa | 41,3 | 32,5 | 34,8 | 25 | 65,1 |

*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Estatistikako Zuzendariordetza Nagusia*

18.eranskina

### *4.9.2. Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua*

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak hainbat helburu, ekintza, baliabide eta zerbitzu baliatzen ditu Teknologien eta Informazioaren (IKT) arloan, eta Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuaren egitekoa da horiek bideratzea. Hiru atalek osatzen dute: Hezkuntzako Sistemen, Sareen eta Euskarrien Atala, Hezkuntza Teknologiaren Integrazio eta Ustiapen Atala eta Informazio Sistemen Eboluzioaren eta Kudeaketaren Atala.

Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua, Prestakuntza Zerbitzuko hezkuntza-teknologietarako aholkulariekin batera, plan bat lantzen ari dira eraldaketa digitala hezkuntza publikoko maila, espazio, metodologia, gaitasun, azpiegitura, konektagarritasun, gailu, gailuen mantentze-lan, hezkuntza-tresna eta ikasgelako eta kudeaketarako aplikazioetara eramateko. Hori guztia gobernuaren estrategiekin eta kalitatezko zerbitzu publikoekin era transbertsalean bat eginda.

Ikastetxeei zuzendutako zerbitzuen barruan sartzen dira sare, ekipamendu eta baliabide informatikoen kudeaketa korporatiboan integraturik ez dauden hainbat baliabide. Emandako zerbitzuaren ezaugarri bereizgarriak hauek dira:

- Atalaren eskumeneko alorretan berariazko prestakuntza duten irakaskuntzako eta irakaskuntzatik kanpoko langileen jarduerak: zerbitzarien administrazioa eta kudeaketa, sareen kudeaketa, aplikazioen garapena, hezkuntza-zerbitzuak instalatzea eta kudeatzea, ikastetxe eta irakasleendako laguntza, sareen eta ekipamendu informatikoen mantentze-lanak, eta abar.

- Ikastetxeetako komunikazio-sarearen planifikazioa, kudeaketa eta mantentze-lanak, Nafarroako Gobernuko sare korporatibotik kanpo, eta baita hainbat zerbitzurenak ere: DNS, posta elektronikoaren zerbitzaria, web zerbitzariak, aplikazioen eta datu-baseen zerbitzariak eta abar.

- Datu lanketarako bi zentro berezitu administratzea.

- IKTak curriculumean integratzeko programak, proiektuak eta prestakuntza garatzea.

- IKTak irakaskuntzako curriculumean integratzeko ildo eta programa espezifikoak diseinatzea eta garatzea: IKTei buruzko eta bidezko urrutiko prestakuntza-programa; prestakuntzaren koordinazioa eta plangintza IKT aholkularien bidez; teknologia berrien proiektuak; hezkuntza eraldaketa digitala; STEAM ekimenak sustatzea; espazioak eraldatzea; Etorkizuneko ikasgela; ikasleen gaitasun digitala sustatzeko CRISS proiektua; albisteen, esperientzien, web-tresnen zabalkundea; etab.

- Hezkuntza Departamentuaren ordezkaritza sustatzea IKTen eta Hezkuntzaren inguruko alderdien gainean hezkuntza-administrazio publiko eta pribatuen artean antolatzen diren proiektuetan, batzordeetan eta foroetan.

- Software librearen eta teknologia irekien lehentasunezko erabilera bere ardurapeko esparru guztietan. Horrekin kostuak asko aurrezten dira eta gure interesen eta beharren arabera hornitzaileak aukeratzeko askatasun teknologikoa dago.

Departamentua eraldaketa digitaleko proiektu batean lanean ari da, EDUCAk –Departamentuko oinarrizko aplikazioa– hezkuntza-kudeaketa eta baliabideen plataforma integral bihurtzeko bilakaeran aurrera jarrai dezan, erabilera didaktikoko, ikasgelarako edo ikastetxeko kudeaketarako modulu eta funtzionaltasun berriekin eta departamentuetako kudeaketarako aplikazioekin guztiz integratuta.

Jarraian Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuaren jarduerako lan-ildo edo esparru nagusiak aipatzen dira.

### *4.9.3. IKTak eta hezkuntza eraldaketa digitala curriculumean sartzea*

Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua irakasleentzako prestakuntza-plan bat lantzen ari da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan IKTak erabiltzeari buruzkoa. Horren asmoa irakasleak hezkuntzako aldaketa digitalean funtsezko eragile bihurtzea da.

Gaitasun digitala derrigorrezko irakaskuntza bukatzean pertsona batek eskuratuak izan behar

dituen zortzi gaitasun giltzarrietako bat da. Gaitasun giltzarriek helduaroan modu egokian sartu eta bizitza osoan zehar ikasten segitzeko bidea ematen dute, Europako Parlamentuak etengabeko ikaskuntzarako giltzarri diren gaitasunen inguruan adierazitakoaren arabera.

Gaitasun digitalari esker txertatzen ahal ditugu gure bizitzan hezkuntza-teknologiak, hots, ikaskuntzaren pertsonalizazioaren oinarrietako bat da. Hari esker, metodologia aktiboak garatzen ahal dira: Proiektukako ikaskuntza, Flipped classroom; horien bidez, ikaskuntza esanguratsuagoak lortzen ahal dira. Hezkuntza-teknologiak aukera ematen du prestakuntzaren ebaluazioa modu naturalean egiteko, laguntza ematen ahal zaio ikasleari ikaskuntza-prozesu guztian, interakzioak hobetuz eta zabalduz, eta hori guztia helburu inklusibo, integratzaile eta, askotan, konpentsatzaile batekin egiten da.

Behin ikusita eskura dauden baliabide materialak optimizatzeko, irakasleak prestatzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan teknologia txertatzeko beharrezkoa dela prestakuntza-plan bat sortzea, hezkuntza publikoaren maila guztietan (espazioak, metodologia, gaitasunak, azpiegiturak, konektagarritasuna, gailuak, mantentze-lanak, hezkuntza-tresnak, ikasgelarako eta kudeaketarako aplikazioak) eraldaketa digitala erraztuko duen plan bat lantzen hastea erabaki zen. Hori guztia gobernuaren estrategiekin eta kalitatezko zerbitzu publikoekin era transbertsalean bat eginda. Eraldaketa-plan hori DBHn ezarri da hasteko, eta hurrengo ikasturteetako helburua da Lehen Hezkuntzara eramatea da.

Plan hori eraldaketa digitala egiteko egokia den ala ez ebaluatzeko, 2017-2018 ikasturtean "1-1" (pertsona bat gailu bat)ereduko pilotu bat egin zen, eta horretarako, DBHko 1. mailako ikasleei Chromebook bat eman zitzaien. Chromebooka G-suite zerbitzuko aplikazioekin lan egitera bideratutako ordenagailu pertsonala da eta ikastetxe publikoetan 2012az geroztik erabili izan da. Hiru ikastetxek hartu dute parte pilotuan (Iruñeko Navarroko Villoslada BHIk, Zizurko BHIk eta Corellako Alhama BHIk) eta beste batek, Iruñeko Caro Baroja BHIk, bide-erakusle lanak egin ditu.

Pilotuaren emaitzak aztertu eta gero, Departamentuak eredu hori sare-publikoko DBHko 1. mailako ikasgela guztietara eramatea erabaki du. Konektagarritasuna bermatzen duten ekintzak burutzeaz gain, 1-1 ereduan murgiltzeko aukera emanen dien gailu bat ere emanen zaie ikasturtean zehar Eraldaketa Digitalerako planean parte hartuko duten ikastetxeetako DBHko 1. mailako ikasleei.

Ikastetxeei eraldaketa digital hori egiten laguntzeko, hurrengo ikasturtean 2, 3 edo 4 ordu esleituko zaizkie DBHko 1. maila ematen duten ikastetxe interesdunei, prestakuntzarako eta eraldaketa bultzatzeko balia ditzaten.

Hezkuntzako eraldaketa digitalaren bi oinarrietako bat irakasleak dira, bestea, azpiegiturak. Tresna eraldatzaile nagusietako bat Chromebooka den eredu horretan, konektagarritasunak berebiziko garrantzia du, bai ikastetxera ailegatzen den konexioak bai ikastetxean dentsitate handiko WIFI sare bat izateak. Horrelakorik gabe, prestakuntzan zein hornikuntzan eginiko inbertsioa arriskuan legoke.

### *4.9.4. Konektagarritasuna*

Konektagarritasunak funtsezko garrantzia du ikastetxeak, irakasleak, ikasleak eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideek produktu eta zerbitzuak eskura izan ditzaten. Konektagarritasun egokia izateko beharrezkoa da sarearentzat azpiegitura eta topologia zuzena diseinatzea. Horregatik ematen dio hain garrantzi handia Hezkuntza Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuak lan-ildo horri eta lantzen ditu jarraian azalduko diren ekimenak eta jarduerak.

### Ikastetxeen egoera

Une honetan, Nafarroako Gobernuaren telekomunikazio-kontratu berria enkantean noiz esleitu zain gaudelarik, Hezkuntza Departamentuak eredu konbinatu bat darabil: autoprestazioa darabilte Nasertic ailegatzen den ikastetxeetan –Nasertic Gobernuaren sarea kudeatzen duen enpresa instrumentala eta telekomunikazio-kontratua esleituta duen operadorea da–, eta gero badaude autoprestazioaren eredua bideragarria ez den ikastetxeak.

Hala, 2018. urtean zehar zenbait ikastetxetan egin diren ekintzek hobekuntza kualitatibo eta, batez ere, kuantitatiboak ekarri dizkiete; adibidez, Gobernuaren sarea helarazi da hainbat ikastetxetara. Inbertsio handia egin behar izan da, baina horri esker ezarri ahal izan da zuntz bidezko konexioa, fisikoki zein irrati-lotura bidez.

Azpiegituren bideragarritasuna edo ezintasun teknikoa dela eta, autoprestazioaren ereduan lekurik ez duten eta konektagarritasuna telekomunikazio-kontratuen bidez jasotzen duten ikastetxeetan, Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen beharren araberako konektagarritasunak galdatu dizkio Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari (ITBPZ).

### Kableen sarea eta WiFi sareak

Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuaren helburua konektagarritasun unibertsala da; hau da, titulartasun publikoa duten ikastetxeetan irakaskuntzarako erabiltzen den espazio orok konektagarritasuna bermatuta izan dezala.

Hari bidezko sare batek hari gabeko sare on bat behar du osagarri, funtsezko osagaia baita ikasleek tresna berrietara konektatzearen bidez ikaskuntza-esperientzia berriak lortzeko; izan ere, horrek ematen die aukera ikaskuntza-aplikazioak edozein gailu mugikorretan egikaritzeko aukera. Gainera, oso konektagarritasun segurua eta trinkoa ematen du ikastetxe osoan, eta kudeaketa-tresnak ditu eskuragarri sarea puntuz puntu eta era pertsonalizatuan kudeatzeko.

2017aren bukaera aldera, Departamentuak azken belaunaldiko sarbide-puntuak enkantean jarri zituen, zenbait ikastetxek lehen aipatutako "1-1" ereduaren pilotua egiteko beharrezko azpiegitura izan zezaten eta antzemandako behar premiazkoenei erantzun zekien.

Sarbide-puntuetan egin beharreko lanaz gain, hari bidezko sarean ere jarduketak egin behar dira, puntu horiek konektagarritausna izan dezaten. Segurtasun kontuak direla eta, sarbide-kontrolerako sistema (SKS) bat ere beharrezkoa da, trafikoa era zehatzagoan kontrolatzeko.

Hasierako jarduketa horren jarraipen gisa, 2018ko udaberrian sarbide-puntu gehiago jarri ziren enkantean gainerako DBHko ikastetxeetan ere lan horri ekiteko. 2018an zehar Hezkuntza Departamentua, Nasertic-ekin batera, lanean aritu da WIFI sarearen azpiegitura 2018-2019 ikasturtearen hasierarako prest izateko eta, horrez gain, ikastetxeetan WAN konektagarritasuna hobetzeko ekintzak ere egin ditu. Helburua Hezkuntzako Eraldaketa Digitalaren plana abiatzen den unerako ikastetxeak prest izatea zen, hala, lehen hiruhilekoan ikastetxe-prestakuntza egin eta ikasleak planean sartzeko.

Gainerako etapetara Hezkuntza Eraldaketa Digitala hedatzeko, ikastetxeetara ailegatzen den konektagarritasuna eta horren banaketa hobetzeko lanean dihardu departamentuak, sare fisikoan hobekuntzak eginez eta azken belaunaldiko WIFI seguruak dituztela ziurtatuz.

**160. taula: Unibertsitatez kanpoko 262 ikastetxe publikoetako datu sareen profila. 2018-2019**

| Instalazio mota | Instalazio kopurua* |
|---|---|
| Azken belaunaldiko WIFI daukaten ikastetxeak | 58 |

| | |
|---|---|
| Azken belaunaldiko WIFI erabiltzeko zain dauden ikastetxeak | 204 |

** Kontuan izan behar da instalazioen eta ikastetxeen kopuruak ez dutela guztiz bat egiten, hainbat egoera direla eta ezinezkoa baita zenbaitetan baliokidetasun hori ezartzea: egoitza bakar batean WIFI komuna duten eskola publiko bat eta DBHI bat egotea; elkarrekin konektatuta ez dauden bi zentro dituzten eskolak egotea, bakoitza bere instalazioarekin, etab.*

*Iturria: Hezkuntzako Sistemen, Sareen eta Euskarrien Atala*

**Sarearen gaineko jarduketak**

Hezkuntzako Sistemen, Sareen eta Euskarrien Atalaren lanik handienetako bat ikastetxeek egindako eskaerei erantzutea da, ikastetxeen konektagarritasuna hobetzearekin eta sareak handitzearekin eta modernizatzearekin loturik. Eskaerak dira:

- ikastetxe sortu berrietan edo jadanik existitzen diren ikastetxeen egoitza berrietan kable instalazioa martxan jartzea,
- sare-handitzeak, WIFI instalazioen handitzeak edo hobekuntzak barne,
- konektagarritasuna handitzea ikastetxeetan,
- sareko sarguneak aktibatzea,
- aldaketak sareko sarguneen esleipenetan,
- konponketak edo ordezkapenak sareko osagarri elektronikoetan,
- suebaki/proxyak instalatzea eta ordezkatzea,
- hainbat konponketa, etab.

## *4.10. Lanbide Heziketaren Plan estrategikoa*

Europa 2020 Estrategiaren esparruan, hezkuntza- eta prestakuntza-politikak ardatz bat dira EBko hazkundea eta enplegua sustatzeko. Testuinguru orokor horretan garatzen da, halaber, Hezkuntza eta Prestakuntzaren 2020rako Esparru Estrategikoa (ET2020). Horrek, Lanbide Heziketaren arloan, lehentasun espezifiko batzuk ezartzen ditu:

- Laneko ikaskuntzaren forma oro sustatzea.
- Lanbide Heziketarako eta lanbide prestakuntzarako sarbidea hobetzea; hau da, malguago eta errazago egitea, zerbitzu integratuen zein orientazioko eta ikaskuntza-balidatzeko zerbitzu eraginkorren bidez.
- Funtsezko gaitasunak indartzea Lanbide Heziketako ikasketa-planetan, eta gaitasun horiek eskuratu edo garatzeko aukera eraginkorragoak eskaintzea, hasierako lanbide-prestakuntzaren eta enplegurako lanbide-prestakuntzaren bidez.
- Garapen profesionaleko aukerak (hasierakoak zein etengabekoak) txertatzea Lanbide Heziketako irakasleentzat, prestatzaileentzat eta tutoreentzat, hala hezkuntzako testuinguruan nola lantokian.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoak bultzada handia eman zion Lanbide Heziketari, Kualifikazio Profesionalen Sistema Nazionala sortuta hura modernizatu eta hobetzeko helburuarekin. Sistema horrek, besteak beste, helburu bezala du bizitza osoan zehar prestatzen jarraitzea sustatzea, pertsonei gaikuntza emanez itxaropen eta behar pertsonalei zein lan-merkatuko eskakizunei erantzunen dien jardun profesional batean aritzeko. Horretarako, helburu horiek lortzeko aukera emanen duten tresna eta ekintza batzuk diseinatu dira. Asmo hori hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketara zabaldu zen maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren aldatzen duen Hezkuntzaren kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bidez.

Alabaina, Lanbide Heziketa indartzeko apustu irmo hori gorabehera, sistema honen bidez prestatzen diren pertsonen kopurua oraindik ere oso baxua da, gure inguruko Europako herrialdeetako datuei erreparatuta.

Horrela, estatistikek adierazten dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo lehen urtean Lanbide Heziketan matrikulatuta dauden ikasleen ehunekoa, Europako batezbestekoa baino zatia baxuagoa dela. 2020ra arte Europan kualifikazio hauek izanen duten aurreikuspenen arabera, ordea, agerikoa da beharrezkoa izanen dela erdi eta goi mailako prestakuntza duten pertsonen kopurua handitzea, lan-merkatuaren eskakizunei erantzun ahal izateko.

Hori gure lan-ingurunean aztertzen badugu: 2015ean, Lanbide Heziketa egindakoen enplegu-tasa % 73koa zen, izaera orokorreko Goi Mailako Bigarren Hezkuntzako tituludun berrien artean % 61,2koa baino ez zelarik tasa hori. Errealitate horren aurrean, eta Lanbide Heziketa egitea erabakitzen duten ikasleak gero eta gehiago diren arren, esan behar da ikasketa mota horiek gizartean duten onarpena prestakuntza orokorrarena baino txarragoa dela.

Nafarroako Lanbide Heziketako Plan Estrategikoa 2018an onartu zuen Nafarroako Gobernuak, eta haren xedea gure foru komunitateko egoera orokorra hobetzea da, horixe bera baita Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategian esplizituki landu beharreko erronketako bat.

Garapen ekonomikoaren eta ongizate eta kohesio sozialaren oinarria da, hein handi batean, herritarrek beharrezko prestakuntza eta kualifikazioa izatea beren garapen pertsonal eta profesionaleko espektatibak bete ahal izateko eta ekoizpen- eta zerbitzu-sektoreen beharrei erantzuna emateko.

Horretarako, garapen ekonomikoaren ikuspegitik, *S3* Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren euskarri izan behar du Lanbide Heziketak, ezagutzan oinarritutako ekonomia bat eraikitzea helburua duenez gero, eta lan eginen du, besteak beste, S3an identifikatutako puntu ahuletako bati erantzuteko, Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketan dagoen pertsona eskasiari, alegia.

Kalitatezko Lanbide Heziketa bermatzeari Nafarroako Gobernuak ematen dion garrantzia agerikoa da beste plan estrategikoen garapena ikusita (Nafarroako 2020rako Plan Industriala; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, Nazioarteko Plana, Ekintzailetza Plana edo Gazteria Plana).

Azaldu dugun Lanbide Heziketari buruzko ikuspegi horrek indartu egiten du ekoizpen- eta zerbitzu-sektoreetan dagoen enplegu kualifikatuaren beharrari modu egokian aurre eginen zaiolako ziurtasuna, baina ez da inola ere alde batera utzi behar gizarte-hezkuntzari loturiko alderdia; hau da, egoera ahulean edo gizartetik baztertuta dauden kolektiboentzako arreta.

Plan Estrategikoak defendatzen du Lanbide Heziketak aukera hobeak sortu behar dituela pertsonak lan munduan errazago sartzeko eta irauteko. Gainera, pertsona horiei balio handiagoa eman behar die laneko egonkortasuna bermatzeko eta, ahal bada, esparru profesional zein pertsonalean aurrera egiteko. Horrela, zalantzarik gabe, langileen gaitasunak hobetzeak langile horiek lan egiten duten enpresen lehiakortasuna hobetzea ekarriko du eta, horren ondorioz, Nafarroako ekonomiarena. Eta horrek guztiak, azkenik, kohesio soziala hobetzen lagunduko du.

Ondorioz, planean jasotzen diren alderdien artean garrantzi berezia du prestakuntzara sartzea errazteari buruzkoak. Horretarako, Internet bidezko urrutiko lanbide heziketako eskaintza eta prestakuntza erdirpesentzialeko eskaintza sustatuko dira, kontu pertsonal edo geografikoak direla-eta haien ohiko jarduera eta eskaintza presentzialak bateratzeko modurik ez duten pertsonei prestakuntza jasotzeko aukera emateko.

Planean beste bi elementu giltzarri jasotzen dira: Lanbide Heziketa Duala eta Lanbide Heziketako metodologia berritzea.

Nafarroako Lanbide Heziketaren helburua da Heziketa Duala ikaskuntza profesionalen modernizazioan giltzarri izatea. Horretarako, jadanik idatzita eta argitaratuta dago Lanbide

Heziketako ikastetxeek heziketa modalitate hori ezarri ahal izateko baliatu behar duten jardun-esparrua zehazten duen araudia. Ikaskuntza mota honetan matrikulatutako ikasleen tasa handitzeko ahaleginak ere eginen dira, horrek enplegagarritasuna eta gizarte-kohesioa hobetzen lagunduko baitu.

Bestalde, begi bistakoa da metodologia berritzeko prozesua ezin dela gehiago geroratu; izan eren, berrikuntza hori beharrezkoa da, alde batetik, Heziketa Duala eskainiko duten ikastetxeei antolatzeko malgutasuna emateko eta, bestetik, ikasleak lan-munduan gero eta garrantzitsuagoak diren gaitasun berri transbertsalak eskuratzera bultzatzeko, besteak beste, ekimena, talde-lana, autonomia, ekintzailetza, sormena, arazoei aurre egiteko ahalmena... Hori dela eta, ahalegin berezia eginen da Proiektuetan Oinarritutako Elkarlaneko Ikaskuntza baliatzen duten metodologiak ezartzeko, eta berriki arautu den Kimua programaren inguruan egituratuko da metodologia horiek ezartzeko prozesua.

Plana hiru ardatz estrategikoren inguruan egituratuko da, horien bidez zuzendu nahi baitira datorren ikasturteetako jarduketak:

- 1. ardatza: Lanbide Heziketa *Navarra S3* espezializazio adimentsuaren estrategiaren euskarri izatea. Horrek esan nahi du erlazio bat egon behar duela espezializazio adimentsuaren estrategian lehenetsitako ekoizpen-arloen beharren eta prestakuntzako eskaintzaren artean, eman beharreko moduluetatik metodologiaraino.
- 2. ardatza: Gizartearen kohesioari eta jasangarritasunari balioa ematea. Gure gizarteko lurralde-kohesioari eta pertsonen arte kohesioari erreferentzia egiten dioten helburuak eta jarduketa-neurriak multzokatzen ditu, horiek indartzeko.
- 3. ardatza: Lanbide heziketa indartu eta etengabe eguneratzea. Hainbat ekintza proposatzen ditu, eman asmo den prestakuntzak sortuko dituen beharrei egokitu ahal ziateko egungo hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako egiturak.

2016-2017 ikasturtean ekin zion Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Zerbitzuak zeregin honi eta ondorengo urteetan ere jarraipena izan beharko du, duen garrantzi estrategiko ukaezina dela eta.

Ondoko taulan 2017-2018 ikasturtean Lanbide Heziketako Ikastetxe integratuetako prestakuntza zikloetan, maila eta modalitate guztietan, ikasturtea hasi zuten ikasleen zifrak ageri dira.

**161. taula: Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetako ikasleak. 2017-2018**

| Titulartasuna | Ikastetxe Bateratua | Ikasleak | | |
|---|---|---|---|---|
| | | G | E | Guztira |
| Publikoa | CIP ETI IBP | 663 | 311 | 974 |
| | Administrazioan, Merkataritzan eta Informatikan IB María Ana Sanz | 468 | 334 | 802 |
| | Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa IB | 216 | 377 | 593 |
| | CIP Donapea IIP | 546 | 190 | 736 |
| | CI Burlada FP- IB Burlada LH | 196 | 427 | 623 |
| | CIP Virgen del Camino IBP | 557 | 28 | 585 |
| | Lizarrako Politeknikoa IB | 363 | 157 | 520 |
| | CI Escuela de Educadores – Hezitzaile Eskola II | 76 | 388 | 464 |
| | CIP Tafalla IBP | 229 | 185 | 414 |
| | CI San Juan – Donibane IB | 364 | 19 | 383 |
| | CI Agroforestal- Nekazaritza eta Basogintzako IB | 290 | 75 | 365 |
| | CI FP Lumbier IB HL | 174 | 27 | 201 |
| | Energia Berriztagarrien Goi mailako IB | 176 | 11 | 187 |
| | CIP FP Sakana IBP LH | 150 | 21 | 171 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | CIP Elizondo Lanbide Eskola IBP | 61 | 55 | 116 |
| | Ikasleak guztira Ikastetxe Bateratu Publikoetan | 4529 | 2605 | 7134 |
| Pribatua | CI Politécnico Salesianos IB | 535 | 65 | 600 |
| | CI Cuatrovientos IB | 360 | 184 | 544 |
| | Ikasleak guztira ikastetxe Bateratu Pribatuetan | 895 | 249 | 1144 |
| Ikasleak guztira Ikastetxe Bateratuetan | | 5.424 | 2.854 | 8.278 |

*Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala*

Bestalde, beheko taulan ageri dira Lanbide Heziketan eskaintzen diren zenbait titulazio eta Prestakuntza Ziklo eta horiek azken ikasturteetan izan duten eboluzioa. Titulazio eta ziklo horiek Lanbide Heziketako zerbitzuaren eskuduntzako lanbide irakaskuntzako Teknikari eta Goi Teknikari tituluak dira (Lanbide Heziketako irakaskuntzak, Arte plastikoetako eta diseinuko lanbide irakaskuntzak eta Kirol Irakaskuntzak).

**162. taula: Eskainitako teknikari eta goi mailako teknikari tituluen bilakaera**

| Maila | Erdi-maila (Teknikari titulua) | Goi-maila (Goi-mailako teknikari titulua) | Guztira |
|---|---|---|---|
| 2009/2010 | 32 | 46 | 78 |
| 2010/2011 | 34 | 48 | 82 |
| 2011/2012 | 32 | 47 | 79 |
| 2012/2013 | 32 | 48 | 80 |
| 2013/2014 | 34 | 51 | 85 |
| 2014/2015 | 37 | 51 | 88 |
| 2015/2016 | 38 | 52 | 90 |
| 2016/2017 | 42 | 51 | 93 |
| 2017/2018 | 40 | 55 | 95 |

*Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala*

## *4.11. Landa-eskola*

2016-2017 ikasturtean, Nafarroako Eskola Kontseiluak berariaz landu du Nafarroako landa-eskolaren gaia. Egindako lan handia IDEA aldizkarian aurkeztu zen, bai eta aldizkari horren monografia-bildumako argitalpen batean ere. Jarraian publikazio horietako edukietako batzuk jaso ditugu.

Landatasuna terminoak komunitate batek eremu jakin batekin duen lotura definitzen du. Leku zehatz batean bizitzeaz haratago doan kontzeptua da, eta eremu horrekin identifikatzeko modu bat ere bada. Landa-eskolak ekarpen garrantzitsua egiten du presente dagoen udalerrietan zerbitzu-espazio bat eta komunitate bat sortzeko.

Landa-eskolak familien eta ikasleen kolektibo baten hezkuntza-eskakizunei erantzuna ematen die. Kolektibo hori txikia izaten da, oro har, eta horren ondorioz ezin dute maila guztiak dituen ikastetxe oso bat izan. Maila anitzeko eskolak erantzun bat ematen dio egoera horri, alde batetik adin desberdineko ikasleak ikasgela berean bilduz eta, bestetik, ikasle horiei aldi berean irakasten dien irakasle bakar bat edukiz.

Nafarroako eremu guztietan daude landa-eskolak. Horietan, ikasleak taldetan banatzen dira, une-unean ikasleek dituzten adinen arabera. Eskola osatugabe deritzo HHko eta LHko maila guztiak ez dituen eta ikasleak multzokatzean une horretan eskolan zer adinetako haurrak

dauden kontuan hartzen duen eskolari. Landa-eskola osatuak, aldiz, ikasle kopuru txikia dela- eta maila anitzeko ikasgelak izan arren, Haur eta Lehen Hezkuntzako maila guztiak eskaintzen ditu, baina ez du ikasgela bat maila bakoitzeko.

Landatasunaren eta biztanle-kolektibo horien beharrei erantzuten dien landa-eskolaren berezitasunen ondorioz, beharrezkoa da beste metodologia didaktiko bat erabiltzea, hirietan ohikoagoa den eskola mailakatuetan erabiltzen denaren ordez.

Landatasunaren berezitasun horrek koordinazio- eta lankidetza-proiektuak sustatu ditu Nafarroako eremuen artean. Horiei esker, kasu batzuetan, ikastetxe arteko irakasle-taldeak sortu dira, heziketa-proiektu bera aurrera eramateko.

Nolanahi ere, hirikoa ez den testuinguru batean kokatuta egotea bada landa-eskolaren definizioa, askotariko landa-eskolak aurkituko ditugu *maila anitzekoak* edo *mailakatuak* taldeen barruan. Eskolatzeari buruzko ikuspegi orokorrak eta eskolek udalerrien arabera duten banaketak argi eta garbi islatzen dute zein sakabanatuta dagoen eskolatzea. Horrela, Nafarroako 114 udalerritan eskola bakarra dago (beti da publikoa), eta kontrako kasua dugu Iruñean, bertan 44 ikastetxe baitaude, tipologia guztietakoak.

**163. taula: Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itunduen kopurua Nafarroako udalerrietan. 2017**

| Ikastetxe kop. | Herriak |
|---|---|
| 1 | 114 herri |
| 2 | Abartzuza, Zizur Txikia, Elizondo, Etxarri Aranatz, Fontellas, Lesaka, Irunberri, Mutiloa, Zangoza, Sarriguren, Viana |
| 3 | Altsasu/Alsasua, Bera, Berriozar, Estella-Lizarra, Lodosa, Orkoien, Tafalla, Zizur Nagusia |
| 4 | Barañain, Atarrabia |
| 6 | Burlata |
| 7 | Tutera |
| 44 | Iruña |

*Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala*

- ***Ezaugarriak***

Landa-eskolak ihes egiten die definizio zehatz eta itxiei; horren ordez, halako eskola guztiek hein handiagoan nahiz txikiagoan dituzten bereizgarrien zerrenda batetik abiatu gaitezke hura ezaugarritzeko. Horiek kontuan hartuta, esan liteke landa-eskola hezkuntza-modalitate bat dela, eta berau ezagutzeko aukera ematen duten bereizgarri batzuk dituela.

Horrela:

- Orokorrean, herri txikien premia bereziei erantzuten dien eskola-mota bat da.
- Herri horien iragan ekonomikoa, oro har, nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako eta horien ondoriozko jarduerekin lotuta dago. Gaur egun, aldiz, lausoagoak dira ezaugarri ekonomikoak; izan ere, zerbitzuekin eta turismoarekin lotutako jarduerak hazi dira.
- Helduak eta aurreko belaunaldiak ere landa-eskolan izan dira eskolatuak. Horregatik, gizarte-harreman zabal eta biziak izaten ditu oinarri.
- Hezkuntza-komunitateko eta inguruneko kideek eskola laguntzen eta sustatzen dute.
- Landa-eskolak harreman estua izan ohi du udalarekin, azken horrek eskolarekin lankidetzan aritzeko joera izaten baitu, jarduerak egitea erraztuz, instalazioak utziz, laguntza ekonomikoa emanez, eta abar.

- Komunitateak, aldi berean, eskolaren instalazio eta zerbitzuak erabiltzen ditu. Landa-eskola herriari bizia ematen dion instituzio bat da.
- Herritarren artean zabaldua egoten da herria eskolarik gabe ulertu ezin delako ideia.
- Landa eskolako irakaslanak berariazko prestakuntza izatea eskatzen die profesionalei, haren ezaugarri bereziak direla eta.
- Landa-eskolako irakasleek ikasleen egoera, maila eta adin desberdinetara egokituz gauzatu behar dute beren irakaslana eta hezkuntza-lana.
- Landa-eskolak irakaskuntza jarduera eta ikasleen ikaskuntza ingurune hurbilarekin lotzera jotzen du.
- Moldakortasun hori tartean, ondo datorkio hezkuntza-esperimentazioa eta pedagogia aktiboen garapena.
- Landa-eskolaren inguruabarrak mesedegarriak dira ikasleen arteko lankidetza-jarrera eta ikaskuntza kooperatiboa lantzeko. Hainbatetan, gainera, litekeena da talde batean maila bat baino gehiagoko ikasleak egotea, eta hori lagungarri suertatzen da.
- Ikasleen kopurua urria bada, zenbaitetan, baliteke gertuko beste ikastetxe batzuekin batera jarduerak egin beharra.
- Landa-eskola egokia da ikasle eta familia guztiek eta beste herritar batzuek parte hartzeko jarduerak antolatzeko.
- Zerbitzu osagarriak antolatzeko zailak dira, eta funtzionatzeko baliabide eta babes egokiak behar dituzte.

Lehen esan bezala, ez da erraza landa-eskola bat zer den definitzea, eta hala ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 80 sartu ditugu talde horretan.

19.eranskina

Aipatu dugunez, aniztasuna da landa-eskolen ezaugarrietako bat. Hori hala dela ikusiko dugu eskola horiek eskaintzen dituzten hizkuntza-ereduei buruzko taulari erreparatuz gero.

**164. taula: Hizkuntza-ereduen araberako laburpena**

| Hizkuntza ereduak | 2013/2014 | | 2014/2015 | | 2015/2016 | | 2016/2017 | | 2017/2018 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasleak | Unitate kop. | Ikasleak | Unitate kop. | Ikasleak | Unitate kop. | Ikasleak | Unitate kop. | Ikasleak | Unitate kop. |
| D eredua | 1340 | 121 | 1374 | 126 | 1431 | 134 | 1400 | 130 | 1530 | 137 |
| IIP Programa | 57 | 5 | 64 | 5 | 19 | 2 | 25 | 2 | 20 | 2 |
| G/A eredua | 1409 | 132 | 701 | 69 | 1087 | 106 | 1025 | 92 | 906 | 88 |
| D eta G/A eredua | 171 | 15 | 171 | 16 | 215 | 21 | 200 | 19 | 196 | 18 |
| | 59 | 7 | 51 | 6 | | | | | | |
| G/A eta IIP eredua | 49 | 5 | 208 | 18 | 354 | 35 | 437 | 41 | 467 | 48 |
| | - | - | 520 | 46 | | | | | | |
| Guztira | 3085 | 285 | 3089 | 286 | 3106 | 298 | 3087 | 284 | 3119 | 293 |

*Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala*

Bestalde, landa-eskolen taldekatzeak aldatuz doaz, eta ikasle-kopuruaren, horien adinen eta ikastetxeko antolakuntzakoek hartzen dituzten erabakien menpe daude. Errealitate konplexu hori ezagutzeak interesa sortzen ahal du, baina beti izan behar da gogoan emandako datuek aipatutako ikasturtea soilik irudikatzen dutela.

20.eranskina

Garrantzi handiko faktorea da landa-eskoletan inguruko beste ikastetxeekin egiten duten lan koordinatua. Gertakari hori esanguratsua da irakasleak eta baliabideak partekatzeari dagokionez, bai eta hezkuntza-proiektuak eta zerbitzu komunak garatu ahal izateko ere. Azken hamarkadan errealitate hori antolatzeko hainbat mapa izan dira. Azken urteotan erabili den zonakako banaketan hamabi koordinazio-eremu daude. Koordinazioa indartzeak eta hobetzeak hezkuntza-errealitate aurreratuagoak eta partekatuagoak sortzen lagunduko du. Esan behar da 2018-2019 ikasturtearen aldatu egin dela zonakako banaketa eta, hortaz, ez dela hemen aurkeztutakoa.

21.eranskina

- ***Proposamenak***

Nafarroako Eskola Kontseiluak antolatutako Jardunaldietan zenbait neurri proposatu ziren Nafarroako landa-eskolen plan bat egite aldera. Hainbat hamarkadaz egin diren ekimen partzialen ondoren, zalantzarik ez da egokia dela proposamenak hezkuntza-eremutik eta eremura begira zertuko dituen plan bat egitea, betiere landa-ingurunean dauden eragile ugariekin zuzeneko harremanetan.

Jarraian jasotakoa, «Nafarroako Landa Eskola» argitalpenean bere osotasunean jasoa, ideia-sorta bat da. Horren barnean dagoeneko martxan diren ekimen ugari aipatzen eta birformulatzen dira, edo aldatu beharreko beste batzuk proposatzen dira, adituen eta landa-eskolarekin lotutako zenbait erakunderen ordezkarien artean horiei buruz eztabaidatu ondoren.

- Landa-eskolak, beste egitura batzuekin batera, bizialdi osorako ulertutako hezkuntza-zerbitzuaren parte aktiboa izan behar du.
- Landa-eskola eskolatze-modalitate espezifiko batean kokatzen da, eta modu bereizian ulertu beharra dago. Horretarako, egokitutako hezkuntza-ibilbideak sortu behar dira, inguruneari lotutakoak eta ikuspegi unibertsala dutenak.
- Landa-inguruneak kultura-ondare ukigarri eta ukiezinaren funtsezko zati dira; hortaz, ezaugarri hori kontuan hartuko duten ekimenak egin behar dira, beste inguru batzuetako landa-eskoletan orokortzen ari den joerari jarraikiz. Landa-eskolak dituzten herrietako udalak eragile nagusi dira, eta izaten jarraitu behar dute, ongizatea eta komunitate osoari ematen zaion zerbitzuaren kalitatea modu mailakatuan hobetzeko.

- Ezinbestekoa da eskola-mapa bat egitea, funtsezko helburutzat Nafarroa egituratzea duena**.** Eskualdeak izan behar du hezkuntza-plangintzaren erreferente nagusia, baina ez bakarra; izan ere, eskualdez gaindiko zentro eta zerbitzuak egoten ahal dira.

- Eskualdekotzea edo zenbait eskolaren artean sareak eratzea lagungarria izaten ahal da gizarte globalizatuaren eskari berriei egokitutako landa-eskola baten eginkizunean, eta bultzada ematen ahal die eskualde-izaera duten hezkuntza- eta kultura-proiektuei.

- Herriak bizirik mantentzeko aukera emanen duen zerbitzu publikoaren ikuspegia lehenetsi behar da. Landa-eskolaren finantzaketa ere berezia da.

- Landa-eskolak bere inguruabarrak interpretatzen dituzten eta beharrezko proiektuak gauzatzen laguntzen duten sustatze-politikak behar ditu. Ezinbesteko antolakuntza-neurrietako bat da koordinazio-organo egonkor bat eratzea Hezkuntza Departamentuaren barruan.

- Etorkizunera begirako ekimen bat izaten ahal da landa-eskolaren behatoki bat sortzea, hausnartzeko eta proposamenak egiteko.

- Komeni da landa-inguruneko ikastetxeek bildu beharreko kalitate-eskakizunak zehaztea, edozein dela ere horien tamaina eta irakasten dituen mailak.

- Irakasleen eta gainerako langileen plantillak beharren araberakoa behar du izan, eta aldi berean prestakuntza-taldeak indartu behar dira ikastetxeetan, bai eta hainbat ikastetxeren arteko irakasle-taldeak ere, landa-eskoletako taldekatze espezifikoei zuzendutako materialak sortuko dituztenak.

- Ezinbesteko zeregina da irakasleei prestakuntza egokia ematea. Lehenik eta behin, hasierako eta etengabeko prestakuntzan, baina baita landa-eremuko eskola batera lehen aldiz bidaltzen dituzten irakasleentzat ere.

- Landa-eremuetako irakasleen ibilbide profesionala eta lan-baldintzak hobetzeko, pizgarriak proposatu, lanpostuak erakargarri bihurtu eta egonkortasuna bermatu behar da.

- Komunikabideak, familien mugikortasuna edo beste hizkuntza batzuk dituzten etorkinak gizartea eraldatzen ari dira; ondorioz, landa-eskoletara ere ailegatzen dira aldaketa-faktore horiek guztiak. Testuinguru eleaniztun horiek erronka berriak dakartzate planteatu beharreko hizkuntzek kulturalki eta curriculumean izan behar duten antolamenduari buruz, eta ez dira zalantzarik gabeak.

- Nafarroako landa-eremu batzuk Frantziako mugaren inguruan daude, eta logikoa da mugaz gaindiko proiektu partekatuak egitea. Dagoeneko martxan dira horietako batzuk.

- Landa-eskolek autonomia zabala hartzen ahal eta behar dute beren gain, beren baliabideak antolatzeko, irakaste-ordutegia ezartzeko, curriculuma heziketa-proiektuetara egokitzeko, ekimen berritzaileak sustatzeko, ikasleen dibertsitateari begirako programak egiteko, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea bultzatzeko edo kultura-jarduerak antolatzeko.

- Landa-eskolen taldeak koordinazio-sareak diseinatu behar ditu, eskualdeetan dauden baliabideak (hezkuntzakoak, ingurumenekoak, kulturalak eta sozialak) partekatu ahal izateko, jarduera horiek hezkuntzako proposamenetan txertatuz.

- Landa-eskolak hezkuntza-berriztapena indartzen jarraitu behar du, ikasleei beren ohiko bizilekuaren aldean bestelakoak diren inguruneak ekartzeko eta, hartara, haiek beste errealitate interesgarri batzuekin harremanetan jartzeko.

- Haur eta Lehen Hezkuntzako hezkuntza-zerbitzuen zonakatzea dagozkion Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin lotu behar da, etapen arteko jarraitutasuna ziurtatuta gera dadin.

- Ikastetxeek lotura iraunkorrak ezarri behar dituzte hezkuntzaren eta kulturaren arloko landa-eremuko beste instantzia batzuekin. Hezkuntza lan partekatua da, eta ez da ikastetxean soil-soilik garatzen.

- 0-3 urteko hezkuntza etapa behar-beharrezkoa da, nola hirian, hala herrian ere, elementu hezigarri eta gizarteratzailea baita. Beraz, administrazioei adorea eta laguntza eman behar zaie eskaintza publikoa ahal bezain zabala izan dadin.

- Hezkuntza-administrazioak ikastetxe arteko koordinazioa bultzatu behar du, mailakatuak nahiz maila anitzekoak izan. Kudeaketa, antolamendua eta administrazioko zereginak partekatzea bitarteko ona da isolamendua gainditu eta zerbitzua hobetzeko.

- Administrazioek beren gain hartu behar dute garraio- eta jantoki-zerbitzuen plangintza eta kudeaketa, eta kalitatea eta ahal den guztietan herrietan bertan txertatuta egotea uztartu.

## *4.12. Beste administrazio batzuk eta hezkuntza*

Txosten honen hainbat ataletan mahai gaineratu den bezala, hezkuntza-jarduera gero eta zabalagoa eta dibertsifikatuagoa da. Hezkuntza-jarduerak, arautuak ala ez-arautuak izan, pertsonen bizitza aktibo osoan landu behar direlako ideia gero eta orokorragoa denez, asko dira hezkuntzari loturiko jarduerak antolatzen dituzten antolakunde publiko zein pribatuak.

Gaur egun araututako derrigorrezko hezkuntza eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza ezin dira ulertu hainbat elkarte eta administraziok sustatutako hezkuntza-programekin lotzen dituzten sare konplexuak kontuan dartu gabe. Elkarte eta administrazio horien artean daude, besteak beste, udalak, mankomunitateak, Hezkuntza Departamentuaz bestelako Departamentuak, enpresak, komunikabideak, erakundeak, gizarte-boluntariotza eta irabazi asmorik ez duten beste erakunde batzuk.

Elkarlan konplexu hori aipatzeak, besteak beste, gizarteak beste organismo batzuen bidez hezkuntzari gero eta garrantzi handiagoa ematen diola nabarmentzeko abagunea ematen du. Txosten honek hartzen duen azterketa-esparrua kontuan izanik, beharrezkotzat jo da, gehiegi sakondu gabe bada ere, proposamen horietako batzuei erreferentzia egitea. Hiru arlo nabarmentzen dira esparru publikoan duten garrantzia dela-eta: toki administrazioak, ingurumena eta osasuna.

- ***Toki administrazioak***

Nafarroako toki erakundeek badituzte hezkuntzaren alorreko eskumen batzuk, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen legeak aitortutakoak. Aipatutako arau horren 25. artikuluak honako hau dio, besteak beste: «Derrigorrezko eskolatzea betetzen dela ziurtatzeko zaintzan parte hartzea, eta dagozkien hezkuntza-administrazioekin lankidetzan jardutea, ikastetxe berriak eraikitzeko beharrezkoak diren orubeak lortzeko. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Hezkuntza Bereziko zentro publikoak hartzen dituzten toki titulartasuneko eraikinen kontserbazioa, mantenua eta zaintza».

Nafarroako udalak Lehen Hezkuntzako ikastetxeen titularrak dira, eta horien mantentze-lanez arduratzen dira. Ikastetxe horietan beste herri batzuetako ikasleei ere zerbitzua ematen bazaie, Nafarroako Gobernuak gastu horien zati bat ordaintzen laguntzen du. Bestalde, ohikoa da udalek beste ekarpen batzuk egitea ikastetxeei.

Arestian aipatutakoaz gain, toki erakundeek finkatuz joan den hezkuntza-arloko eskaintza egiten dute, batzuetan, hezkuntza-sistemarekin zuzenki lotuta eta, beste batzuetan, haur eta gaztei orokorrean bideratuta.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren (NUKF) elkarlanari esker, hezkuntza-ekarpen hori nolakoa den jakiten ahal dugu, gutxi gorabehera. Horretarako, bereziki haurrei eta gazteei bideratutako kultur eta hezkuntza-programei buruzko txosten bat eskatu zitzaien Nafarroako 2.000 biztanle baino gehiagoko udalerriei, eta mankomunitate guztiei 2018ko udaberrian.

Jasotako informaziotik nabarmentzekoa da udalen eskaintza oso ugaria dela. Hona hemen jarduera horietako batzuk:

- Zailtasunak dituzten ikasleentzako eskola-laguntzako programak.
- Ingurumena eta ingurune hurbila ezagutzea.
- Nafarroako beste kultur errealitate batzuk ezagutzea.
- Jolas-jardueren bidez euskara eta ingelesa sustatzea.
- Kulturalki egoera ahulean dauden familientzako edo familia immigranteentzako laguntza.
- Ingurumenari, gaikako bilketari, birziklapenari eta zaborrari buruzko tailerrak.
- Gazteentzako tailerrak: autoestimua hobetzea, hezkuntza emozionala, autokontrola.
- Gatazkei era positiboan heltzea.
- Berdintasunaren eta tratu onen aldeko eta genero-estereotipoen kontrako tailerrak, sexualitateari eta hezkidetzari buruzko tailerrak.
- Ikaskuntza eta komunitateari zerbitzua ematea uztartzen dituzten programak.
- Auzolan proiektuak.
- Irakurmena sustatzea, ipuin kontalariak, irakurle klubak.
- Ohitura osasungarriak sustatzea: hamaiketakoak, fruta eta barazkien kontsumoa sustatzea, droga-menpekotasunak prebenitzea, gorputz-jarrerari loturiko hezkuntza.
- Kirol jarduerak.
- Teknologia digitala arduraz erabiltzea.
- Plastika, dantza, antzerkia eta musikari loturiko jarduerak.
- Haur eta gazteentzako kanpamentuak, hiri kanpamentuak.
- Bide hezkuntza, eskola-bideak.
- Ikasturte osoan zehar eta/edo opor garaian zabalik dauden ludotekak.
- Jarduerak, gaztediaren etxeetan eta lokaletan.
- Ikastetxeetako eskolaz kanpoko jarduerentzako diru-laguntzak.
- Ikastetxeetako liburutegientzako diru-laguntzak.

22.eranskina

Nafarroako mankomunitateek lantzen dituzten proposamen gehienak ikastetxeekin elkarlanean garatzen dira, eta mankomunitateek oso rol aktiboa dute horiek egiteko eta kudeatzeko garaian. Gai ugari lantzen diren arren, mankomunitateen funtzioak ezagututa, ez da harritzekoa ingurumenari loturiko kontuetan ardaztuta egotea proposamen gehienak.

Hala, azken ikasturtean gai hauei buruzko programak proposatu dira:

- Hondakinak eta birziklapena ikastetxeetan edo instalazio komunitarioetan.
- Ura eta bere erabilera.
- Garraioa eta mugikortasun iraunkorra.
- Ibai parkeak: paisaia, bioaznitasuna, bizitza ekonomikoa eta soziala.
- Zarata eta kutsadura.
- Kirol jarduerak.

23.eranskina

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek ere eskaintzen dituzte hezkuntza-arloko programak, besteak beste:

- Bizimodu fisiko eta mental osasungarriak izateko jardunbidea.
- Jatorri bat baino gehiagoko komunitateak elkarrengana hurbiltzea errazteko topalekuak sortzea.
- Haur eta nerabeekiko tratu onak sustatzea.
- Sexu-hezkuntza eta hezkidetza sustatzea.
- Gatazkak konpontzeko tailerrak.
- Sare sozialei buruzko programak
- Gizarte-bazterketa jasaten duten giza taldeei arreta berezia ematea, imigranteak izan ala ez.
- Informazioaren eta sentsibilizazioaren bidez, komunitateetan drogen prebentzioa lantzea.
- Alkoholak eta beste sustantzia batzuek sortutako kaltea gutxitzea.
- Ludopatiari buruzko tailerrak.
- Familia bizikidetza hobetzea, batez ere, nerabeei zuzendutako prebentzio-jarduerak.
- Gizarte-bazterketa egoeretan dauden haurren arrakasta hobetzea.
- Eskola-laguntzako prebentzio-programa.

24.eranskina

- ***Ingurumena***

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak ingurumen-hezkuntzari buruzko jarduerak eskaintzen ditu, bai publiko orokorrari bai eskola-haurrei zuzendutakoak. Oro har, Departamentuko langileek garatzen dituzte.

2017-2018 ikasturtean Foru Komunitateko txoko askotan antolatu dira eskola-haurrentzako jarduerak. Hona hemen leku horietako batzuk: Aralar, Basaburua, Bertiz, Ezkaba, Burgiko arroila, Leitza, Lerin, Jurramendi, Erriberri, Oronoz-Mugairi, Orreaga, Iruñea, Sartaguda eta Tutera.

Nafarroako Gobernuaren mendeko Naturaren Interpretazio Zentroek hartzen dituzte beren gain urteko jarduera gehienak. Hona hemen zentro horien izenak:

- Otsagabiako Naturaren Interpretazio Zentroa. Zaraitzu
- Erronkariko Naturaren Interpretazio Zentroa. Erronkari
- Bertizko Naturaren Interpretazio Zentroa.
- Arroilen Interpretazio Zentroa-Irunberri.
- Urbasa-Andia parke naturala.
- *Pitillasko aintzira* natura-erreserbako Hegaztien Behatokia.
- *Las Cañasko urtegia* natura-erreserbako El Bordón hegaztien behatokia. Viana.

Zentroen eskaintzez gain, gazteleraz edo euskaraz egiten ahal diren jardueraz beteriko programa bat dago.

- Ezkaba mendiko paisaia. Norentzat: Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.
- Basozaintza Nafarroan. Norentzat: DBHko, Lanbide Heziketako, Batxilergoko eta Lantegi Eskoletako ikasleak.
- Mikrokontakizunen II. lehiaketa. Norentzat: eskola-haurrentzat. Helburua ingurumenarekin duten harremana estutzea da.
- Mikrobideoen II. lehiaketa. Norentzat: eskola-haurrentzat. Helburua ingurumenarekin duten harremana estutzea da.
- Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinen I. Bilketa lehiaketa (TEEHB).
- Aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak birziklatuta eginiko erakusleihoen III. lehiaketa.
- Tokian Tokiko Garapen Jasangarriko Jardunbide Egokien saria.

Bestalde, hezkuntza-arloarekin zerikusia duten edo izaten ahal duten askotariko eragile edo instituzioek garatutako ingurumen-hezkuntzako proiektuak diruz laguntzen dituzte. Hala, maiatzaren 30eko 155/2017 ebazpenean ageri diren proiektuek honelako edukiak dituzte:

- Bioaniztasuna ezagutzea.
- Ingurune hurbila ezagutzea. Ekoibilbideak.
- Uraren hiri-zikloaren arrazoizko erabilera egiteko kontzientziazioa.

- Materia organikoaren inguruan kontzientziatzea eta konpostatzeko ohitura zabaltzea.
- Baratza eta erlauntz bidaiaria.
- Emakumeak eta klima-aldaketa.
- Hazkundearen mugak.

25.eranskina

Maiatzaren 30eko 155/2017 ebazpen horretan bertan ingurumen-boluntariotzari loturiko proiektuak ageri dira, eta honelako edukiak dituzte: Boluntarioak prestatzea.

- Iturri bat edo labe bat berreskuratzea.
- Ibilbideak seinaleztatzea.
- Ingurumenaren inguruan sentsibilizatzeko jardunaldiak.

26.eranskina

- ***Osasuna***

Osasunak berebiziko garrantzia du eskola-ikasleen gaur egungo eta etorkizuneko bizitzan. Nafarroa da autonomia erkidegoen artean haurren hilkortasun-tasa baxuena duena eta, orokorrean, osasun onekoak dira haur nafarrak, baina, hala ere badira osasun arazoak: jaiotzean pisu gutxi duten haurren kasuek gora egin dute, amagandiko edoskitze tasa baxua da sei hilabeteko haurretan, txantxarrei eta aho-osasunari loturiko arazoak, lesioak (erredurak, intoxikazioak, hezur-hausturak), eritasun infekziosoak, eritasun kronikoak (asma, diabetesa, minbiziak eta obesitatea), eta arrisku psikosozialen menpeko egoerak.

Osasunaz hitz egitean ez da gaixotasunez eta osasun-arazoez soilik aritu behar, baizik eta ahalik eta osasun maila onena lortzeaz. Hori dela eta, osasun-sustapena eta -hezkuntza funtsezko tresnak dira eskola-ikasleen eta komunitate osoaren gaur egungo zein etorkizuneko osasun-maila hobetzeko. Hezkuntza-sistema testuinguru egokia da sustapen hori lantzeko, haur eta nerabe guztiak sistema horren barruan baitaude beren bizi estiloa itxuratzeko hain funtsezkoa den garai horretan.

Munduko Osasun Erakundeak honela definitzen du osasun sustapena: pertsonek eta komunitateek beren osasuna kontrolatzeko eta hobetzeko duten ahalmena indartzea, hala, kontzienteki eta era autonomoan erabaki osasungarriagoak har ditzaten.

Bizi estilo deritzo pertsona, pertsona-talde eta komunitate baten bizitzeko modu orokorrari. Hori garatzen laguntzen ahal du elikadura osasungarria izateak, ariketa fisikoa egiteak, sexualitate osasungarriak, era seguruan gidatzeak, estresa maneiatzeak, ez erretzeak, etab. Hori, ordea, ez dago soilik pertsonen borondatearen menpe, beste alderdi batzuek ere eragina dute: norberaren zaintzarekiko eta norberaren bizitza eta bizitza proiektua kontrolatzearekiko duten jarrera eta pentsaera, pertsonen arteko harremanak, ingurumena eta ingurumenarekiko harremana, bakoitzak dituen gaitasun pertsonal eta sozialak, etab.

Osasuna eta bizi estiloa kontzeptuak subjektiboak eta dinamikoak dira; desberdinak dira pertsona bakoitzarentzat eta bizitzako une batean edo bestean. Bizi estilo optimoa ez da bera pertsona guztientzat. Ildo horretatik, honela definitzen da osasuna sustatzen duen ikastetxea "Bizitzeko, ikasteko eta lan egiteko leku osasungarri den heinean gaitasunak etengabe

indartzen ditu; ikasleen, irakasleen eta ikastetxeko langileen osasuna hobetzea sustatzen du; norbanakoen autoestimua indartzen du; garatzeko aukera anitz eskaintzen ditu; lorpen pertsonalak eta komunitarioak aintzatesten ditu; pertsonen artean kalitatezko harremanak garatzearen alde egiten du eta garapen pertsonal eta soziala bultzatzen ditu". (*Munduko Osasun Erakundearen Sustapen Glosarioa*, Geneva, MOE, 1998).

Eskolan osasun-sustapena eta -hezkuntza lantzeak, hezkuntza sistemari dagokionean, osasunari loturiko bi gai curriculumean jorratzea dakar. Horien helburua ikasleei bizi estilo eta jarrera osasungarriak izateko behar dituzten gaitasunak eskuratzen laguntzea da eta, horretako, ezinbestekoa da osasunaren eta garapen pertsonal eta sozialaren ikuspegi zabala izatea.

Gainera, osasuna sustatzen duen ikastetxe batek ingurune fisikoari loturiko alderdi hauek ere hartuko ditu kontuan:

- Ikastetxearen eraikina zer baldintzatan dagoen.
- Jolasteko eta aisialdirako guneak.
- Eskola-jantokiak.
- Sarbideen segurtasunarekin zerikusia duten alderdiak.

Inguru psikosozialarekin lotura duten alderdiak ere hartzen ditut aintzat; hau da, ikastetxeko eta ikasgelako giroari eta funtzionamenduari loturikoak:

- Atazak eta funtzioak banatzea.
- Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea: ikasleak, irakasleak eta irakasle ez diren langileak.
- Ikasleak eragile aktiboak izatea beren hezkuntzan eta bizitzan.
- Hezkuntza-komunitateko kideen arteko harremanak.
- Arauak eta gatazkei aurre egitea.

Azkenik, aipatzen du beharrezkoa dela hezkuntza-komunitatea ikastetxea kokatuta dagoen eremuko osasun- eta gizarte-esparruekin harremanetan egotea, sare horretan irakasleak, ikasleak, familiak eta komunitateko osasun-eragileak sartuz. Sarean lan egiteak haurrak hazten, jolasten eta hezten diren espazio horietako egoerak hobeki ulertzeko eta erantzun bateratuagoak emateko aukera ematen du

Hauek dira jarduera-ildo nagusiak:

- **Osasuntsu itzuli... ikastetxera**

Proiektu honek ikasturtearen hasiera aprobetxatzen du ondoko gaien inguruko aldaketak, egokitzeak eta plangintza egiteko: elikadura, ariketa fisikoa, afektibotasuna eta sexualitatea, segurtasuna eta istripuak prebenitzea, bizikidetza, etab.

Urtero mezu bat bidaltzen zaie ikastetxeei Osasun Publikoaren Institutuak eginiko liburuxka familiei banatzeko eskatuz. Liburuxka horretan, ikastetxera itzulera modu osasungarrian egiteko gomendioak jasotzen dira, eta edukiak familiei zuzenduta dauden arren, ikasgelan ere lantzen ahal dira.

Zazpi hizkuntzatan banatzen da informazioa: gazteleraz, euskaraz, arabieraz, bulgarieraz, errumanieraz, frantsesez eta ingelesez.

**165. taula: "Osasuntsu itzuli ikastetxera" materialaren banaketa**

| "Osasuntsu itzuli ikastetxera" foiletoak | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikastaroa | Erderaz | Euskara | Arabiera | Frantses | Ingeles | Errumaniera | Bulgariera | Guztira |
| 2016-2017 | 3.858 | 1.433 | 257 | 125 | 224 | 67 | 41 | 6.005 |
| 2017-2018 | 4.537 | 1.949 | 204 | 31 | 178 | 44 | 34 | 6.977 |

*Iturria: Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua*

- **Elikadura eta ariketa fisikoa**

Elikadura osasungarria eta osagai askoko ariketa fisikoa bultzatzeko, honelako jarduerak egiten dira:

**Fruta eta barazkiak banatzeko programa. Esnea banatzeko programa**

Fruta eta barazkiak banatzeko programa 2010-2011 ikasturtean hasi zen, eta Europako diru-laguntzei eta Nafarroako Gobernuko batzorde mistoari esker doa aurrera. Batzorde misto hori Hezkuntza Departamentuko, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuko eta Osasun Departamentuko kideek osatzen dute.

Bi helburu ditu proiektuak: alde batetik, haurtzaroan hasita ohitura osasungarriak sustatzea –batez ere fruta eta barazkien kontsumoa– osasuna hobetu eta haur-obesitatea eta antzeko gaixotasunak prebenitzeko, eta bestetik, Nafarroako produktuak ugariak eta kalitatezkoak direla jakinaraztea, eskolako ikasleengan jatorri hurbileko nekazaritzan oinarritutako elikadura osasungarria sustatzeko.

Elikagaien banaketa deialdi publikoaren bidez esleitzen da eta hainbat jarduera egiten dira programa indartzeko. Besteak beste, familiei "Jaki osasungarriak jan eta mugitu" informazioa bidaltzen zaie; erakusketa bat egiten da, euskaraz edo gazteleraz, "Osasunez haztea"ri buruzko informazio-panelekin; eta asteko egunak eta eguneko bost otorduak ageri diren diptiko bat banatzen da, fruta eta barazki itxurako eranskailuz betetako orriarekin batera, gurasoen laguntzaz, ikasleak zenbat fruta eta barazki jaten dituzten kontziente izan daitezen.

Bestalde, lehen arretako pediatria zentroei jakinarazten zaie fruta eta barazkien banaketaren berri, horren berri izan eta haien arlotik parte hartzeko aukera izan dezaten.

Azken ikasturtean esnea banatzeko programa gehitu zaio fruta eta barazkienari eta, horretan izena ematen duten ikastetxeetan banaketa egiteaz aparte, programak baditu neurri osagarriak ere (tailerrak eta abere-ustiategietara bisitak.

**166. taula: Fruta eta barazkien programa. Esnea banatzeko programa**

| | Fruitu eta barazkiak Programa | | Esne Programa |
|---|---|---|---|
| Ikastaroa | 2016-17 | 2017-18 | 2017-18 |
| Ikastetxeak | 126 | 140 | 88 |
| Ikasleak | 11.500 | 12.000 | 14.300 |

*Iturria: Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua*

**Irakasleak prestatzeko eskaintza**

Hezkuntza Departamentuaren irakasleak prestatzeko planaren baitan, badago arlo honi buruzko ikastaro bat. Gai hauek ditu ardatz: elikadura eta ariketa fisikoa eta beste bizi estilo osasungarri batzuen inguruko gomendioak alde batetik, eta horiek ikasgelan, ikastetxean eta komunitatean sustatzeko modu desberdinak, bestetik.

Nafarroako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan eta haur-eskoletan elikaduraren eta fisikoari loturiko bizi estilo osasungarriak sustatzeko neurriak jasoko dituen Foru Dekretua izapide-fasean dago.

- **Hezkuntza afektibo-sexuala. Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretua. Skolae**

Hezkuntza afektibo-sexuala Hezkuntza Departamentuaren Hezkidetzarako "Skolae, berdin-bidean, Creciendo en igualdad" Planaren parte da, lehen azaldu bezala, eta lau ikaskuntza nagusi jasotzen ditu: Desberdinkeriaren aurrean kritiko izatea eta aldaketa egiteko gaitasuna; Autonomia eta independentzia pertsonala; Lidergoa, ahalduntzea eta partaidetza soziala eta Sexualitatea, bizikidetza eta tratu ona.

Planak burutu du jadanik hasierako fase esperimentala eta, horretan, hainbat ekintza egin dira Osasun Departamentuarekin elkarlanean: Plana lantzeko jardunaldiak; aurkezpenak eta segimenduak egiteko jardunaldiak; proposamen-didaktikoak eta prestakuntza-plana diseinatzea.

- **Droga-kontsumoa prebenitzea**

Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planaren bidez ikastetxeetan ekintzak egiten dira. Hori lantzeko proposamenak ugari eta askotarikoak dira ahalik eta ikastetxe eta familia gehienek lanketa horretan parte hartzea lortzeko. Plan hori Hezkuntza eta Osasun Departamentuek osatzen duten koordinazio batzorde mistoaren eta horren hitzarmenaren esparruan garatzen da.

**- Irakasleak prestatzeko eskaintza** Urtero eskaintzen da eta eskatzen duten ikastetxeetan egiten da.

**- Prebentzio programak garatzeko laguntza profesionala.** Laguntza hori ikastetxe bakoitzari egokituta egonen da, eta saio presentzialen eta hezkuntza-materialak proposatzearen bidez landuko da. Material horiek "Drogamenpekotasunen prebentzioa ikastetxeetan lantzeko hezkuntza-materialen gida" (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza)izeneko gidan daude jasota.

**- "Drogarik gabe hezi" programa.** Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeei zuzenduta dago, baina batez ere azken horiei, eta lehentasuna emanda arrisku-faktore gehiago edo kontsumoari loturiko zailtasun edo gatazka berariazkoak dituzten pertsona gehiago dauden ikastetxeei. Programa urteko eskaintzen da Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean. Ikastetxeei, bi ikasturtez, aholkuak ematen zaizkie eta lagun egin zaie. Ikasleak prestatzen dira eta talde eragile bat sortzen da programa dinamizatzeko. Talde eragile horretan beste profesional eta gizarte-eragile batzuek ere hartzen dute parte: gizarte-zerbitzuek (hezitzaileak), lehen mailako osasun arretak (gizarte langileak), gurasoen elkarteek, gizarte-erakundeek...

**- Nafarroako Osasunerako Eskolen Sarea** Drogen prebentzioak pisu handia du Osasunerako Eskolen Europako Sarearen proiektuetan –beherago ageri da Sare horri buruzko informazioa–.

**- Prebentzioa familian** Familiei zuzenduriko gida batzuk banatzen dira ("Lagundu zure seme-alabei drogen arloan" eta "Familian prebentzioa lantzeko eta drogekin arazoak izatea ekiditeko gida"); "Prebentzioa familian" programa lantzen da, guraso bitartekariak prestatzen dituena gero beste guraso batzuei prestakuntza eman diezaieten, eta, horrez gain, gurasoak hezteko hainbat jarduerari babesa ematen zaie.

**- Tabakorik gabeko nazioarteko eguna** Urtero Hezkuntza Departamentuak beste entitate batzuekin batera prestatutako proposamen bat banatzen du ikasgelan egun horretan gaia lantzeko eta kartelak eta esku-orriak ikasgelan eta ikastetxean zabaltzeko. Hona hemen proposamena osatzeko elkarlanean aritzen diren entitateak: Hezkuntza Departamentua, Osasun Departamentua, Odontologoen, Medikuen eta Erizainen elkargoak, Familia Medikuntzako Nafarroako Elkartea eta Tabakismoa prebenitzeko Espainiako batzordea. Beste urte batzuetan bideo eta kartel-lehiaketak ere egin izan dira.

- **Osasuna sustatzen duten eskolen sarea**

SHE Sarea (Schools For Health in Europe Network) Osasuna Sustatzen duten ikastetxeen Europako sarea da. Ikastetxeetako osasun sustapen programak elkartrukearen, elkarlanaren eta laguntzaren bidez babesteko plataforma bat da. Europako sarea NIGZ institutuak (Nationaal Instituut voor Gezondheidsbevordering, Ziektepreventie) koordinatzen du, Ikastetxeetan Osasuna Sustatzeko ekimenetan OMEren kolaboratzailea den heinean, eta Espainian, berriz, Espainiako Hezkuntza Ministerioko Hezkuntzaren berrikuntza eta ikerketarako zentroa (CNIIE) da koordinatzailea.

Sarea osatzen duten ikastetxeek jardunbide egokiak dituzte arlo askotan: elikadura eta kontsumoa, elkarbizitzen ikastea, droga-arazoak prebenitzeko hezkuntza, ingurune osasungarria, osasuna eta garapen pertsonala, bizi estilo osasungarrira bidean lan egitea. Ikastetxe horiek esfortzua egiten dute ikasleen, irakasleen eta ikastetxeko langileen osasuna hobetzeko eta ahalegindu egiten dira bizitzeko, ikasteko eta lan egiteko leku osasungarri izateko duten gaitasuna etengabe garatzeko.

Horiek bultzatzen dituzten bi egitura-mota daude:

- Autonomia erkidegoak koordinatzeko batzordea: aurkeztutako proiektuak berrikusten eta hautatzen ditu, laguntza-estrategiak zehazten ditu...

- Sarearen segimendua egiteko hezkuntza- eta osasun-batzorde teknikoa: hezkuntza-materialak egin eta/edo banatzea, irakasleak prestatzea, SHE sarean sartzeko deialdiak egitea...

Urtero argitaratzen da sarean sartzeko deialdia erregulatzen duen ebazpena, proiektuak ebaluatzen dira eta deialdiko oinarriak betetzen dituzten ikastetxeak sarean sartzen dira. Gutxienez hiru topaketa egiten ditu Sareak: bat ikasturtearen hasieran, beste bat ikasturtearen erdi aldera eta hirugarren bat ikasturtearen bukaeran. Horrez gain, bisitak egiten dira ikastetxeetara.

SHE sarean parte hartzen duten ikastetxeen kopuruak gora egin du: 2016-2017 ikasturtean 44 ziren, 2017-2018an, berriz, 49 izan dira eta aurreikusten da 2018-2019an 55 izanen direla. Bestalde, joan den ikasturtean SHE sarea Eskola Sozioemozionalen sarearekin eta Eskola Seguruen Sarearekin elkartu zen eta, hala, Osasuna Sustatzen duten Eskolen Nafarroako Sarea sortu zen.

Badira osasunarekin zerikusia duten beste jarduera batzuk ere, adibidez, "Nerabeekin garapen pertsonala eta osasuna lantzeko gida", "Ikasgela osasungarriak, nerabe trebeak" eta "Lagundu hazten. Guraso taldeekin lan egiteko gida" material didaktikoak egin, banatu eta horien inguruko aholkularitza eskaintzen da; gurasoak hezteko hainbat ekimenetan parte-hartu eta horiek babesten dira profesionalak prestatuz eta diru-laguntzak emanez, eta aholkularitza eskaintzen da irakasleek, guraso-elkarteek edo ikastetxeetan esku-hartuko duten osasun-zentroetako profesionalek hala eskatuz gero.

Horiek guztiak burutzeko askotariko elkarlanak sortzen dira, baina horien artean aipagarrienak Hezkuntza-Osasuna Hitzarmena, Gazteriaren Departamentuarteko batzordea, Haurrei Arreta Osoa Emateko Batzordea eta Osasuneko Departamentuarteko Batzordea dira.

# 4.13. Parte-hartzea

Nafarroako gizarteak interes handia erakutsi du hezkuntzarekin lotutako gaien inguruan. Horren ondorioz, jarduera eta dinamismo handia dago, alor ugaritan ikusten ahal dena: Hezkuntzako Departamentuaren kudeaketan guztizko gardentasuna eskatzea; familien elkarteek, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek edo sindikatuek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko exijentzia; Nafarroako Parlamentuan landutako gaien adierazgarritasuna edo eragile askok antolatutako hedapen- edo eztabaida-jarduerak, besteak beste.

Urteko txosten honen bidez, hainbat ataletan, prozesu horien ildo nagusiak ezagutarazi nahi izan ditugu baina, onartu beharra dago, hori ez da posible izan kasu guztietan, partaidetza-organo batzuen berririk jaso ez dugulako. Beraz, adierazle batzuk bakarrik aurkeztu ditugu.

### *4.13.1. Nafarroako Eskola Kontseilua*

Nafarroako Eskola Kontseilua hezkuntza-komunitatearen partaidetza-organo gorena da unibertsitatez kanpoko Nafarroako ikasketen plangintzari dagokionez. Bertan, hezkuntzarekin zerikusia duten sektore nagusiak daude ordezkatuta.

Nafarroako Eskola Kontseilua azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen bidez sortu zen. Haren eginkizunetako bat da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatez kanpoko hezkuntza arautuko duten arauen egitasmoak aztertzea eta horien gainean eztabaidatzea, eta adostutako zuzenketak Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea. Gainera, hezkuntzaren alderdi adierazgarriei buruzko ikerketak eta txostenak prestatzen ditu, hausnarketa eta jardunbide egokiei buruzko jardunaldiak antolatzen ditu eta Estatuko Eskola Kontseiluan parte hartzen du.

Hona hemen haren eginkizunak:

- Hezkuntza Departamentuak igortzen dituen arauen egitasmoak aztertzea eta horiei buruz eztabaidatzea, irakaskuntzaren programazio orokorreko alderdi ezberdinen gainean legez ezinbestekoak diren irizpenak prestatzeko. Hauen inguruko egitasmoak dira:
    - Hezkuntzarekin loturiko gaiei dagokienez, Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko erregelamendu exekutibo orokorrentzako egitasmoak edo Foru Legeentzako aurreproiektuak.
    - Planifikazio orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak, ikastetxeak sortu, aldatu, kendu eta lurraldean banatzeari dagokienez.
    - Ikastetxeen eta ikastetxeetako langile eta ekipamenduen ezaugarriei buruzko araudi orokorra.
    - Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itunduen eta diruz lagunduen finantzaketari buruzko irizpide orokorrak.
    - Hizkuntza-ereduen ezaugarriei eta ezarpenari buruzko xedapen orokorrak.
    - Bekei eta ikasketetarako laguntzei buruzko printzipio orokorrak.
    - Eskolaz kanpoko jarduerei eta zerbitzu osagarriei buruzko araudi orokorra.
    - Hezkuntza gaietan Estatuarekin edo beste autonomia erkidego batzuekin lankidetza-hitzarmenak edo -akordioak egiteko egitasmoak.
    - Hezkuntzaren kalitatea hobetzea edo desberdintasun sozial eta indibidualak konpentsatzea helburu duten xedapenak.

- Txostenak egitea Hezkuntza Departamentuak eskatutako gaien gainean.

- Bere ekimenez ikerketak eta proposamenak egitea, irakaskuntzaren programazio orokorrarekin lotutako bestelako gaiei buruz, eta goragokoei igortzea.
- Urtero hau bezalako txosten bat prestatzea Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sistemaren egoerari buruz.
- Urtero Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueren memoria prestatzea.
- IDEA aldizkaria prestatzea eta kaleratzea.
- Eskola Kontseiluen topaketen jardunaldiak antolatzea.
- Parte hartzea Estatuko Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren eta erkidegoetako eskola kontseiluen partaidetza-batzordearen saioetan.

**167. taula: 2017-2018 ikasturtean egindako jarduera garrantzitsuenak**

| Jarduera-mota | Kopurua edo deskribapena |
|---|---|
| Osoko bilkuraren saioak | 8 |
| Batzorde iraunkorraren saioak | 10 |
| Emandako irizpenak | 24 |
| Bere ekimenez egindako txostenak | • Landa-eskola (egin eta hedatu)<br>• 2016-2017 Berrikuntza Proiektuak (egin eta hedatu)<br>• Nafarroako hezkuntza-sisteman familien partehartzea. Kultural eta gizarte-eta ekonomia-faktoreen eragina (egin eta hedatu)<br>• 2018 Hezkuntza eta espazioa  (egin eta hedatu) |
| Argitaratutako IDEA aldizkariak | • 48. alea: “Berrikuntza proiektuak 2016-2017 / Proyectos de innovación 2016-2017”<br>• 49. alea: “Hezkuntza eta espazioa 2018 / Espacios y educación 2018” |
| Webgunea | Eguneratze iraunkorra eta Nafarroako eskola-eta lanbide-zentroetarako buletin baten hedapena |
| Jardunaldiak | • XX Berrikuntza proiektuak 2016-2017 / Proyectos de innovación 2016-2017, urrian Tuteran eta azaroan Iruñean<br>• XXI Hezkuntza eta espazioa 2018 / Educación y espacio 2018, martxoan eta apirilean, Iruñean |
| Eskola Kontseiluko arratsaldeak | • Haurtzaroa eta hiria/ Infancia y ciudad, Nafarroako Parlamentuan, maiatzaren 22an |
| Estatuko Erkidegoetako Eskola Kontseiluak | • Erkidegoen Parte-hartze Batzordearen eta Estatuko Eskola Kontseiluko Osoko Bilkuraren kidea<br>• Hezkuntza Itunari buruzko Txostena<br>• “Tareas escolares” Jardunaldiak, Madrilgo Erkidegoko Eskola Kontseiluak antolatuta<br>• Erkidegoen Eskola Kontseiluen funtzionamenduaren inguruko dokumentazio eta esperientzia trukea |

| | |
|---|---|
| Parte-hartzea | • Iruñeko Haur Eskolen Erakunde Autonomoa. Hezkuntza-Proiektua<br>• Hezkuntza Departamentuaren Berdintasunarako Plana<br>• Nafarroako Parlamentua<br>• Lan-bilerak, Fundación Universidad Sociedad, Foro Social NUPek antolatuta<br>• Hezkuntza Departamentuaren Baterako Hezkuntza Plana<br>• Hezkuntza Departamentuaren Aniztasunaren trataerarako Plan Estrategikoa<br>• … |
| Hedapena | Hezkuntzarekin lotuta dauden berrien bilketa hemeroteka eguneratzeko, asteko boletinaren hedapena Nafarroako eskola eta lanbide ikastetxeetarako |

*Iturria: Nafarroako Eskola Kontseilua*

### *4.13.2. Ikastetxeetako eskola-kontseiluak*

Ikastetxetako eskola-kontseiluetako hauteskunde-prozesua araudi honen arabera egiten da:

- 505/2017 EBAZPENA, urriaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

- 506/2017 EBAZPENA, urriaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako institutuetako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

- 507/2017 EBAZPENA, urriaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Arte Irakaskuntzen ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

- 508/2017 EBAZPENA, urriaren 26koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, ikastetxe itunduetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko eta zuzendaria izendatzeko jarraibideak onesten dituena.

- 509/2017 EBAZPENA, urriaren 27koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialetako eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko eskola kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

**168. taula: Eskola kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe publikoetan. 2017-2018**

| | Ikastetxe kop. | Irakasleak | | Gurasoak | | Ikasleak | | AZLak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Bozketak | | | | | | | |
| | | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez |
| Lehen Hezkuntza | | | | | | | | | |
| Eskola kontseilua berritu dute | 35 [1] 27 | 12 | 15 | 4 | 17 [2] | 1 [3] | 0 [3] | 0 [4] | 11 [4] |
| Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere | 18 | | | | | | | | |
| Bigarren Hezkuntza | | | | | | | | | |
| Eskola kontseilua berritu dute | 15 [5] 14 | 2 | 12 | 3 | 11 | 3 | 11 | 2 | 7 [4] |
| Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere | 5 | | | | | | | | |
| Helduen Hezkuntza | | | | | | | | | |
| Eskola kontseilua berritu dute | 2 [6] | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 | 0 | 1 [4] |
| Arte Eskolak | | | | | | | | | |
| Eskola kontseilua berritu dute | 2 | 0 | 2 | 0 | 2 | 1 | 1 | 0 | 0 |
| Kontserbatorioak | | | | | | | | | |
| Eskola kontseilua berritu dute | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 [4] |
| Hezkuntza Berezia | | | | | | | | | |
| Eskola kontseilua berritu dute | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 | - | - | 0 | 1 |
| Sektoreak osatu dituzte | 1 | | | | | | | | |
| Hizkuntza Eskolak | | | | | | | | | |
| Eskola kontseilua berritu dute | 2 | 1 | 1 | - | - | 1 | 1 | 2 | 0 |

*[1] 35 ikastetxeko horietako 7 unitate bateko edo biko ikastetxeak dira, eta horietan ez da hauteskunderik egiten eskola kontseiluko kideek ez baitute hautagaitzarik aurkeztu behar, zuzenean izendatzen baitira ikastetxeko zuzendaria, hark izendatutako gurasoen elkarteko ordezkaria eta udaleko ordezkaria. Horietako 1 ikastetxetan ez da aktarik jaso edo ez da eskola kontseilua berritu. Analisia gainerako 27ak kontuan hartuta egin da.*

*[2] Bigarren erdia berritu duten ikastetxe horietako 6tan ez da bozketarik egin, 2 eta 5 unitate arteko ikastetxeetan gurasoen atala ez delako berritzen bigarren erdi horretan*

*[3] HLHIPetan ikasleek ordezkariak izaten ahal dituzte eskola kontseiluan, hitzarekin baina botorik gabe, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak ezartzen dituen baldintzetan, baina oso gutxi dira eskola kontseiluan ikasleen ordezkariak dituzten HLHIPak.*

*[4] AZLen sektorea bigarren erdia berritu behar den ikastetxeetan bakarrik berritzen da*

*[5] Eskola kontseilua berritu behar zuten Bigarren Hezkuntzako 15 ikastetxe publikoetako bateko akta ez da jaso. Analisia, beraz, gainerako 14ak kontuan hartuz egin da; talde horretan BHIak eta DBHIak daude.*

*[6] Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ikasleei dagokie HLHIPetan ikasleen gurasoei dagokien ordezkaritza*

*Iturria: Ikasketak Antolatzeko Atala*

**169. taula: Eskola kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe itunduetan. 2017-2018**

| | | Irakasleak | | Gurasoak | | Ikasleak | | AZLak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Bozketak | | | | | | | |
| | | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez | Bai | Ez |
| Eskola kontseilua berritu dute | 10 [7]<br>8 | 2 | 6 | 2 | 6 | 1 [3] | 5 [3] | 2 | 3 |
| Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere | 3 | | | | | | | | |

*[3] HLHIPetan ikasleek ordezkariak izaten ahal dituzte eskola kontseiluan, hitzarekin baina botorik gabe, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak ezartzen dituen baldintzetan, baina oso gutxi dira eskola kontseiluan ikasleen ordezkariak dituzten HLHIPak.*

*[7] Ez dira jaso eskola kontseilua berritu behar zuten 10 ikastetxe itunduetako 2tako akta. Analisia gainerako 8 ikastetxeak kontuan hartuta egin da.*

*Iturria: Ikasketak Antolatzeko Atala*

Ikastetxeetako Eskola Kontseiluak bi urtean behin erdika berritzen dira. 2017-2018 ikasturte hau *bitarteko* urtea da eta, beraz, berrikuntza egitea egokitzen zitzaien ikastetxeen kopurua aurreko urtekoa eta hurrengo urtekoa baino askoz ere txikiagoa izan da. Eta hala ere, joera bera ikusi da azten urteetan ere:

- Eskola kontseilua berritu behar duten ikastetxeen ehuneko handi batean ez da bozketarik egin aurkeztu diren hautagaitzen kopurua bete beharreko postuen adinakoa edo txikiagoa izan delako.
- Bozketak egin diren tokietan gurasoen sektorea da parte-hartzearen ehuneko txikiena izan duena.
- Eskola kontseilua berritzera beharturik ez badaude ere, ikastetxe batzuetan diote Kontseiluaren osaera osoa mantendu nahi dutela eta, hartara, sektoreetako edozeinetan sortutako postu hutsak betetzeko prozedurari ekiten diote.

### *4.13.3. Unibertsitatez kanpoko irakasleen Mahai Sektoriala*

2017-2018 ikasturtean zehar Unibertsitatez kanpoko irakasleen mahai sektoriala 21 aldiz bildu da, eta gai hauek aztertu ditu:

- Hezkuntzako LEPa.
- Irakasleen lekualdatze-lehiaketa (2017-2018 ikasturtea).
- Hezkuntza-hitzarmenaren negoziazioa, lan-arloari dagokionean.
- Kontratazio-zerrendak kudeatzeko foru agindu berri bat egitea.

Unibertsitatez kanpoko mahai sektorialaren osaera ondoko taulan dago jasota.

**170. taula: Unibertsitatez kanpoko irakasleen Mahai Sektoriala. 2016-2017**

| Sindikatua | Ordezkariak | % | |
|---|---|---|---|
| LAB | 11 | 24,44 | |
| STEILAS | 10 | 22,22 | |
| AFAPNA | 8 | 17,78 | |
| CCOO | 6 | 13,33 | |
| ANPE | 6 | 13,33 | |
| ELA | 4 | 8,89 | Mahai Orokorrean egoteagatik |
| UGT | 0 | 0,00 | Mahai Orokorrean egoteagatik |
| Guztira | 45 | 100 | Aps eta Csif ez dira sartu ordezkaritzaren %10era iristen ez direlako eta ez daudelako Mahai Orokorrean |

*Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua*

### *4.13.4. Gurasoen Mahaia*

Nafarroako Foru Komunitateko ikasleen Gurasoen Mahaia Hezkuntzako kontseilariak maiatzaren 28an emandako 79/2008 Foru Aginduaren bidez sortu zen. Aurrerago, Foru Agindu hura otsailaren 4ko 14/2010 Foru Aginduaren bidez aldatu zen, ikasleen gurasoen elkarteak biltzen dituzten federazioen bitartez, guraso elkarteen parte-hartzea hezkuntzaren esparruan indartzeko xedez.

Gurasoen Mahaiaren helburua da Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza-sisteman interes sozial berezikotzat harturiko gaietan ikasleen aita, ama edo legezko tutoreen elkarteen arteko lankidetza eta parte-hartzea indartzea, horiek parte diren federazioen bitartez eta Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean.

Honako hauek osatzen dute:

- Hezkuntzako kontseilaria, mahaiburu.
- Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusiak; horietako bat, Hezkuntzako kontseilariak izendatua, mahaiburuorde arituko da, mahaiburuaren eginkizunak betez hura falta denean.
- Hezkuntza Departamentuaren bi ordezkari, Hezkuntzako kontseilariak izendatuak landu beharreko gaien arabera.
- Nafarroako Foru Komunitatean familia gehien bazkideturik dituzten ikasleen gurasoen elkarteen federazioetako ordezkari bana, seira ailegatu arte, betiere federazio horiek Hezkuntza Departamentuko Elkarteen eta Federazioen Erroldan egon behar dutelarik.
- Irakasleen elkarteak eta sindikatuak.

2017-2018 ikasturtean aipatutako mahaia 2018ko maiatzaren 15ean bildu zen eta gai hauek jorratu zituen batez ere:

- Mahaiaren jarduerak antolatzea.
- Hezkuntza Departamenduaren azken plan estrategikoak aurkeztea.

  a. Lanbide Heziketaren Plan estrategikoa
  b. Aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa
  c. 2017-2021 hezkidetza plana- SKOLAE
  d. Eskola jazarpena prebenitzeko eta hartan esku hartzeko LAGUNTZA programa

### *4.13.5. Gurasoen federazioak eta konfederazioak*

2017-2018 ikasturtean ikasleen gurasoen federazioek eta konfederazioek egin dituzten jarduerarik esanguratsuenak ondoko tauletan jaso dira.

**171. taula: HERRIKOAk egindako jarduera nagusiak. 2017-2018**

| Jardueraren izena | Hartzaileak: |
|---|---|
| • Bere autoestimua hobetzen laguntzen<br>• Bullying-a<br>• Gatazkak kudeatzeko trebetasunak<br>• Arreta-arazoak<br>• Enpatia garatzeko estrategiak<br>• Dolua<br>• Gezurren arrazoiak<br>• Zer nahiko lukete zure seme-alaba nerabeek zuk jakitea?<br>• Haurren beldurrak<br>• Seme-alabak bereizten lagundu<br>• Haurren beldurrak<br>• Eskola-eguna<br>• Zuzendaritza batzordeen funtzionamendua<br>• Nire seme-alabak ez du jaten<br>• Amorrua eta haserrea kudeatzen<br>• Seme-alaben jarrerak hobetzen<br>• Gaizki-ulertuak<br>• Oinarrizko heziketa-sexuala<br>• Zer nahiko lukete zure seme-alaba nerabeek zuk jakitea?<br>• Hazteko denbora ematea<br>• Gure seme-alaba nerabeekin lanpetuta eta arduratuta<br>• Hezteko zailtasunak<br>• Haurren arteko jeloskortasuna<br>• Seme-alabei esan behar ez zaizkien esaldiak<br>• Familia IKTak baino lehen<br>• Emozioak kontrolatzeko semaforoa<br>• Komunikazioak elkarbizitzan duen eragina<br>• Heziketa emozionala<br>• Zer nahi dut nire seme-alabek ikastea nerabezaroaren aurretik?<br>• Eskola arrakasta sustatzen<br>• Bullyinga II<br>• Zergatik galtzen dugu pazientzia?<br>• Eskola-familia harremana<br>• Sentimenduei buruz hitzegitea<br>• Gatazkak<br>• Ardura garatzen<br>• Seme-alabei esan behar ez zaizkien esaldiak<br>• Taldearen presiori nola aurre egin<br>• Komunikazio trebetasunak<br>• Aiton-amona hezitzaileak | Guraso elkarteen eta familien prestakuntza |
| Zenbat ikastetxetara joan den: 68<br>Zenbat saio eman diren: 136<br>Emandako gaiak 40<br>Prestakuntzan parte hartu dutenak, guztira: 3.288<br>Prestakuntzako aurrez aurreko orduak: 204 | |
| Jardueraren izenburua:<br>HERRIKOAren parte-hartzea parte-hartze organoetan. | |
| Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueretan parte hartzea | HERRIKOAko zuzendaritzako 2 kide |
| Agerraldiak parlamentuan hezkuntza esparruarekin loturiko hainbat gaitarako | Junta Directiva de HERRIKOA |

| | |
|---|---|
| Beken batzordea, hezkuntza administrazioarekin | HERRIKOAko zuzendaritza batzordeko kide 1 |
| Hezkuntza itunen batzordea, hezkuntza administrazioarekin. | HERRIKOAko zuzendaritza batzordeko kide 1 |
| Eskolatze Batzorde Nagusia | HERRIKOAko zuzendaritza batzordeko kide 1 |
| Tuterako Eskolatze Batzordea | HERRIKOAko zuzendaritza batzordeko kide 1 |
| CEAPAren jardueretan parte hartzea | HERRIKOAko zuzendaritzako kideak |
| 0-3 Plataforma | HERRIKOAko zuzendaritzako kideak |
| Gurasoen Mahaia | HERRIKOAko zuzendaritzako 2 kide |
| Zuzezandaritza batzordearen bilerak | HERRIKOAko zuzendaritzako kideak |
| HERRIKOAko kideen batzarra | Gurasoen elkarteak |
| Liburuen batzordea, testuliburuen doakotasun | HERRIKOAko zuzendaritza batzordeko kide 1 |
| Prentsa oharrak eta prentsaurrekoak, hezkuntza gaien gainekoa | Hedabideak |

*Iturria: Herrikoa*

**172. taula: SORTZENek egindako jarduera nagusiak. 2017-2018**

| Jardueraren izena | Hartzaileak: |
|---|---|
| LOMCE eta Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailako kanpoko azterketak: hitzaldi informatiboak Iruñerriko 10 ikastetxe baino gehiagoko ordezkariekin | Gurasoak, irakasleak eta ikasleak |
| Hezkuntza subiranotasunari buruzko mahai-ingurua | Gizartea, oro har |
| LOMCE, eta DBH eta Batxilergoan duen eragina | Gurasoak, irakasleak eta ikasleak |
| D ereduko aurrematrikulazio-kanpaina, eremu ez-euskaldunean: hitzaldiak, bideoak, proiekzioak... | Eremu ez-euskaldunean D ereduan interesa duten gurasoak |
| D ereduko aurrematrikulazio-kanpaina Sakanan | Gizartea, oro har |
| D ereduko aurrematrikulazio-kanpaina | Gizartea, oro har |
| Irakaskuntza-sindikatuekin batera egindako dinamika, euskarazko eskaintza Lanbide Heziketara ere zabaltzeko | Gizartea, oro har |
| Jardunaldi jarraiari buruzko dinamika eta hausnarketa | Gurasoak eta ikasleak |
| “Haur eskolak euskaraz” dinamika | Gizartea, oro har, alderdi politikoak eta Nafarroako Gobernua |
| D ereduko gurasoen elkarteen koordinazioa | D ereduko gurasoen elkarteak |
| Iruñerriko ikastetxe bazkideekin hileroko bilerak | Guraso elkarteak eta ikasleak |
| Iruñeko Antoinutti parkean D ereduko eskolen aldeko jaia | Gizartea, oro har |
| Sakanako ikastetxeen topaketa Lakuntzan | Sakanako auzokideak |
| Eskola-jantokiari buruzko hausnarketa | Guraso elkarteak |
| Etxerako lanei buruzko tailerra. Gaiari buruzko txostenaren argitalpena. | Gurasoak eta ikasleak |
| Gurasoen eskolen katalogoaren prestaketa | Gurasoak, irakasleak eta ikasleak |
| Ikasle Euskaldun Eleaniztunak proiektuaren jarraipena, D ereduko Uharteko eskolan eta Ultzaman hasiera. | Gurasoak, irakasleak, ikasleak eta gizartea oro har |

*Iturria: SORTZEN*

**173. taula: FAPACENAk egindako jarduera nagusiak. 2017-2018**

| Jardueraren izena | Hartzaileak: |
|---|---|
| Familia-orientazioko ikastaroa: “Lehen urratsa” | Haur Hezkuntzako 1.mailako ikasleen gurasoak |
| Familia-orientazioko ikastaroa: “Lehen elkarrizketa” | Haur Hezkuntzako 2. eta 3.mailako ikasleen gurasoak |
| Familia-orientazioko ikastaroa: “Lehen erabakiak” | Lehen Hezkuntzako 1.mailako ikasleen gurasoak |
| Familia-orientazioko ikastaroa: “Nerabezaroaurrea” | DBH 2.mailako ikasleen gurasoak |
| Ongintzako afaria eta zozketa Eguberritan | Ikasleen gurasoak |
| Haur txokolatada | Haur Hezkuntzako ikasleen gurasoak |
| Miguel Postigoren hitzaldia: “Carta a mi hermano Chema” | Ikasleen gurasoak |
| Familien jaia | Ikasleen gurasoak |
| Familiako boluntariotza Profesionales Solidarios fundazioarekin eta Caritasekin | Ikasleen gurasoak |

*Iturria: FAPACENA*

**174. taula: Nafarroako CONCAPAk egindako jarduera nagusiak. 2017-2018**

| Jardueraren izena | Hartzaileak: |
|---|---|
| Estatuko eta Erkidegoetako eskola Kontseiluen topaketara joatea.<br>Pedro Baile Torrea Federazioko Presidentea eta Alfonso Aparicio Basauri batzordekidez han izan ziren | Estatu osoko Concapako presidenteak eta kideak. 2018ko apirila, Madril. |
| CONCAPAren XXXVI. Urteroko Familia Festa, Iruñeko kontzilio- Apaizgaitegian | Familiak eta herritarrak, oro har |
| AGEA NAFARROAK EMANDAKO HITZALDIAK. Asociación Grupo de Estudios de Actualidad. 2018 | |
| Amor de Dios ikastexea. Burlata<br><br>Hamar irizpide pertsona baliotsuak hezteko | Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko gurasoak. 2018ko otsaila<br>Hizlaria: Sebastián Cerro<br>Bertaratuak: 42 |
| La Anunciata ikastetxea. Tutera<br>Nola animatu seme-alabak irakur dezaten<br>Haurtzarotik nerabezarora. Erein biltzeko. | Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko gurasoak. 2018ko ilbeltza<br>Hizlariak: Jesús Mª Pastor eta Juan Pablo Sánchez, hurrenez hurren<br>Bertaratuak: 37 |
| Hijas de Jesús ikastetxea. Iruña<br>Trabak nerabezaroan: seme-alabek arazoak dituztenean<br>Nola animatu seme-alabak irakur dezaten | Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko gurasoak. 2018ko ilbeltza.<br>Hizlariak: Juan López Padilla eta Jesús Mª Pastor hurrenez hurren<br>Bertaratuak: 60 |

| | |
|---|---|
| Mater Dei ikastetxea. Aiegi<br>Nola eta zergatik animatu seme-alabak irakur dezaten<br>Hamar irizpide positiboan hezteko<br>Nerabeekiko eragozpenak: nola konpondu arazoak | Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko gurasoak. 2018ko ilbeltza.<br>Hizlariak: Jesús Mª Pastor, Sebastián Cerro eta Pedro Zarauza hurrenez hurren<br>Bertaratuak: 70 |
| Notre Dame ikastetxe. Burlata<br>Hamar irizpide pertsona baliotsuak hezteko<br>Arrakastaz hezi: nola batera egin askatasuna eta aginpidea | Gurasoak eta hezitzaileak. 2018ko otsaila.<br>Hizlariak: Sebastián Cerro eta Rubén Díez hurrenez hurren<br>Bertaratuak: 30 |
| Sagrado Corazón ikastetxe. Bera<br>Nola egin aurre eskola-jazarpenari<br>Nola hezi ohitura onetan<br>Familia, instituziorik balioetsiena? | Gurasoak eta hezitzaileak. 2018ko otsaila.<br>Hizlariak: Marcos García, Elena Gascón eta Antonio Moreno Almárcegui hurrenez hurren.<br>Bertaratuak: 50 |
| San Cernin ikastetxe. Iruña<br>Arrakastaz hezi: nola batera egin askatasuna eta aginpidea | Gurasoak. 2018ko martxoa.<br>Hizlaria: Sonia Rivas<br>Bertaratuak: 12 |
| San Francisco Javier ikastetxe. Tutera<br>Nerabezaroa eta eskola-arazoak<br>Gurasoen zeregina, seme-alaben eskola-arrakastaren gakoa | 2018ko martxoa.<br>Hizlariak: Francisco Remón eta Fernando Carbajo hurrenez hurren<br>Bertaratuak: 25 |
| BESTELAKO SAIOAK | |
| CONCAPAren Kontseilu Konfederala Madrilen. Nafarroako CONCAPAko batzordekideak bertaratu ziren | Lehendakaria eta Lehendakariordea bertaratu ziren. 2018ko martxoa eta ekaina |
| Bileretara bertaratzea: Eskola Kontseilua, Hezkuntzako Batzorde Orokorreko Komisioa, Gurasoen-mahaia eta Beken Komisioa. | Federazioko kideak. 2017ko urriaren eta 2018ko ekainaren artean |

*Iturria: Nafarroako CONCAPA*

### *4.13.6. Eskolatze Batzorde Nagusia*

Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusiaren osaera eta funtzioak maiatzaren 9ko 40/2011 Foru Dekretuak arautzen ditu (Nafarroako Eskolatze Batzorde Nagusia eta Tokiko Eskolatze Batzordeak sortu eta arautzen dituena).

Funtzioak 3. artikuluan arautzen dira eta osaera 4. artikuluan. Batzordea 16 pertsonak osatzen dute eta Hezkuntzako Zuzendari Nagusia du buru. Pertsona horiek udalerriak eta kontzejuak, ikastetxe publiko eta itunduetako zuzendariak, sindikatuak, sare publiko eta itunduko gurasoak eta Hezkuntza Departamentuko kideak ordezkatzen dituzte.

Eskolatze Batzorde Nagusiak aztertzen ditu ezarritako ohi eta ez ohiko epeetatik kanpo aurkezten diren eskolaz aldatzeko eskaerak, Kasu bakoitza banaka tratatzen da, eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin batera, eta erabakitzen da eskaria onartu edo ez. Erabaki hori interesdunei jakinarazten zaie ondoren, egoki jotzen dituzten lege-erabakiak har ditzaten.

2017-2018 ikasturtean batzordea sei aldiz bildu da: Irailaren 8an, abenduaren 22an, urtarrilaren 19an, otsailaren 13an, martxoaren 27an eta ekainaren 20an. Abenduaren 22ko, urtarrilaren 19ko eta otsailaren 13ko bileretan, Batzordeak onarpen-prozesua arautzen duen legediari buruzko informazioa jaso du.

Eskolatze-ikastetxea aldatzeko eskariak aztertu dira egin diren bilera guztietan: 31 eskari aztertu ziren iraileko bileran, 6 urtarrilekoan, 2 otsailekoan, 7 martxokoan eta 30 ekainekoan. Aztertutako 75 kasu horietako 53tan onartu egin zen eskatutako aldaketa (% 70). Askotariko

arrazoien bidez argudiatu dira aldaketa-eskaerak: sozioekonomikoak (negozioa ixtea, banatzea, langabezian geratzea...), familia-bizitzaren kontziliaziorako arazoak, epai judizialak, genero-indarkeria, gaixotasunak eta eskola-jazarpena.

Onartu ez diren kasuei dagokienez, horretarako kausa nagusiak izan dira eskatutako ikastetxean lekurik ez izatea (7 kasutan) eta aldaketa eskatzeko arrazoiak dokumentuen bidez ez justifikatzea (15 kasutan).

Halaber, batzordea arduratzen da hurrenkera alfabetikoa zehazteko zozketa egiteaz, onarpen-prozesuetan plazak esleitzeko beharrezkoa denean. 2018-2019 ikasturterako zozketa otsailaren 13ko bileran egin zen.

Aztertu diren eskola-jazarpen kasuetatik 6tan jazarritako ikaslea aldatu da eskolaz, eta 2tan, jazarlea. Gaiaren garrantzia eta gizartean duen eragina ikusita, Departamentuko bizikidetza-arloko arduradunekin eskola-bizikidetzari buruzko bilera berariazko bat egitea eskatu zen.

Martxoaren 27ko bileran Haur eta Lehen Hezkuntzako etapa bakoitzeko eskolatzearen emaitzen berri eman zitzaion Batzordeari. Ekainaren 20ko bileran DBHko eta Batxilergoko emaitzei buruzko informazioa eman zen. Azkenik, batzordearen lan-memoria irailaren 8ko bilerako gaien zerrendan sartu zen.

## *4.14. Europar Batasuneko hezkuntza-programak*

Erasmus+ 2014-2020 programa Europa 2020, Hezkuntza eta Prestakuntza 2020 eta Rethinking Education estrategien barnean kokatzen da, eta hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolaren gaineko ekimenak hartzen ditu barne. SEPIE (Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzua) arduratzen da Europako funtsak Espainian kudeatzeaz.

Hezkuntzaren alorrean, maila guztiak biltzen ditu: eskola, Lanbide Heziketa, goi mailako hezkuntza eta helduentzako prestakuntza. Erasmus+ programak Etengabeko Ikaskuntzarako Programako eta Nazioarteko Goi Mailako Hezkuntzako programak uztartzen ditu: Mundus, Tempus, ALFA, Edulink eta aldebiko programak eta, orobat, Gazteak Martxan Programa.

Programa berri hau ikaskuntza formal eta ez-formalean zentratzen da, Europar Batasuneko mugetatik harago, nazioartekotze bokazio argi batekin, beste herrialde batzuetara irekiz pertsonen hezkuntza eta prestakuntza gaitasunak hobetzeko helburuarekin, ikasleen, irakasleen eta langileen enplegagarritasuna handitzeko.

Erasmus+ programaren berritasun nagusietako bat da banakako ekimenak eta diru-laguntza desagertu egin direla, eta soilik izaera instituzionala izanen duela hemendik aurrera. Irakasleek ez dute dagoeneko prestakuntzarako europar laguntza banaka eskatuko. Aitzitik, ikastetxe edo erakunde bakoitzak eskatuko du, modu instituzionalean, eta eskaera horretan prestakuntza jasotzeko egokitzat jotzen dituen bere ikastetxeko irakasleak sartuko ditu, betiere beharren arabera.

**175. taula: Erasmus+ programa. 2017-2018**

| | EHPEAk* onartutako Eskaera kopurua | EHPEAk esleitutako zenbatekoa |
|---|---|---|
| ESKOLA IKASKETETAKO ETAPA | | |
| Irakasleen mugikortasunerako eta prestakuntzarako KA1 proiektuak | 6 | 104.084€ |
| KA2 elkarte estrategikoak | 8 | 488.261 |
| HELDUEN HEZKUNTZAKO ETAPA | | |
| Irakasleen mugikortasunerako eta prestakuntzarako KA1 proiektuak | 0 | |
| KA2 elkarte estrategikoak | 0** | |
| eTWINNING | | |
| Online senidetzeko proiektuak, EBko ikastetxeen artean | 77 proiektu aktiboak gaur egunean | Programa honek ez du inolako gasturik eragiten. Proiektuak online plataforma baten bidez egiten dira |

** Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzua (SEPIE)*

*** 1 dago itxaron-zerrendan eta baliteke 2018ko abenduaren 31a baino lehen ateratzea. Atera den eta diru-laguntza bat esleitu dioten baino ezinen da jakin.*

*Iturria: Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua*

Zenbait europar ekimen:

- Tempus

EBko herrialdeetako hezkuntza-sistemen eta -programen bikaintasunaren emaitza da. Beren goi mailako hezkuntza modernizatzeko beharra duten hirugarren herrialdeen hezkuntza-gaitasunak garatzen dituzten programak babesten ditu.

Tempus programa Ekialdeko Europako herrialdeetan, Mendebaldeko Balkanetan, Asia Erdialdean, Afrika Iparraldean eta Ekialde Ertainean garatzen da batez ere, eta programa horretako proiektuen eta neurri estrukturalen bidez, EBk hezkuntza-metodo berriak garatzen laguntzen, unibertsitate mailako hezkuntza erreforma bultzatzen edo Europako hezkuntza-sistemekiko bateratasuna sustatzen du.

- Erasmus Mundus

Erasmus Mundus Europar Batasunaren eta beste herrialde batzuen arteko goi mailako hezkuntzako koooperaziorako eta mugikortasunerako programa nagusienetako bat da egun.

Ikasten jarraitu nahi duten –bereziki, master bat edo doktorego bat eginez– gazteei zuzenduta dago. EBren kanpoko unibertsitateetan prestatzen jarraitu nahi duten gazte europarrek eta Europako unibertsitateetara etorri nahi duten Europaz kanpoko gazteek hartzen ahal dute parte.

Programak beste ildo batzuk ere baditu, adibidez, irakasleei zuzenduriko prestakuntza eta hezkuntza-kalitatea hobetzea.

- Europass

Dokumentuz osatutako txosten bat da eta, horren bidez, herritarrek modu argi eta sinplean ematen ahal dute beren bizitzan lortu dituzten gaitasunen, tituluen eta egiaztagirien berri. Hainbat herrialde eta sektoretan baliatzen ahal da.

- Europako Kontseiluaren Pestalozzi programa

Programa hau hezkuntza sisteman unibertsitatez kanpoko mailetan ari diren irakasle eta teknikariei bideratutako dago, hain zuzen ere, eskatutako tailer eta mintegiekin lotura duten gaiak lantzen dituztenei. Normalean, 3 eta 5 egun bitartekoak izaten dira jardunaldiak eta gai ugari jorratzen dira.

- Hizkuntzen Europako zigilua

"Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntzarako ekimen berritzaileentzako Europako zigilua". Batzordearen ekimen honek Batzordeak berak hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko duen interesa erakusten du; izan ere, Europaren benetako integrazioa erdiesteko ezinbestekoa dela sinesten du.

- Hizkuntzen Europar Portfolioa

Europako Batzordeak sustatu duen dokumentu pertsonal honek balio du hizkuntzak ikasten ari direnek edo ikasi dituztenek –eskolan edo eskolaz kanpo izan– hizkuntza- eta kultura-ikaskuntzaren inguruan bizi izan dituzten esperientziak erregistratu ahal izateko eta horiei buruzko hausnarketa egiteko.

- Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua (IHP)

"Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua egiteko Europako Baliabideak" ekimena Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuaren proposamen bat da. Autonomia erkidegoekin adostuta sortu zen eta bere xedea eleaniztasuna sustatzea eta hizkuntz-komunikazioari loturiko gaitasuna garatzea da.

- Bolonian Aditu diren pertsonen Espainiako Taldea (BET)

Goi-Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (GHEE) –batez ere *Bolonia Plana* izenez ezagun dena–sortzeko testuinguruan, unibertsitate kontuetan aditu diren pertsonek osatutako talde bat jarri zen martxan, Plan hori inplementatzea errazteko.

- European Shared Treasure (EST)

EST datu-basean Comenius, Grundtvig eta Leonardo da Vinci elkarteek egiten dituzten (eta derrigorrezko izaera duten) proiektu eta produktuak argitaratzen dira. Italiako Agentziak bilera bat deitu zuen gainerako agentziei datu-base berri honek nola funtzionatuko zuen azaltzeko.

- Erasmus+ Emaitzen Plataforma

Erasmus+ Emaitzen Plataforma Europako Batzordeak Eramus+ programarentzat diseinatu duen tresna bat da. Horretan, eraginari eta komunikazioari dagokienean emaitza bikainak lortuko dituzten proiektuen inguruko informazioa eta esperientziak jasotzen dira. Aipatutako plataformak proiektuen ikusgarritasuna areagotzen, emaitzak partekatzeko aukera ematen eta inspirazio-iturri gisa funtzionatzen du, eta hori gutxi balitz, beste proiektu batzuk sortzeko bazkideak aurkitzea ere errazten du.

- Kanpo-ebaluatzaileak eta -adituak

Aditu independentez osaturiko talde honek SEPIErekin elkarlanean dihardu Eramus+ programako ekintza deszentralizatuetako eta bere kudeaketa-esparrukoak diren beste ekimen

batzuetako eskaerak eta txostenak ebaluatzen.

**176. taula: Lanbide Heziketako Europako programak: “Leonardo Da Vinci” eta “Erasmus”**

| Ikastaroak | 2009/10 | 2010/11 | 2011/12 | 2012/13 | 2013/14 | 2014/15 | 2015/16 | 2016/17 | 2017/18 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Leonardo Da Vinci Programa* | | | | | | | | | |
| Ikasleak | 98 | 149 | 120 | 90 | 100 | | | | |
| Irakasleak | 6 | 6 | 6 | 6 | 6 | | | | |
| Erasmus y Erasmus+ Programa | | | | | | | | | |
| Ikasleak | 56 | 70 | 70 | 32 | 16 | 221 | 133 | 135 | 188 |
| Irakasleak | | | | | | 18 | 8 | 10 | 20 |
| POCTEFA (PyireneFP-Piremobv) Programa | | | | | | | | | |
| Ikasleak | | | | | 48 | 81 | 0 | 0 | 53 |
| Irakasleak | | | | | 4 | 5 | 0 | 0 | 9 |
| Beste Berrikiuntza Proiektuak edo jardunbide egokiak | | | | | | | | | |
| Nº proyectos | 2 | 3 | 5 | 5 | 4 | 4 | 3 | 3 | 3 |

**Programa hau Erasmus+ programa heltzearekin batera bukatu zen.*

*** Erasmus+ Esparru-programa honek irakaskuntza maila guztiak hartzen ditu: Eskolak, Lanbide Heziketa, Unibertsitateak eta Helduak. 2014-2015 urtean hasi zen, eta Nafarroan Leonardi Da Vinci eta Erasmus programetako onuradunak batu zituen.*

****Poctefa deritze Frantziarekin eginiko proiektu mugakideei eta Pirinioen inguruko eskualde guztiak hartzen dituzte.*

*Iturria: Berrikuntzaren, Enpresaren eta Lanbide Heziketa Nazioartekotzearen Atala*

# 5. ESKOLA-SISTEMAREN EMAITZAK

## *5.1. Hezkuntza-sistemara sartzea*

Eskolatzea edozein hezkuntza-sistemaren kalitatearen adierazleetan lehena da. Hezkuntzan txertatzea ezinbesteko baldintza da gizarteratzeko, eta eskolatze-prozesuaren emaitzak lehen erreferentea dira egiaztatzeko ea baliabideak eta sisteman abiarazitako hezkuntzako erabakiak egokiak diren. Laburbilduz, eskolatze-prozesua egokia bada, hezkuntza-sistemak hobetzeko aukera ematen du.

### *5.1.1. Eskolatze-prozesuaren emaitzak*

- ***Bilakaera orokorra***

Autonomia erkidego guztiak kontuan hartuta, araubide orokorreko irakaskuntzan sare publikokoan eskolatutako ikasleen proportzioa %67,3 da; gainera, handiagoa da Batxilergoan eta Lanbide Heziketan gainerako hezkuntza-etapetan baino, eta txikiagoa Haur Hezkuntzako 1. zikloan.

Edonola ere, autonomia erkidegoen artean handiak dira desberdintasunak. Erkidego batzuetan, eskolatze publikoaren ehunekoa %70 ingurukoa edo handiagoa da (Andaluzia, Asturias, Kanariak, Kantabria, Gaztela-Mantxa, Extremadura, Galizia, Murtzia), baina, beste batzuetan, %65 ingurukoa edo txikiagoa (Nafarroa, Madril, EAE).

**177. taula: Araubide orokorreko irakaskuntzan zentro publikoetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa, hezkuntza motaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2017-2018**

| | Guztira | Haur Hezkuntza, 1. zikloa | Haur Hezkuntza, 2. zikloa | Lehen Hezkuntza | DBH | Batxilergoa | LH HZ Oinarrizkoa | LH HZ Erdi-maila | LH Goi-maila | Beste hezkuntza-programa batzuk |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 67,3 | 51,0 | 67,4 | 67,8 | 65,6 | 74,5 | 75,9 | 72,7 | 71,9 | 70,4 |
| Nafarroa | 64,4 | 80,8 | 63,2 | 64,0 | 59,2 | 63,5 | 65,2 | 77,9 | 76,8 | 42,9 |

** Batxilergoan eta erdi mailako zein goi mailako heziketa-zikloetan, sistema presentziala eta urrutikoa sartu ditugu*
*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**1.eranskina**

- ***Prozesuaren arauketa***

Ikasleek hezkuntza-sistemara, harrera-prozesura eta eskolatzera ailegatzeko aukera izatea oso garrantzitsua da familientzat, bai eta hezkuntza-administrazioarentzat ere. Onartze-prozesua arau multzo batek erregulatzen du; arau horietan, prozedura, baldintzak eta epeak ezartzen dira, ikasleak hezkuntza-maila guztietan onartzeko: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.

Era berean, zenbait ikastetxetan eskainitako plazak baino eskabide gehiago egoten ahal direla aurreikusten bada, araututa daude aplikatu behar diren eskolatzeko lehentasunezko irizpideak (baremazioa) eta eskolatze-batzordeen osaera eta eginkizunak.

Taula honetan jaso ditugu plazen eskaintza eta eskaria erregulatzeko indarrean dauden lehentasunezko irizpideak.

**178. taula: Eskolatze-prozesuaren arauketa**

| Irizpideak | |
|---|---|
| Ikastetxean anai-arrebak matrikulaturik izatea edo guraso nahiz legezko tutoreren batek ikastetxean lan egitea | Ikastetxean lehen anaia edo arreba: 4 puntu.<br>Gainerako anaia edo arreba bakoitzarengatik: Puntu bat.<br>Gurasoak edo legezko tutoreak: 4 puntu. (Irizpide hau aplika daiteke ikastetxean matrikulaturiko anai-arrebenaren ordez). |
| Gurasoren baten edo legezko tutoreen bizilekura edo lantokira hurbiltasuna | Ikaslearen bizitokia ikastetxearen eragin eremuaren barnean baldin badago: 4 puntu.<br>Ikaslearen bizitokia ikastetxearen eragin eremuaren mugatik hurbilekoa bada: 2 puntu.<br>Ikaslea beste eremu batean bizi baldin bada: 0 puntu.<br>Ikastetxeko eragin eremuan lan eginez gero: 4 puntu. (irizpide hau aplika daiteke, bizitokiarenaren ordez). |
| Familia unitatearen urteko errentak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga Aitorpeneko likidazio oinarria(k) | Lanbide arteko gutxieneko soldataren parekoak edo hortik beherakoak: 1,5 puntu.<br>Lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorakoak eta soldata horren bikoitzaren parekoak edo hortik beherakoak: 0,5 puntu.<br>Lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitzetik gorakoak: 0 puntu. |
| Matrikula egin duen pertsonak desgaitasunen bat izatea, edota bere guraso edo anai-arrebetako batek. | Ikaspostua eskatzen duen ikasleak desgaitasuna badu: 2 puntu.<br>Guraso edo anai-arrebetako batek desgaitasuna badu: 0,5 puntu. |
| Familia ugariaren izaera aitortua | Familia ugariaren izaera aitortua: puntu 1 |
| Ikaslearen ikasketa-espedientea (Batxilergoa eta erdi- eta goi-mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloak). | Batxilergoa eta Erdi Maila: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasitako arlo eta irakasgai guztietako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa.<br>Goi-mailako heziketa-zikloetarako sarbidea: Batxilergoko kalifikazioak.<br>Erdi- eta goi-mailarako sarbide-proba: sarbide-proban lortutako kalifikazioa. |
| Irizpide osagarria | Ikastetxe bakoitzaren organo eskudunak 0,5 puntu emanen dio eskatzaileari, zeinen helbidea, eskatutako lehen zentrutik distantzia, Ebazpenean finkatutakoa kontuan hartuz, berdina edo motzagoa baldin eta bada, kontuan hartuz, eskatzailearen helbide-hurbiltasuna, 2017ko urtarrilaren 1a baino lehen egina egotea. |

*Iturria: Ikuskaritza Zerbitzua*

### *5.1.2. Araubide orokorreko irakaskuntzetan eskolatutako ikasleak*

- ***Zifra orokorrak***

Nafarroako hezkuntza-sisteman, 2014-2015 eta 2017-2018 ikasturteen arteko aldian, araubide orokorreko ikasketetan eskolaturiko ikasleen kopuruak gora egin du ikasturte guztietan. 2017-2018 ikasturtean ere kopurua zertxobait igo da eta 108.114 ikaslera ailegatu da (aurreko ikasturtean baino 1.561 gehiago eta 2014-2015 ikasturtean baino 3.770 gehiago).

**152. grafikoa: Eskola-matrikularen bilakaera orokorra Nafarroan**




*Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa*

Nafarroako ikasleak etapaka nola banatuta dauden begiratuz gero, ikusiko dugu banaketa hori egonkor mantendu dela azken ikasturteetan. Hala, Lehen Hezkuntzan guztizkoaren %39 eskolatzen dira, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, %25.

**153. grafikoa: Ikasleen portzentajezko banaketa, hezkuntzako etaparen arabera. 2017-2018**




*Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa*

Ez da gorabeherarik izan azken urteetan sare publikoan edo pribatu itunduan eskolatuta egotearen araberako banaketan; 2017-2018 ikasturtean 69.108 izan dira sare publikoan eta 39.006 pribatu itunduan. Azken bost urteetan sare-publikoko matrikulek eskolatze osoaren % 64 inguru hartu izan dute eta pribatu itundukoek, berriz, %36 inguru.

**154. grafikoa: Eskola-matrikularen bilakaera orokorra Nafarroan, ikastetxe motaren arabera**




*Iturria: Ikuskaritza Zerbitzua*

**2.eranskina**

Ikasleen portzentajezko banaketa sareen eta hezkuntza-etaparen arabera eginez gero, joera bera ikusiko da banaketa osoan, Lanbide Heziketan izan ezik; horretan, sare-publikoko ikastetxeetan eskolatzen den ehunekoa nabarmen handiagoa da.

**155. grafikoa: Ikasleen ehunekoaren banaketa, hezkuntza-sareen eta ikastetxeen titulartasunaren arabera. 2017-2018**




*Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa*

Ikasleen banaketa desberdina da hiri-ingurunea aldagaitzat hartzen badugu (9.000 biztanletik gorako herriak). Kasu honetan, sare publikoan eskolatutakoen proportzioa jaitsi egiten da eta, beraz, proportzionalki hazi itunpeko ikastetxe pribatuetara joaten direnena.

Hiri-inguruei dagokienez, proportzionalki, ikasle gehiago eskolatzen dira sare publikoan Tuteran (%66,15) eta Tafallan (%59,27), Iruñerrian (%55,55) eta Lizarran (%50,27) baino.

**156. grafikoa: Hiri-inguruneko (>9.000 biztanle) ikastetxe publikoetan eta itunduetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa. 2017-2018**




**Iruñerriak barne hartzen ditu: Iruña, Burlata, Atarrabia, Uharte, Barañain, Zizur, Antsoain, Berriozar, Aranguren, Orkoien, Noain eta Eguesibar.*
*Iturria: Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzua*

**3.eranskina**

- ***Hizkuntza-ereduak***

Txosten honetan, aurrekoetan bezala, Atzerriko Hizkuntzak Ikasteko Programak (AHIP) hizkuntza-eredu berariazkotzat hartu dira.

Zehaztu behar da D ereduan irakasgai dela Gaztelania, eta eredu guztiek (A, B, D, G) aukera ematen dutela zenbait programa eleanitzetan parte hartzeko; programa horietan atzerriko hizkuntzak hainbat mailatan dira komunikazio-hezkuntza.

Ikasleen banaketak ez du gorabehera handirik izan azken ikasturteetan, hizkuntza-ereduei dagokienez. Hala, G ereduan (gaztelaniazkoa) ikasleen %60 daude, gutxi gorabehera; D ereduan (euskarazkoa) %24; A ereduan (gaztelaniaz, euskara irakasgaiarekin) %14 eta B ereduan (euskaraz eta gaztelaniaz proportzio bera) %0,20.

**157. grafikoa: Ikasleen bilakaera, hizkuntza-ereduen arabera**




*Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa*

**158. grafikoa: Ikasleen banaketa, hizkuntza-ereduen arabera. 2017-2018**




*Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa*

4.eranskina

- **Hizkuntza-ereduetako aldaketak**

Nafarroako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan euskara sartzea eta erabiltzea arautzen duen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak ezartzen du hizkuntza-eredu honetan ikasten duten edo euskara irakasgai modura ikasten hasten diren ikasleek eredu horretan ikasten jarraitu beharko dutela eskolaldi osoan. Aldaketak egin behar izanez gero, eskatu egin beharko dira, eta horiek onartu edo ezetsi eginen dira, erregelamenduz xedatutakoaren arabera.

Hezkuntzako kontseilariak emandako ekainaren 1eko 89/2010 Foru Aginduak irakaskuntzako hizkuntza ereduetako aldaketak arautzen ditu. Otsailaren 27ko 25/2013 Foru Aginduak aurrekoa osatzen du. Aipatu behar da komenigarria litzatekeela araudi hori eguneratzea eta errealitatera egokitzea.

2017-2018 ikasturtean guztira 1.528 aldaketa baimendu ziren. Aldaketen arrazoiak askotarikoak dira, baina gehienbat, hezkuntza-sisteman programa eleanitzak sartzeari, etapa, etxebizitza edo ikastetxea aldatzeari edota ikasteko zailtasunei lotuta daude, nahiz eta kontrakoari lotuta ere egoten ahal diren; hau da, hizkuntzak ikasteko gaitasun handiari edo espediente ona izateari.

Gaineratu behar da azken ikasturtean eremu euskaldunean 23 ikasle salbuetsi direla euskara ikastetik, gai hori arautzen duen abenduaren 27ko 299/1988 Foru Dekretuari jarraituz.

**179. A taula: Hizkuntza-eredua aldatu duten ikasleen bilakaera**

| | 2013/14 | 2014/15 | 2015/16 | 2016/17 | 2017/18 |
|---|---|---|---|---|---|
| Eremu euskalduna | 40 | 69 | 65 | 56 | 82 |
| Eremu mistoa | 1030 | 1009 | 960 | 999 | 1049 |
| Eremu ez-euskaduna | 626 | 595 | 530 | 553 | 397 |
| Guztira | 1.696 | 1.673 | 1.555 | 1.608 | 1.528 |
| A eredutik Geredura | 1.412 | 1.357 | 1267 | 1.206 | 1.107 |
| G eredutik A eredura | 130 | 135 | 137 | 225 | 252 |
| A/G eredutik D eredura | 14 | 19 | 14 | 59 | 37 |
| D/B eredutik G eredura | 36 | 63 | 48 | 47 | 37 |
| D/B eredutik A eredura | 89 | 92 | 75 | 64 | 78 |
| D eredutik B eredura edo B eredutik D | 14 | 5 | 11 | 7 | 13 |
| A eredutik B eredura edo B eredutik A eredura | 1 | 2 | 3 | 0 | 4 |

*Iturria: Euskara Atala-EDUCA*

**179. B taula: Hizkuntza-eredua aldatu duten eta berandu sartu diren ikasleen bilakaera**

| | 2017/18 |
|---|---|
| Atik Dra | 2 |
| Atik A PAIra | 6 |
| Atik Gra | 4 |
| Atik G PAIra | 6 |
| Atik G Brera | 1 |
| Gtik Ara | 1 |
| Gtik G PAIra | 25 |
| GtikG Brera | 3 |
| Dtik A PAIra | 4 |
| Dtik D PAIra | 1 |
| A PAItik Ara | 3 |
| A PAItik Gera | 1 |
| A PAItik G PAIra | 4 |
| A PAItik Dera | 1 |
| A PAItik A-S.Bil.In.era | 1 |
| G PAItik Gera | 14 |
| G PAItik G Brera | 3 |
| G PAItik Ara | 4 |
| G PAItik A PAIra | 1 |
| D PAItik Dera | 3 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

- ***Haur Hezkuntzako lehen zikloa***

Hezkuntza arloan gaurkotasun eta garrantzi handia duen gai bat Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolatzeari buruzkoa da. Begi bistakoa da eskaerak gora egin duela 0-3 urteko ikasleentzako kalitatezko hezkuntza-zerbitzuei dagokienean.

0-3 bitarteko eskolatze-tasa garbien profilak oso desberdinak dira autonomia-erkidego batetik bestera. Euskadikoa eta Madrilekoa dira tasarik handienak; Kanarietakoa eta Murtziakoa, aldiz, txikienak. Nafarroan, 0-2 urte arteko eskolatzearen ehunekoa % 25,3koa da, eta haur horien gehiengoa titulartasun publikoko ikastetxeetara joaten da (% 80,9).

**180. taula: 0, 1 eta 2 urteko haurren eskolatze-tasa garbiak, eta adin horietako ikasleen banaketa, ehunekoetan, ikastetxearen titulartasunaren arabera*. 2015-2016**

| | Eskolatze-tasa garbia | | | | Lehen zikloko ikasleen ehunekoa (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 0-2 urte | 0 urte | 1 urte | 2 urte | Ikastetxe publikoak | Ikastetxe pribatuak |
| Espainia | 34,8 | 10,1 | 36,7 | 57,2 | 51,4 | 48,6 |
| Nafarroa | 25,3 | 7,4 | 28,9 | 39,1 | 80,9 | 19,1 |

*Iturria: «Las cifras de la educación en España», 2018ko argitalpena. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**5.eranskina**

Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe publikoen kopuruak eta horien banaketak ezaugarri berariazkoak dituzte Nafarroan. Nabarmentzekoa da, arrazoi demografikoak tarteko, Iruñearen eta Iruñerriaren garrantzia, guztira 40 ikastetxe baitaude, eta Erriberarena, 31 ikastetxe daudelako.

**181. taula: 0-3 urtekoentzako ikastetxe publikoak, eskualdearen arabera, 2017-2018 ikasturte**

| Eskualdea | Ikastetxe kopurua | Betetako unitate kopurua | Ikaspostu kopurua | | Ikaspostu beteak/ Eskainitako ikaspostuak % | HPBko unitatea | Estaldura* % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Eskaini-takoak | Ikaspostu beteak | | | |
| Pirinioak | 6 | 13 | 213 | 116 | 54,46 | 0 | 78,60 |
| Sakana-Bidasoa | 11 | 33 | 571 | 334 | 58,49 | 6 | 54,43 |
| Iruña | 17 | 122 | 1.417 | 1.246 | 87,93 | 28 | 28,24 |
| Iruñerria | 23 | 133 | 1.869 | 1.488 | 79,61 | 14 | 32,37 |
| Lizarrako eskualdea | 5 | 14 | 203 | 141 | 69,46 | 0 | 32,48 |
| Tafallako eskualdea | 6 | 20 | 326 | 193 | 59,20 | 0 | 50,70 |
| Erriberagoiena | 15 | 49 | 836 | 503 | 60,17 | 4 | 64,36 |
| Erriberabarrena | 16 | 80 | 1.111 | 857 | 77,14 | 8 | 45,89 |
| Guztira | 99 | 464 | 6.546 | 4.878 | 74,38 | 60 | 38,31 |

** Dauden 0-3 urteko biztanleen arabera.*
*Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala*

Hezkuntza-baimena duten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe pribatu itunduei dagokienez, Iruñekoen eta Iruñerrikoen kopurua nabarmen handia da, 17tik 13 baitaude bertan eta Nafarroako beste eskualde askotan, ordea, ez dago halakorik.

**182. taula: 0-3 urtekoentzako ikastetxe pribatu itunduak, eskualdearen arabera. 2017-2018**

| Eskualdea | Ikastetxe kopurua | Baimendutako ikaspostu kop. | Betetako ikaspostu kop. |
|---|---|---|---|
| Pirinioak | 1 | 25 | 10 |
| Sakana-Bidasoa | 4 | 184 | 109 |
| Iruña | 6 | 196 | 173 |
| Iruñerria | 7 | 460 | 371 |
| Lizarrako eskualdea | 1 | 50 | 25 |
| Tafallako eskualdea | 0 | 0 | 0 |
| Erriberagoiena | 1 | 39 | 33 |
| Erriberabarrena | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 20 | 954 | 721 |

*Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala*

Diru publikoz sostengatzen diren 0-3 ikastetxeen kopurua egonkor mantendu da 2010-2017 aldian. Eskainitako plaza kopuruari dagokionez, 6.500 plaza inguru daude.

**183. taula: Ikastetxeen eta plazen bilakaera, 0-3 urte bitarteko etapan**

| | 10-11 | 11/12 | 12/13 | 13/14 | 14/15 | 15/16 | 16/17 | 17/18 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Diru publikoz ari diren ikastetxeak | 98 | 102 | 102 | 101 | 100 | 99 | 99 | 101 |
| Diru publikoz ari diren ikastetxeak dituzten udalerriak | 69 | 73 | 74 | 74 | 74 | 75 | 76 | 78 |
| Eskainitako ikaspostu kopurua, guztira | 6.473 | 6.399 | 6.571 | 6.600 | 6.519 | 6.521 | 6.502 | 6.546 |

*Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala*

- ***Batxilergoa***

Batxilergoko ikasle kopuruak (8.572) antzeko balioak izan ditu joan den urtearekin (8.472) alderatuta. Modalitate batzuek gora egin dute (Zientzia eta Teknologia eta Arte Eszenikoak) eta beste batzuek berriz, behera (Giza eta Gizarte Zientziak, Arteak).

**159. grafikoa: Batxilergoko ikasleen bilakaera modalitateen arabera**




*Iturria: Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzua*

**6.erans kina**

- ***Lanbide Heziketa***

Erdi Mailako eta Goi Mailako Zikloetako ikasle kopurua etengabe handituz joan da 2010etik, eta maximoa azken ikasturtean (2017-2018) erregistratu zen, 9.340 ikaslerekin. 2010-2011tik 2017-2018ra arteko aldiari erreparatuta, ikusiko dugu Goi Mailako Zikloetan gertatu den hazkundea (%50,71) nabarmenagoa izan dela Erdi Mailako Zikloetan izan dena (%32,61) baino.

**160. grafikoa: Matrikularen bilakaera Lanbide Heziketan: Erdi maila eta Goi maila**




**Matrikulei loturiko zifrak ikasketa hauetako ikasleei dagozkie: Lanbide Heziketako heziketa-zikloak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide-ikasketak eta Kirol Ikasketak*
*Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala*

**7.erans kina**

Erdi Mailako eta Goi Mailako ikasleen banaketa oso desorekatua da sexuaren arabera. Lanbide-arlo jakin batzuetan, besteak beste, "Irudi pertsonala", "Gizarte eta Kultur Zerbitzuak" eta "Osasuna" arloetan, emakumezko ikasleak dira nagusi. Beste lanbide-arlo batzuetako zikloetan, aldiz, gizonak dira gehiengo: "Elektrizitatea eta Elektronika"; "Energia eta Ura"; "Fabrikazio Mekanikoa"; "Erauzketa Industriak"; "Instalazioa eta Mantentze-lanak"; "Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxogintza"; "Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak"; eta "Kirol Irakaskuntzak". Zenbait lanbide-arlotan oreka handiagoa dago emakumeen eta gizonen artean: "Merkataritza eta Marketina", "Kimika", "Ostalaritza eta Turismoa", "Arte Plastikoak eta Diseinua" eta "Administrazioa eta Kudeaketa".

**161. grafikoa: Matrikularen datuak, sexuaren arabera. 2017-2018**




*Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala*

**8.eranskina**

**162. grafikoa: Ikasleen ehunekoa, zikloka banatuta eta sexuaren arabera bereizita. Guztizko partzialak. 2017-2018**




*Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala*

**9.eranskina** **10.eranskina**

Oinarrizko Lanbide Heziketan eta Lanbide Lantegietan 267 ikasle gehiago daude 2010etik; hortaz, %29 hazi da kopurua eta 1.180 ikasleko gehienekora ailegatu da azken urtean (2017-2018).

**163. grafikoa: Matrikularen bilakaera Lanbide Heziketan: Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak (HLKP), Oinarrizko Lanbide Heziketa (OLH) eta Lanbide Lantegiak (LL)**




** 2014-2015 ikasturtean, Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programen ordez, Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Lanbide Lantegiak jarri ziren. 2014-2015 ikasturteko HLKPko ikasleak bat datoz bi ikasturteko iraupena duten HLKPko 2. zikloko ikasleekin.*
*** 2015-2016 ikasturtetik aurrera, Oinarrizko Lanbide Heziketako eta Lanbide Lantegietako zikloetako ikasleak soilik daude.*
*Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala*

11.eranskina

**164. grafikoa: Oinarrizko Lanbide Heziketako eta Lanbide Lantegietako ikasleen ehunekoa, lanbide-arloka banatuta eta sexuaren arabera bereizita. 2017-2018**




*Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala*

12.eranskina

**184. taula: Matrikularen bilakaera Lanbide Heziketan: Hasierako Lanbide Prestakuntza Bereziko Programa (HLPBP) eta Lanbide Heziketa Bereziko zikloak (LHB). 2012-2017**

| | 2012/13 | 2013/14 | 2014/15 | 2015/16* | 2016/17 | 2017/18 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| HLPBP | 197 | 199 | 205 | | | |
| LHB | | | | 200 | 217 | 234 |
| Guztira | 197 | 199 | 205 | 200 | 217 | 234 |

** 2015-2016 ikasturtetik aurrera, Hasierako Lanbide Prestakuntza Bereziko Programen ordez, Lanbide Heziketa Bereziko zikloak jarri dira. Lanbide Heziketa Bereziko 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteetako ikasleen barnean HLPBP egiten ari diren azken ikasleak ere sartzen dira.*
*Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala*

Lanbide Heziketa berezian 37 ikasle gehiago daude 2012tik; hortaz, %18 hazi da kopurua eta 234 ikasleko gehienekora ailegatu da azken urtean (2017-2018).

Lanbide Heziketa Bereziko ikasleen banaketa sexuka eginda, desberdintasun handiak ikusiko ditugu Lanbide Heziketako lanbide-arlo batetik bestera. "Nekazaritza" eta "Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxogintza" lanbide-arloak ikasten dituzten gehienak gizonak dira, eta "Ostalaritza eta Turismoa" ikasten duten gehienak, emakumeak. Zenbait lanbide-arlotan oreka handiagoa dago emakumeen eta gizonen artean: "Gorputz eta Kirol Jarduerak", "Administrazioa eta Kudeaketa", "Merkataritza eta Marketina", "Elikagaien industriak eta Osasuna".

**165. grafikoa: Lanbide Heziketa Bereziko ikasleen ehunekoa, lanbide-arloka banatuta eta sexuaren arabera bereizita. 2017-2018**




*Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala*

**13.eranskina** **14.eranskina**

- ***Hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleak***

Zerrenda honetan jasotako ezaugarrietakoren bat dutela-eta hezkuntza-arreta arruntaz bestelako atentzioa behar duten ikasleek osatzen dute talde hori:

- Desgaitasun baten edo jokabidearen nahasmendu larri baten ondoriozko hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak.
- Adimen-gaitasun handiko ikasleak.

- Berandu txertatutako edo baldintza pertsonalak edo eskola-historiakoak dituzten ikasleak
- Berariazko ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak (diskalkulia, dislexia, arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua...).

2017-2018 ikasturteko datu orokorrak egun indarrean dagoen legezko sailkapenari jarraituz adierazi dira eta, hortaz, ez da posible aurreko ikasturteekin alderatzea.

**166. grafikoa: Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen datu orokorrak, hezkuntza-etaparen arabera. 2017-2018**




*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

15.erans kina

Ikastetxe espezifikoetan, lehentasunezko integrazioko zentroetan eta ikastetxe arruntetako Garapenaren Nahasmendu Orokorreko (GNO) ikasgeletan eskolatutako ikasleei dagokienez, urtetik urterako aldaketak ageri dira tauletan.

**185. taula: Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen eskolatzearen bilakaera ikastetxe espezifikoetan, etaparen arabera. 2011-2018**

| Ikasturtea | Etapa | Ikastetxe publikoak | Ikastetxe pribatuak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| 2011/2012 | Haur Hezkuntza | 72 | 89 | 161 |
| | Lanbide Heziketa | 44 | 9 | 53 |
| | Guztira | 116 | 98 | 214 |
| 2012/2013 | Haur | 89 | 81 | 170 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Hezkuntza | | | |
| | Lanbide Heziketa | 99 | 96 | 195 |
| | Guztira | 188 | 177 | 365 |
| 2013/2014 | Haur Hezkuntza | 92 | 98 | 179 |
| | Lanbide Heziketa | 120 | 95 | 204 |
| | Guztira | 212 | 171 | 383 |
| 2014/2015 | Haur Hezkuntza | 101 | 98 | 199 |
| | Lanbide Heziketa | 120 | 91 | 211 |
| | Guztira | 221 | 189 | 410 |
| 2015/2016 | Haur Hezkuntza | 4 | 17 | 21 |
| | DOH | 88 | 93 | 181 |
| | Lanbide Heziketa | 47 | 17 | 64 |
| | BHIP | 10 | 18 | 28 |
| | Guztira | 149 | 145 | 294 |
| 2016/2017 | Haur Hezkuntza | 16 | 2 | 18 |
| | DOH | 87 | 94 | 181 |
| | Lanbide Heziketa | 18 | 45 | 63 |
| | BHIP | 16 | 12 | 28 |
| | Guztira | 137 | 153 | 290 |
| 2017/2018 | Haur Hezkuntza | 10 | 2 | 12 |
| | DOH | 100 | 96 | 196 |
| | Lanbide Heziketa | 22 | 46 | 68 |
| | BHIP | 12 | 13 | 25 |
| | Guztira | 144 | 157 | 301 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

**186. taula: Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzearen bilakaera, lehentasunezko integrazioko ikastetxeetan eta ikastetxe arruntetako Garapenaren Nahasmendu Orokorreko (GNO) ikasgeletan eta Ikasgela Alternatiboetan. 2015-2018**

| | | 2015/2016 | | | | | 2016/2017 | | | | | 2017/2018 | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | HH | | LH | | Guzt. | HH | | LH | | Guzt. | HH | | LH | | Guzt. |
| | | G | E | G | E | | G | E | G | E | | G | E | G | E | |
| Publikoak | GNOen ikasgelak ikastetxe arruntetan | 5 | 1 | 28 | 9 | 43 | 8 | 1 | 25 | 8 | 42 | 9 | 3 | 24 | 9 | 45 |
| | Lehentasunez eskolatzeko zentroak | 1 | 0 | 9 | 6 | 16 | 2 | 0 | 6 | 7 | 15 | 1 | 0 | 6 | 5 | 12 |
| Itunduak | GNOen ikasgelak ikastetxe arruntetan | 1 | 2 | 34 | 15 | 52 | 1 | 0 | 32 | 17 | 50 | 3 | 1 | 31 | 16 | 51 |
| Guztira | | 7 | 3 | 71 | 30 | 111 | 11 | 1 | 82 | 46 | 140 | 13 | 4 | 61 | 30 | 108 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

**187. taula: Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzearen bilakaera ikastetxe arruntetako ikasgela alternatiboetan. 2015-2018**

| | | | 2015/16 | 2016/17 | 2017/18 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ikastetxe publikoak | Haur H. | G | 2 | 1 | |
| | | E | 2 | | |
| | DOH 1 | G | 11 | 10 | 9 |
| | | E | 7 | 8 | 4 |
| | DOH 2 | G | 5 | 8 | 8 |
| | | E | 5 | 6 | 7 |
| Ikastetxe pribatuak | Haur H. | G | | | |
| | | E | | | |
| | DOH 1 | G | | | |
| | | E | | | |
| | DOH 2 | G | | | 2 |
| | | E | | | |
| Guztira | | | 32 | 33 | 30 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, 2017-2018 ikasturtean ikastetxe arruntetan eskolatu diren hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak batez ere sare publikoan matrikulatu dira.

**167. grafikoa: Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen eskolatzea ikastetxe arruntetan, zentroen titulartasunaren arabera. 2017-2018**




*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

16.eranskina

Bestalde, badaude hizkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen eskolatzeari buruz gehiago jakiteko beste hurbilketa modu batzuk, adibidez, begiratzen ahal dira hizkuntza-eredu bakoitzean zer zati hartzen duten, sexua aldagaia, sisteman berandu sartu direnen kopurua edo zer errealitate duten Nafarroako gune bakoitzean. Informazio hori ondoko taulan ageri da.

Hezkuntza premia bereziak, gaitasun handia edo ikasteko aparteko zailtasunak dituzten ikasle gehienak gizonezkoak dira.

**188. taula: Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen eskolatzea ikastetxe arruntetan, hizkuntza-ereduaren, titulartasunaren eta sexuaren arabera. 2017-2018**

| | Titulartasuna | Sexua | Hekuntza-premia bereziak dituzten ikasleak | Adimen-gaitasun handiko ikasleak | Hezkuntza-sisteman berandu sartu diren ikasleak edo ez-ohiko baldintza espezifikoak | Ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A eredua | Publikoak | G | 48 | 20 | 471 | 189 |
| | | E | 29 | 5 | 440 | 102 |
| | Itunduak | G | 26 | 17 | 160 | 118 |
| | | E | 17 | 3 | 166 | 65 |
| B eredua | Publikoak | G | | | | |
| | | E | | | 1 | |
| | Itunduak | G | 5 | 1 | 17 | 8 |
| | | E | 6 | | 14 | 4 |
| D eredua | Publikoak | G | 231 | 11 | 598 | 871 |
| | | E | 120 | 2 | 535 | 503 |
| | Itunduak | G | 52 | 1 | 32 | 201 |
| | | E | 21 | | 25 | 114 |
| G eredua | Publikoak | G | 564 | 32 | 3.495 | 1.432 |
| | | E | 336 | 12 | 3.121 | 595 |
| | Itunduak | G | 359 | 56 | 1.115 | 1.297 |
| | | E | 202 | 34 | 1.108 | 757 |
| Programak atzerriko hizkuntzetan | Publikoak | G | 374 | 73 | 3.094 | 926 |
| | | E | 152 | 32 | 3.273 | 444 |
| | Itunduak | G | 112 | 21 | 282 | 325 |
| | | E | 52 | 4 | 252 | 118 |
| Guztira | | | 2.706 | 407 | 18.199 | 8.069 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten eta ikastetxe arruntetan eskolatuta dauden ikasleek Nafarroako eskualdeetan duten banaketa taula honetan aurkeztutako ereduei jarraituz egin da.

**189. taula: Ikastetxe arruntetan eskolatuta dauden eta hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak, eskualdearen arabera. 2017-2018**

| Eskualdea | Hekuntza-premia bereziak dituzten ikasleak | | Adimen-gaitasun handiko ikasleak | | Hezkuntza-sisteman berandu sartu diren ikasleak edo ez-ohiko baldintza espezifikoak | | Ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoak | Itunduak | Publikoak | Itunduak | Publikoak | Itunduak | Publikoak | Itunduak |
| Altsasu-Irurtzun | 98 | 41 | 13 | 3 | 438 | 42 | 317 | 59 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Agoitz-Irunberri | 47 | 3 | 5 | | 230 | 9 | 187 | 10 |
| Baztan-Bidasoa | 72 | 6 | 21 | | 163 | 47 | 231 | 14 |
| Lizarra-San Adrián | 195 | 54 | 17 | 8 | 1.793 | 201 | 454 | 172 |
| Tafalla-Martzilla | 199 | 12 | 18 | 4 | 1.638 | 134 | 526 | 114 |
| Iruña | 968 | 672 | 138 | 109 | 7.387 | 2.087 | 2.704 | 2.418 |
| Iruñerria | 29 | 7 | 4 | | 132 | 58 | 105 | 41 |
| Tutera | 246 | 57 | 42 | 25 | 3.247 | 593 | 538 | 179 |
| Guztira | 1.854 | 852 | 258 | 149 | 15.028 | 3.171 | 5.062 | 3.007 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

Atal honekin bukatzeko, ikasleen matrikula adierazi da, ikastetxe publiko eta itunduetan, modalitate hauetan: Curriculum Egokituko Programan (CEP), Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programan (IEHP), eta Curriculum Bereziko Unitatean (CUB).

**190. taula: Ikastetxe publikoetako eta pribatuetako matrikulak CEP, IEHP eta CBU modalitateetan. 2017-2018**

| Ikastetxe mota | CEO | | 2. IEHP | | 3.IEHP | | CUB | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ik. | Tald. | Ik. | Tald. | Ik. | Tald. | Ik. | Tald. |
| Ikastetxe publikoak, guztira | 51 | 6 | 266 | 29 | 389 | 35 | 183 | 32 |
| Ikastetxe pribatuak, guztira | 18 | 2 | 43 | 5 | 58 | 4 | 70 | 9 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

**17.eranskina** **18.eranskina**

**191. taula: CEPen matrikulatutako ikasleak, irabazi-asmorik gabeko erakundeetan. 2017-2018**

| | CEO | |
|---|---|---|
| | Ikasleak | Taldeak |
| Guztira | 88 | 11 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

**19.eranskina**

**192. taula: CBUko unitateen eta ikasleen bilakaera. 2010-2018**

| | CUBeko unitate kopurua | | Ikasleak | | CUBeko unitateak, guztira | CUBeko ikasleak, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoak | Itunduak | Publikoak | Itunduak | | |
| 2010/11 | 27 | 7 | 142 | 41 | 34 | 183 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2011/12 | 27 | 8 | 140 | 52 | 32 | 192 |
| 2012/13 | 28 | 9 | 145 | 59 | 37 | 204 |
| 2013/14 | 30 | 9 | 158 | 57 | 39 | 215 |
| 2014/15 | 30 | 10 | 170 | 61 | 40 | 231 |
| 2015/16 | 31 | 10 | 169 | 69 | 41 | 238 |
| 2016/17 | 36 | 10 | 175 | 72 | 46 | 247 |
| 2017/18 | 32 | 9 | 183 | 70 | 41 | 253 |

(Ez daude sartuta irabazi-asmorik gabeko erakundeak)
*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

- ***Atzerritar jatorriko ikasleak***

“Ikasle atzerritar” kategoria ez da benetan esanguratsua, aniztasunari arreta ematean, jatorriak baino garrantzi handiagoa baitute hezkuntza-laguntzako berariazko premiek.

Bestalde, ikasleak taldekatzeko erabilitako irizpidearen arabera, desberdin ezaugarrituko dira. *Atzerritar* erabiltzen badugu espainiar herritartasunik ez dutenak izendatzeko, datuak zehatzagoak izanen dira, baina horrek ez ditu erabilgarriago eginen hezkuntza-arloan, eta, gainera termino mugatzaileagoa da, ez baititu kontuan hartzen sorburuko ingurune soziala edo kulturala Espainian jaiotako guraso atzerritarreko haurren gero eta ugariagoak diren kasuetan, ez eta orain gutxi herritartu direnen kasuan ere.

**168. grafikoa: Atzerritar jatorriko ikasleen ehunekoa, etaparen arabera**




*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

20.eranskina

Ikasleen jatorria eta familia- zein kultura-ingurunea kontuan hartzeko, atzerritar jatorriko senideak (gurasoak) dituzten ikasleak begiratzen ahal dira. Hala ere, kontuan hartu behar da ikastetxe guztiek ez dutela informazio hori adierazten. Taula honetan jaso dira datu horiek.

**193. taula: Atzerritar jatorriko familia duten ikasleak. Datuak, etaparen arabera**

| Ikasturtea | Ikastexe publikoak | | | | | Ikastexe itunduak | | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | HH | LH | DBH, Batx., LaH | Ik. Publ. , guztira | Publikoetan ari den %a, guztiarekiko | HH | LH | DBH, Batx., LaH | Ik. Itun., guztira | Itunduetan ariden %a, guztiarekiko | |
| 2017/18 | 2.453 | 5.996 | 5.080 | 13.529 | 82,29 | 475 | 900 | 1.536 | 2.911 | 17,71 | 16.440 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

**194. taula: Ikasleen banaketa, familiaren jatorriaren arabera. 2018**

| Kontinentea | 2018 |
|---|---|
| Europar Batasuna | 2.644 |
| Europar Batasunetik kanpoko Europa | 514 |
| Europa, guztira | 7.916 |
| Amerika | 4.803 |
| Afrika | 1.003 |
| Asia | 579 |
| Ozeania | 8 |
| Guztira | 17.467 |

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

- ***Helduen Hezkuntza***

Helduen hezkuntzako jarduerak bizitzan osoan zehar egiten den hezkuntzaren esparruan ulertu behar dira. Matrikulazio-datuek agerian jartzen dute helduen hezkuntzaren garrantzia, modalitatea edozein dela ere, bai ikasketa arautuetan, bai ez arautuetan, eta azken bost urteetako egonkortasuna islatzen dute.

2012-2013 eta 2017-2018 arteko aldian, beheko taula honetan jasotako gorabeherak izan dira matrikuletan.

**195. taula: Matrikulazioaren bilakaera Helduen Oinarrizko Hezkuntzan (HOH), Atzerritarrentzako Gaztelanian, Prestakuntza Pertsonalean, Urrutiko Batxilergoan eta Gaueko Batxilergoan. 2012-2018**

| Ikasturtea | | 2012/13 | 2013/14 | 2014/15 | 2015/16 | 2016/17 | 2017/18 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Oinarrizko Hezkuntza | Hasierako ikasketak I | 534 | 438 | 590 | 530 | 355 | 382 |
| | Hasierako ikasketak II | 220 | 445 | 424 | 276 | 385 | 315 |
| | DBHGTko PLrakoCC N2 | 127 | 260 | 244 | 226 | 202 | 177 |
| | HBH ** Presentziala | 506 | 520 | 493 | 530 | 543 | 550 |
| | HBH urrutikoa | 411 | 453 | 503 | 433 | 315 | 259 |
| Oinarrizko Prestakuntza, guztira | | 1.798 | 2.086 | 2.254 | 1.995 | 1.800 | 1.683 |
| Atzerritarrentzako gaztelania | | 971 | 774 | 1.038 | 998 | 1.095 | 1.164 |
| Arautu gabeko ikasketetako ikasleak*** | | 1.807 | 1.824 | 1.765 | 1.720 | 1.604 | 1.445 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasleak, guztira | 4.576 | 4.684 | 5.057 | 4.713 | 4.499 | 4.292 |
| Urrutiko Batxilergoa | 371 | 405 | 383 | 375 | 321 | 264 |
| Gaueko Batxilergoa | 333 | 383 | 396 | 433 | 398 | 397 |
| Batxilergoa, guztira | 704 | 788 | 779 | 808 | 719 | 661 |
| Matrikula, guztira | 5.280 | 5.472 | 5.836 | 5.521 | 5.218 | 4.953 |

** DBHko gradudun titulua eskuratzeko proba librea prestatzeko, Gaitasun giltzarrien 2. mailako ikastaroak.*
*** HBH Helduentzako Bigarren Hezkuntza.*
**** Prestakuntza pertsonaleko ikastaro ez-arautuak: informatika, hizkuntzak, komunikazio-teknikak.*
*Iturria: Etengabeko Prestakuntzaren Bulegoa*

**196. taula: Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen banaketa, eskualdearen* eta irakaskuntza motaren arabera. 2017-2018**

| | Sakana | Lizarra | Iruña | Zangoza | Tafalla | Tutera | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hasierako Ikasketak I eta II | 38 | 33 | 360 | 26 | 40 | 200 | 697 |
| N 2 Gaitasun giltzarriak | 20 | 11 | 102 | | 16 | 28 | 177 |
| Gaztelania atzerritarrendako | 38 | 142 | 604 | 10 | 88 | 282 | 1.164 |
| Arautu gabeko ikasketak | | 30 | 717 | | 20 | 678 | 1.445 |
| Guztira | 96 | 216 | 1.783 | 36 | 164 | 1.188 | 3.483 |

** HBH eta Batxilergo eskolak ematen ez dituzten HOHko ikasgeletan eta ikastetxeetan*
*Iturria: Etengabeko Prestakuntzaren Bulegoa*

**197. taula: HOHko ikasleen banaketa, sexuaren, eskualdearen eta eskaintza motaren arabera. 2017-2018**

| Ikastetxea/ Eskualdea | Hasierako Ikasketak | | | N2 Gaitasun giltzarriak | | | Gaztelania atzerritarrentzako | | | Prestakuntza pertsonala | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | Guz | G | E | Guz | G | E | Guz | G | E | Guz | |
| J. Mª Iribarren | 136 | 224 | 360 | 36 | 66 | 102 | 221 | 383 | 604 | 316 | 401 | 717 | 1.783 |
| Tuterako HOHIP | 21 | 179 | 200 | 7 | 21 | 28 | 145 | 137 | 282 | 195 | 483 | 678 | 1.188 |
| Altsasuko eskualdea | 19 | 19 | 38 | 11 | 9 | 20 | 6 | 32 | 38 | 0 | 0 | 0 | 96 |
| Lizarrako eskualdea | 24 | 9 | 33 | 4 | 7 | 11 | 22 | 120 | 142 | 13 | 17 | 30 | 216 |
| Zangozako eskualdea | 16 | 10 | 26 | 0 | 0 | 0 | 1 | 9 | 10 | 0 | 0 | 0 | 36 |
| Tafallako eskualdea | 25 | 15 | 40 | 3 | 13 | 16 | 24 | 64 | 88 | 9 | 11 | 20 | 164 |
| Guztira | 241 | 456 | 697 | 61 | 116 | 177 | 419 | 745 | 1.164 | 533 | 912 | 1.445 | 3.483 |
| (%) | 34,6 | 65,4 | 100 | 34,5 | 65,5 | 100 | 36,0 | 64,0 | 100 | 36,9 | 63,1 | 100 | |

*E= Emakumeak G= Gizonak*
*Iturria: Etengabeko Prestakuntzaren Bulegoa*

**198. taula: Helduen Bigarren Hezkuntzako (HBH) ikasleak. 2017-2018**

| Ikastetxea | I.maila | | | II.maila | | | Guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | Guz | G | E | Guz | G | E | Guz |
| Félix Urabayen NHBHI (Presentziala) | 38 | 57 | 95 | 49 | 71 | 120 | 87 | 128 | 215 |
| Félix Urabayen NHBHI (Urrutikoa) | 45 | 39 | 84 | 95 | 80 | 175 | 140 | 119 | 259 |
| Benjamín de Tudela BHI | 15 | 6 | 21 | 96 | 66 | 162 | 111 | 72 | 183 |
| Marqués de Villena BHI | 0 | 0 | 0 | 10 | 15 | 25 | 10 | 15 | 25 |
| Ega BHI | 2 | 4 | 6 | 10 | 3 | 13 | 12 | 7 | 19 |
| Lekarotz BHI | 3 | 3 | 6 | 2 | 4 | 6 | 5 | 7 | 12 |
| Tierra Estella BHI | 10 | 6 | 16 | 12 | 11 | 23 | 22 | 17 | 39 |
| Del Camino DBHI | 2 | 3 | 5 | 10 | 6 | 16 | 12 | 9 | 21 |
| Sancho III el Mayor BHI | 0 | 0 | 0 | 5 | 10 | 15 | 5 | 10 | 15 |
| Pablo Sarasate BHI | 3 | 3 | 6 | 4 | 11 | 15 | 7 | 14 | 21 |
| Guztira | 118 | 121 | 239 | 293 | 277 | 570 | 411 | 398 | 809 |
| % | 49,4 | 50,6 | 100 | 51,4 | 48,6 | 100 | 50,8 | 49,2 | 100 |

*Iturria: Etengabeko Prestakuntzaren Bulegoa*

**199. taula: Helduentzako Bigarren Hezkuntzako matrikulazioaren bilakaera. 2011-2017**

| | 2011/12 | 2012/13 | 2013/14 | 2014/15 | 2015/16 | 2016/17 | 2017/18 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I.maila | 302 | 263 | 296 | 281 | 290 | 215 | 239 |
| II.maila | 553 | 654 | 677 | 715 | 673 | 643 | 570 |
| Guztira | 855 | 917 | 973 | 996 | 963 | 858 | 809 |

*Iturria: Etengabeko Prestakuntzaren Bulegoa*

**200. taula: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua lortzeko proba librea. 2017-2018**

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: txikiena 1 izan da eta handiena 24 puntu.
Desbideratze tipikoa 5,28 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %34,94), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

Hamar ikasletik zazpik (%69,69) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beren eskolatze mailari dagozkion matematika prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek (%10,62) erdietsi du bikaintasun maila.

Hamar ikasletik batek (%10,46) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.

Bost ikasletik bat (%19,85) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazetako batzuk egiten ditu.

**187. grafikoa: Batez besteko puntuazioa, sexuaren arabera**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Gizonen batez besteko puntuazioa emakumeena baino 1,00 puntu hobea da. Alde hori arintzat hartzen ahal da, desbideratze tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 5,28).

### Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna

Probak hiru trebetasunetako galderak izan ditu: ahozkoaren ulermena (Listening), 9 galderarekin; irakurmena (Reading), 17 galderarekin, eta idazmena (Writing),. Azken horretan, lana testu txiki bat idaztea izan da, jarraibide batzuei jarraituz.

Hizkuntza trebetasun hauek pisu desberdina dute puntuazio osoaren barnean; ondoko taulan adierazita dagoenez:

**239. taula: Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna. Ebaluatutako trebetasunak eta horien pisua puntuazio osoan**

| Trebetasuna | Puntuazioa | Puntuazio osoaren ehunekoa |
|---|---|---|
| Ahozkoaren ulermena | 9 | 24 |
| Irakurriaren ulermena | 17 | 45 |
| Ekoizpen idatzia | 12 | 33 |
| Guztira | 38 | 100 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

27 galderaren bidez landutako atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkatutako prozesuekin daude loturik.

## Emaitza orokorrak

**240. taula: Ingeles-gaitasuna**

| | |
|---|---|
| Gaitasun-proben kopurua | 6.818 |
| Emakume kopurua | 3.289 |
| Gizon kopurua | 3.529 |
| Gutxieneko puntuazioa | 2 |
| Gehieneko puntuazioa | 38 |
| Batez besteko puntuazioa | 22,31 |
| Desbideratze tipikoa | 7,83 |
| Batezbestekoa emakumeetan | 23,20 |
| Batezbestekoa gizonetan | 21,47 |
| 1. maila (%) | 9,67 |
| 2. maila (%) | 17,13 |
| 3 maila (%) | 59,03 |
| 3+. maila (%) | 14,17 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

## Banaketa, mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun-maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehazten ahal direlako benetako beharrizanak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

**188. grafikoa: Ingelesez irakurtzeko gaitasunaren araberako ehunekoa**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**Alderdi azpimarragarriak**

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 2 izan da eta handiena 38 puntu.
Desbideratze tipikoa 7,83 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %35,10), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

Ia lau ikasletik hiruk (%73,20) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beren eskolatze mailari-dagozkion hizkuntza-prozesuak gauzatzeko.

Zazpi ikasletik batek (%14,17) erdietsi du bikaintasun maila.

Hamar ikasletik batek (%9,67) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.

Sei ikasletik bat baino gehixeago (%17,13) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen zati bat egiten du.

**189. grafikoa: Irakurtzeko gaitasunaren batez besteko puntuazioa, sexuaren arabera**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Emakumeek gizonek baino 1,73 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori arintzat hartzen ahal da, desbideratze tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 7,83).

**Aldagai sozioekonomiko eta kulturala (ISEK)**

Edizio honetan ikasleek aldagai soziokultural eta ekonomikoen gaineko galdera-sorta bete dute eta hartatik atera da ISEK indize sozioekonomiko eta kulturala kalkulatzeko informazioa.

**ISEK indizea**

Galdetegiaren xede nagusia informazioa biltzea zen, indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) osatzeko. Indize horrek kontuan hartzen ditu nazioarteko PISA proiektuan erabilitako aldagaiak eta Hezkuntza Ebaluazioaren Espainiako Institutuak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako diagnostiko-ebaluazio orokorretakoak.

Indizea prestatzeko aldagaiak hauek dira:

- Gurasoen ikasketa-maila (maila handienekoa hartzen da aintzat).
- Gurasoen lanbidea (kategoria handienekoa hartzen da aintzat).

- Etxean elementu material jakin batzuk izatea. Lau hauek hartu dira kontuan: ordenagailu eramangarria, mahaiko ordenagailua, entziklopediak, ikasketetan laguntzeko kontsulta-liburuak eta aldizkari espezializatuak (informatika, natura, literatura, etab.).
- Etxeko liburu kopurua.

Lau aldagaiak berdin haztatu dira eta puntuazioak banaketa normal baten eran eman dira: batezbestekoa=0 eta desbideratze tipikoa=1. Hala, Nafarroako batez bestekoa 0 da.

Ikastetxe bakoitzari ISEK balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen puntuazioen batez bestekoa. Ikastetxeek -2,81 eta +1,06 arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla. Ebaluazio-azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren arteko korrelazioa neurrizkoa dela. Txosten honetan ematen dira ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, gaitasun bakoitzaren arabera banatuta, eta aldagai horien arteko erregresio-grafikoak. Erregresio-grafikoak aztertuta, jarraian azalduko ditugun emaitza orokor hauek lortu dira.

**241. taula: ISEKaren eta gaitasunen arteko korrelazio indizea**

| Gaitasuna | Korrelazio indizea |
|---|---|
| Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz | 0,597 |
| Hizkuntza gaitasuna euskaraz | 0,027 |
| Matematika | 0,515 |
| Hizkuntza gaitasuna ingelesez | 0,606 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

ISEK-errendimendua izeneko erregresio-zuzenek malda positiboa dute; horrek esan nahi du ISEKa handitu ahala batez besteko errendimenduak ere gora egiten duela. Esperotako eraginaren intentsitatea gaitasun batetik bestera desberdina da: 500 puntuko eskalan ISEKaren balioa igotzen den bateko bakoitzak eragina izanen du gaitasun horretan ikastetxeak erdietsiko duen batez besteko puntuazioaren igoeran, maldak adierazten duen neurrian. Adibidez, matematika gaitasunean, ikastetxearen ISEKa bateko bat handitzen bada, aurreikusten ahal da gaitasun horretan 46,08 puntuko igoera izanen dela.

**242. taula: Erregresio-zuzenaren malda - Gaitasuna**

| Gaitasuna | Erregresio-zuzenaren malda (Gradientea, puntu/ISEK unitatea) |
|---|---|
| Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz | 49,57 |
| Hizkuntza gaitasuna euskaraz | 3,20 |
| Matematika | 46,08 |
| Hizkuntza gaitasuna ingelesez | 66,77 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

ISEKak ikastetxeen batez bestekoen arteko bariantzaren edo desberditasuna hein batean azaltzen du. Ondoko biderkadura honek ematen du esplikatutako bariantzaren ehunekoa: 100 * $R^2$, non $R^2$ erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefizientea den; biderkadura hori gaitasunaren arabera aldatzen da.

**243. taula: Esplikatutako bariantza %-a - R2 - Gaitasuna**

| Gaitasuna | Esplikatutako bariantza %-a 100*$R^2$ |
|---|---|
| Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz | 36,64 |
| Hizkuntza gaitasuna euskaraz | 0,02 |

| | |
|---|---|
| Matematika | 26,52 |
| Hizkuntza gaitasuna ingelesez | 36,66 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

ISEK indizea aldagai iragarle modura erabiltzen da; hau da, ikastetxeei puntuazioak eman dakizkieke beren ISEKaren arabera, eta, gero, ikastetxeak lortutako balio hori benetan lortutako emaitzarekin konparatu. Ikastetxeetako txostenetan, ikastetxeko puntuazioa errendimenduaren eta ISEKaren arteko erregresio-grafikoan irudikatu da eta, horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragarritakoarekin erkatzen ahal dugu. Grafiko horretan ikastetxeek duten posizioari dagokionez, 3 kasu desberdin ditugu:

- Erregresio-zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: horien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko handiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzena baino beherago dauden ikastetxeak: horien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko txikiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzenean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.

Grafiko hauetako informazioak ikastetxeen emaitza globalak testuinguruan kokatzen ditu, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak Nafarroako batez bestekoarekin modu justuagoan erkatzeko aukera ematen du: ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino baxuagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beherako batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ez da beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola, norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, irakasleen itxaropenak, etab.

Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetzen ahal da lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita determinista edo funtzionala; badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio hori ateratzen ahal da erregresio-grafikoei erreparatuta, ISEK berdina duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen baitituzte: ekitate edo gaitasun desberdina dute ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoaren ondoriozko hasierako desabantailak konpentsatzeko.

Ikastetxeko zer aldagaik eragiten duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean bertan hobekuntza-neurriak hartzeko, horrek hezkuntza-sistema osoari ekarriko bailioke onura.

Grafikoan irudikatzen dira ikastetxeko ISEK balioak. Ikastetxeak 4 taldetan sailkatu dira (ISEK-Q1, ISEK-Q2, ISEK-Q3 eta ISEK-Q4), ikastetxeen ISEKaren maiztasun banaketaren kuartilak bereizten dituzten 3 atalaseen arabera (inkesta egindako ikasleen laurdena hartzen du talde bakoitzak).

Sailkapen horretan, 80 ikastetxek dituzte lehen kuartileko ISEK balioak (beheko maila); 53 ikastetxek, bigarren kuartileko ISEK balioak (maila ertain-behekoa); 46 ikastetxek, hirugarren kuartilekoak (maila ertain-goikoa), eta 34 ikastetxek, goiko kuartilekoak (goiko maila).







### Erregresio-zuzenak

Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez, erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako ikasmailan probak egin dituzten ikasleen kopuruaren arabera. Haztapen horrek grafikoetan azaldutako koefizienteak adierazgarriago egiten ditu eta, beraz, ondorio fidagarriak ateratzen laguntzen du.

Jarraian azaltzen dira gaitasun bakoitzerako grafikoak. Ardatz horizontalean irudikatu dira ikastetxeko ISEKak eta ardatz bertikalean, berriz, ikastetxe bakoitzaren batez besteko puntuazio normalizatua, gaitasun bakoitzerako. Puntu bakoitzak ikastetxe bat irudikatzen du eta erdiko puntua (ISEK = 0, puntuazio normalizatua = 500) Nafarroako batezbestekoari dagokio.

**190. grafikoa eta taula: Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunaren eta ikastetxearen ISEKaren arteko erregresioa**




| | |
|---|---|
| $R^2$ determinazio-koefizientea | 0,3564 |
| Esplikatutako bariantza %-a 100*$R^2$ | 35,64 |
| Gradientea | 49,57 puntu/unitate ISEC |
| R korrelazio-koefizientea | 0,579 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 274,86 puntukoa da.

**191. grafikoa eta taula: Euskarazko hizkuntza-gaitasunaren eta ikastetxearen ISEKaren arteko erregresioa**




| | |
|---|---|
| $R^2$ determinazio-koefizientea | 0,0002 |
| Esplikatutako bariantza %-a 100*$R^2$ | 0,02 |
| Gradientea | 3,20 puntu/unitate ISEC |
| R korrelazio-koefizientea | 0,0271 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Euskarazko hizkuntza-gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 276,34 puntukoa da.

**192. grafikoa eta taula: Matematika-gaitasunaren eta ikastetxearen ISEKaren arteko erregresioa**




| | |
|---|---|
| $R^2$ determinazio-koefizientea | 0,2652 |
| Esplikatutako bariantza %-a 100*$R^2$ | 26,52 |
| Gradientea | 46,08 puntu/unitate ISEC |
| R korrelazio-koefizientea | 0,515 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Matematika gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 318,90 puntukoa da.

**193. grafikoa eta taula: Ingelesezko hizkuntza-gaitasunaren eta ikastetxearen ISEKaren arteko erregresioa**




| | |
|---|---|
| $R^2$ determinazio-koefizientea | 0,3666 |
| Esplikatutako bariantza %-a 100*$R^2$ | 36,66 |
| Gradientea | 66,77 puntu/unitate ISEC |
| R korrelazio-koefizientea | 0,606 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Ingelesezko hizkuntza-gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 309,48 puntukoa da.

Gaitasun hauek ez dira ebaluatu: Gaitasun digitala, ikasten ikastea, gaitasun sozial eta zibikoak, ekimena eta ekintzailetza eta kontzientzia eta adierazpen kulturalak.

### *5.3.3. Lehen Hezkuntzako 6. mailaren bukaerako ebaluazioa*

2017-2018 ikasturteko Lehen Hezkuntzako 6. mailako etapa-bukaerako ebaluazioa honako alderdi hauetan oinarritu da: irakas-hizkuntzen gaineko hizkuntza-gaitasuna, hizkuntza-ereduaren arabera; gaitasun matematikoa, eta ingelesezko hizkuntza-gaitasuna.

Errendimendu probak Ebaluazio eta Kalitate Atalak prestatu ditu, irakasleek taldeka egindako lanetik abiatuta. Beraz, kanpokoak izan dira ikastetxeentzako. Ikastetxeaz kanpoko irakasleek egin dituzte probak (Nafarroako Maisu-Maistren Kidegoko Lehen Hezkuntzako irakasleek), maiatzeko azken bi asteetan lagina osatzen zuten ikastetxe guztietan, eta aurretik ezarritako irizpideen arabera zuzendu dira.

#### Laginean oinarritutako ebaluazioa

2017-2018 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 6. ikasmailako matrikula, osotara, 6.877 ikaslekoa izan zen. Horietatik, 1.391 ikasle etapa-bukaerako ebaluazioan parte hartzeko hautatutako laginaren parte dira.

Lagina bi urratsetan zehaztu da:

- 1. urratsa ikastetxeak hautatzea
    - LHn 3 ikasle edo gutxiago dituzten ikastetxean kanpoan utzi dira.
    - Bi geruza ezarri dira: ikastetxe publikoak eta ikastetxe itunduak.
    - Ikastetxearen tamainarekiko proportzionala den ausazko hautespen sistematikoa.
    - Ez da geruzatu hizkuntza-ereduaren arabera.
- 2. urratsa: ikastetxe bakoitzeko ikasleak aukeratzea
    - Ausazko hautespen sinplea, generoaren araberako geruzatzea.
    - Gehienez ere 30 ikasle ikastetxe bakoitzeko.
    - Ikastetxe mistoetan (A/G eta B/D ereduak dituztenak) ez da hizkuntza-ereduen arabera geruzatu.

**244. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak, titulartasunaren arabera**

| Datu orokorrak | Kop. | % |
|---|---|---|
| Lagina, guztira | 50 | 100 |
| Ikastetxe publikoak | 31 | 62 |
| Itunpeko ikastetxeak | 19 | 38 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeen zerrenda ageri dira ondoko eranskinean.

40.eranskina

**245. taula: Matrikulazio datuak eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioan parte hartutako lagina***

| Datu orokorrak | Kop. | % |
|---|---|---|
| Matrikula, guztira | 6.877 | 100 |
| Lagina | 1.391 | 20 |

**2018ko urtarrileko matrikula.*
*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**246. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioko laginean parte hartu dutenen datuak, titulartasunaren arabera**

| Datu orokorrak | Kop. | % |
|---|---|---|
| Lagina, guztira | 1.391 | 100 |
| Ikastetxe publikoak | 847 | 61 |
| Itunpeko ikastetxeak | 544 | 39 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**247. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioko laginean parte hartu dutenen datuak, generoaren arabera**

| Datu orokorrak | Kop. | % |
|---|---|---|
| Lagina, guztira | 1.391 | 100 |
| Emakumeak | 694 | 50 |
| Gizonak | 697 | 50 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

## Proben ezaugarriak

Nafarroako Foru Komunitateko (60/2014 Foru Dekretua) Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumari loturiko eduki-blokeekin zerikusia duten itemak sartuko dira, eta hainbat zeregin edo prozesu izanen dituzte:

**248. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioko proben ezaugarriak**

| Gaitasun zientifikoa | Irakurtzeko gaitasuna | Matematiko gaitasuna |
|---|---|---|
| Gai zientifikoak identifikatu | Informazioa bilatu eta lortu | Ezagutu eta errepikatu |
| Fenomenoak zientifikoki azaldu | Barneratu (ulermen orokorra) eta interpretatu | Aplikatu eta aztertu |
| Froga zientifikoak erabili | Hausnarketa eta balioztapena | Arrazoitu eta hausnartu |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**249. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioko item motak***

| Item motak |
|---|
| Aukera anitzeko galderak: hautatzeko lau aukera izango dituzte (A, B, C edo D), bat zuzena izango da (gakoa) eta beste hiruak okerrak (distraktoreak). |
| Galdera erdi-itxiak: erantzun zehatz bakarra, buruketaren erantzuna (zenbakia) edo esaldian hutsuneak bete (hitza). |
| Galdera irekiak: ikasleak eraiki beharreko esaldiak, erantzun zuzen zehatzik gabe (prozedurak garatu eta emaitzak lortu, besteak beste). |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

### Gaztelaniaz edo euskaraz irakurtzeko gaitasuna

Irakurketak lau testu edo estimulu izan ditu, eta horietatik irakurmeneko galderak atera ziren. 27 itemen bidez landutako atazek etapa bukaerako ebaluazioaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin dute lotura.

### Matematika gaitasuna

23 itemen bidez landutako atazek etapa-bukaerako ebaluazioaren esparruan finkatutako matematika-prozesuekin dute lotura.

### Zientziarako gaitasuna

37 itemen bidez landuriko atazek etapa-bukaerako ebaluazioaren esparruan finkatutako prozesuekin dute lotura.

### Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna

Probak hiru trebetasunetako galderak izan ditu: ahozkoaren ulermena (Listening), 8 galderarekin; irakurmena (Reading), 20 galderarekin, eta idazmena (Writing). Azken horretan, testu txiki bat idatzi behar zuten, jarraibide batzuei jarraituz. 29 itemen bidez landuriko atazek etapa-bukaerako ebaluazioaren esparruan finkatutako prozesuekin dute lotura.

### Emaitzen azterketa

Lehen Hezkuntzako 6. mailako etapa-bukaerako kanpo-ebaluazioaren emaitzen txosten orokorra 2018-2019 ikasturtean eginen eta argitaratuko da, planifikatuta zegoen moduan.

Ikasturte honetan bada berrikuntza bat, parte hartu duten ikastetxetako ikasle ebaluatuek lortutako emaitzen zerrenda anonimo bat bidaliko dela.

## *5.3.4. IIP programaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 6. mailan*

2017-2018 ikasturtean 6.maila Ingelesa Ikasteko Programa (IIP) batean egin duten ikasleek ingeles-proba egin dute programa horren barnean. Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio eta Kalitate Atala arduratu da ebaluazioaz. Ingelesa Ikasteko Programen hirugarren fasea da eta, hortaz, 2015-2016 eta 2016-2017an eginiko ebaluazioen jarraipena.

Azterketaren helburu nagusia da Lehen Hezkuntza bukatzean ingelesa ikasteko programak dituzten ikastetxeetako ikasleek duten ingelesezko hizkuntza-gaitasunari buruzko informazioa lortzea gaitasun horren garapen-mailari buruzko adierazle bat ezartzeko xedez. Erabilitako erreferentzia-mailak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko erreferentzia-mailen egokitzapena dira.

Zehazki, azterketaren 3. fase honetarako, hau lortu nahi da:

- Jakitea IIP programa duten ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako 6. ikasmailan matrikulatuta dauden ikasle guztiek zer maila duten ingelesaren ahozkoaren ulermenean (*Listening*), irakurmenean (*Reading*), idazmenean (*Writing*) eta mintzamenean (*Speaking*); horretarako, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko (HEEEB) erreferentzia-mailak egokitu dira.
- Ikastetxeei kanpoko diagnostiko-tresna bat eskaintzea, haien barne-ebaluazioaren osagarria izanen dena, eta hobekuntza-planak ezartzen lagunduko diena.

**Ikasleen hautaketa**

Ingelesa Ikasteko Programa emateko baimena duten 15 ikastetxek zuten programa ezarrita bai Haur Hezkuntzako hirugarren zikloan bai Lehen Hezkuntzako sei mailetan 2017-2018 ikasturtean; ikastetxe horietan Lehen Hezkuntzako 6. mailan matrikulatuta zeuden ikasle guztiek hartu parte. Azterketa egin zenean 706 pertsonakoa zen lagina.

**41.eranskina**

Ebaluazio eta Kalitate Atalak Lehen Hezkuntzako seigarren mailan British programa zuten sei ikastetxeetako ikasleei ere eman zien aukera berariazko ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko probak egiteko. Hona hemen sei ikastetxe horien zerrenda: Añorbe HLHIP, Iruñeko Azpilagaña HLHIP, Iruñeko Cardenal Ilundain HLHIP, Iruñeko José María Huarte HLHIP, Atarrabiako Lorenzo Goicoa HLHIP eta Tuterako Elvira España HLHIP. Guztiek eman zioten ezezkoa eskaintzari Iruñeko Cardenal Ilundain HLHIPekoek izan ezik. Ikastetxe horrek G-Br ereduan matrikulatutako 71 ikasle zituen, hiru taldetan banatuta. Hala ere, azken ikasle horiek lortutako emaitzak ez dira txostenaren emaitza orokorretan sartu, ez baitira aztergai izan den populazioan sartzen.

706 pertsonako hasierako plangintzari egokitzapen hauek egin zitzaizkion: 31 salbuetsita zeuden, 22 ez ziren agertu eta 6k ez zituzten proba guztiak egin. Azken buruan, aurreikusitako 706 ikasleko kopurutik 647ra jaitsi zen zifra. Jaitsiera horrek %8,4ko lortu gabeko ehunekoa dakar planifikatuaren aldean (%4,4 salbuetsita zeudelako, %3,1 ez zirelako agertu eta %0,9 ez zirelako guztiz ebaluatu).

**42.eranskina** **43.eranskina**

**Probaren ezaugarriak**

Landa-lana 2018ko apirilaren 10etik 20ra bitartean egin zen, eta maila anitzetako proba bat erabili zen ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko trebetasun bakoitza berariaz neurtzeko. Proben kudeaketa ikastetxetik kanpokoa izan da.

Probak diseinatzeko eta gauzatzeko eskumena Hezkuntza Departamentuak dauka; beraz, ikastetxeetatik kanpo dago. Parte hartu duten ikastetxeek maiatzean jaso dituzte emaitzak. Horietan, ebaluatutako ikasle bakoitzak trebetasun bakoitzean lortu dituen emaitzak ageri dira, bai eta ikasle bakoitzak probaren atal bakoitzean zer puntuazio eta zer maila lortu duen ere.

Ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko trebetasunen probek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko erreferentzia-mailak dituzte erreferentzia, zeinak ikerketa-objektuaren hezkuntza-mailara egokitu diren; probak, Hezkuntza Departamentuko Atzerriko Hizkuntzen

Atalak prestatu ditu. Proba guztiak aurretik ezarritako, homogeneizatutako eta estandarizatutako irizpideen arabera zuzendu dira.

Zehatzago esanik, ingeleseko hizkuntza gaitasuna berariaz ebaluatzeko maila anitzeko probak lau trebetasun ditu, eta ondorioz, lau azpiproba: ahozkoaren ulermena (Listening), irakurmena (Reading), idazmena (Writing) eta mintzamena (Speaking). Ingelesezko hizkuntza-gaitasunaren mailak ezaugarritzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (HEEEB) erabili da.

### Ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko proben emaitzak

#### - Ingelesezko ahozkoaren ulermena (Listening)

Ondorengo grafiko honetan ingelesezko ahozkoaren ulermenerako *(Listening)* ezarritako erreferentzia-maila komunetako bakoitzean ikasleen zer ehuneko dagoen adierazten da.

**194. grafikoa: Ingelesezko ahozkoaren ulermeneko (Listening) erreferentzia-mailak**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Ahozko ulermenean, IIP programan ikasten duten ikasleen %38,5ek Pre-A1 eta A1 mailak lortzen dituzte, eta %61,5 A2 eta B1 mailetara ailegatzen dira.

#### - Ingelesezko idatzizko ulermena *(Reading)*

Ondorengo grafiko honetan ingelesezko irakurmenerako *(Reading)* ezarritako erreferentzia-maila komunetako bakoitzean ikasleen zer ehuneko dagoen adierazten da.

**195. grafikoa: Ingelesezko irakurmenerako (Reading) erreferentzia-mailak**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Irakurmenean, IIP programan ikasten duten ikasleen %26,8k Pre-A1 eta A1 mailak lortzen dituzte, eta %73,2 A2 eta B1 mailetara ailegatzen dira.

- **Ingelesezko idazmena *(Writing)***

Ondorengo grafiko honetan ingelesezko idazmenerako *(Writing)* ezarritako erreferentzia-maila komunetako bakoitzean ikasleen zer ehuneko dagoen adierazten da.

**196. grafikoa: Ingelesezko idazmenerako (Writing) erreferentzia-mailak**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Idazmenean, IIP programan ikasten duten ikasleen %56,9k Pre-A1 eta A1 mailak lortzen dituzte, eta %43,1 A2 eta B1 mailetara ailegatzen dira.

### - Ingelesezko mintzamena *(Speaking)*

Ondorengo grafiko honetan ingelesezko mintzamenerako *(Speaking)* ezarritako erreferentzia-maila komunetako bakoitzean ikasleen zer ehuneko dagoen adierazten da.

**197. grafikoa: Ingelesezko mintzamenerako (Speaking) erreferentzia-mailak**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Mintzamenean, IIP programan ikasten duten ikasleen %36,3k Pre-A1 eta A1 mailak lortzen dituzte, eta %63,7 A2 eta B1 mailetara ailegatzen dira.

## Emaitzen laburpena

Ehunekoen banaketak adierazten dituen ondorengo taula honetan, IIP programan ikasten duten ikasleek lortutako emaitzen laburpena agertzen da, ingelesezko hizkuntza-gaitasuneko lau trebetasunetan.

**250. taula: Erakutsitako trebetasunen ehunekoak**

<table>
<tr><th rowspan="2">Erakutsitako trebetasunak, lortutako emaitzen arabera</th><th colspan="4">MCERLra egokitutako erreferentziazko mailak</th></tr>
<tr><th>Aurre-A1</th><th>A1</th><th>A2</th><th>B1</th></tr>
<tr><td rowspan="2">Ingelesezko idatzizko ulermena (Reading)</td><td rowspan="2">3,9</td><td rowspan="2">22,9</td><td>27,8</td><td>45,4</td></tr>
<tr><td colspan="2">73,2 (A2 + B1)</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Ingelesezko ahozko ulermena (Listening)</td><td rowspan="2">4,9</td><td rowspan="2">31,4</td><td>28,7</td><td>34,9</td></tr>
<tr><td colspan="2">63,7 (A2 + B1)</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Ingelesezko ahozko adierazpena (Speaking)</td><td rowspan="2">19,6</td><td rowspan="2">18,9</td><td>34,5</td><td>27,0</td></tr>
<tr><td colspan="2">61,5 (A2 + B1)</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Ingelesezko ikatzizko adierazpena (Writing)</td><td rowspan="2">11,6</td><td rowspan="2">45,3</td><td>24,6</td><td>18,5</td></tr>
<tr><td colspan="2">43,1 (A2 + B1)</td></tr>
</table>

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

IPP programan ikasten duten ikasleentzat HEEEBko erreferentzia-maila egokituak hartu dira erreferentzia modura, eta honela geratu dira ordenatuta trebetasunak, emaitza hoberena izan duenetik txarrena izan duenera: irakurmena, mintzamena, ahozko ulermena eta idazmena.

HEEEBko erreferentzia-maila egokituak erreferentzia modura hartuta, IIP programako ikasleen ia hiru laurdenek (%73) A1 baino maila hobea lortzen dute irakurmenean, bi heren baino gutxixeagok (%64) A1 baino maila hobea lortzen dute ahozko ulermenean, hori bostenek baino gehixeagok (%62) A1 baino maila handiagoa lortzen dute mintzamenean, eta bi bosten baino gehixeagok (%43) A1 baino maila handiagoa lortzen dute idazmenean.

**Ingelesa Ikasteko Programaren datozen ebaluazioetan kontuan hartu beharreko alderdiak**

- Hizkuntza-eredua

2017-1018 ikasturtean berrikuntza bat izan da; izan ere, Lehen Hezkuntza D hizkuntza-ereduan eta IPP programaren baitan egin duen lehen promozioak Lehen Hezkuntzako etapa bukatu du. Atzerriko Hizkuntzak Ikasteko Programaren oinarrizko alderdiak erregulatzen dituen araudiak ezartzen du D hizkuntza-ereduan astean ordu gutxiago eskainiko zaizkiola atzerriko hizkuntzen curriculuma emateari eta, hala, D-IPPko ikasleek Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan astean ingelesez jaso dituzten saioen kopurua zatia txikiagoa da AG-IPPko ikasleek jaso dituzten saioena baino.

Hori dela eta, komenigarria da a AG-IPP eta D-IPP hizkuntza-eredu/programen arteko azterketa konparatibo bat egitea, ingeleseko hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeko baliatzen diren lau trebetasunetako bakoitzean lortu diren emaitzak alderatzeko. 2017-2018 ikasturtean ebaluatu diren D-IPP ikasleen kopurua nahikoa txikia da (68 ikasle) eta horren datu gutxirekin eginiko portzentajezko alderaketek fidagarritasuna galtzen dute. Konparaketa datozen ebaluazioetan eginez gero, D-PII ikasleen kopurua handiagoa denean, emaitza fidagarriagoa izanen da.

- Ikasleen kopurua

IPP ikasleen kopuruan urtetik-urterako hazkunde handia jasaten duten promozioetan, komenigarria izango litzateke gaitasun bakoitzeko emaitzen bilakaera eta horiei eragiten dien faktoreak aztertzea. Gaur arte, IPP ikasleen kopuruan hazkunde handiena jasan duen promozioa orain Lehen Hezkuntzako 2. mailan dagoena da.

- Ikastetxearen titulartasuna

Halaber, komenigarria izango litzateke Irakaskuntza itunduko lehen IPP promozioa Lehen Hezkuntzako 6. mailara ailegatzen denean ere gaitasun bakoitzeko emaitzen bilakaera eta horiei eragiten dien faktoreak aztertzea. Promozio hori IPP programako Lehen Hezkuntzako 1. mailan dago orain.

### *5.3.5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila*

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren ekainaren 22ko 261/2017 Ebazpenean adierazten denez, DBHko 2. maila bukatzean, ikastetxe guztiek ordura arte eskuratu diren oinarrizko gaitasunen diagnostiko-ebaluazio bat egin behar dute. Ebaluazio horrek ondoko ezaugarri hauek izanen ditu:

- Zentsala da, ikasle guztiek egin beharrekoa.
- Oinarrizko gaitasunei buruzkoa.
- Informatiboa, ikasleentzako eta familientzako.
- Prestakuntzakoa, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2017-2018ko ebaluazio diagnostiko zentsalean landu dira irakas-hizkuntzetako irakurmena, matematika gaitasuna, zientzia gaitasuna eta ingelesezko hizkuntza gaitasuna.

Errendimendu probak Ebaluazio eta Kalitate Atalak prestatu ditu, irakasleek taldeka egindako lanetik abiatuta. Probak kanpokoak izan dira ikastetxeentzat, eta egun beretan egin dira ikastetxe guztietan. Gainera, aurrez ezarritako irizpideen arabera zuzendu dira.

Maiatzaren bukaeran jaso zituzten ikastetxeek ikasleen emaitzak, banako txostenak egin zitzaten. Txosten horiek eman zitzaizkien familiei ikasturtea amaitu ondoren.

Egun beretan, ikastetxeek, EDUCA aplikazioaren bitartez, estatistikoen txosten osoa eskuratu zuten. Hartan, honako hauek agertzen dira: batez besteko puntuazioa, desbideratze tipikoa, gaitasun-mailaren araberako ikasle-banaketa, itemetan zuzen erantzundakoen ehunekoak, ikastalde bakoitzeko batez besteko puntuazioa, eta errendimenduaren eta ISEK indizearen (aldagai sozioekonomikoa) arteko erregresioaren informazioa. Ebaluaturiko gaitasunen araberako informazioa tauletan eta grafikoetan ageri da.

Txosten horrek aurretik emandako informazioa osatzen du. Ikuspegi orokorragoa ematen dio, ikasle guztiak eta proben ezaugarriak ardatz gisa harturik. Txosten horretan, garrantzi handikoak dira gaitasun-mailen esanahia, itemak gaitasun-mailei atxikitzea (mailaketa) eta ebaluatutako prozesua item bakoitzarekin identifikatzea.

Ikastetxearen batez besteko errendimenduaren eta ISEKaren batez besteko balioaren arteko korrelazioa aztertu da beste atal batean. Gaitasun bakoitzari dagokion erregresio-zuzena irudikatzen da eta horri esker ikusten ahal da zenbateko inpaktua edo eragina duen aldagai sozioekonomiko eta kulturalak ikastetxeen batez besteko errendimenduan.

Gaitasun hauek ez dira ebaluatu: Gaitasun digitala, ikasten ikastea, gaitasun sozial eta zibikoak, ekimena eta ekintzailetza eta kontzientzia eta adierazpen kulturalak.

### Izaera zentsala eta salbuespenak

2017-2018 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako 2. mailako matrikula, osotara, 7.154 ikaslekoa izan zen. Guztizko horretan Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programako 2. mailan (IEHPko 2. maila) eta Curriculum Egokituko Programan (CEP) ari diren ikasleak ere sartuta daude, ikasle horien artean bi egoera daudelarik: ikastetxeetan ikasten ari direnak eta irabazi asmorik gabeko erakundeetan eskolatuak daudenak. IEHPko 2.mailako 311 ikasleak eta CEPeko 153 ikasleak salbuetsitzat jotzen dira ebaluazioaren emaitza estatistiko globalak kalkulatzerakoan.

Ebaluazio guztietan bezala, ikasle batzuek ezintasun teknikoak dituzte probak baldintza egokietan egin ahal izateko, eta ondorioz, hiru salbuespen-arrazoi ezarri ziren. Irizpide horiek aplikatuta, 131 pertsona salbuetsi ziren. Horrenbestez, guztira, 6.474 ikaslek egin dituzte probak.

**44.eranskina**

Ikastetxeek proba diagnostiko horiek errazago aplikatzeko, joan den ikasturteko bidari jarraitu zaio: Ebaluazio eta Kalitate Atala –Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroarekin koordinaturik– harremanetan jarri zien ikastetxeetako orientatzaileekin, ikastetxe horietan Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak bazeuden (Educa programan mugimenduko, entzumeneko edo ikusmeneko desgaitasuna duten ikasle gisa ageri direnak). Helburua probetako egokitzapenak pertsonalizatzea izan da, kanpoko ebaluazioa inklusiboago bihurtzeko. Hurrengo taula honetan probetarako egin diren egokitzapenak ageri dira, hezkuntza-premia mota aintzat hartuta.

**251. taula: Egindako proben egokitzapenak, hezkuntza-premia motaren arabera. 2018**

| Hezkuntza Premia mota | Egokitzapen mota | Ikastetxe kop. |
|---|---|---|
| Entzumeneko desgaitasuna | FMren erabilera | 3 ikastetxe |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

## Matrikularen eta parte-hartzearen datuak

Ondoko taulan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren munta ikusarazten duten datuak.

**252. taula: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako matrikularen eta parte-hartzearen datuak. 2018**

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Matrikula, guztira | 7.069 | 100 |
| 2. IEHP eta CEPko ikasleak | 311 + 153 | 4,40 + 2,16 |
| Salbuetsitako ikasleak | 131 | 1,85 |
| Guztira (2. DBH) | 6.474 | 91,68 |
| - Bertaratu ez diren ikasleak | 74 | 1,14 |
| - Proba egin duten ikasleak | 6.400 | 90,54 |

*Oharrak: 2018ko maiatzean matrikulatuta*
*IEHPko 2. mailako eta CEPeko ikasleak salbuetsita agertzen dira, aplikazio-protokoloan ezarritako irizpideei jarraikiz, eta aukera du probak egiteko edo ez egiteko*
*Matrikulazio osoaren arabera kalkulatutako ehunekoak*
*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**253. taula: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako matrikularen eta parte-hartzearen datuak, hizkuntza-ereduaren arabera. 2018**

| | A/G eredua | | B/D eredua | |
|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop. | % |
| Matrikula, guztira | 5.299 | 100 | 1.770 | 100 |
| 2. IEHP eta CEPko ikasleak | 295 + 150 | 5,57 + 2,83 | 16 + 3 | 0,90 + 0,17 |
| Salbuetsitako ikasleak | 120 | 2,26 | 11 | 0,62 |
| Guztira (2. DBH) | 4.374 | 89,34 | 1.740 | 98,31 |
| - Bertaratu ez diren ikasleak | 57 | 1,20 | 17 | 0,98 |
| - Proba egin duten ikasleak | 4.677 | 88,26 | 1.723 | 97,34 |

*Oharrak: 2018ko maiatzean matrikulatuta*
*IEHPko 2. mailako eta CEPeko ikasleak salbuetsita agertzen dira, aplikazio-protokoloan ezarritako irizpideen arabera, eta aukera du probak egiteko edo ez egiteko*
*Matrikulazio osoaren arabera kalkulatutako ehunekoak*
*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**254. taula: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako matrikularen eta parte-hartzearen datuak, gaitasunen arabera**

| Gaitasuna | Proba egin dute | | |
|---|---|---|---|
| | Kop. | % (Matrikulatutako guztien gainekoa) | % (Aurkeztutako guztien gainekoa) |
| Gaztelaniazko irakurmena | 6.369 | 90,10 | 98,38 |
| Euskarazko irakurmena | 1.707 | 24,15 | 26,37 |
| Gaitasun matematikoa | 6.362 | 90,00 | 98,27 |
| Zientzia gaitasuna | 6.369 | 90,10 | 98,38 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ingeles gaitasuna | 6.346 | 89,77 | 98,02 |

*Oharrak: 2018ko maiatzean matrikulatuta*
*IEHPko 2. mailako eta CEPeko ikasleak salbuetsita agertzen dira, aplikazio-protokoloan ezarritako irizpideen arabera, eta aukera du probak egiteko edo ez egiteko*
*Guztizko matrikularen eta azken populazioaren gainean kalkulatutako ehunekoak*
*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Txosten honetako emaitza orokorretan kontuan izan dira probak egin dituzten ikasleak (emaitzak Educan daude), eta salbuetsita ageri ez diren edo epez kanpo aurkeztu ez diren ikasleak.

### Irakurtzeko gaitasuna Gaztelania irakasgaian

Ikasleek zuzen erantzundako itemetatik abiatuz, jakiten ahal da zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera ailegatu ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da.

**45.eranskina**

Lortutako emaitza orokorrak:

**255. taula: Irakurtzeko gaitasuna Gaztelania irakasgaian**

| | |
|---|---|
| Gaitasun-proben kopurua | 6.369 |
| Emakume kopurua | 3.079 |
| Gizon kopurua | 3.290 |
| Gutxieneko puntuazio | 2 |
| Gehieneko puntuazio | 34 |
| Batez besteko puntuazioa | 19,53 |
| Desbideratze tipikoa | 5,16 |
| Batezbestekoa emakumeetan | 20,19 |
| Batezbestekoa gizonetan | 18,92 |
| 1. maila (%) | 9,06 |
| 2. maila (%) | 19,17 |
| 3 maila (%) | 62,54 |
| 3+. maila (%) | 9,23 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 2 izan da eta handiena 34 puntu.

Desbideratze tipikoa 5,16 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %26,42), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

### Banaketa, mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun-maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehazten ahal direlako benetako beharrizanak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

**198. grafikoa: Irakurtzeko gaitasuna Gaztelania irakasgaian**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

### Alderdi azpimarragarriak

Hamar ikasletik zazpi baino zertxobait gehiagok (%71,77) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beren eskolatze-mailari dagozkion irakurketa-prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik ia batek (%9,23) erdietsi du bikaintasun maila.

Hamar ikasletik ia batek (%9,06) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.

Bost ikasletik bat (%19,17) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

**199. grafikoa: Irakurtzeko gaitasuna Gaztelania irakasgaian, sexuaren arabera**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Emakumeek gizonek baino 1,27 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori arintzat hartzen ahal da, desbideratze tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 5,16).

### Irakurmena Euskara irakasgaian

Gaitasuna mailaka banatu da.

46.eranskina

### Emaitza orokorrak

**256. taula: Irakurmena Euskara irakasgaian**

| | |
|---|---|
| Gaitasun-proben kopurua | 1.707 |
| Emakume kopurua | 787 |
| Gizon kopurua | 920 |
| Gutxieneko puntuazio | 1 |
| Gehieneko puntuazio | 28 |
| Batez besteko puntuazioa | 19,01 |
| Desbideratze tipikoa | 5,48 |
| Batezbestekoa emakumeetan | 20,53 |
| Batezbestekoa gizonetan | 17,71 |
| 1. maila (%) | 8,90 |

| | |
|---|---|
| 2. maila (%) | 20,50 |
| 3. maila (%) | 62,39 |
| 3+. maila (%) | 8,20 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 28 puntu.

desbideratze tipikoa 5,48 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %28,83), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

## Banaketa, mailaz mail

**200. grafikoa: Irakurmena Euskara irakasgaian**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

## Alderdi azpimarragarriak

Hamar ikasletik zazpik (%70,59) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beren eskolatze-mailari dagozkion irakurketa-prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gutxiagok (%8,20) bikaintasun maila erdietsi du.

Hamar ikasletik ia batek (%8,90) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.

Bost ikasletik bat (%20,50) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

**201. grafikoa: Euskaraz irakurtzeko gaitasuna, sexuaren arabera**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Emakumeek gizonek baino 2,82 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori handitzat hartzen ahal da, desbideratze tipikoaren herena baino handiagoa baita (DT = 5,48).

## Matematika gaitasuna

Gaitasuna mailaka banatu da.

47.eranskina

### Lortutako emaitza orokorrak

**257. taula: Matematika gaitasuna**

| | |
|---|---|
| Gaitasun-proben kopurua | 6.632 |
| Emakume kopurua | 3.074 |
| Gizon kopurua | 3.288 |
| Gutxieneko puntuazio | 1 |
| Gehieneko puntuazio | 28 |
| Batez besteko puntuazioa | 14,71 |
| Desbideratze tipikoa | 4,84 |
| Batezbestekoa emakumeetan | 14,55 |
| Batezbestekoa gizonetan | 14,86 |
| 1. maila (%) | 10,41 |

| | |
|---|---|
| 2. maila (%) | 18,41 |
| 3. maila (%) | 62,18 |
| 3+. maila (%) | 9,01 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 28 puntu.

Desbideratze tipikoa 4,84 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %32,90), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

**202. grafikoa: Matematika-gaitasuna**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

### Alderdi azpimarragarriak

Hamar ikasletik zazpik baino zertxobait gehiagok (%71,19) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beren eskolatze-mailari dagozkion prozesu matematikoak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gutxiagok (%9,01) bikaintasun maila erdietsi du.

Hamar ikasletik batek (%10,41) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.

Hamar ikasletik bi (%18,41) tarteko egoeran daude, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

**203. grafikoa: Matematika gaitasuna, sexuaren arabera**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Gizonen batez besteko puntuazioa emakumeena baino 0,31 puntu hobea da. Alde hori arintzat hartzen ahal da, desbideratze tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 4,84).

### Zientzia gaitasuna

Gaitasuna mailaka banatu da.

48.eranskina

### Lortutako emaitza orokorrak

**258. taula: Zientzia gaitasuna**

| | |
|---|---|
| Gaitasun-proben kopurua | 6.369 |
| Emakume kopurua | 3.077 |
| Gizon kopurua | 3.292 |
| Gutxieneko puntuazio | 3 |
| Gehieneko puntuazio | 39 |
| Batez besteko puntuazioa | 23,37 |
| Desbideratze tipikoa | 5,75 |
| Batezbestekoa emakumeetan | 23,34 |
| Batezbestekoa gizonetan | 23,40 |

| | |
|---|---|
| 1. maila (%) | 9,37 |
| 2. maila (%) | 16,52 |
| 3. maila (%) | 63,10 |
| 3+. maila (%) | 11,01 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 3 izan da eta handiena 39 puntu.

Desbideratze tipikoa 5,75 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %24,60), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun apala dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

**204. grafikoa: Zientzia gaitasuna**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

### Alderdi azpimarragarriak

Ia lau ikasletik hiruk (%74,11) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beren eskolatze mailari-dagozkion prozesu zientifikoak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (%11,01) bikaintasun maila erdietsi du.

Hamar ikasletik batek baino zertxobait gutxiagok (%9,37) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.

Sei ikasletik bat (%16,52) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazetako batzuk egiten ditu.

**205. grafikoa: Zientzia gaitasuna, sexuaren arabera**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Gizonen batez besteko puntuazioa emakumeena baino 0,06 puntu hobea da. Alde hori arintzat hartzen ahal da, desbideratze tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 5,75).

### Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna

Gaitasuna mailaka banatu da.

**49.eranskina**

### Lortutako emaitza orokorrak

**259. taula: Ingeles-gaitasuna**

| | |
|---|---|
| Gaitasun-proben kopurua | 6.346 |
| Emakume kopurua | 3.061 |
| Gizon kopurua | 3.285 |
| Gutxieneko puntuazio | 1 |
| Gehieneko puntuazio | 45 |
| Batez besteko puntuazioa | 28,95 |
| Desbideratze tipikoa | 10,39 |
| Batezbestekoa emakumeetan | 30,40 |
| Batezbestekoa gizonetan | 27,59 |
| 1. maila (%) | 9,97 |
| 2. maila (%) | 17,51 |
| 3. maila (%) | 61,14 |

| | |
|---|---|
| 3+. maila (%) | 11,38 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 45 puntu.

Desbideratze tipikoa 10,39 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %35,89), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan erdi-mailako aldakuntza dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

**206. grafikoa: Ingeles-gaitasuna**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

## Alderdi azpimarragarriak

Ia lau ikasletik hiruk (%72,52) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira ebaluatu diren hiru trebetasunetan planteatu diren prozesuak gauzatzeko. Prozesu horiek beren eskolatze mailari-dagozkio. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (%11,38) bikaintasun maila erdietsi du.

Hamar ikasletik batek (%9,97) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.

Hamar ikasletik ia bi (%17,51) tarteko egoeran daude, eskola-mailari dagozkion atazetako batzuk egiten dituzte.

**207. grafikoa: Ingeles-gaitasuna, sexuaren arabera**




*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Emakumeek gizonek baino 2,81 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori erdi-mailakotzat hartzen ahal da, desbideratze tipikoaren laurdenaren eta herenaren artean baitago (DT = 10,39).

**Informazio sozioekonomikoa eta kulturala**

Edizio honetan ikasleek aldagai soziokultural eta ekonomikoen gaineko galdera-sorta bete dute eta hartatik atera da ISEK indize sozioekonomiko eta kulturala kalkulatzeko informazioa.

Galdetegiaren xede nagusia informazioa biltzea zen, indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) osatzeko. Lehen esan bezala, indize honek nazioarteko azterlanetan (PISA proiektua) eta Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako diagnostiko-ebaluazio orokorretan erabilitako aldagai berak hartzen ditu kontuan.

**ISEKaren inguruko oinarrizko emaitzak**

Ikastetxe bakoitzari ISEK balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen puntuazioen batez bestekoa. Ikastetxeek -1,105 eta +0,955 arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla. Ebaluazio-azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren arteko korrelazioa neurrizkoa dela.

Txosten honetan ematen dira ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, gaitasun bakoitzaren arabera banatuta, eta aldagai horien arteko erregresio-grafikoak. Erregresio-grafikoak aztertuta, jarraian azalduko ditugun emaitza orokor hauek lortu dira.

**260. taula: ISEKaren eta gaitasunen arteko korrelazio indizea**

| Gaitasuna | Korrelazio-koefizientea |
|---|---|
| Gaztelaniazko irakurmena | 0,744 |
| Euskarazko irakurmena | 0,446 |
| Gaitasun matematikoa | 0,733 |
| Zientzia gaitasuna | 0,641 |
| Ingelesezko hizkuntzalaritza | 0,808 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

ISEK-errendimendua izeneko erregresio-zuzenek malda positiboa dute; horrek esan nahi du ISEKa handitu ahala batez besteko errendimenduak ere gora egiten duela. Esperotako eraginaren intentsitatea gaitasun batetik bestera desberdina da: 500 puntuko eskalan ISEKaren balioa igotzen den bateko bakoitzak eragina izanen du gaitasun horretan ikastetxeak erdietsiko duen batez besteko puntuazioaren igoeran, maldak adierazten duen neurrian. Adibidez, matematika gaitasunean, ikastetxearen ISEKa bateko bat handitzen bada, aurreikusten ahal da gaitasun horretan 58,13 puntuko igoera izanen dela.

**261. taula: Erregresio-zuzenaren malda - Gaitasuna**

| Gaitasuna | Erregresio-zuzenaren malda (Gradientea, puntu/ISEK unitatea) |
|---|---|
| Gaztelaniazko irakurmena | 56,59 |
| Euskarazko irakurmena | 44,15 |
| Gaitasun matematikoa | 58,13 |
| Zientzia gaitasuna | 52,07 |
| Ingelesezko hizkuntzalaritza | 72,59 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

ISEKak ikastetxeen batez bestekoen arteko bariantzaren edo desberditasuna hein batean azaltzen du. Ondoko biderkadura honek ematen du esplikatutako bariantzaren ehunekoa: 100 * $R^2$, non $R^2$ erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefizientea den; biderkadura hori gaitasunaren arabera aldatzen da.

**262. taula: Esplikatutako bariantza %-a - R2 - Gaitasuna**

| Gaitasuna | Esplikatutako bariantza %-a 100*$R^2$ |
|---|---|
| Gaztelaniazko irakurmena | 54,80 |
| Euskarazko irakurmena | 17,52 |
| Gaitasun matematikoa | 53,21 |
| Zientzia gaitasuna | 40,41 |
| Ingelesezko hizkuntzalaritza | 64,92 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Grafikoan irudikatzen dira ikastetxeko ISEK balioak. Ikastetxeak 4 taldetan sailkatu dira (ISEK-Q1, ISEK-Q2, ISEK-Q3 eta ISEK-Q4), ikastetxeen ISEKaren maiztasun banaketaren kuartilak bereizten dituzten 3 atalaseen arabera (inkesta egindako ikasleen laurdena hartzen du talde bakoitzak).

Sailkapen honetan, 24 ikastetxek dituzte lehen kuartileko ISEK balioak (beheko maila); 24 ikastetxek, bigarren kuartileko ISEK balioak (maila ertain-behekoa); 27 ikastetxek, hirugarren kuartilekoak (maila ertain-goikoa), eta 16 ikastetxek, goiko kuartilekoak (goiko maila).




## Erregresio-zuzenak

Ikastetxeen tamainak askotarikoak direnez, erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako ikasmailan matrikulatuta dituzten ikasleen kopuruaren arabera. Haztatuta, adierazgarritasuna eskuratzen dute grafikoetan adierazitako koefizienteek, eta ondorio fidagarriagoak ateratzea errazten dute.

Jarraian azaltzen dira gaitasun bakoitzerako grafikoak. Ardatz horizontalean irudikatu dira ikastetxeko ISEKak eta ardatz bertikalean, berriz, ikastetxe bakoitzaren batez besteko puntuazio normalizatua, gaitasun bakoitzerako. Puntu bakoitzak ikastetxe bat irudikatzen du eta erdiko puntua (ISEK = 0, puntuazio normalizatua = 500) Nafarroako batezbestekoari dagokio.

**208. grafikoa eta taula: Erregresioa: gaztelaniazko irakurketaren batez bestekoa-ISEK, ikastetxearen arabera**




Gaztelaniazko irakurmenean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 205,82 puntukoa da.

| | |
|---|---|
| $R^2$ determinazio-koefizientea | 0,5480 |
| Azaldutako bariantzaren (100*$R^2$) ehunekoa (%) | 54,80 |

| | |
|---|---|
| Gradientea | 56,59 puntu/unitate ISEC |
| R korrelazio-koefizientea | 0,7344 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**209. grafikoa eta taula: Erregresioa: euskarazko irakurketaren batez bestekoa-ISEK, ikastetxearen arabera**




Euskarazko irakurmenean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 168,49 puntukoa da.

| | |
|---|---|
| $R^2$ determinazio-koefizientea | 0,1752 |
| Azaldutako bariantzaren (100*$R^2$) ehunekoa (%) | 17,52 |
| Gradientea | 44,15 puntu/unitate ISEC |
| R korrelazio-koefizientea | 0,446 |

*Fuente: Sección de Evaluación y Calidad*

**210. grafikoa eta taula: Erregresioa: matematikako batez bestekoa-ISEK, ikastetxearen arabera**



Matematika gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 239,40 puntukoa da.

| | |
|---|---|
| $R^2$ determinazio-koefizientea | 0,5321 |
| Azaldutako bariantzaren (100*$R^2$) ehunekoa (%) | 53,21 |
| Gradientea | 58,13 puntu/unitate ISEC |
| R korrelazio-koefizientea | 0,733 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**211. grafikoa eta taula: Erregresioa: zientzietako batez bestekoa-ISEK, ikastetxearen arabera**




Zientzia gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 220,17 puntukoa da.

| | |
|---|---|
| $R^2$ determinazio-koefizientea | 0,4041 |
| Azaldutako bariantzaren (100*$R^2$) ehunekoa (%) | 40,41 |
| Gradientea | 52,07 puntu/unitate ISEC |
| R korrelazio-koefizientea | 0,641 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**212. grafikoa eta taula: Erregresioa: ingelesezko batez bestekoa-ISEK, ikastetxearen arabera**




Ingelesezko hizkuntza-gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 239,75 puntukoa da.

| | |
|---|---|
| $R^2$ determinazio-koefizientea | 0,6492 |
| Azaldutako bariantzaren (100*$R^2$) ehunekoa (%) | 64,92 |
| Gradientea | 72,59 puntu/unitate ISEC |
| R korrelazio-koefizientea | 0,808 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Ondoko gaitasun hauek ez dira ebaluatu: Gaitasun digitala, ikasten ikastea, gaitasun sozial eta zibikoak, ekimena eta ekintzailetza eta kontzientzia eta adierazpen kulturalak.

### *5.3.6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako etapa-bukaerako ebaluazioa*

2017-2018 ikasturteko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako etapa-bukaerako ebaluazioak gaitasun bakarrean ardaztu da, ingeleseko hizkuntza-gaitasunean.

Errendimendu probak Ebaluazio eta Kalitate Atalak prestatu ditu, irakasleek taldeka egindako lanetik abiatuta. Beraz, kanpokoak izan dira ikastetxeentzako. Ikastetxeaz kanpoko irakasleek egin dituzte probak (Nafarroako Maisu-Maistren Kidegoko Lehen Hezkuntzako irakasleek), maiatzaren 14tik 18ra bitartean, lagina osatzen zuten ikastetxe guztietan, eta aurretik ezarritako irizpideen arabera zuzendu dira.

**Laginean oinarritutako ebaluazioa**

2017-2018 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako 4. mailako matrikula, osotara, 5.990 pertsonakoa izan zen. Horietatik, 592 pertsona etapa-bukaerako ebaluazioan parte hartzeko hautatutako laginaren parte izan dira.

Lagina bi urratsetan zehaztu da:

- 1. urratsa ikastetxeak hautatzea
    - o PISA 2018 Nazioarteko Azterketan parte hartu duten ikastetxeak kanpoan utzi dira.
    - o Bi geruza ezarri dira: ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxeak.
    - o Ez da geruzatu hizkuntza-ereduaren arabera.
- 2. urratsa: ikastetxe bakoitzean ikasleak aukeratzea
    - o Ikastetxe bakoitzean 2-3 talde oso ausaz hautatzea.

**263. taula: DBHko 4. mailako ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeak, titulartasunaren arabera**

| Datu orokorrak | Kop. | % |
|---|---|---|
| Lagina, guztira | 12 | 100 |
| Ikastetxe publikoak | 7 | 58 |
| Ikastetxe itunduak | 5 | 42 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

50.eranskina

**264. taula: DBHko 4. mailako matrikularen eta lagineko parte-hartzaileen datuak***

| Datu orokorrak | Kop. | % |
|---|---|---|
| Matrikula, guztira | 5.990 | 100 |
| Ikastetxe publikoak | 3.482 | 58 |
| Ikastetxe itunduak | 2.508 | 42 |
| Lagina | 592 | 10 |

** 2018ko martxoan matrikulatuta.*
*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**265. taula: DBHko 4. mailako ebaluazioaren lagineko parte-hartzaileen datuak, titulartasunaren arabera**

| Datu orokorrak | Kop. | % |
|---|---|---|
| Lagina, guztira | 592 | 100 |
| Ikastetxe publikoak | 323 | 55 |
| Ikastetxe itunduak | 269 | 45 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**266. taula: DBHko 4. mailako ebaluazioaren lagineko parte-hartzaileen datuak, generoaren arabera**

| Datu orokorrak | Kop. | % |
|---|---|---|
| Lagina, guztira | 592 | 100 |
| Emakumeak | 311 | 53 |
| Gizonak | 281 | 47 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**Probaren ezaugarriak**

Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumeko (24/2015 Foru Dekretua) eduki-blokeekin zerikusia duten itemak.

Item motak:

- Aukera anitzeko galderak: lau aukera izanen dituzte (A, B, C edo D); horietako bat egiazkoa izanen da (gakoa) eta beste hirurak gezurrezkoak (distraigarriak).
- Galdera erdiirekiak: erantzun labur, zuzen eta zalantzarako lekurik uzten ez duena (esaldia osatuko duen hitza, zifra bat...)
- Galdera irekiak: ikasleak eraikitzea eskatzen duten galderak; ez dute zalantzarik gabeko erantzun zuzen bakarra (esaldiak berridaztea, testu bat idaztea...).

**Ingelesezko hizkuntza-gaitasuna**

Probak hiru trebetasunetako galderak izan ditu: ahozkoaren ulermena (Listening), 12 galderarekin; irakurmena (Reading), 9 galderarekin, eta idazmena. Azken horretan, esaldi batzuk berridatzi behar ziren (Rewriting), eta testu labur bat idatzi jarraibide batzuei jarraituz (Writing).

23 itemen bidez landuriko atazek etapa-bukaerako ebaluazioaren esparruan finkatutako prozesuekin dute lotura.

**Emaitzen azterketa**

DBHko 4. mailako etapa-bukaerako kanpo-ebaluazioaren emaitzen txostena 2018-2019 ikasturtean eginen da, planifikatuta zegoen moduan.

Ikasturte honetan bada berrikuntza bat, parte hartu duten ikastetxetako ikasle ebaluatuek lortutako emaitzen zerrenda anonimo bat bidaliko dela.

### *5.3.7. PISA 2018 Nazioarteko Azterlana*

**PISA egitasmoaren ezaugarriak**

*Programme for International Student Assessment* (ikasleak ebaluatzeko nazioarteko programa) ingelesezko izenaren akronimoa da PISA, eta Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) sustatzen duen nazioarteko azterlan bat da.

Hezkuntza-sistema ororen helburu nagusia herritarrak oinarrizko ezagutza eta ezagutza aplikatua uztartzeko gai izatea da. PISA azterlanaren xedea 80 bat herrialdetako 15 urteko gazteek zer dakiten eta zer egiteko gai diren ebaluatzea da. Adin hori bat dator Derrigorrezko Hezkuntzaren bukaerako etaparekin (Espainian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, DBH)

PISA ebaluazioa gazteak herritar aktibo gisa prestatzeko orduan hezkuntza sistemek duten eraginkortasunaren adierazlea da.

Ebaluazioaren testuingurua ez da curriculumekoa; arreta ez da jartzen ikasgelako ariketen errepikapenean, baizik eta eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko trebetasuna eta gaitasuna neurtzen.

PISAn parte hartuz gero, ebaluazioaren emaitzak ondoko helburuetarako erabiltzen ahalko dira:

- Jakiteko ikasleak, beren derrigorrezko hezkuntza burutzean, noraino dauden prestaturik beren bizitza profesional edo akademikoari ekiteko.
- Ikastetxeen, hezkuntza-administrazioen eta gobernuen indarguneak edo hobetu beharreko arloak identifikatzeko.
- Ikasleen errendimenduaren eta ikaskuntzaren inguruaren luzetarako konparazio bat egiteko.

Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalaren (INEE) bidez bideratzen du Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak PISA azterlanean Espainiak duen parte-hartzea. Gaur egun, munduan ez dago hezkuntza sistemen artean konparazioa egiteko nazioarteko ebaluazio handinahikoagorik hiru urteko laginen bidez egiten den azterlan hau baino.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren barruan, Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzuko Ebaluazio eta Kalitate Atalaren egitekoa da 2018ko PISAn parte hartzearekin zerikusia duten ekintza guztiak koordinatzea.

Autonomia Erkidegoek derrigorrez hartu behar dute parte estatuko laginean (4 edo 5 ikastetxe autonomia erkidegoko), eta erabakitzen ahal dute lagina hedatu eta beren laginarekin ere parte hartzea (lehen aipatutako ikastetxeei beste 48 edo 49 gehituz autonomia erkidego bakoitzean). Izan ere, azterlan horrek hezkuntza sistemaren emaitza eta ezaugarri zehatzak nazioartekoa eta konparatiboa den ikuspegi batetik ezagutzeko aukera ematen du, eta oso baliagarria izaten ahal da hobekuntza-neurriak hartzeko garaian. 2015ko PISAz geroztik, autonomia erkidego guztiek hedatzen dute haien lagina; Nafarroak, 2006az geroztik.

**2018ko PISAren ezaugarriak**

- Ebaluaturiko gaitasunak

Hezkuntza ebaluatzeko lagin-azterlan honek hiru ardatz nagusi ditu: irakurmena, matematika eta zientziak; baina hiru horietako batek izan ohi du garrantzia handiena edizio bakoitzean. Hala, 2000n irakurmena izan zen garrantzia handienekoa, 2003an matematika, 2006an zientziak, 2009an irakurmena, 2012an matematika, 2015ean zientziak eta 2018an euskarri digitalen bidezko irakurmena. Ondorioz, esaten ahal da gaitasun horietako bakoitza bederatzi urtean behin erabat ebaluatzen dela.

Gainera, 2012ko PISAz geroztik gaitasun berritzaile bat ere aztertzen da, hala nola, arazoei elkarlanaren bidez aurre egitea, finantza-gaitasuna edo, 2018ko PISAn, gaitasun globala. Gaitasun globalak neurtzen du ea ikaslea gai den, lehenik, afera global eta kultur artekoak aztertu eta ikuspegi desberdinak aintzat hartzeko eta, gero, guztien ona eta garapen iraunkorra oinarri duten ekintzei ekiteko. Ikastetxe nafar guztiek hartuko dute parte gaitasun globalean.

Estatu-mailako proban, edizio bakoitzean egungo gizartean garrantzia duen beste alor bat lantzen da, eta 2018ko PISAn finantza-gaitasuna izan da. Estatuko laginaren parte ziren ikastetxe nafarrek horretan ere hartu dute parte.

- Ebaluazio tresnak

2015eko PISAz geroztik, zuzendariei eta ikasleei eginiko testuinguru-probak eta -galdetegiak ordenagailuz egiten dira.

Proba kognitiboak hainbat ebaluazio-unitatetan banatzen dira eta, gero, ebaluazio-unitateak ausaz banantzen dira. Unitate horietako bakoitzak ebaluatu beharreko gaitasun bat du ardatz.

Gainera, testuinguru-galdetegiak ere banantzen dira (ikasleei, zuzendariari eta irakasleei) parte hartzen duten ikastetxe guztietan. PISAren edizio honetan ez da familiekin testuinguru-galdetegirik egin.

- Probaren hizkuntza

PISAren irizpidea da irakas-hizkuntzan egitea probak, eta beraz, A/G ereduetako ikastetxeetako ikasleek probak gaztelaniaz eginen dituzte, eta B/D eredukoek euskaraz. Probak bi hizkuntzetan egiten dira eta tokiko joerak eta kultur joerak kontuan hartzen dira.

- Ikastetxeen laginketa

Nazioarteko PISA partzuergoak ikastetxeak hautatzen ditu eta horien zerrenda jakinarazten du.

Ikastetxe-laginketaren ezaugarriak:

- Ausazkoa eta sistematikoa, probabilitatea 2002an jaiotako ikasle-kopuruarekiko proportzionala da.

- Ikastetxean titulartasunaren arabera geruzatzen dira (publikoak/itunduak).
- Ikastetxe txikien gainlagintzea, haien ordezkaritza bermatzeko.
- Ez da geruzatu hizkuntza-ereduaren arabera.

**267. taula: 2018ko PISAn parte hartu duten ikastetxeak eta hizkuntza-ereduak. Laburpena**

| Ikastetxe, kop. | | Ereduak | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | | A/G eta B/D ereduak | A/G eredua | B/D eredua | |
| Titularitatea | Itunduak | 0 | 19 | 2 | 21 |
| | Publikoak | 9 | 19 | 4 | 32 |
| Guztira | | 9 | 38 | 6 | 53 |

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

**51.eranskina**

- Ikasleen laginketa

Ikastetxe bakoitzean 53 ikasle hautatzen dira gehienez (estatuko lagineko ikastetxeak) edo 42 ikasle (lagina hedatzen duten ikastetxeak), eta bete beharreko baldintza bakarra 2002an jaio izana da. Ikastetxe horretan erreferentzia-urtean jaiotako pertsona kopurua ez bada adierazitako kopurura heltzen, ikasle guztiek eginen dute proba (2018ko PISAn 5 ikastetxe egon dira egoera horretan Nafarroan).

Nafarroan 2.200 ikasle inguruk hartu dute parte 2018ko PISAn.

Ikasleen laginketaren ezaugarriak:

- Ausazkoa eta generoaren arabera geruzatua.
- Ez du kontuan hartzen zer ikasturtetan dauden eskolatuta, baina parte hartzen duten ikasleak DBHko 1. mailan egon beharko dute gutxienez eta gehienak DBHko 4. mailan egonen dira (gutxi gorabehera %75); hortaz, PISA ez da DBHko 4. mailako ebaluazio bat.
- Ikastetxe mistoetan (A/G eta B/D ereduak dituztenak) ez da hizkuntza-ereduen arabera geruzatu.

### 2018ko PISA nola aplikatu den Nafarroan

Prozesua oso konplexua da ikuspuntu teknikotik begiratuta eta, horregatik, egin beharreko lan guztiak hezkuntza administrazioetatik kanpoko enpresek burutzen dituzte. Gainera, emaitzen erkaketa fidagarria dela bermatzeko, esleipendun enpresa berak egin du lan hori autonomia erkidego guztietan. Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak (INEE) hautatu duen enpresa esleipenduna TYPSA, Estadística y Servicios S.L., (TEySt) da.

Ikastetxeetan ebaluazioa egiteko erabateko kanpo-aplikazioa baliatzen da. Egun bakarrean egiten dira probak, eskola-orduetan eta, Nafarroan, 2018ko apirilaren 16tik maiatzaren 11ra bitartean egin dira. Hautatutako ikasleek 9.30 eta 13.30 bitartean egin zituzten probak eta galdetegiak ikastetxe guztietan.

2018ko PISAn estatuko laginean parte hartu duten 4 ikastetxe nafarretan honako gaitasun hauek ebaluatu dira:

- Irakurmena, matematika eta zientziak.
- Gaitasun globala.
- Finantza-gaitasuna.

2018ko PISAn lagina hedatuta parte hartu duten 49 ikastetxe nafarretan honako gaitasun hauek ebaluatu dira:

- Irakurmena, matematika eta zientziak.
- Gaitasun globala.

**2018ko PISAren emaitzak**

Ebaluazio honen emaitza orokorra aldi berean argitaratuko da parte hartu duten herrialde guztietan, 2019ko bukaera aldera. Aldi berean, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio eta Kalitate Atalak Nafarroako emaitzei buruzko atariko txosten bat argitaratuko du. Eta 2020an, laginean parte hartu duten ikastetxeek beren ikasle ebaluatuen gaineko informazioa ezagutuko dute.

## *5.4. Hezkuntza-sistemaren emaitza konparatiboak*

Kapitulu hau bukatzeko, hezkuntza-sisteman bereziki garrantzitsuak diren zenbait elementu konparatibo eskainiko ditugu, aurreko txostenetan egin izan den moduan.

- ***Egokitasun-tasa***

Egokitasun-tasak adierazten du zenbat ikaslek egiten duten aurrera erritmo egokian derrigorrezko eskolatze-aldian, adinaren arabera egokitzen zaien maila eginez.

Egokitasun-tasek behera egiten dute ikasleak adinean gora doazen heinean. Espainian, 2016-2017 ikasturtean 10 urteko haurren artean egokitasun-tasa %89,7koa da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion adinei erreparatuz gero, 12 urteko ikasleen %85,7 etapa horretako 1. mailan zegoen; 14 urtekoen %74,4 3. mailan; eta 15 urtekoen %68,6 4. mailan.

Autonomia erkidegoei begiratzen badiegu, 12 urtekoen egokitasun-tasak (teorikoki Lehen Hezkuntza bukatuta beharko lukete) altuagoak dira Katalunian (%92,5), EAEn (%87,7) eta Asturiasen (%87,2). 15 urterekin (teorikoki DBHko laugarren eta azken mailan beharko lukete) egoera oso antzekoa da: altuenak Katalunian (%79,2), EAEn (%76,2), Nafarroan (%73,5), Kantabrian (%71,6) eta Asturiasen (%71,5) daude.

**268. taula: Egokitasun-tasa 10, 12, 14, eta 15 urteko ikasleetan. Espainia eta Nafarroa. 2016-17**

| | < 10 urte | 12 urte | 14 urte | 15 urte |
|---|---|---|---|---|
| Guztira | 89,7 | 85,7 | 74,4 | 68,6 |
| Nafarroa | 88,6 | 86,5 | 78,7 | 73,5 |

*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**213. grafikoa: Egokitasun-tasa 10, 12, 14, eta 15 urteko ikasleetan, autonomia erkidegoaren eta hiri autonomo bakoitzean. 2016-17**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

52.eranskina

- ***Errepikapen-tasa***

Derrigorrezko irakaskuntzan maila errepikatzen duten ikasleen ehunekoa adierazten du errepikapen-tasak. 15 urtekoen artean errepikapenen ehunekorik txikienetakoa duten erkidegoa da Nafarroa.

Espainian emakumeek gizonek baino gutxiago errepikatzen dute derrigorrezko irakaskuntza osoan, eta bestalde, DBHko tasak lehen hezkuntzakoak baino nabarmen handiagoak dira. Lehen Hezkuntzan gertatzen den bezala, DBHn gizonezkoen errepikapenaren ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa da ia autonomia-erkidego eta maila guztietan.

2016-2017 ikasturtean, derrigorrezko irakaskuntzan errepikatzen duten ikasleen ehunekorik handiena DBHko 1. mailan zegoen. Titulartasun publikoko ikastetxeetan ikastetxe pribatuetan baino errepikapen-ehuneko handiagoa dago, eta fenomeno hori nabarmenagoa da DBHn.

**214. grafikoa: Lehen Hezkuntzan errepikatu duten ikasleen ehunekoa, sexuaren eta titulartasunaren arabera. 2016-17**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**53.eranskina**

**215. grafikoa: Errepikatu duten ikasleen ehunekoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, sexuaren eta titulartasunaren arabera. 2016-17**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**54.eranskina**

Lehen Hezkuntzan, joera bera dago autonomia erkidego gehienetan: lehen bi ikasturteetan dago errepikatzen duten ikasleen ehunekorik handiena. Ia erkidego guztietan eta ziklo guztietan, gizonen errepikapenen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da.

Autonomia erkidegoaren arabera, Lehen Hezkuntzan, 2009-2017 aldian ikusten ahal da errepikapenen ehunekoak txikitu egin direla erkidego gehienetan, bereziki 4. eta 6. mailetan.

DBHn, ia autonomia erkidego guztietan, errepikapen-tasa handienak 1. eta 3. mailetan daude. Lehen Hezkuntzan gertatzen den bezala, DBHn gizonezkoen errepikapenaren ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa da ia autonomia-erkidego eta maila guztietan.

Nafarroako ehunekoak Estatukoen batez bestekoak baino txikiagoak diraEn lo que se refiere a Navarra los porcentajes son inferiores a la media estatal.

**269. taula: Errepikatu duten ikasleen ehunekoa Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Espainia eta Nafarroa. 2016-2017**

| | Lehen Hezkuntza | | | | | | | | | Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2. maila | | | 4. maila | | | 2. maila | | | 4. maila | | | 2. maila | | | 4. maila | | | 2. maila | | |
| | Guztira | Gizonak | Guztira | Gizonak | Guztira | Gizonak | Guztira | Gizonak | Guztira | Gizonak | Guztira | Gizonak | Guztira | Gizonak | Guztira | Gizonak | Guztira | Gizonak | Guztira | Gizonak | Guztira |
| Guztira | 3,1 | 3,5 | 2,7 | 2,3 | 2,6 | 2,0 | 2,7 | 3,1 | 2,2 | 9,8 | 11,7 | 7,6 | 8,0 | 9,2 | 6,7 | 9,9 | 11,3 | 8,5 | 6,9 | 8,4 | 5,3 |
| Nafarroa | 3,2 | 3,2 | 3,1 | 1,8 | 1,7 | 1,8 | 2,0 | 2,5 | 1,6 | 7,6 | 9,3 | 5,7 | 6,4 | 7,2 | 5,5 | 8,3 | 9,5 | 7,1 | 6,6 | 7,8 | 5,5 |

*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**54.eranskina**

- ***Eskola-uzte goiztiarraren tasa***

Eskola-uzte goiztiarraren tasa honela zehazten da: hezkuntza goiz utzi duten 18 eta 24 urte arteko pertsonen ehunekoa; hau da, adin horretan gehienez derrigorrezko hezkuntza duten pertsonen ehunekoa.

Eskola-uzte goiztiarraren tasa oinarrizko adierazlea da; horregatik, 2020rako %10 jaistea planteatu da Europar Batasunean. Europar Batasuneko egungo batez bestekoa %10,6 da; emakumezkoena %9 eta gizonezkoena %12,1. Espainiakoa da, Maltakoarekin eta Errumaniakoarekin batera, batez bestekorik handienak (%18); txikienak berriz, %6tik beherakoak, Kroazia, Eslovenia, Lituania eta Poloniakoak dira.

**216. grafikoa: Hezkuntza eta prestakuntza goiz utzi duten 18 eta 24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeetan. 2017**




*Iturria: Eurostat*

55.erans kina

Espainian, 18-24 urte bitarteko herritarren eskola-uzte goiztiarraren tasa %21,8koa da gizonezkoetan eta %14,5ekoa emakumezkoetan. Autonomia erkidegoen artean, Balear Uharteak (%26,5), Andaluzia (%23,5) eta Murtzia (%23,5) dira tasa handienak dituztenak. Ehuneko txikienak, aldiz, EAEkoa (%7), Kantabriakoa (%8,9) eta Nafarroakoa (%11,3) dira.

**270. taula: Hezkuntza eta prestakuntza goiz utzi duten 18tik 24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2017**

| | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Guztira | 18,3 | 21,8 | 14,5 |
| Nafarroa | 11,3 | 14,1 | 8,3 |

*Iturria: Hezkuntzako Ministerioaren Estatistikak*

**217. grafikoa: Espainian hezkuntza eta prestakuntza goiz utzi duten 18tik 24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera. 2017**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren estatistikak*

**56.eranskina**

- ***DBHko graduatze-tasa***

Nazioarteko hezkuntza-adierazle garrantzitsuenetako bat Bigarren Hezkuntzako 2. etapa zenbat pertsonak gainditzen duten adierazten duena da. Hala, 20 eta 24 urte bitarteko EBko gazteen artean ehunekoa %85,9koa da emakumeetan eta %80,9koa gizonetan. Kroazia eta Irlanda haien balio altuengatik nabarmentzen dira. Espainia, berriz, konparatiboki oso maila baxuan dago: emakumeetan %77,2koa da tasa eta %66,4koa gizonezkoetan.

**218. grafikoa: 18 eta 24 urte bitarteko biztanleen artean gutxienez DBHko 2. etapa bukatu dutenak, EBn. 2017**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

57.eranskina

Bestalde, DBHko graduatze-tasa gordina honela zehazten da: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gradua lortu duten pertsonen kopurua, adina edozein dela ere, hezkuntza-maila horren azken ikasmailari ekiteko «adin teorikoa» duen biztanleriaren aldean.

2015-2016 ikasturtean, DBHko graduatze-tasa gordina %80tik gorakoa zuten autonomia erkidegoak hauek ziren: Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon, Katalunia, Galizia, Madril, Nafarroa eta EAE. Nafarroan graduatze-tasa %83,8koa da.

**271. taula: DBHko graduatze-tasa gordina, sexuaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2015-2016**

| | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Espainia | 79,3 | 74,3 | 84,7 |
| Nafarroa | 83,8 | 80,6 | 87,1 |

*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren estatistikak*

**219. grafikoa: DBHko graduatze-tasa gordina, autonomia erkidego eta hiri autonomo bakoitzean. 2015-2016**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren estatistikak*

58.eranskina

Derrigorrezko eskolatzea arrakastaz osatzeari dagokionez, emakumezkoak gehiago dira gizonezkoak baino, oraindik ere.

Datu horiek agerian uzten dute beharrezkoa dela gizonezkoen graduatze-tasa hobetzeko politikak martxan jartzea, gaur egun eskola-porrotak duen profila maskulinoa da eta.

Bestalde, ikusten da bilakaera geldo baina positiboa gertatu dela tasa horretan azken ikasturteetan.

**220. grafikoa: DBHn gradua erdiesten duen biztanleria-tasa gordinaren bilakaera. Espainia**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren estatistikak*

59.eranskina

- ***Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako graduatze-tasa***

Bigarren hezkuntzako bigarren etapako graduatze-tasa gordina honela zehazten da: bigarren hezkuntzako bigarren etapako ikasketetan gradua lortu duten pertsonen kopurua, hezkuntza-maila horren azken ikasmailari ekiteko «adin teorikoa» duen biztanleriaren aldean.

Adierazle horrek bi irakaskuntza mota hartzen ditu kontuan: Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa, batxiler eta teknikari tituluak ematen dituztenak, hurrenez hurren. Bi ikasketa horiek bukatzeko adin teorikoa 18 urtekoa da.

Nafarroako Batxilergoko graduatze-tasa (%58,3) autonomia erkidegoen multzoko batez bestekoa (%57,4) baino altuagoa da. Tasa altuenak EAEkoa (%71,1) eta Asturiasekoa (%66,9) dira.

Nafarroako Lanbide Heziketako graduatze-tasa (%22) Espainiako batez bestekoa baino baxuagoa da (%24,7). Tasa altuenak Kantabrian (%35,4) eta Asturiasen (%31,9) daude.

**272. taula: Bigarren Hezkuntzako bigarren etapan (Batxilergoan eta Erdi Mailako Lanbide Heziketan) titulua lortzen dutenen tasa gordina, autonomia erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2015-2016**

| | Batxilergoa | | | | Teknikoa | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Gizonak | Emakumeak | Aldea | Guztira | Gizonak | Emakumeak | Aldea |
| Espainia | 57,4 | 50,4 | 65,0 | 14,6 | 24,7 | 25,6 | 23,8 | 1,8 |
| Nafarroa | 58,3 | 50,9 | 66,0 | 15,1 | 22,0 | 25,0 | 18,9 | 6,1 |

*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

Autonomia erkidegoetan, batxilergo-gradua lortzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea %14,6koa da (emakumezkoen %65ek lortzen dute gradua, eta gizonezkoen %50,4k). Nafarroan, aldea apur bat handiagoa da (%15,1).

Lanbide Heziketako Erdi Mailako ikasketei dagokienez, datu orokorrek %1,8ko alde txiki bat erakusten duten gizonen alde. Nafarroan gizonen aldeko alde hori %6,1ekoa da (gizonen %25ek eta emakumeen %18,9k lortzen dituzte erdi mailako tituluak).

**221. grafikoa: Bigarren Hezkuntzako bigarren etapan (Batxilergoan eta Erdi Mailako Lanbide Heziketan) graduatzen direnen tasa gordina, autonomia erkidego eta hiri autonomo bakoitzean, eta sexuaren arabera. 2015-2016**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*

**60.erans kina**

- ***30-34 adin tartean goi mailako hezkuntza dutenak***

Arestian aurkeztutako fenomenoen ondorioetako bat lan-mundura sartu den herritar-talde gazteenak duen goi mailako hezkuntza-maila da.

Nafarroan adin horretako gazteen %52,1ek du goi mailako titulu bat, goi mailako Lanbide Heziketako titulu bat, diplomatura bat, lizentziatura bat edo gradu bat. Ehuneko hori estatuko batez bestekoa baino altuagoa da. Nabarmentzekoa da adin tarteko horretan aipatutako mailako titulu bat duten emakume nafarren ehunekoa, eta autonomia erkidegoen multzoko batez bestekoan gizonezkoen eta emakumezkoen ehunekoen artean dagoen aldea.

**273. taula: Goi mailako hezkuntza duten 30 eta 34 urte arteko biztanleen ehunekoa, autonomia erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2017**

| | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Espainia | 42,6 | 36,5 | 48,8 |
| Nafarroa | 52,1 | 50,6 | 53,6 |

*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren estatistikak*

**222. grafikoa: Goi mailako hezkuntza duten 30 eta 34 urte arteko biztanleen ehunekoa, autonomia erkidego eta hiri autonomo bakoitzean, eta sexuaren arabera. 2017**




*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren estatistikak*

61.eranskina

## 5.5. Aipamenak eta sari bereziak

### Lanbide Heziketa eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketak

Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako ikasketei eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketei dagozkien sari bereziak arautzen ditu Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 4ko 29/2013 Foru Aginduak. 2016-2017 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa zikloa eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketak bukatu zituzten ikasleentzako sarien deialdia egin da 2017-2018 ikasturtean, Lanbide Hezkuntzako zuzendari orokorraren otsailaren 5eko 22/2018 eta 23/2018 Ebazpenen bidez, hurrenez hurren.

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren apirilaren 24ko 183/2018 Ebazpenaren bidez, Nafarroan heziketa-zikloa 2016-2017 ikasturtean bukatu zuten ikasleei hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako sari bereziak eman zaizkie.

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren apirilaren 24ko 184/2018 Ebazpenaren bidez, Nafarroan heziketa-zikloa 2016-2017 ikasturtean bukatu zuten ikasleei Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketen sari bereziak eman zaizkie.

- ***Lanbide Heziketako erdi mailako heziketa zikloak***

Bederatzi sari esleitu zitzaizkien ondoko ikasleei:

- Sevil Rosenova Kehayova, administrazio-kudeaketako teknikaria, “Administrazioa eta Kudeaketa" lanbide-arlokoa, Iruñeko Mª Ana Sanz IIko ikaslea.
- Miriam Cazador Pérez, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpeneko teknikaria, "Nekazaritza" lanbide-arlokoa, Iruñeko Nekazaritza eta Basogintzako IIko ikaslea.
- Adrián Martínez de Souza, instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria,"Elektrizitatea eta Elektronika" lanbide-arlokoa, Iruñeko San Juan-Donibane IIko ikaslea.
- Hamid Barkaoui, soldadura eta galdaragintzako teknikaria, "Fabrikazio mekanikoa" lanbide-arlokoa, Iruñeko Virgen del Camino IIPko ikaslea.
- Cristina Medina Vidal, sukaldaritza eta gastronomiako teknikaria, "Ostalaritza eta Turismoa" lanbide-arlokoa, Burlatako Burlada FP IIko ikaslea.
- Jessina Viviana Rivera Guaman, ile-apainketako eta ilearen kosmetikako teknikaria, "Irudi pertsonala" lanbide-arlokoa, Burlatako Burlada FP IIko ikaslea.
- Roberto Soriano Marco, sistema mikroinformatikoetako eta sareetako teknikaria, "Informatika eta Komunikazioak" lanbide-arlokoa, Tuterako ETI IPPko ikaslea.
- Virginia Luzuriaga Iracheta, farmazia eta parafarmaziako teknikaria, "Osasuna" lanbide-arlokoa, Iruñeko "María Inmaculada" LHIPko ikaslea.
- Ana Montávez Pastrana, mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta egiteko teknikaria, "Gizarte- eta Kultur-zerbitzuak eta Komunitatearentzako Zerbitzuak" lanbide-arlokoa, Iruñeko María Inmaculada FP Ikastetxe Pribatuko ikaslea.

- ***Lanbide Heziketako goi mailako heziketa-zikloak***

12 sari esleitu zitzaizkien ondoko ikasleei:

- Ainhoa Bailo Jiménez, administrazioko eta finantzetako teknikaria, "Administrazioa eta kudeaketa" lanbide-arlokoa, Tuterako "ETI" IIPko ikaslea.
- Pello Sarratea Sanzberro, abeltzaintzako eta abere-osasunean laguntzeko teknikaria, "Nekazaritza" lanbide-arlokoa, Iruñeko "Nekazaritza eta Basogintzako" IIko ikaslea.
- Idoia Martín González, nazioarteko merkataritzako teknikaria, "Merkataritza eta Marketina" lanbide-arlokoa, Iruñeko Cuatrovientos II pribatuko ikaslea.
- Sandra Lafoz Polo, eraikuntza proiektuetako teknikaria, "Eraikuntza eta Obra zibilak" lanbide-arlokoa, Iruñeko "Virgen del Camino" IIPko ikaslea.
- Imanol Jesús García de Eulate Murugarren, energia berriztagarrietako teknikaria, "Energia eta Ura" lanbide-arlokoa, Iruñeko Energia Berriztagarrien goi mailako IIko ikaslea.
- Enrique Cestau Zubiri, metal-eraikuntzetako teknikaria, "Fabrikazio mekanikoa" lanbide-arlokoa, Iruñeko Virgen del Camino IIPko ikaslea.
- Mikel Ros León, plataforma anitzeko aplikazioen garapeneko teknikaria, "Informatika eta Komunikazioak" lanbide-arlokoa, Iruñeko Cuatrovientos II pribatuko ikaslea.
- Jone Jáuregui Arozarena, laneko arriskuen prebentzioko teknikaria, "Instalazioa eta Mantentze-lanak" lanbide arlokoa, Iruñeko ESTNA-Nafarroako Osasun Arloko Lanbide Eskola teknikoko ikaslea.
- Rafael Amigot Sánchez, analisien eta kalitate-kontrolaren laborategiko teknikaria, "Kimika" lanbide-arlokoa, Iruñeko Donapea IIPko ikaslea.
- Nerea Arrastia Fernández, aho-hortzetako higieneko teknikaria, "Osasuna" lanbide-arlokoa, Iruñeko ESTA-Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa IIko ikaslea.
- Alaitz Olazábal Mutuberria, Haur Hezkuntzako teknikaria, "Gizarte eta Kultur Zerbitzuak" lanbide-arlokoa, Iruñeko "Hezitzaile Eskola" BHIko ikaslea.
- Daniel Martín Martínez, automozioko teknikaria, "Ibilgailuen Garraioa eta Mantentze-lanak" lanbide-arlokoa, Iruñeko "Donapea" IIPko ikaslea.

- ***Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketen goi mailako heziketa-zikloak***

Sari bat esleitu zitzaion ondoko ikasleari:

- Bernardo Alfredo Salinas Garrido, liburuari aplikatutako arteetako teknikaria, "Grabatuak eta Estanpazio-teknikak"· lanbide-arlokoa, Iruñeko Arte Eskolako ikaslea.

**Batxilergoko sari bereziak**

Hezkuntza Ministerioaren uztailaren 13ko 2058/2010 Aginduaren bitartez Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Batxilergoko Sari Nazionalak arautu ziren eta hartan ezartzen da haietan lehiatzen ahal direla ikasketa horiek bukatu dituzten eta Hezkuntza Administrazioaren esparruan Batxilergoko Sari Berezia lortu duten ikasleak. Horregatik, Hezkuntza Departamentuak urtero deitzen ditu Batxilergoko Sari Bereziak. Batxilergoko bi ikasturteetan batez besteko nota 8,75 puntu edo gehiagokoa lortu duten Foru komunitateko ikasleei zuzenduta dago.

Aipatutako aginduko 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskumena duten hezkuntza-administrazioek Batxilergoko sari berezi bat ematen ahal dute mila matrikulako edo bostehundik gorako zatikiko, deialdia egiten den ikasturtean, Batxilergoko 2. mailan. Hala, Foru Komunitateak lau sari berezi ematen ahal ditu, gehienez ere.

2017-2018 ikasturteko deialdian (1102/2018 Ebazpena) 31 ikastetxe publiko eta itundutako 81 ikasle lehiatu dira. Deialdian ezarritako azterketak egin ondoren, 2017-2018 ikasturtean Batxilergoko sari berezia lortu dutenak honakoak dira, 357/2018 Ebazpenaren arabera:

- Daniel Sotelo Aguirre, Iruñeko Santa María la Real ikastetxekoa.
- Celia Carrasco Gil, Tuterako Benjamín de Tudela BHIkoa.
- Ander Aranguren Iriarte, Iruñeko Eunate BHIkoa.
- Aitor Rubio Aguerri, Iruñeko Navarro Villoslada"BHIkoa.

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako sari bereziak**

Hezkuntza Ministerioaren uztailaren 29ko ECD/1611/2015 Aginduan (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Arteko lanbide-ikasketetako ikasleek Musika, Dantza eta Arte Plastikoak eta Diseinuak arloetan duten errendimendu akademikoren sari nazionalak sortzen eta arautzen dituena) ezarritakoari jarraikiz, eta abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuan ezarritakoaren babesean, Hezkuntza Departamentuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako sari bereziak iragartzen ahal ditu Nafarroako Foru Komunitatean, ikasketa horiek bukatu dituzten ikasleentzat.

397/2018 Ebazpenaren bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako sari berezien deialdia egin da, DBHko ikasketak Nafarroan eta 2017-2018 ikasturtean bukatu dituzten ikasleentzat.

Uneotan, deialdia garapen-fasean dago. Probak urriaren 3an eginen dira, Iruñeko Basoko BHIan.

2017-2018 ikasturteko sarituen izenak hauek dira:

- Christian Gil Olsen, Iruñeko Miravalles-El Redín ikastetxe pribatuko ikaslea
- Yago Aguado Carrillo de Albornoz, Burlatako Irabia-Izaga ikastetxe pribatuko ikaslea
- David Esparza Sainz, Iruñeko San Cernin ikastetxe pribatuko ikaslea

**Olinpiadak**

"Olinpiadak" ikasleen interesa pizteko hezkuntza-proposamenak dira. Batxilergoko hainbat diziplina akademikotan deitzen dira, eta horietan, ezagutza, aplikazioa eta asmamena proba lehiakorren bidez neurtzen dira.

Nafarroan, gehienbat unibertsitateek antolatzen eta sustatzen dituzte (NUP eta NU), unibertsitatearen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeen arteko harremanak hobetzearren. Dena den, kimikakoak Colegio de Químicos de Aragón y Navarra elkargoak antolatzen ditu. Bestalde, TORNAMIRA Matematikako Irakasleen Elkarteak DBHko ikasleentzako Matematika Olinpiada antolatzen du eta Ikasketa Klasikoen Espainiako Elkarteak hartzen du Mundu Klasikoari buruzkoak antolatzeko ardura.

Hezkuntza Departamentuak olinpiada horien guztien garapena babestu eta hedatzen du eta, orobat, sariak emateko ekitaldi instituzionala antolatzen du. Hala, ekitaldi instituzional honek biltzen ditu hezkuntzako agintariak eta Batxilergoko espezialitate bakoitzean hoberenak direla erakutsi duten ikasleak, haien senitartekoak, irakasleak, unibertsitateetako eta entitate antolatzaileetako ordezkariak eta agintariak. El Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan egin da ekitaldia.

- ***Fisikako Olinpiada***
  - Javier Innerarity Imízcoz, Iruñeko San Ignacio Ikastetxekoa.
  - Pablo Aparicio González, Burlatako Irabia-Izaga Ikastetxekoa.
  - Daniel Sotelo Aguirre, Sarrigurengo Santa María la Real ikastetxekoa.

- ***Matematikako Olinpiada***
  - Alejandro Basilio Galván Pérez-Ilzarbe, Iruñeko Basoko BHIkoa.
  - Odei Tarragona Rebollo, Iruñeko Calasanz ikastetxekoa.
  - Javier Innerarity Imízcoz, Iruñeko San Ignacio Ikastetxekoa.

- ***Biologiako Olinpiada***
  - Alejandro Basilio Galván Pérez-Ilzarbe, Iruñeko Basoko BHIkoa.
  - Isabel Domínguez Eraso Tafallako Sancho III el Mayor BHIkoa.
  - Pablo Díaz Pabón, Iruñeko Monjardín Lizeokoa.

- ***Kimikako Olinpiada***
  - Aitor Rubio Aguerri, Iruñeko Navarro Villoslada BHIkoa.
  - Maite Níñez Suberviola, Iruñeko Plaza de la Cruz BHIkoa.
  - Clara Ruiz Ullate, Iruñeko San Cernin Ikastetxekoa.

- ***Geografiako Olinpiada***
  - Jairo Císcar Ruiz, Iruñeko Plaza de la Cruz BHIkoa.
  - Leire Guillén Fernández-Micheltorena, Iruñeko Monjardín Lizeokoa.
  - María Odériz Sánchez, Iruñeko Santa Teresa de Jesús Ikastetxekoa.

- ***Filosofiako Olinpiada***
  - María del Castillo Munárriz, Iruñeko San Cernin Ikastetxekoa.
  - Javier Ochoa Espinosa, Iruñeko Navarro Villoslada BHIkoa.
  - Amaia Vizmanos Larráyoz, Iruñeko Sagrado Corazón Ikastetxekoa.

- ***Matematikako Olinpiada (DBH):***
  - Pablo Asiáin Monreal, Iruñeko Plaza de la Cruz BHIkoa.
  - Andrea Urdánoz Martínez, Iruñeko Monjardín Lizeokoa.
  - Alejandro Monroy Ostívar, Azkoiengo Ribera del Arga BHIkoa.

- ***Mundo Klasikoari buruzko Olinpiada***

  **Latineko itzulpenen lehiaketa**

  - Celia Carrasco Gil, Tuterako Benjamín de Tudela BHIkoa.

**Grezierako itzulpenen lehiaketa**

- o Ex-aequo, Hurgo Oroz Ruiz de la Cuesta, Iruñeko Plaza de la Cruz BHIkoa eta Alejandro Monroy Ostívar, Azkoiengo Ribera del Arga BHIkoa.

Proba horietan erkidego-mailan irabazle izan diren guztiak azken fasera igaroko dira, Espainiako hainbat hiritan urtero jokatzen diren faseeta, hain zuzen.